

# ERRENTERIAKO ERAIKUNTZA HISTORIKOAK

UDALETXEA  
MADALENA ERMITA  
MORRONTXO DORREA  
ZUBIAURRE JAUREGIA  
KAPITAIN ETXEA







# ERRENTERIAKO ERAIKUNTZA HISTORIKOAK



UDALETXEA  
MADALENA ERMITA  
MORRONTXO DORREA  
ZUBIAURRE JAUREGIA  
KAPITAIN ETXEA

Errenteriako Udala  
ARGITALPEN ZERBITZUA  
1997

## LAN TALDEA

*Azterketa historikoak:* Pedro Barruso, Miguel Larrañaga, José Ángel Lema

*Arte azterketak:* Iñigo Hidalgo

*Arkitektura azterketak:* Francisco López- Roldán, Judith Ubarrechena

*Argazkiak:* Andrés Cabrera

*Planoen Egilea:* Francisco López Roldán, Javier Cambroner

*Itzultzailea:* Josu Zabaleta

ERRENTERIAKO  
ERAIKUNTZA  
HISTORIKOAK



UDALITXEA  
MADALENA ERMITA  
MORRONTXO DORREA  
ZUBIAGURE JABEGIA  
KAPITAIN ETXEA

- Argitaratzailea: ERRENTERIAKO UDALA

Argitalpen Zerbitzua

© Egileak, artikulu bakoitzeko

Azalaren marrazkia: Xabier Obeso

I.S.B.N.: 84-921394-2-0

L.G.: SS-362/97

Osatze ta inprimatze lanak: Michelena artes gráficas s.l.  
Astigarraga (Gipuzkoa)



## HITZAURREA

*Hirugarren emanaldi honetan, Torrekuari eta Jasokundeko Ama Birjinaren elizari buruz argitaratu direnen ondoren, Hiringitza Sail honek aurrera darrai hasieratik Erretereriako hirigintzako ondare historikoa ezagutarazteko asmoari buru emateko asmoz. Herri honetako hirigune historikoa birgaitzeko plan berezia prestatu eta abiarazteko lanetan du bere zentzua eta ingurumena ekimen honek guztiak. Gure herri ingurunean edozein ekimen abiarazi nahi delarik ere, gure arbasoen ahaleginak utzi duenaren parterik onena gorde eta aldi berean Erretereria bertan bizitzeko herri erosoagoa izan dadin lortzea da hain zuzen ere, honen guztiaren asmoa, era horretara, herri hau gaur egungo gure premietarako hobeto egokituz batera, geratu zaigun aintzatearen lekukotasun guztiak geroz eta hobe izatea nahi genukeen orainaldian doi eta zehatz egokiturik gera daitezen.*

*Oraingo honetan aztertzen ditugun eraikuntza hauek, lehenago argitaratu diren azterketen osagarri direnak hain zuzen, arkitektura zibileko erakusgarriak dira gehienak - Madalena ermitaren salbuespena kendurik-, eta herrigune historikoan*

*daude guztiak, Hirigintza Sail honek aurrikusirik dituen ekimenen xede den aldean hain zuzen. Oraindik aspaldi ez dela -1996ko maiatzaren lehen egunetan- Eusko Jaurlaritzak Dekretu bat eman du Erretereriako hirigune historikoa kultura ondare izendatuz eta Euskal Kulturazko Ondarearen Zentroaren Kulturazko Ondarearen erregistroan sartuz; horren ondorioz zenbait ekimen egokitu beharra izango da, eta hirigintzako politika xede horiekin adostu, artearen, arkitekturaren, historiaren eta kulturaren ikuspegitik berebiziko garrantzia aitortzen zaien zenbait elementu arreta bereziz zaintzeko alegia.*


*Orain aurkezten ari garen liburu honen argitalpena ere testuinguru horretan behar da kokatu, eta helburu horixe du izan ere, era horretara arrazoiz eta zentzuz eraturako Erretereriako hiri bat utzi ahal izango baitiegu gure ondokoei, bertan diren antzinateko aztarrenak gure herritarren harrotasunerako bide eta gure herriaren historia eta kulturazko ondarearen osagarri izango delarik.*

**J. I. Gurrutxaga**

Hirigintza, Azpiegiturak,

Udal Zerbitzuak eta Ingurugiro Batzordeburua





- 0 - ATEAK
- 1 - Itsasokoa
- 2 - Frantziako
- 3 - Nafarroak
- 4 - Arrabalek
- 5 - Donostiak

BARRUTI HARRESITUA ETA ARRABALA - XVIII. MENDEA  
ERRETERIA

- A - Udaletxea
- B - Kapitain Etxea
- C - Morrontxo
- D - Zubiaurre jauregia
- E - Madalena ermita




1. Planoa





AURKIBIDEA

I. AKTUEKETA HISTORIKOA




1

UDALETXEA




1.1. 1808an eta 1807an...	14
1.2. 2008an...	15
1.3. Auzoaren...	16
1.4. Euzko...	17
1.5. Euzko...	18
1.6. Euzko...	19
1.7. Euzko...	20
1.8. Euzko...	21
1.9. Euzko...	22
1.10. Euzko...	23
1.11. Euzko...	24
1.12. Euzko...	25
1.13. Euzko...	26
1.14. Euzko...	27
1.15. Euzko...	28
1.16. Euzko...	29
1.17. Euzko...	30
1.18. Euzko...	31
1.19. Euzko...	32
1.20. Euzko...	33
1.21. Euzko...	34
1.22. Euzko...	35
1.23. Euzko...	36
1.24. Euzko...	37
1.25. Euzko...	38
1.26. Euzko...	39
1.27. Euzko...	40
1.28. Euzko...	41
1.29. Euzko...	42
1.30. Euzko...	43
1.31. Euzko...	44
1.32. Euzko...	45
1.33. Euzko...	46
1.34. Euzko...	47
1.35. Euzko...	48
1.36. Euzko...	49
1.37. Euzko...	50
1.38. Euzko...	51
1.39. Euzko...	52
1.40. Euzko...	53
1.41. Euzko...	54
1.42. Euzko...	55
1.43. Euzko...	56
1.44. Euzko...	57
1.45. Euzko...	58
1.46. Euzko...	59
1.47. Euzko...	60
1.48. Euzko...	61
1.49. Euzko...	62
1.50. Euzko...	63
1.51. Euzko...	64
1.52. Euzko...	65
1.53. Euzko...	66
1.54. Euzko...	67
1.55. Euzko...	68
1.56. Euzko...	69
1.57. Euzko...	70
1.58. Euzko...	71
1.59. Euzko...	72
1.60. Euzko...	73
1.61. Euzko...	74
1.62. Euzko...	75
1.63. Euzko...	76
1.64. Euzko...	77
1.65. Euzko...	78
1.66. Euzko...	79
1.67. Euzko...	80
1.68. Euzko...	81
1.69. Euzko...	82
1.70. Euzko...	83
1.71. Euzko...	84
1.72. Euzko...	85
1.73. Euzko...	86
1.74. Euzko...	87
1.75. Euzko...	88
1.76. Euzko...	89
1.77. Euzko...	90
1.78. Euzko...	91
1.79. Euzko...	92
1.80. Euzko...	93
1.81. Euzko...	94
1.82. Euzko...	95
1.83. Euzko...	96
1.84. Euzko...	97
1.85. Euzko...	98
1.86. Euzko...	99
1.87. Euzko...	100





BARRUTI HARRESITUA ETA ARRABALA - XVIII. MENDEA  
ERRETERIA



A - UDALETXEA

*Basin*  
76

## AURKIBIDEA

I. AZTERKETA HISTORIKOA .....	13
1. Udaletxea eraikitzearen alde z aurretiko garaia .....	14
2. Udaletxea XVII. eta XVIII. mendeetan .....	18
3. XIX. eta XX. mendeko eraldaketak .....	23
3.1. 1866aren eta 1907aren arteko eraldaketak .....	23
3.2. Zabaltze lanak (1925-1949) .....	26
3.3. Azken eraldaketak (1965-1988) .....	28
4. Eranskin dokumentala .....	30
5. Testuan aipaturiko dokumentuen zerrenda .....	32
II. ARTE AZTERKETA .....	41
1. Udaletxeak. Sarrera eta tipologia .....	41
2. Aramburu arkitektoaz .....	42
2.1. Biografia erreferentziak .....	42
2.2. Aramburu eta arkitektoaren zeregin errenazentista .....	44
3. Udaletxea. Elementuak eta arkitektura .....	47
3.1. Oinplantak eta altxaerak .....	47
3.2. Elementuak .....	48
4. Bibliografia .....	51
III. ARKITEKTURA AZTERKETA .....	53
1. Ingurunearen deskribapena eta kokaera .....	53
2. Lursailaren itxura eta ezaugarriak .....	53
3. Eraikinaren kanpo aldeko itxura .....	54
3.1. Fatxada nagusia .....	54
3.2. Alboko fatxada .....	57
3.3. Tarte horma eta etxarteak .....	58
3.4. Estalkia .....	58
4. Barneko aldeko itxura .....	58
5. Ondorioak .....	60
IV. BIBLIOGRAFIA OROKORRA .....	63





## I

## AZTERKETA HISTORIKOA

Errenteriako Udaletxea, gaur egun ezagutzen dugun bezala, jatorrian burutu zen eraikinaren gain eginiko eraldatze eta obra sail baten ondorio da. XVII. mendearen hasieran ekin zioten etxegintza lanari eta edifizio honek izandako azken berrikuntzak mende honen laurogei ondoko hamarraldian egin zituzten.

Ondoren doan azterketa honetan zernolakoa izan den eraikinaren bilakabidea azaltzen saiatuko gara, hasi etxegintzari ekiteko hartu zituzten lehenengo erabakietatik eta egungo egoera iritsi arte izandako urratsak, alegia. Horretarako ibilbide bat egingo dugu denboran zehar, Udal Artxiboan jasota dauden dokumentuetan oinarrituz, –batez ere–, baina baita hainbat argitalpenetan ere, bertako aldizkarietan bereziki, hala nola *Renteria*, *Oarso* eta *Bilduma*, horietatik guztietatik, bestalde, eta eskuratu ahal izateko erraztasuna emanez, behar bezalako aipamena egingo diegu.

Azterketa honetan erabili dugun eskema lau zatitan dago banaturik. Horietako lehenengoan **kontzejua** –edo hiriko Udala– aipatzen da, hala nola, Udaletxea eraiki behar zutela erabaki aurretik, bilkurak egiteko zituzten tokiak azaltzen. Bigarren zatian, XVII. eta XVIII. gizaldietan, eraikuntza egin zuten garaian, alegia, **erabakien eta obren** azterketa hartuko dugu kontutan. Hirugarren atalean XIX. mendean eta XX.ko lehenengo erdian buruturiko **eraldaketak** aztertuko ditugu. Azken partean, eraikinak gaur egun duen itxura lortzeko egin **berrikuntzak** hartuko ditugu gaitzat. Adierazi nahi dugu, azkenik, azterketa historiko hau burutzeko erabili dugun iturburu dokumentalen eta bibliografikoen zerrenda zehatza lan honen ondoan doala erantsita.

## 1. UDALETXEA ERAIKITZEAREN ALDEZ AURRETIKO GARAIA

Erreteriarri buruzko jasota dagoen lehen aipamen dokumentalean<sup>1</sup> –1237ko martxoaren 20an Fernando III.ak egindako berrespenean, alegia–, aipatzen da bazela ordurako kontzeju bat, agiri horretan Erregeak aitona izan zuen Alfonso VIII.ak emaniko foru, usadio eta ohiturak berriro onartzen baitzituen. Hona Gasteizen idatzia dagoen dokumentu honetan, Fernando III.ak ematen duena:

*cartam concessionis, confirmationis et stabilitatis vobis concilio de Huarcon presenti et futuro perpetuo valituram. Concedo itaque vobis et confirmo illos foros, usus seu consuetudines, quos dedit vobis et tenuit illustrissimus auus meus rex Aldefonsus...<sup>2</sup>*

Agiri honetan Oiartzun (Huarcon) izeneko kontzeju (“concilio”) bat badela aipatzen digute. Huarcon horrek ez bide zuen bere agintea gaurko egunean auzokide dugun herriaren gain ezarria, baizik eta Oiartzun ibarra izenez ezaguna zen, eta finkatua zegoen, lurralde unitate baten gain<sup>3</sup>, izan ere, 1397ko urtean Getarian burutu ziren Batzar Nagusien aurretik Gipuzkoako lurraldearen banaketa horrelakoa zen eta data horretatik aurrera, soilki, onartu zuten banaketa udaletxez egitea eta ez ibarren arabera.

Udaletxea egiteari ekin aurretikoaldi honetan, bigarren urrats nagusia 1320ko apirilaren 5ean eman zen. Data horretan, Valladoliden erredaktaturiko agiri baten bidez, Alfonso XI. erregeak *Oyarço* ko<sup>4</sup> bizilagunek egindako eskakizunei baietzá eman zien eta *para que ellos sean mejor poblados e sean mas aguardados de mal e de danno*<sup>5</sup>, honelako adierazpena egin zuen:

*tenemos por bien, e otorgamos e mandamos que fagan poblacion de Villa todos de so uno que es en su termino que a que disen Orereta que pueblen y todos. E*

<sup>1</sup> Dokumentu hau Erreteriarriko Udal Artxibategian (hemendik aurrera EUA) dago jasota, Saila B, Bulego 1, Liburu 1, Espediente 1. Gainera, jarraian doazen argitalpenetan ere azaltzen da, hots: José Luis BANÚS AGUIRREREN El Fuero de San Sebastián titulopean, San Sebastián, 1963; Juan Ignacio GAMÓN: Noticias Históricas de Rentería, San Sebastián, 1930; J. GONZÁLEZ GONZÁLEZ: Reinado y diplomas de Fernando III., III. alea, Córdoba, 1986, dokumentua 597, orrialdeak 124-126; José Antonio MUNTA LOINAZ “El original más antiguo del Archivo Municipal de Rentería. El privilegio rodado de Fernando III al concejo de Oyarzun” *Bilduma* aldizkarian, lehenengo zenbakia, orrialdeak 67 eta hurrengoak.; M. A. CRESPO RICO-José Ramón CRUZ MUNDET-José Manuel GÓMEZ LAGO: Colección Documental del Archivo Municipal de Rentería, lehenengo tomoa (Fuentes documentales medievales del País Vasco, 32. zenbakia), San Sebastián, 1991, orrialdeak 1-2; Gonzalo MARTÍNEZ DÍEZ-Emiliano GONZÁLEZ DÍEZ-Félix J. MARTÍNEZ LLORENTE: Colección de Documentos Medievales de las Villas guipuzcoanas (1200-1369), San Sebastián, 1991, orrialdeak 24-25.

<sup>2</sup> Cfr. M.A.CRESPO RICO- J.R. CRUZ MUNDET- J.M. GÓMEZ LAGO: Op. cit. 1. orr.

<sup>3</sup> Gipuzkoako “ibarren” sailkapena ibar geografikoeekin bat ez datorren kasutarako, ikus Elena BARRENA : *La formación histórica de Guipúzcoa. Transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval.* (Cuadernos Universitarios Mundaiz, 5. zbk.), 1989.

<sup>4</sup> M.CRESPO RICO- J.R. CRUZ MUNDET- J.M. GÓMEZ LAGO: Op. cit. 5. orr.

<sup>5</sup> “toki horiek populazioz hobeto osa daitezzen eta kaltetik eta gaitzetik gerizatuagoak izan daitezzen”. Ibidem.



*esta que desta guisa y poblaren mandamos que aya nombre de aqui adelante Villa Nueva de Oyarçõ*<sup>6</sup>

Horrekin batera Donostiako Forua ere eman zien. Une horretatik aurrera hainbat auzi sortzen hasiko dira Oiertzungo herriarekin. Arazo horiek direla medio, ondoren datozen monarkek Alfonso XI.ak emaniko agiria berretsiko dute. Esandakoaren arabera, agiria izenpetu zuen errege berak beste bi alditan egingo du berrespena: 1340ko apirilaren 26ean eta 1343ko irailaren 1ean, alegia; ondoren, honako hauek ere gauza bera egingo dute: Pedro I.ak, 1351ko urriaren 2an; Enrique II.ak, 1371ko irailaren 17an; Enrique III.ak, 1391ko apirilaren 25ean; Juan II.ak, 1429ko abuztuaren 19an eta 1429ko irailaren 3an ere; eta, azkenik, Enrique IV.ak, 1458ko martxoaren 7an<sup>7</sup>.

Mugek sortzen zituzten arazoak alde batera utziz, une honetan interesatzen zaiguna da Villanueva de Oiarson kontzeju bat bazegoela egiaztatzen duen dokumentazioa. Sevillan 1340ko apirilaren 26an, Alfonso XI.k sinaturiko berrespenean, dagoeneko<sup>8</sup> *concejo del dicho lugar de la Villa Nueva d'Oyarçun*-i buruz aipamen zehatza egiten zuten jarraian doan agindua emanez:

*non ayan en la dicha tierra d'Oyarçun nin en otro lugar dese término preboste, ni alcalles, nin otros ofiçiales ningunos salvo en el dicho lugar de la Villa Nueva*<sup>9</sup>

Lehenengo kontzejuari buruz eta biltzarrak egiten zituzten tokiei dagokionez, ez dakigu gauza handirik. Data Erreterian 1364ko urriaren 29an jarri zioteneko dokumentu batean, adierazten dute biltzarrak honela egiten zirela:

*a campana repicada en el çimenteryo de la yglesia de Santa Maria deste mesmo lugar, segund que lo avemos de uso e de costumbre de faser çonçeio*<sup>10</sup>

<sup>6</sup> “ontzat artzen dugu eta baimena eta agindua ematen udalerrria osatzeko populatze tokia egin dezaten, eta Orereta deitzen dioten dermio horretan diren oro batera populatu dezaten, guztiak han bizitzeko. Eta modu honetan populatuko duten herri hori, agintzen dugu Villa Nueva de Oyarçõ izena izan dezala, hemendik aurrera”. Ibidem, 6. orr.

<sup>7</sup> Erreteriarren eta “Oiertzungo lurraldea”-ren arteko eztabaidak etengabeak eta luzeak izan ziren. Gai honi buruz anitzak dirak kontsulta daitezkeen dokumentuak, bai dagoeneko aipatu ditugunen artean, bai eta Gipuzkoako Biltzar Nagusiei buruzko dokumentazioan ere, (LARRAÑAGA ZULUETA, Miguel-LEMA PUEYO, José Angel: *Transcripción de las actas de Juntas, 1453-1521*. Argitaragabea). Gaztelako erregeek, hurrenez hurren emaniko berrespenei buruz, lan hau burutzearren erabili dugun dokumentazioari buruzko atalean azalduko ditugu banan bana, nola artxibategiko erreferentziak, hala argitalpenari dagozkionak ere.

<sup>8</sup> “Villa Nueva d'Oyarçun esandako tokiko kontzejuari.” EUA, B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 7. Espedientea. Pablo GOROSÁBELek argitaratua: *Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa con un apéndice de las cartas pueblas y otros documentos importantes*. Tolosa 1882 eta M.A. CRESPO RICO- J.R. CRUZ MUNDET- J. GÓMEZ LAGO; *Op. Cit.* 10-16. orr. GAMÓNek egindako aipamena: *Op. Cit.* Orrialdeak: 33, 41, 44, 75, 79, 82, 86-87, 100, 104, 116, 125.

<sup>9</sup> “ez dadila egon aipatu Oyarçungo lurrean, ez eta dermio horretako beste inon, prebosterik, ez alkate-rik, ez eta beste edonolako ofizialik, Hiri Berri izeneko tokian izan ezik”. Ibidem. Cfr. CRESPO RICO- CRUZ MUNDET- GÓMEZ LAGO: *Op. Cit.*, 13. orr.

<sup>10</sup> “kanpaiak errepikatu ondoren, leku honetako Santa Maria elizako hilerrian, kontzejua egiteko dugun usadio eta ohituraren arabera”. Cfr. CRESPO RICO- CRUZ MUNDET- GÓMEZ LAGO; *Op. cit.* 23. orr.

Hogei urte geroago, hori bera izango dute kontzejuaren bilkura egiteko ohiz-ko tokia<sup>11</sup>, nahiz eta, kasu honetan, ez den hilerria aipatzen eliza baizik, zehazki azaltzen baitute biltzarra *dentro de la iglesia de Santa María de este mesmo logar...* burutuko dela<sup>12</sup>. Berriro ere, toki honen aipamena 1384ko martxoaren 31an eta 1406ko irailaren 17an azaltzen zaigu.<sup>13</sup>

1409an, Erreterriako eta Murgiako jaurerriarak banatzeko dauden mugarren kokalekua zehazterakoan, bilkura *ante las puertas de la yglesia de Sennora Santa Maria de la dicho Villa*<sup>14</sup> egingo dela esaten digute, nahiz eta, 1425ean berriro adierazi bilkura horiek *dentro en la yglesia de Senora Santa María de la dicha Villa*<sup>15</sup> burutuko direla eta berdin gertatzen da 1456an ere.

Ondorengo urteetan uste izateko da kontzejuak bere bilkurak parrokian segituko zuela egiten, 1476ra arte bederen. Aipatu urte honetako maiatzaren 7an eta Errege Katolikoek Portugaleko Alfonso V.aren kontrako zeramaten gerran, Frantziako Luis XI.ak –hau monarka portugaldarraren aliatua izaki– igorritako armada batek su eman zion herriari<sup>16</sup>. Hain gogorra izan zen suntsiketa non Errege Katolikoek, 1489ko maiatzaren 26an, Jaenen emaniko errege agindu baten arabera, Erreterria, hurrengo hogei urtetan, zenbait zerga ordaindu beharretik libre utzi zuten. Izan ere:

*la dicha Villa e término con sus iglesias fueron quemadas en ellos muchos hombres e haciendas e bienes de lo cual resultó a la dicha Villa e tierra quedar destruída e despoblada e los vecinos e moradores de ella perdidos*<sup>17</sup>

1512ko urtean, berriro ere, gerrak bere zantzu latza utzi zuen Erreterrian. Frantsek, oraingo honetan Fernando Katolikoaren arerio, Nafarroan indarrez sartu ondoren, herria suntsitu zuten, hain era lazgarrian non

*el dicho exercito francés vino a la dicha Villa de Rentería y pusieron fuego en ella y del dicho fuego se quemo la dicha Villa y hedeficios della y saquearon y robaron todo lo que pudieron fallar...no quedó ninguno hedefiçio de casa en la dicha Villa salvo las casas de Martín Perez de Gaviria y de Joan Çuri de*

<sup>11</sup> Ikus 1384-ko Martxoaren 30-eko dokumentua. Cfr. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: *Op. cit.* 74. orr.

<sup>12</sup> “*toki honetako Santa Maria elizaren barruan*”.

Ibidem. 69. orr. eta Elena VÁZQUEZ- Koro MURO: *Nuestra Señora de la Asunción de Rentería. Estudio Histórico Artístico*, Rentería 1993, 13. orr.

<sup>13</sup> EUA, B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 14. Espedientea eta EUA, B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 19. Espedientea.

<sup>14</sup> “*aipatu herriko Santa Mariako elizaren ate aurrean*”. EUA, C. Saila, 5. Bulegoa, III Zerrenda, 4. Liburua, 1. Espedientea.

<sup>15</sup> “*aipatu herri horretako Santa Maria elizaren barruan*”. EUA, B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 20. Espedientea.

<sup>16</sup> Elena VÁZQUEZ- Koro MURO: *Op. Cit.* 13. orr.

<sup>17</sup> “*aipatu herria eta dermioa bere elizekin erre egin zituzten, bertako gizon , etxalde eta ondasunekin batera eta, horren ondorioz, herria birrinduta geratu zen, despopulaturik eta hango auzokide eta bizilagunak galdurik*”. Elena VÁZQUEZ- Koro MURO: *Op. Cit.* 14. orr.





Faxada osoaren  
ikuspegia.

*Cubieta y la casa antigua del capitán Martín de la Rentería...y como dicho es todo lo demas de la dicha Villa e yglesia d'ella fue quemado...*<sup>18</sup>

Modu honetan, XVI. mendeko hasieran, kontzejuaren ohizko elkartzeko toki, –parrokia, alegia–, birrinduta dago eta ez dira berreraikitzen hasiko 1523ra arte, nolnahi ere absidearen parte ez dute 1541ko urtera arte burutua izango<sup>19</sup> Egoera horrek kontsistorioa bilkurak egiteko beste tokiak aurkitu beharrean jarriko du.

<sup>18</sup> “esandako Erreterira etorri ondoren aipatu armada frantsesak su eman zion herriari, sutearen ondorioz herria eta eraikuntzak errez, eta aurkitutako guztiá harrapatu eta ostu zuten... ez zen bizitzeko erai-kinik geratu aipatu herrian, Martín Perez de Gaviria eta Joan Çuri de Cubietarena izan ezik, hala nola, Martín de Renteria kapitainaren antzinako etxea ... eta esandakoaren arabera gertatu zen herriko beste gauza guzietan eta elizarekin ere, dena erreta geratu zela., alegia.” EUA, E. Saila, 5. Bulegoa, II. Zerrenda, 1. Liburua, 4. Espedientea. Cfr. Elena VÁZQUEZ- Koro MURO: *Op. Cit.* 15. orr.

<sup>19</sup> Elena VÁZQUEZ-Koro MURO: *Op. Cit.* 15. eta ondorengo orrialdeak.

XVI. mendean zehar, kontzeju arruntak egiten direnetan, Hiriko zenbait auzokiden etxeak erabiliko dituzte. Eskura ditugun datuek, -1534ko urteari dagozkionak-, agertzen digute kontzeju irekiak (auzokide guztiak parte hartzen zutenekoak, alegia) edo ezohizkoak zirenetan, bilkurak -garai batean bezala- parrokiaren aurrean egiten zirela, meza nagusia edo beste elizkizunen bat amaitu ondoren, edota han bertan kokatua zegoen hilerrian, hain zuzen ere, toki horiek zirelako, lehenago ikusi dugun bezala, bilkurak egiteko erabili ohi zirenak<sup>20</sup>.

Kontzeju arruntak, XVI. mendean zehar, non biltzen ziren zehatzago jakin nahi badugu, lau tokitan egiten zirela aurkituko dugu: Fernando Grozoren oinordekoen etxean (1520aren eta 1524aren artean); Juan Martín de Arizabaloren etxean (1528aren eta 1548aren artean); Martín de Irizar kapitainaren etxean (1548an); eta, azkenik, Martín de Gabiria kapitainaren etxean (1522an)<sup>21</sup>. Eta data honetatik aurrera hasiko dira beharrezko urratsak ematen, hain zuzen ere, etxe propio bat eraikitzen hasteko erabakia hartzera bultzatuko dutenak, bertan kontzejuaren bilkurak egin ahal izateko.

## 2. UDALETXEA XVII. ETA XVIII. MENDEETAN

Ikusi dugu nola kontzejuak, XVI. mendearen erdialdera, hainbat etxe partikularretan biltzen ziren, baina 1552tik aurrera udaletxe propioa edukitzearen ideia indartzen hasi zen. Horri buruzko lehenengo albistea 1552ko azaroan dagoela aurkitu dugu, orduan gertatu baitzen kontzejuak -Jerónimo de Isastik kontzeju horrekiko zituen zorrak aztertu ondoren- honako erabaki hau hartzea:

*pues el dicho Gerónimo tiene buenos suelos de casas y el concejo tiene necesidad de unos suelos para hazer casa concejil e loja, que se hablase al dicho Gerónimo e se le pagase al respecto del suelo que vendió el dicho Gerónimo a Gracia de Hendara, difunta*<sup>22</sup>.

1560an Miguel de Arizabalok, -zeinen etxean biltzen baitzen kontzejuak azken berrogeita hamar urteetan, berak dioenez- udalari demanda aurkeztu zion herribasoko sei haritz ebakitzeko baimena ukatu ziotelako. Gertatutakoaren aurrean eskatzen du ez dadila bere etxean biltzar gehiago egin eta atera dezatela handik bertan dagoen herriko artxiboa<sup>23</sup>.

XVI. mendearen azken laurdenean, -1573an, hain zuzen- dokumentuetan agertzen denez, kontzejuak eginiko bilkurak Gregorio de la Rentería kapitainaren etxean egiten ziren, Martín de la Renteríaren ondorengo baterenean, alegia, eta

<sup>20</sup> EUA, A. Saila, 1. Bulegoa, 4. Liburua, 1. orrialdea.

<sup>21</sup> Lucio ULIA: "Historia de nuestra casa concejil", *Renterían*, 22. zbk., 1944, 7. orr.

<sup>22</sup> "kontuan izanik aipatu Geronimo hori etxegintzarako egoki diren orubeen jabe dela eta kontzejuak udaletxea eta lonja eraikitzeko lurren beharren dagoela, hitzegin zezatela aipatu Gerónimorekin eta ordain ziezaiotela Gerónimo horri, berak zenduriko Gracia de Hendarari saldutako orubearen prezio berean." EUA, A. Saila, 1. Sorta, 3. Liburua, 89. orr. atzekaldean.

<sup>23</sup> EUA, A. Saila, 1. Sorta, 3. Liburua, 3. orr. atzekaldean.



ekintza horrek adierazten digu bazela nolabaiteko usadioa biltzarren tokiari dago-kionez, izan ere etxe hori bera aipatzen dute XVI. mendeko hasieran kontzejuaren egoitza bezala. XVI. mendeko buakera aldera, dokumentuek erakusten digute kontzejuak bazuela etxe propioa. Ildo horretatik, 1598ko urtarrilaren 14ko bertako aktek adierazten digute, udalaren bilkurak “*en las casas del concejo de la Villa de la Rentería*” burutzen direla<sup>24</sup>, eta baieztapen hori da, bilkurak egiteko toki propioa bazutela erakutsiz, gorde den lehen aipamen dokumentala.

XVII. mendearen hasieran, 1602ko martxoaren 13an, ikusten dugu berriro kontzeju etxea eraikitzeke orube baten bila dabiltzala. Hori dela eta, alde biko suposaketa egin dezakegu: edota 1552an Jerónimo de Isastirekin ekindako negoziazioei ez zieten irtenbide egokirik eman, edo Hirriaren handitzeak eta hartzen ari zen garrantziak beharrezko egiten zuen Errenteriaren premietarako egokiago zatekeen udaletxe baten eraikitzea. Kontzejuko etxeak aipatzen direneko 1598an egin baieztapenak dela bide, bigarren hipotesia zuzena izango delakoan gaude. Hona zer zioten, gai honi buruz, esandako data honetan:

*el dicho Miguel Celayanadia, regidor, dio por descargo como por mandado de sus mercedes se fue a los herederos del doctor Albiz para que se acomodasen de unos suelos de casas que en esta Villa tienen e la venta d'ellos, que la Villa desea comprarlos para casas del concejo. E tratado sobre ello dieron por respuesta que verían a tratar sobre ello con sus mercedes. Decretaron e mandaron que todos los vecinos de la dicha Villa se junten con sus mercedes el primer día de fiesta para tratar e tomar orden donde se pondran las casas para el dicho efecto necesarias<sup>25</sup>*


Nahiz eta goraxeago aipatu dugun biltzarra berehala egitekoa izan, ez zuten hurrengo urtera arte burutu. Izan ere, hona hemen 1603ko maiatzaren 4an azaltzen zaiguna:

*se propuso a los dichos vecinos que como saben esta Villa esta sin casa de ayuntamiento e desean dar[...] a peor este año a que la aya, e solo ay opiniones del sitio parte e lugar en que se pueden acer, de manera que sea mas a propósito e conbeniente para esta dicha Villa, e de que traça mejor manera se aran, e asi les pide su paresçer en esto para que mejor se acuerde lo que mas convenga<sup>26</sup>*

<sup>24</sup> “Errenteria Herriko kontzejuaren etxeetan”. EUA, A. Sails, 1. Bulegoa, 7. Liburua, 86. orr. atzekaldean

<sup>25</sup> “aipatu Miguel Celayanadia, errejidoreak, agertu zuen nola, udaleko jaunaren aginduz, joan zen Albiz jaunaren oinordekoengana, onar zezaten herri honetan dituzten orube batzuren salmenta, herriak kontzejuko etxeak egitearren erosi nahi baititu. Horri buruz solasean aritu ondoren erantzun zuten azalduko zirela udaleko jaunengana, horretaz mintzatzeko. Erabaki zuten, eta horrela agindu, herriko bizilagun guztiak bildu zituzela udaletxeko jaunekin, lehenengo jai egunean, beharrezkoak izango ziren etxeak aztertutik ondoren, horri buruzko erabakia hartzeko”, EUA A. Sails, 1. Bulegoa, 3. Liburua, Orrialdeak 176 atzekaldean-177 aurrekaldean.

<sup>26</sup> “jakinik Herria udaletxerik gabe dagoela eta, proposatu zieten aipatu auzokideei, (...) txarreanean, aurtan bertan etxe bat behar dela eta ikusirik non eta zein tokitan kokatu daitekeenari buruzko iritziaik besterik ez daudela, beraz herriarentzat etxeak itxurarik hobereena nolakoa izango duen aburua eman dezatela, hobekien eta egokien izango den moduan erabakitzeko.” EUA, A. Sails, 1. Bulegoa, 3. Liburua, orrialdeak 176 atzekaldean-177 aurrekaldean. Dokumentu hau Eranskin Dokumentalean azaltzen da osoki transkribaturik.



Arkupearen ikuspegia.

Esandakoari auzokideek erantzun zioten honako eskubide hauek emanez:

*los dichos señores del regimiento la elección del puesto en que se puedan acer las dichas casas e la traça e modo d'ellos, para que en todo se haga lo que a sus mercedes paresciere*<sup>27</sup>

1603aren eta 1607aren artean udaletxeko edifizioaren eraikuntza jasotzeari ekin zioten. Horretarako, 1603ko ekainaren 25ean, kontzejuak erabaki zuen etxea egiteko enkantearen iragarpena honako toki hauetan argitaratzea: Oiartzungo ibarrean eta Donostiako, Tolosako, Hernaniko, Segurako, Ordiziako eta Asteasuko herrietan, bai eta Amasako eta Leizaurko herrietan ere, alegia. Aldi berean lizita-

<sup>27</sup> "udaleko aipatu jaunek egin dezatela etxe horiek eraikitzeko tokiaren aukera eta erabaki dezatela etxe-ek izango duten tankera eta itxura, egin beharreko orotan joka dezaten euren nahi duten moduan." EUA, A. Saila, 1. Bulegoa, 3. Liburua, orrialdeak 176 atzekaldean-177 aurrekaldean.





Kapitanenea kalera  
ematen duten arkuen  
ikuspegia.

zioa egiteko San Pedro eguna eta biharamuneko San Martzialena izendatu zuten (hots, ekainaren 29an eta 30ean)<sup>28</sup>.

1603ko uztailaren 3rako fray Miguel de Aranburu arkitektoak, –Juan de Herreraren ikasle izana eta lanen adjudikazioa jaso zuena– bere egitasmoaren planoak aurkeztu zituen. Harrobi lanak Juan de Goibururen eta Martín de Ondarzaren kargu utzi zituzten, hauek –herriak zuen baliabide eskasia dela eta– euren lanen ordaina haritzetan eta garitan jaso beharrean gertatu ziren. Zurgin lanak Gudimendi maisuari eskaini zitzaizkion eta burdinezkoak Jacobo de Aranbilleteri. Miguel de Osadain margolariak teilatuko burdinezko gurutzeta urreztatzeko lanak hartu zituen bere esku.

<sup>28</sup> Lucio ULIA: *Op. cit.*, 7. orr.



Egitasmoari ezarri zitzaizkion ondoko hainbat aldaketak harginen protesta ekarri zuen 1605ean, izan ere lanak atzerapena jasotzen zutela eta galera sortzen zuten haientzat. Ondoren egindako aldaketa horien froga udaletxeko fatxadan zurez landutako bi armari –bata Hiriarena eta bestea koroarena– jartzeko akordioa da. Azkenean, harriz landuak izan ziren eta Hiriko armak, soilki, zeramatzen.

1606an meza eman zuten *levantar la viga de la casa concejil* egin izana ospatzeko eta ekintza horrek, beraz, erakusten digu obrak aurrera doazela zinez<sup>29</sup>. 1607an kontzejuak etxegileak estutzen ditu edifizioaren zati bat aton zezaten, horrela urte hartako Biltzar Nagusien bilkura bat bertan burutu ahal izateko. 1607ko otsailean agertzen zaigu ordurako egina zutela *dentro de la sala del ayuntamiento de la Villa de Rentería* kontzejuaren bilkura<sup>30</sup>, gainera Pedro de Zaldúa, arkitektoak egiten ari ziren obrei inspekzioa eman ziela ere kontutan hartuz, etxegintza bukatutzat eman zutela pentsatzeko bide ematen digu<sup>31</sup>.

1638an, berriro ere, gerrak Errenteria hondatu egin zuen. Hogeita Hamar Urteko Gerra dela eta, Condéren gidaritzapean etorritako gudarosteak Hiria suntsitu zuen. Hain gaitza izan zen birrinketa, ezen bertako biztanleek herriaren kokalekua aldatzea komeni ez ote zen ere aztertu baitzuten, hain zuzen ere, Basanaoga baserriaren inguruan ezartzeko asmoz, gaur egun Don Bosco Lanbide Eskola dagoen lurretan, alegia<sup>32</sup>.

1638ko hondamenak, ostera ere, bilkurak etxe partikularretan burutzeraz behartu zituen. Adibide gisa aipa dezakegu nola, 1640ko abenduaren 5ean, kontzejuko bilkura Domingo de Berrotarán, alkate arruntaren etxean egin zuten<sup>33</sup>.

1654an, Hiria Basanaogara aldatzeko proiektua alde batera utzirik, urtearen lehenengo egunean, Udaletxea berriro eraikitzearen ezarritako lan baldintzak argitara eman zituzten<sup>34</sup>, lanok, bestalde, 1666ra arte luzatuko dira, data horretan eraiki-naren errestituzioa bukatu izango baita, *aunque no con la perfección de antes*<sup>35</sup>.

Konbentzioko Gerrak ere (1793-1795), kontutan hartuz Hiriak duen muga kokaera, izan zuen eraginik Udaletxearen gain. Kasu honetan apurketak, seguras-ki, areto nagusiko leihoetara mugaturik geratu ziren, dirudenez bertan ezarrita zeuden tropek erre zituztelako<sup>36</sup>. Eraikuntzan eginiko konponketak, José de Isasak, *perito agrimensor aprobado*<sup>37</sup>, 1798ko apirilaren 24an, emandako balioaren arabera, orotara 490 kobrezko errealerara igo ziren.

<sup>29</sup> “kontzejuko etxearen haga jaso izana” Lucio ULIA: *Op. Cit.* 7. orr.

<sup>30</sup> “Errenteriako Herriaren udaletxeko areto barnean” Lucio ULIA: *Op. Cit.* 8. orr.

<sup>31</sup> Lucio ULIA: *Op. Cit.*, 8. orr.

<sup>32</sup> Lucio ULIA: “Proyecto de creación de una nueva Villa de Rentería”, *Renterían*, 24. zbk., 1946, 23. orr. eta Enrique PONTE ORDOQUI: “Basanaoga: La nueva Rentería”, *Oarson*, 1985, 7-9 orr.

<sup>33</sup> EUA. Kontzejuko Akten Liburua. 16. Liburua., 31. orr. aurrekaldean.

<sup>34</sup> EUA: D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea. Dokumentu hau Eranskin Dokumentalean agertarazten dugu.osorik.

<sup>35</sup> “nahiz eta ez izan lehenago zuen bikaintasunarekin” Lucio ULIA: *Op. Cit.* 8. orr.

<sup>36</sup> EUA: D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

<sup>37</sup> “baimenduriko peritu agrimentsoreak”. *Ibidem*.

Une horretatik aurrera, politika alorrean, luzaro iraun zuen egonkortasun eza nagusitu zen, bai Euskal Herrian oro har, bai eta Erreterian ere<sup>38</sup>. Fernando VII.aren erregealdian gertaturiko gorabehera politikoak, Lehenengo Gerra Karlistak eta Estatuaren krisiak dokumentuetako isilaldia ekarri zuen –udaletxean gertaturiko aldaketei dagokionean–, egoera hori 1866ko urtera arte iraun zuelarik.

### 3. XIX. ETA XX. MENDEKO ERALDAKETAK

Udaletxeak, lehenago ikusi dugun bezala, XVIII. mendean hartu zuen bere kanpoaldeko itxura. Momentu horretatik aurrera, –egonkortasun ezeko aldia gainditu ondoren, hain zuzen ere, XIX. mendeko zatirik nagusia hartu zuena (Independentziako Gerra, Gerra Karlistak, desamortizazioa..., alegia)– batez ere barne aldeari dagokion eraberritze handiko prozesu bati ekingo diote eta horretan jardungo dute XIX. mendearen azken laurdenean eta XX. mendeko lehenengo urteetan. Geroago, mende honetako bigarren erditik aurrera, alegia, oraingoz azkenekoa izan den beste erreforma prozesu bati helduko diote.

#### 3.1. 1866aren eta 1907aren arteko eraldaketak

1866ko urtean, Udal Artxiboan dagoen txosten baten arabera –abuztuko 31ko data daramana–, Udaletxeari dagokion honako deskribapen hau azaltzen zaigu:

*es de unos 260 años; se halla en buen estado de conservación; El piso 2º está dedicado a escuela de niños y el piso bajo a cárceles, y reúne las condiciones necesarias para el servicio atendiendo a la categoría o clase de la población*<sup>39</sup>

Deskribapenarekin batera, eraikinaren balorazioa 140.000 errealekoa dela agertzen da.

1873ko ekainaren 16ko data daraman dokumentu batek eraikuntza barneko sailkapena egiten digu, deskribapen zehatzaren bitartez. Honela dio:

*La Casa Consistorial señalada con el número 1, la cual contiene 199 metros y 80 decímetros, se compone en su piso llano en parte con cárceles, y el resto con zaguán libre. Su primer piso con una sala para el Ayuntamiento, un cuarto para la secretaría y un asiento escusado. Su segundo piso con una sala para escuela pública de niños y un asiento escusado. Su desvancillo con cárceles y cubierto de teja. Y confina al nordeste con la calle nombrada Capitanenea, por*

<sup>38</sup> Aro hau ikertzeko asmoa dutenentzat beharrezkoa da, Erreteriariko historiari dagokionez, María Teresa GABARAINen lanak irakurtzea, hots: “El liberalismo en Rentería”, *Boletín de la RSBAP*-en argitaratua Donostian 1986 eta “El origen del liberalismo en Rentería”, *Bilduman* azaldua, 6. zbk., Erreterian 1992, 9-82. orr. XIX. mendeko krisiari buruz ikus José Ramón CRUZ MUNDETen *Rentería en la crisis del Antiguo Régimen. Familia, caserío y sociedad rural*, Rentería 1991. Konbentzioko Gerrari dagokionean ikus José Ramón CRUZ MUNDET: *La Guerra de la Convención en Guipúzcoa (1792-1795): El manuscrito de I.V. de Sarasola*. San Sebastián, 1993. Gai honexeri buruz, Fermín LASALA, DUQUE DE MANDAS; *La separación de Guipúzcoa y la Paz de Basilea*, Madrid 1989. (Edizio facsimila, 1987).

<sup>39</sup> “260 bat urte ditu; egoera onean dago. 2. solairua haurrentzako eskola moduan erabiltzen da eta behe solairua presondegirako, bestalde, populazio maila edo kategoriari begiratzen badiogu, zerbitzurako beharrezko diren baldintzak betetzen ditu.” EUA: D. Sails, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.



*el sudeste con la plaza principal, por sudoeste con un canal para el envío de aguas y casa n° 2 propia de Don Martín José Michelena y por nordeste con un terreno libre de la Villa cuyo edificio se halla en estado regular*<sup>40</sup>

Momentu honetatik aurrera eraikuntza horretan egingo diren eraldaketa sakon baten aroari emango zaio hasiera. Lehenengo urratsa udaletxean obrak egiteko baldintzei buruzko akordioa da. 1877an onarturiko baldintzok honela mamitu ziren:

**CANTERÍA:** 1° *Todas las losas que se destinan para bajo consejo serán de piedra arenisca, de grano fino y compacto, no se admitirán piedras blandas ni porosas.*

2° *El asiento se hará a juntas encontradas y bien encuadradas y sus sobreluchos estarán en plano horizontal.*

3° *No se admitirán losas que no tengan las dimensiones de 0,10 m. de espesor x 0,90 x 0,60 de escuadra.*

4° *La pared donde se desea colocar el verjado de la cárcel se instalará bien antes de abrir el hueco.*

**CARPINTERÍA:** 1° *Todo el material que se emplee en la carpintería sera sano y seco.*

2° *Los cortes, ensamblados, cajas y espigas se ajustarán perfectamente afectando las formas que haya de llevar*

**ALBAÑILERÍA:** 1° *Los enlucidos se emplearán después de raspar y limpiar bien las paredes donde se deban aplicar*<sup>41</sup>.

1884an saio bat egin zuten udaleko auzitegia kokatu nahirik garai batean herriko idazkaritza zegoen lekuan, azken hau –lehenago ikusi dugun bezala–

<sup>40</sup> “1. zenbakiarekin seinaturalrik dagoen Udaletxeak 199 metro eta 80 zentimetro ditu eta beheko solairuaren zati batean presondegiak dauzka, gainerakoan behebarru librea izanik. Lehenengo solairuan honako hauek daude: Udalarentzako aretoa, gela bat idazkariarentzat eta komun bat. Bigarrenean: Areto bat haurrentzako eskola publiko moduan erabiltzen dena eta komun bat. Teilaz estalirik dagoen ganbaran presondegiak daude. Hauek dira bere mugak: Iparekialdean, Kapitanenea izeneko kalea; hegoekialdean, enparantza nagusia; hegomendebalean, urak jasotzen dituen kanal bat eta 2. zenbakia-ekin markaturik dagoen Martin Jose Mitxelenaren etxea; iparrekialdean Herriaren lursail libre bat, bertan egoera hainbestean daukan eraikuntza bat dago”. EUA: D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

<sup>41</sup> “HARGIN LANA:

1. Kontzejuaren behe solairurako erabiliko diren losa guztiak hareharritzkoak izango dira, bikor finekoak eta trinkoak eta ez dira onartuko harri bigunak ez eta porotsuak ere.

2. Asentua juntautsika eta ondo lotuta egingo da eta horien gaineko harriak horizontalki jarriak behar dute izan.

3. Ez dira onartuko neurritz 0,10 metroko lodierara eta 0,90 x 0,60 eskuariara iristen ez diren losak.

4. Presondegiko burdinsarea kokatu nahi deneko paretara ondo ezarrita izango da hutsunea ireki aurretik

ZURGIN LANA.

1. Zurgin lanetan erabiliko den material guztia sendoa eta lehorra izango da.

2. Ebakerak, ahokatzeak, ahoak eta ziriak inolako eragozpenik gabe lotuko dute elkar, behar duten itxura ondo emanez.

IGELTSERO LANA.

1. Luzituaren beharra duten paretak, lehenik ongi arraskatu eta garbituko dira, ondoren hura ezartzeko.”

EUA. D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

Udaletxeko lehen solairuan zegoen. Udal epaileak, Eustaquio Inciarte jaunak, asmo horrekiko bere desadostasuna agertu zuen Hona zer dioen epaileak auzitegi-rako erabili nahi den lekuari buruz:

*fue anteriormente Secretaría del Municipio y que en atención a sus malas condiciones, hasta de salubridad, se hicieron las obras para trasladarla al que hoy ocupa. Subsistiendo aquéllas, entiendo que de no ser bueno para oficinas municipales, carece también de condiciones para establecer en él el Juzgado Municipal*<sup>42</sup>.

Eta proposatzen du, bidenabar, lehenengo solairuan egin beharreko hainbat aldaketa, idazkaritza eta auzitegia han ipintzeko asmoz<sup>43</sup>.

1905aren eta 1907aren artean barnekaldeko eraldaketa obrarik garrantzitsuenak burutu ziren. 1905eko azaroan, bigarren solairuko eraldaketa egitearren itun bat sinatu zen eta lana Jose Cruz Urkiari eskaini zioten. Aldaketa honen bitartez Udaletxeko eskola desagertu egin zen<sup>44</sup>, haren ordezkari alkatetxea, batzorde aretoa eta idazkaritzako bulegoak han ezarri<sup>45</sup>. Obra horren kostua 2.891,07 pezetako izan zen.

Hurrengo urtean, 1906an alegia, Udaletxearen sarrerako berrikuntza onartu zuten, alegia, “*escalera de roble y puerta del mismo material para acceso de la arcada*” jartzea.<sup>46</sup>

Egin beharreko lana honela mamitu zen:

*El derribo de paredes y su recomposición en el muro de la arcada para ingreso en la casa consistorial disponiendo tres huecos con sujeción a dibujo donde puedan alojarse las tres puertas de roble proyectadas.*

*Construcción y colocación de una escalera de roble y hierro con arreglo a proyecto y que arrancando desde el piso bajo llegue hasta el 2º de oficinas*<sup>47</sup>.

Obra 1906ko ekainaren 27an Francisco Garrori adjudikatu zitzaion, 7.532 pezetetan egiteko.

<sup>42</sup> “lehenago Udaleko Idazkaritza izan zen eta kontutan hartuz zer egoera txarrean zegoen, baita osasunaren kontrakoa ere, behar ziren obrak burutu ziren gaur egun dagoen tokira ekartzeko. Egoera txar horiek bere horretan segitzen dutela ikusirik, iruditzen zait udal bulegorako egokiak ez badira, neurri berean ez direla aproposak izango bertan Udaleko Auzitegia kokatzeko.”  
EUA. D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

<sup>43</sup> EUA. D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea. 1884-ko urriaren 23-an Udal Epaileak eginiko eskutitza.

<sup>44</sup> Hurren eskola udaletxean kokatua izana probintziko Agintari Politikoak (garai bateko Gobernadore Zibilak, alegia) gutun batean agindutakotik dator, honek 1839-ko apirilaren 29-ko. data dauka eta agirik ez azaltzen digute 1844-ean udaletxean zegoela. EUA.

<sup>45</sup> EUA. D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

<sup>46</sup> “haritzezko eskailera eta, arkupea sartzeko, material bereko atea”.  
EUA. D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

<sup>47</sup> “Paretak eraitsi ondoren berritzezko, udaletxerari sarrera ematen dion arkupeko murruan eta marrazki batean araberako hiru hutsune ezarri, bertan aurrikusitako hiru haritzezko atek ipintzearen.  
Proiektu bati jarraikiz burdinezko eta haritzezko eskailera egin eta jarri, hain zuzen ere, behe solairutik abiatu eta bulegoak daudenean 2. solairuraino iritsiko dena.” EUA, D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.





Albo fatxadan dagoen  
armarria.

Urte berean baldintza plegua argitaratu zuten, hirugarren solairu bat egin ahal izateko, atezaina bertan bizi zedin. Proiektua burutzeko eta ordainez 1.599,40 pezeta jasoz, 1906ko ekainaren 13an Lasa eta Uranga izendatu zituzten, nahiz eta urte horretako bertako abenduaren 4an harturiko akordioarekin aldatu bazuten ere, izan ere, honen arabera etxebizitzari leiho batzu irekiko zizkioten, 408,82 pezetako prezioan.

1907ko uzatilaren 18an aipatu ditugun obren ordainketa egin zuten, honela amaituz XIX. mendeko bukaeran hasitako eraldaketa saila. 1925era arte itxaron beharko dugu, Errenteriako udaletxean berriro zenbait obra nagusi heltzeari ekingo dioten arte.

### 3.2. Zabaltze lanak (1925-1949)

Bigarren hamarraldiko Errenteriak ez du zerikusi handirik mendearen hasieran zegoenarekin. Industria garapenak eta etorkinen bertaratzeak, hiria Gipuzkoako garrantzitsuenen artean ipini baitute<sup>48</sup>. Udalak izendaturiko batzordeak biztanleriaren hazkuntza hartzen du oinarritzat, kontzejuaren etxea handitzeko beharra agertzerakoan. Batzordekideek diotenez:



*el desarrollo natural de sus servicios municipales ha hecho que la Casa Consistorial sea incapaz para tener instalados debidamente los que dentro de sus muros se hayan asentados. Ya se venía dejando sentir la necesidad de ampliar el edificio desde hace años y con miras a esa obra, cuya realización se impone cada vez más, se compraron las dos casas contiguas de la calle Capitanenea que se derribaron para que sobre su solar se levantara, cuando lo permitieran los recursos, la nueva edificación<sup>49</sup>*

Aurrikusitako aldaketak edifizioaren behe solairuaren handitzean mamitu ziren, –alboko orubea ere erabiliz–, bai eta hirugarren solairuan atezainak zuen etxebizitzaren eraldaketan. Egitasmoa 1925eko otsailaren 2an buruturiko plenoan onartu zuten eta aurrekontua 92.680,90 pezetakoa izan zen<sup>50</sup>.

1925ean erabakitako eraldaketak ere ez ditu toki beharrak konpontzen. 1932an alboko edifizioak –1925ean egin eraldaketaren ondorioz sorturikoak, alegia– almazenak eta tailerrak jasotzen ditu bere baitan eta ez, egitasmoan azaltzen zen bezala, udal bulegoak<sup>51</sup>. Egoera horrek, II. Errepublikara garaian, eraikuntzaren eraberritzeko egitasmoa aurkeztera bultzatu zuen, hain zuzen ere, bigarren solairuan kokatuko ziren bulegoak azalera zabalagoa izan zezaten.

II. Errepublikak zituen zailtasun ekonomiko eta politikoak ezina egin zuten egitasmo hori egi bihurtzea. 1931aren eta 1936aren artean dokumentuetan agertzen den Udaletxeko obra bakarra, 1933ko urrian egina, eraikuntzan berokuntza zentrala ezartzera mugatu zen, lana “Pradera y Cía” enpresak burutu zuelarik, 4.420 pezetako kostuarekin.

1948ra arte itxaron beharko dugu handitzearen gai hori, berriro ere, azaldu arte. Aldi honetan, udaletxearen alboan dagoen behe solairuari dagokio eta bertan eskualdeko auzitegia eta udal beraren hainbat zerbitzu kokatu asmoa azaltzen da. Egitasmoa 1948ko otsailaren 3ko plenoan onartu zuten<sup>52</sup>.

1959an, Francisco Antonio Zalduak, Hiriko artxiboa eta liburutegia ipintzeko egitasmoa aurkeztu zuen<sup>53</sup> honela bideratuz, dokumentazioak zuen gehiegizko pisua dela eta, 1944an piztutako arazoa eta proposatzen zuen, gainera, zati bat

<sup>48</sup> Errenteriako industria garapena aztertzeko, ikus Miguel Angel BARCENILLA: “La industrialización de Rentería”, Tesi Doktorala, Euskal Herriko Unibertsitatea 1991 (argitaragabea). María Asunción GAMECHO OTAEGUI: “Algunas consideraciones acerca del crecimiento demográfico de Rentería”, *Lurralde*-n argitaratua, 8. zbk., 1985, 173-191 orr. Eta Pedro BARRUSO: “La población activa de Rentería durante la II República. Una aproximación demográfica”, *Bilduma*-n argitaratua, 4. zbk, 1990, 35-47 orr.

<sup>49</sup> “udal zerbitzuen garatze naturalak egin du Udaletxea gai ez izatea bere hormen barruan dauden instalazioak behar bezala ezarriak egoteko Hainbat urtez geroz ikusten ari ginen edifizioaren handitzea nahitaezkoa izango zela eta gerora begira zetorren obra hori kontutan hartuz, eta lan horiek burutzea gero eta beharrezkoago ikusten dugunez, Kapitanenea kalean dauden aldameneko bi etxeak erosi genituen eta ondoren eraitsi, sortutako orubean etxegintza berriari ekiteko, diru baliabideak horretarako gaitasuna ematen digutenean.” EUA. D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

<sup>50</sup> EUA. D. Saila, 3. Bulegoa, 8. Liburua, 3. Espedientea.

<sup>51</sup> EUA. D. Saila, 3. Bulegoa, 9. Liburua, 11. Espedientea.

<sup>52</sup> EUA. D. Saila, 3. Bulegoa, 10. Liburua, 18. Espedientea.

<sup>53</sup> EUA. Hirigintzako Artxiboa, 428/2.

Viteri Eskoletako ganbarara eramatea.<sup>54</sup> 1960ko urriaren 20an Francisco Intxauspe izendatu zuten obra egile, 36.918,38 pezeta ordainduz<sup>55</sup>.

### 3.3. Azken eraldaketak (1965-1988)

Udaletxeko eraberritzea, gaur egun duen itxura emango diona, 1965eko urtean hasi zen. Aipaturiko urte horretako uztailearen 26an, “Mendia y Murua” enpresak, berritzearen lehenengo atalari ekin zion, Ramón Gabarainek buruturiko proiekturari jarraiki. Momentu horretatik aurrera, –1988ra arte– Udaletxean eginko berrikuntzak honako hauek dira:

**1964-1965:** Udaletxeko bulego municipalera iristeko sarbide berriak egin ziren<sup>56</sup>.

**1967:** Arkupetako erdigunean ate bat eta bi albate ireki ziren<sup>57</sup>.

**1968-1969:** Udaltzaingoaren ikuskaritzan berritzea eta handitzea<sup>58</sup>.

**1969-1970:** Kontuhartze eta hirigintzako bulegoak berritzeko eta zabaltzeko obrak<sup>59</sup>.

**1970:** Artxiboan eta Hirigintzako Bulegoan egokitze obrak<sup>60</sup>.

**1970-1972:** Atezainaren etxebizitza eta teilatua konpondu.zen<sup>61</sup>.

**1972-1974:** Udaletxeko Areto Nagusiaren berritzea<sup>62</sup>.

**1974:** Valeriano Lezeta Gabarainek Areto Nagusiko buruhorman murala margotu zuen<sup>63</sup>.

**1980-1981:** Udaltzaingoaren instalazioak atondu ziren<sup>64</sup>.

**1981:** Udal Liburutegi izandakoa Udal Artxibo bilakatzeko lanak burutu ziren<sup>65</sup>.

**1981-1985:** Udaltzaingoaren instalazioetan obrak egin ziren<sup>66</sup>.

**1986-1988:** Udaletxearen zabaltzea egin zen, hirugarren solairua egokituz<sup>67</sup>.

**1988:** Ekainaren 20an Udaletxearen birgaitze egitasmoa onartu zen, 15.366.866 pezetako aurrekontuarekin. Bidenabar, eskatu zitzaion Foru Diputazioari, honek udaletxeak birgaitzeko zuen finantzaketa egitasmoan Errenteriakoa ere sar zezan<sup>68</sup>.

<sup>54</sup> EUA. D. Saila, 3. Bulegoa, 10. Liburua, 12. Espedientea.

<sup>55</sup> EUA. Hirigintzako Artxiboa, 428/2.

<sup>56</sup> EUA, 428/2 eta 3.

<sup>57</sup> EUA. 713/9.

<sup>58</sup> EUA 736/1.

<sup>59</sup> EUA 428/3 eta 4.

<sup>60</sup> EUA 801/6.

<sup>61</sup> EUA 603/10.

<sup>62</sup> EUA 713/16.

<sup>63</sup> EUA 713/15.

<sup>64</sup> EUA 736/2.

<sup>65</sup> EUA 399/4.

<sup>66</sup> EUA 736/3.

<sup>67</sup> EUA 814/6.

<sup>68</sup> EUA 814/12.



**BIBLIOGRAFIA**

- BANÚS AGUIRRE, José Luis: *El Fuero de San Sebastián*, San Sebastián, 1993.
- BARCENILLA, Miguel Ángel: *La industrialización de Rentería*. Tesis Doctoral. Universidad del País Vasco, 1991.
- BARRENA OSORO, Elena: *La formación histórica de Guipúzcoa. Las transformaciones altomedievales de un territorio cantábrico* (Cuadernos Universitarios Mundaiz, nº 5), San Sebastián, 1989.
- BARRUSO BARES, Pedro: "La población activa de Rentería durante la II República. Una aproximación demográfica" en *Bilduma*, nº 4, Rentería, 1990, pp. 35-47.
- CRESPO RICO, M.A.- CRUZ MUNDET, J.R.- GÓMEZ LAGO, J.M: *Colección Documental del Archivo Municipal de Rentería*, Tomo I (Fuentes Medievales del País Vasco, nº 32), San Sebastián, 1991.
- GAMECHO OTAEGUI, M<sup>a</sup> A.: "Algunas consideraciones acerca del crecimiento demográfico de Rentería" en *Lurralde*, nº 8, 1985, pp. 173-181.
- GAMÓN, Juan Ignacio: *Noticias históricas de Rentería*, San Sebastián, 1930.
- GONZÁLEZ GONZÁLEZ, J.: *Reinado y diplomas de Fernando III*, vol.III, Córdoba, 1986.
- GOROSÁBEL, Pablo: *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa con un apéndice de las cartas pueblas y otros documentos importantes*, Tolosa 1882.
- LARRAÑAGA ZULUETA, Miguel- LEMA PUEYO, J.A.: *Transcripción de las actas de Juntas, 1453-1521*. Inédito.
- MARTÍNEZ DÍEZ, G.-GONZÁLEZ DÍEZ, E. -MARTÍNEZ LLORENTE, F.J.: *Colección de Documentos Medievales de las Villas guipuzcoanas (1200-1369)*, San Sebastián, 1991.
- MUNITA LOINAZ, José Antonio: "El original más antiguo del Archivo Municipal de Rentería. El privilegio rodado de Fernando III al concejo de Oyarzun" en *Bilduma*, nº 1, pp. 67 y ss., Rentería, 1987.
- PONTE ORDOQUI, E.: "Basanoaga, la nueva Rentería" en *Oarso*, 1985, pp. 7-9.
- ULIA, Lucio: "Historia de nuestra casa concejil" en *Rentería*, nº 22, 1944, pp.7 y ss.
- ULIA, Lucio: "Proyecto de creación de una nueva Villa de Rentería" en *Rentería*, nº 24, 1946, p. 23 y ss.
- VÁZQUEZ, Elena-MURO, Koro: *Nuestra Señora de la Asunción de Rentería. Estudio Histórico Artístico*, Rentería, 1993.

#### 4. ERANSKIN DOKUMENTALA

##### 1654 - Urtarrilak - 1; Errenteria.

*Kontzejuko etxean egin beharreko obrak burutzearren enkanterako baldintzak.*

*EUA, D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.*

En la Villa de Renteria, a primero del mes de henero de mill y seisçientos y çinquenta y quatro años, ante mi, el escribano y testigos aqui contenidos, pareçieron presentes los señores el capitan Miguel de Soroa y don Joan de Olazabal, alcaldes hordinarios, Baltasar de Verreyarça y Miguel de Echeverria, jurados mayores, Joanes de Azconovieta y Martin de de Goycoechea y Miguel de Oлло, regidores, conçejo, justiçia y regimiento de la dicha Villa, y dixieron que sus merçedes havian publicar (e) primeramente por su parroquial an puesto en candela y remate la obra de la solviadura del primero y segundo sobrado de la cassa del ayuntamiento d'esta dicha Villa y la columadura de la primera sala con su çapata y cornissa a la redonda de la dicha sala por parte de dentro y las dos escaleras de ambos sobrados, en la conformidad y condiçiones que para el efecto se pusieren, las quales firmadas por mi, el escribano, son estas que se siguen.

Condiçiones de la obra de la cassa del conçejo d'esta Villa, es como se siguen.

Primeramente que ha de llevar a veinte y tres solvias en cada quarto, conforme señalan los cojugeros de antes.

Que toda la solviaduria que se descubre devajo de los soportales y sala prinçipal aya de ser bien travajada, passada con la media junta de todas partes, y muy yqual a la altura y grosura, sin grietas ni escardas que suelen levantar o sacar con la acha, y la demas que cae a la parte de adentro, bastara que no sea passada con la media juntta sino açolada, pero lo que se descubre en las partes de arriba, dichos ayan de ser bien açoladas con açuelas y bien afiladas con todo cuydado y con sus ustarras en la parte de las escaleras.

Que en las sala (sic) por todas quatro partes aya de llevar su buena cornisa para adorno de la sala así como antestonia de piedra.

Que la çapata del medio se aya de poner con su colomadura para el ladrillo a lo ancho, con las dos colomas para la puerta prinçipal, para la sala en donde biviere, que se sabra por la repartición de la escalera.

Que aya de açer las dos escaleras con todo cuydado bajando lo que a de baxar la de piedra, que esta echa a la eleçion de maestros que lo entienden vien, y la demas de la madera a modo de tachones y aforradas, asi como esta en la cassa del licenciado Arano.



Que toda la cantteria que se ubiese de hacer sea por cuenta de la Villa y todos los clavos que fueren menester.

Todo el material se le aya de de (sic) dar al pie de la obra<sup>69</sup> // y que aunque en la almoneda ultima que se dio se ofrezieron por la dicha obra mill reales de plata con mas seis ducados de la mesma moneda e prometido al que lo quissiera haçer, no hubo ningun ofrezimiento, por lo qual se avian conbenido con el dicho señor jurado Miguel de Echeverria para que como hombre carpintero que es haga la dicha obra en la forma contenida en las condiçiones de susso yncorporadas por la cantidad de mill y çien reales de plata en todo, y agora poniendo en egeçuçion, en virtud de la presente dijeron que davan e dieron la dicha obra al dicho señor jurado Miguel de Echeverria para que la haga y eecute segun dicho es, poniendo de su parte sola la manufactura, porque los materiales de la dicha obra se los ha de poner la dicha Villa al pie de la obra con condiçion tanvien que le aya de acavar toda ella para el dia de San Joan de junio primero que viene y desde luego para en pago de la dicha obra le señalan y consignan todos los mill y çien reales de plata del valor d'ella en Lorenço de Martinun, veçino d'esta Villa para que él los dé y pague de lo proçedido de los robles corbatones que se la an bendido por sus mercedes y despojo d'ellos. Y el dicho señor jurado Miguel de Echeverria dixo asi vien que aceptava esta escriptura y se obliga a egecutar dicha obra a los preçios y con las condiçiones y para el tiempo que de susso se diçe, pena de ser compelido y apremiado a ello y para el cunplimiento de todo obligan, es a saver, los señores del gobierno, los vienes y rentas de la dicha Villa y el dicho Miguel de Echeverria su perssona y bienes havidos y por haver y dieron poder cunplido a las justiçias y jueces de Su Magestad que les sean competentes, a cuyo fuero se sometieron y recevieron esta carta por sentencia passada en cossa jugada para que como si esto fuese los conpelan al cunplimiento, sobre que renunciaron todas las leyes de su favor con la general del derecho y lo otorgaron asi siendo presentes por testigos Domingo de Erazquin, Lorenço de Iriverren y Joanes de Amassorain, veçinos d'esta dicha Villa, y los otorgantes a quienes yo el escrivano doy fe que conozco lo firmaron: Miguel de Soroa, don Juan de Olazaval, Baltassar de Vereyarça, Martin de Goycoechea, Miguel de Ollo, Miguel de Echeverria. Paso ante mi, Sevastian de Orcolaga.

Yo, Sevastian de Orcolaga, escribano de Su Magestad y del numero de la Villa de Renteria que fui presente, lo signo y en fee de ello.

En testimonio (signo) de verdad. (Firmado) Sevastian de Orcolaga.

<sup>69</sup> Sinadura orrialdearen oinean: "Sevastian de Orcolaga".

## 5. TESTUAN AIPATURIKO DOKUMENTUEN ZERRENDA

### 1. 1237-Martxoak-20.

**Fernando III.ak berretsi egiten dizkio Erreteriarri bere foru, usadio eta ohiturak, hala nola herriaren dermioa, guztiak ere haren aitona Alfonso VIII.ak emanikoak.**

EUA. B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

Pub. BANÚS: Orrialdeak, 237-239.

Pub. GAMÓN: Orrialdeak, 118 eta 337.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: Orrialdeak 1-2.

Pub. GONZÁLEZ GONZÁLEZ: Orrialdeak, 124-126.

Pub. MUNITA: Op. cit.

Pub. MARTÍNEZ DíEZ-GONZÁLEZ DíEZ-MARTÍNEZ LLORENTE: Orrialdeak, 24-25.

### 2. 1320-Apirilak-5.

**Alfonso XI.ak Erreteriarri Orereta izeneko tokian Hiria eraikitzekeo pribilegioa eman zion, Donostiako foruarekin, eta erabaki zuen Oiartzun ibarreko kontzeju bakarraren egoitza bertan ezartzea.**

EUA: B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 3. Espedientea.

Pub. GAMÓN: Orrialdeak, 103-104.

Pub. GOROSÁBEL: Orrialdeak, 704-706.

Pub. BANÚS: Orrialdeak, 241-242.

Pub. GOÑI: Orrialdeak, 87-89.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: Orrialdeak, 4-8.

### 3. 1340-Apirilak-26.

**Alfonso XI.ak berretsi egiten dio Erreteriarri Hiri eraikitzearen pribilegioa, lehenago emandakoa Oiartzun Lurraldekoek ebatsi ondoren.**

EUA. B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 7. Espedientea.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: Orrialdeak, 10-16.

### 4. 1343-Irailak-1.

**Alfonso XI.ak berrito konfirmatzen du 1320-ean emaniko eraikitzearen pribilegioa.**

EUA: B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 3. Espedientea.



Pub. GAMÓN: 104. orrialdea.

5. 1351-Urriak-10.

**Pedro I.ak Hiria eraikitzearen pribilegioa berresten dio Errenteriari, bai eta zergak ordaindu beharrik ez izatea, errege petxen salbuespenarekin.**

EUA: B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 7. Espedientea.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: 20. orrialdea.

7. 1364-Urriak-29.

**Errenteriak prokuradoreak izendatu zituen Oiartzunekin konpontzearen, bi herrien artean zeuden arazoak zirela eta.**

EUA: B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 17. Espedientea.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: Orrialdeak, 23-24.

8. 1371-Irailak-17.

**Enrique II.ak berretsi egin zuen Alfonso XI.ak emaniko eraikitze baimena.**

EUA: B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 8. Espedientea.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: Orrialdeak, 33-34.

9. 1384-Martxoak-30.

**Oiartzun Lurraldeko eta Errenteriako biztanleek ordezkari osoa eman zioten Korrejidoreari, biren arteko eztabaidei buruz erabaki zezan.**

EUA: B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 14. Espedientea.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: Orrialdeak, 73-79.

10. 1391-Apirilak-25.

**Enrique III.ak Errenteriari emaniko pribilegioak berretsi zituen.**

EUA: B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 21. Espedientea.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: Orrialdeak, 82-83.

11. 1406-Irailak-17.

**Erretereriak prokuradoreak aukeratu zituen, Oiartzunetik zituen auziak erabaki zituzten.**

EUA: B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 19. Espedientea.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: Orrialdeak, 126-128.

12. 1409-Uztailak-12.

**Erretereriako eta Murgia Jaurreriko dermioen artean dauden mugarrak zehazteko eskritura, urte bereko martxoan Juan II.ak emaniko aginduari jarraiki egina.**

EUA: C. Saila, 5. Bulegoa, III Errenkada, 4. Liburua, 1. Espedientea.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: Orrialdeak, 138-145.  
13. 1425-Azaroak-12.

**Erretereriaren eta Murgiako Jaurreriaren arteko mugarren ezarpena.**

EUA: B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 20. Espedientea.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: Orrialdeak, 147-158.

14. 1429-Abuztuak-19.

**Juan II.ak Erretereriako pribilegioak berretsi zituen.**

EUA: B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 21. Espedientea.

Pub. GAMON: 341. orrialdea.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: 159. orrialdea.

15. 1429-Irailak-3.

**Juan II-k Erretereriako pribilegioak berretsi zituen.**

EUA: B. Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 21. Espedientea.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: Orrialdeak, 160-161.



16. 1456-Azaroak-6.

**Kontzejuak Hiriko zenbait bizilagunei emaniko ordezkari-tza berretsi zuen.**

EUA: C. Saila, 5. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: Orrialdeak, 186-187.

17. 1458-Martxoak-7.

**Enrique IV.ak Errenteriako pribilegioak berretsi zituen.**

EUA: B. Saila, 1. Bulegoa, 2. Liburua, 2. Espedientea.

Pub. CRESPO RICO-CRUZ MUNDET-GÓMEZ LAGO: Orrialdeak, 197-198.

18. 1489-Maiatzak-26.

**Errege Katolikoek libre uzten dute Errenteria zenbait zerga ordaintze-tik, gerrak sorturiko kalteak dela eta.**

Cit. AROCENA-MÚGICA: 393. orrialdea.

Cit. VÁZQUEZ-MURO: 14. orrialdea.

19. 1512.

**Hiriaren egoerari buruzko txostena, armada frantsesak 1512an su eman ondoren.**

EUA: E. Saila, 5. Bulegoa, II Errenkada, 1. Liburua, 4. Espedientea.

Cfr. VÁZQUEZ-MURO: 15. orrialdea.

20. 1552-Azaroak-23.

**Udaletxea eraikitzeko asmoz orubea erostearen akordioa.**

EUA: A. Saila, 1. Bulegoa, 3. Errenkada, 89. Orrialdea atzekaldean.

21. 1598-Urtarrilak-14.

**Kontzejuko bilkuraren akta.**

EUA: A. Saila, 1. Bulegoa, 7. Liburua, 86. orrialdea aurrekaldean.

22. 1602-Martxoak-13.

**Kontzejuaren bilkura.orubea erostearren, Udaletxea eraiki asmoz.**

EUA: A. Saila, 1. Bulegoa, 3. Liburua, 172. orrialdea aurrekaldean.

23. 1603-Maiatzak-4.

**Kontzeju irekiaren bilkurari buruzko akta, non erabaki baitzen Udaletxea eraikitzea.**

EUA: A. Saila, 1. Bulegoa, 3. Liburua, Orrialdeak 176 atzekaldean eta 177 aurrekaldean.

24. 1640-Abenduak-5.

**Hiriko alkate den Domingo de Berrotaranen etxean egindako kontzeju-ko bilkuren aktak.**

Kontzejuko Akten Liburua, 16. Zbk, Orrialdea, 31. aurrekaldean.

25. 1654-Urtarrilak-1.

**Udaletxea eraberritzeko baldintzak.**

EUA: D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

26. 1798-Apirilak-24.

**Armada frantsesak, Hirian egon zen bitartean, udaletxean eragindako kalteen balioztapena**

EUA: D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

27. 1844.

**Eskola municipal Udaletzeko bigarren solairuan kokatua egotearen lehenengo aipamen dokumentala.**

EUA: B. Saila, 5. Bulegoa, I Errenkada, 1. Liburua, 4. Espedientea.

28. 1866-Abuztuak-31.

**Udaletxearen deskripzio eta balioztapena**

EUA: D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.



29. 1873-Ekainak-16.

**Udaletxearen barnekaldeko deskripzioa.**

EUA: D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

30. 1877-Martxoak.

**Udaletxean obrak egitearren ezarritako baldintzak.**

EUA: D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

31. 1884-Urriak-23.

**Eustaquio Inciarte, udal epaileak Errenteriako alkateari igorri gutuna, non esaten dion ez dela auzitegia ipintzeko egokitu diren geletan lanean hasiko**

EUA: D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

32. 1905-Azaroak-11.

**Bigarren solairuaren eraldatzea eta alkatetza, batzorde aretoa eta idazkaritzako bulegoak kokatu asmoz bertan eginiko lanak.**

EUA: D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

33. 1906-Ekainak-7.

**Eskailera nagusiaren eta edifiziora sartzeko atearen berriztapena egiteko onartzea.**

EUA: D. Saila, 3. Bulegoa, 1. Liburua, 1. Espedientea.

34. 1925-Otsailak-2.

**Batzorde nagusiak onartu egin zuen udaletxearen aldameneko bi etxeak erostea, Kapitanenea kalean kokatuak, udaletxea handitzeko asmoarekin.**

EUA: D. Saila, 3. Bulegoa, 8 Liburua, 3. Espedientea.

35. 1948-Otsailak-3.

**Batzorde nagusiak onartu egin zuen Udaletxearen alboan dagoen solairuaren gainean beste berri bat egitea, bertan eskualde epaitegia eta beste udal zerbitzu zenbait ezartzeko.**

EUA: D. Saila, 3. Bulegoa, 10. Liburua, 18. Espedientea.

36. 1960-Urriak-20.

**Obren egilea esleitu zen, udaletxearen alboko behe solairuan liburutegia eta udal artxiboa ezartzeko.**

EUA: 428/2.

37. 1964-1965.

**Udal bulegoetarako sarbide berriak egin ziren.**

EUA: 428/2 eta 3.

38. 1967.

**Udaletxeko arkupeen erdialdean ate bat eta saihets bitan bana ireki ziren.**

EUA: 713/9.

39. 1968-1969.

**Udaltzaingoaren geletan eginiko eraldatze eta handitzea,**

EUA: 736/1.

40. 1969-1970.

**Eraldatzeko eta handitzeko obrak, kontuhartze eta hirigintzako bulegoetan.**

EUA: 428/2 eta 3.

41. 1970.

**Artxiboaren eta Hirigintzako bulegoaren berrizatzeko obrak.**

EUA: 801/6.

42. 1970-1972.

**Teilatuaren eta atezainaren etxearen konponketa.**

EUA: 603/10.



43. 1972-1974.

**Udaletxeko Areto Nagusiaren eraldatzea.**

EUA: 713/16.

44. 1974.

**Valeriano Leceta Gabarainek Areto Nagusiaren buruhorma margolanaz edertu zuen.**

EUA: 711/15.

45. 1980-1981.

**Udaltzaingoaren geletan atontze lanak egin ziren.**

EUA: 736/2.

46. 1981.

**Antzinako liburutegia Udal Artxibo bilakatu zuten.**

EUA: 399/4.

47. 1981-1985.

**Udaltzaingoaren geletan eginiko obrak.**

EUA: 736/3.

48. 1986-1988.

**Udaletxearen handitzea, hirugarren solairua egokitu ondoren.**

EUA: 814/6.

49. 1988-Ekainak-20.

**Udaletxea birgaitzeko egitasmoaren onartzea.**

EUA: 814/12.





## II

# ARTE AZTERKETA

### 1. UDALETXEAK. SARRERA ETA TIPOLOGIA

Errenteriako udaletxearen azterketa hau hasteko udaletxeei buruzko oharpen orokorrak egingo ditugu, bai eraikuntzako tipologiaren aldetik eta bai Hirietako gobernuaren bilakaeraren isla gisa.

Euskal Herriko Erdi Aroari gagozkiola, kontzeju irekia arrunta zela esatea topikoa da, konplexutasun gutxikoa zen garaiko udal politikak hartarako eraikuntza propioen beharrik ez baitzuen. Erdi Aroaren amaiera arte (1423) itxoin behar da Iruña bezalako hiri handiek kontzejurako eraikuntzaren beharra senti zezaten. Ez dugu udaletxe horren egitura ezagutzen (gaur egun desegina baita); XVI. mendearen hasierako Gasteizen, aldiz, gerora erabiliko den ia tipologia bakarra aurkitzen dugu. Honelakoa da: beheko solairua bere atariarekin eta haren gainean areto nagusia, balkoien bidez kaleari irekia dagoena. Eskema horretan oinarrituriko aldaerak anitz dira eta, denbora iragan ahala, arazorik gabe egokitu zitzaizen ondoz-ondoko joera artistikoei.

Gasteizko udaletxearen aurretik, eskema hura ezarria zegoen jadanik Europako beste zenbait lurraldetan, bai Espainian eta bai Iparraldean, eskema soil hori oso egoera eta geografia desberdinetara ongi egokitzen delako seinale.

Goian adierazi bezala, udal politikarena ukitu beharreko beste alderdi bat genuen, bai eta, batez ere, haren aristokratizazioarena. Udaletxerako trazak egiten (1604) eta obrak bukatzen (1607) diren urte beretsuetan, Hiriko lehen ordenantzen ordezkoko berriak onartzen dituzte. Ez da harrizkoa arautegi berri baten premia

izatea, ekonomia eta gizartearen esparruan gertatuak ziren aldaketak kontuan hartuz gero. Nolanahi ere, ordenantza berri horietan, kargudunek edo soilki udal politikan eskuhartzen zuten pertsonak onibarretan izan behar zituzten aberastasuna (*millares*) ezarri ziren (ohiturazkoa zena idatziz finkatuz seguruenik). Arau horien ondorioz, biztanleria gehiena udal (edo probintziako) politikatik kanpo geratu ziren; garai hartan eskubide hori Hiriko berrogeita hamar bat pertsonaren esku zegoen.

Euskal Herri osoari doakionez, Martínez Gorriaráneek honako hau diosku: *“Las primeras ordenanzas millaristas aparecen en el siglo XVI, burlando como se ha dicho los sistemas municipales más participativos que no señalaban restricciones económicas a la intervención del vecindario en la vida concejil. (...) Así la igualdad política desapareció una vez universalizada la hidalguía y acortadas las diferencias con los viejos linajes señoriales, esto es, una vez instaurada la ficción de la igualdad”*<sup>70</sup>.

Errentan oinarrituriko udal politika eta udaletxeen eraikuntza, Euskal Herrian bederen, koinzidentzia hutsa ez dela nahikoa agerikoa da. Alde batetik, udal politika gero eta konplexuagoa izateak eta gero eta profesionalizatuagoak dauden pertsona gutxiagoren esku izateak, egoitza iraunkorra gertu izatera behartzen du, eta egoitza horrek ez du zertaz herri guztia kontzejtu irekian hartu beharrik.

Bestalde, “Casa Consistorial” erdarazko izenaren beraren sinboloa ez da alde batera uztekoa, merkataritzan eta burokrazian oinarrituriko klase gailen berriak lortua zuen nagusitasunaren erakusgarri baita, nahiz eta jadanik aspalditxokoak ziren ahaide nagusien arteko borroketan sorturiko klase hori onibarren jabea ere bazen. Izan ere, jende multzo ahaltsu horren interesak eta, oro har, Hiriarenak baturik agertarazteko modu bat zen izendapen hura.

## 2. ARAMBURU ARKITEKTOAZ

### 2.1. Biografia erreferentziak; estilo-erlazioak

Lan honetan behin baino gehiagotan azaldu denez, Miguel de Aramburu Anaia frantziskotarra da gure udaletxeko arkitekto edo trazagilea. Azpimarratzekoa da joan den mendera arte Aramburuk izan duen ospea; herri mailako ospea, egia esan. Dena den, pertsonaia hau ikuspuntu desberdinetatik aztertu dutenak ez dira haren biografian eta nortasun artistikoan barnatzeaz gehiegi arduratu.

Badakigu hau ez dela haren bizitza luze aztertzeko tokirik egokiena; arte alderdiari dagokionez, haren kultura ezagutzak eta gure eraikuntzan izan duten eragina ulertzen lagunduko dizkiguten datuak soilki hartuko ditugu kontuan.

<sup>70</sup> “Lehen ordenantza millaristik XVI. mendean agertu ziren, kontzejuko bizitzan auzokoen eskuhartzeari ekonomia baldintzarik jartzen ez zioten partaidetza zabalagoko udal sistemak saihestuz. (...) Hala, berdintasun politikoa desagertu egin zen behin kaparetasuna orokortu eta antzinako jaunen leinuekiko aldeak murriztuz gero, hau da, behin berdintasunaren fikzioa ezarritz gero”.



Arambururen biografiaz, Anai José Adriano de Lizarraldek esandakoaz gain, gauza gutxi dakigu. Hona Lizarraldek idatzitakoa: *“Nació hacia los años de 1551 en la Villa de Cerain (Guipúzcoa), y siendo franciscano de la provincia de Cantabria murió en el convento de San Francisco de Miranda de Ebro el 6 de Julio de 1631. (...) No se sabe de quién era hijo, ni dónde tomó el hábito, ni con qué maestros se ilustró”*<sup>71</sup>...

Badakigu, ordea, eraikuntza batzuen diseinua burutu zuela, frantziskotarren komentua funtsean, bai Gipuzkoan eta bai oraingo Kantabriako Komunitatean (ez nahastu Frantziskotarren Kantauriko Probintziarekin), bai eta aholkulari eta aditu gisa ihardun zuela jadanik burutzen ari ziren beste zenbait eraikinetan ere. Gure udaletxeaz (1604) gain, hona Arambururen obrarik ohargarrienak: Eibarko Isasi monasterioa (1606), Azkoitiko Ama Birjina Sortzez Garbia (zalantzazko data) eta Tolosako San Frantzisko (1597).

Eta, dokumentazioa oinarri harturik, ezin askoz gauza gehiago esan gure autoreaz; gainerakoa estilo-erlazioetatik abiatuz burutuko dugu.

Lehenik eta behin, Arambururen arkitekturaren gauzarik deigarriena haren soiltasuna da; hori izan da tratatu-idazleek, Ceán Bermúdez neoklasikotik hasita, gehien goretsi dutena. F. de Herrerarekin erlazionatu dute eta izan dira haren dizipulutzat hartu dutenak ere. Dударik gabe, gure arkitektoaren ikasketak, urte askotan erresumako arkitektozik ospetsuena izan zenarekin erlazionatzea, bera ere ospe horretaz kutsatzeko modua da. Hain zuzen ere, hori da Herrerarekin hain estu erlazionatzeko arrazoi bakarra. Haren eraikuntzen apaingarririk ezak Herrera oroitarazten badigu ere, joera hori garaiko nagusia zela ohartu beharrean gaude. Aldi berean, beste zenbait alderdik heziera aski eklektikoa iradokitzen digute. Are gehiago, haren obretan ageri diren zenbait soluzio Andaluziako Berpizkundera eramaten gaituzte eta, zehazkiago, Vandelvira-gana eta Úbeda inguruko eraikuntza-gune garrantzitsu hartara.

Zein dira soluzio horiek? Funtsezkoena, Tolosako San Frantzisko elizako gurutzadura estaltzeko erabilitako ganga, aurretik bi aldiz bakarrik erabilia zena. Bata, Ubedako San Frantziskoko gurutzadura (frantziskotarren monasterioa berau ere), Vandelvirak burutua (1557) eta Orihuelako Santiagon (1551) bestea, Gerónimo Quijano-k eraikia. Esan beharra dago, Aramburuk ez zuela zertaz bi obra horiek zuzenki ezagutu behar, zeren eta Alonso de Vandelvirak, aurrekoaren semeak, deskribatu egiten baitzituen bere hargintza-tratatuan, haiek eraiki ahal izateko harriak lantzeko moduaren berri ere ematen zuela. Tratatu hori 1575 inguruan idatzi zuen eta, argitaratu ez bazen ere, eskuz idatzitako kopia ugari zabaldu ziren.

<sup>71</sup> “1551 urte inguruan jaio zen Zerainen (Gipuzkoa), eta Kantabriako Komunitateko frantziskotarra zela-rik, Miranda de Ebroko San Francisco komentuan hil zen, 1631ko Uztailaren 6an. (...) Ez dakigu noren semea zen, non apaiztu zen, ez eta zein irakaslerekin ikasi zuen”.

LIZARRALDE, Fray José Adriano de: *Historia del convento de la Purísima Concepción de Azpeitia*. Santiago de Compostela, 1921, 157. or.

Eraikuntzak ezagutu barik, soluzio horren berri bere esku izateko ahalbidea ikusirik, ez ginатеke gehiago luzatuko, zitekeen hegoaldeko hezketa horretaz, bes-telako arrazoiak ez izatera. Besteak beste, Errenteriako udaletxean erabilitako ornamentu bat: goialdeko erlaitzeko metopak apaintzen dituzten ispiluak izeneko horiek. Oharpen pare bat hasteko, metopen apaindura horrek Herreraren ohituretatik urruntzen du eta ispiluen erabilera bete-betean andaluziartzat jotzen du Chueca-k. Azken oharpena dela eta, metopetan ispiluak erabiltzen diren hiru gune aurkitzen ditugu BERPIZKUNDEAN: Toledon, La Manchán, Almansa inguruan, eta, berriro ere, Ubedan.

Ez dugu ahaztu behar, gortearekin eta oro har Gaztelarekin, Pizkundeak ezin sinetsizko garapena eta soluzio ugaritasuna erdietsi zituela Andaluzian. Hala bada, Aramburuk bigarren eskola horrekin harreman bereziak izan zituela iradokitzen dugu oraingoz.

Aurrekoa berrestearren, Errenteriako erlaitzek Hegoaldera jotzen dutela egiazta dezakegu, hein batean bederen. Ohizko tipokoak badira ere (aurrerago hitz egingo dugu horretaz), haien itxura bereziki sendo eta trinkoak Granadako Alhambrako Las Granadas izeneko atea (1540 inguru) ekartzen digu gogora.

Orain artean esandako guztia gorabehera, dudarik batere gabe eragin garbi bat dago, zentzu hertsian Herrera eta ondokoen arkitekturarena ez bada ere, ornameturik ez jartzeko eta forma funtsezkoak eta hutsak erabiltzeko joeraren eragina, alegia. Hau da, ahal den guztiaz gabetzea, oinarrizkoaren eta funtsezkoaren bilaketaren mesedetan. Modu horretara, esan dezakegu Aramburu guztiz “modako” arkitektoa izan zela Gaztelan egiten zenarekiko; aldi berean, hegoaldeko ukitu iraunkor (eta arkaiko, egia esan) horietaz ohartarazi eta arau klasikoaren hala-holako ulerkuntza adierazten duten ohiturak gaineratzen ditugula.

## 2.2. Aramburu eta arkitektoaren zeregin errenazentista

Atal honetan, dokumentazio eta bibliografiaren argitan, Aramburuk arkitekto gisa burutu zuen zereginaz ihardungo dugu, arkitekto hitzaren esanahi errenazentistaren —eta modernoaren— arabera, Erdi Aroan halako lanbiderik ez zela kontuan hartuz.

Arkitektoaren funtzio berri hau hiru alderditatik aztertuko dugu: batetik, “kontzeptuala” dei dezakegun alderdia; bestetik plano eta altxaeren zehaztasun handiaren eskaera berria eta, azkenik, haren nagusitasun ekonomikoa eraikuntzaren beste lanbideen aurrean.

Jakina denez, BERPIZKUNDEAREN bereganatze estilistikoa eta ideologikoa gertatu aurreko garaietan, hau da, Iberiar Penintsulan XVI. mendea aski aurreratu arte, zaila da norbanako profesionalik aurkitzea hargin eta eraikitzaileen gremioetan. Zaila izango da, beraz, eraikuntzaz arduratzen diren pertsonen eta eraikuntzak proiektatzen dutenen artean bereiztea.

Normala denez, Italian ulertu zen lehenengoz gaur agerikoa den bereizkuntza hori: eraikuntza bat diseinatu edo trazatzeko buru-iharduera eta bera eraikitzeko



iharduera “fisikoa”. Teoriaren esparruan, Iberiar Penintsulan Diego de Sagredo burgostarrak ezarri zuen bereizkuntza hori “Medidas del Romano” (1527) izenburuko tratatuan. Fernando Mar’as-ek tratatugile honetaz dioenez, “*arquitecto era el principal, instruido en las artes liberales*”<sup>72</sup>; ofizial liberal gisa, Burgosko autore horrek garbi bereizten zuen arkitektoa harginetatik, ofizial mekanikoak berauek, eskuz zihardutenak eta bestek erabakitakoa bete besterik egiten ez zutenak.

Jakina, adierazpen teoriko horretatik hispaniar munduan benetan asimilatua izan zen artean, nahikoa urte igaro ziren, 1570eko hamarraldira arte, El Escorial eraikuntzaren inguruan bildu zen arkitekto eta tekniko multzo hura agertu arte, hain zuzen ere.

Gure kasuan, Miguel de Aramburu frailea bilakaera horren eredia da Erreterian, urte gutxitan gertatu zen bilakaera hori, bestalde, nahiz eta atzerapen txiki batekin. Bertako parrokia, urte gutxi batzuk lehenago amaitua, Erdi Aroko moldeetatik gutxi aldentzen zen antolaketa bidez eraiki zuten. Aramburuk, aldiz, dokumentuetan azaltzen denez, traza batzuk eman eta ikuskatze-agerraldiren bat edo beste egin zuen gerora. Haren kasua, Cámara Muñoz-ek adierazitakoa-rekin bat dator bete-betean: “*cuando la categoría de la obra comitente al arquitecto lo permita, la figura del tracista quedará al margen de la realización material de la obra, limitándose a comprobar en sus visitas que se va haciendo conforme a sus trazas*”<sup>73</sup>. Zeren eta autore berak dioenez, “*hay que hacer notar que el arquitecto fue tanto más únicamente tracista cuanto más se aproxima a los centros de poder y a las instituciones*”<sup>74</sup>. Arambururen kasua bilakaera horren eredia dugu erabat.

Gorde den dokumentazioari begiratu azkar bat ematea adierazgarria da: Aramburu “*trazador y persona que dió la traza para las casas del Ayuntamiento*”<sup>75</sup>.; ondoko urtean egiten duen ikustaldira arte alde batera uzten du eraikuntza, Ondarza eta Garaiburu harginak hartarako kontratatzen dutela. Beste plano batzuk egin behar zituela eta gertatzen da bisitaldi hura, Erretereriako Trinitate komentukoak hain zuzen ere, “*su iglesia e cuartos (...) habiendo dado el dicho padre la traza de la obra...*”<sup>76</sup>.

Azpitarratzekoa da Aramburuk lehen trazei eraskin batzuk egin zizkiela gero “*alterando la primera traza y remate*”<sup>77</sup>; eraskin horiek obra garestitzen

<sup>72</sup> “arkitektoa nagusia zen, arte liberaletan ikasia zena”

<sup>73</sup> “arkitektoa arduratua dagoen obraren mailak hartarako bidea ematen duenean, trazagilea obraren eraikuntza materialetik at geratuko da, eta bere agerraldietan delako obra trazaren arabera egiten ari den egiaztatzeraz mugatuko da soilki”.

<sup>74</sup> “ohartu beharra dago arkitektoa botere-guneetara eta erakundeetara zenbat eta gehiago hurbildu, orduan eta hein handiagoan trazagile hutsa izan baitzen”.

<sup>75</sup> “trazagilea da eta Udal etxeetarako traza eman zuen pertsona da”. EUA, A Saila, 1. Bulegoa, 11. Liburua, 75 folioa.

<sup>76</sup> “bere eliza eta gelek in (...) fraile horrek obraren traza eman duela...” EUA, A Saila, 1. Bulegoa, 11. Liburua, 137v folioa.

<sup>77</sup> “lehen traza eta errematea aldatuz”.

dutela eta, azkenean ezer ez egiteko eskatzen da “*sino en la traza y manera que está comenzada*”<sup>78</sup>. Nolanahi ere, aldaketa horiek zehaztuta geratu bide ziren plano berri baten bidez. Edo gutxienez hori da geroagoko dokumentu batzuek, bi proiekturen berri ematen baitute horiek: “*las trazas del remate y las que después dio el padre fray Miguel de Aramburu*”<sup>79</sup>.

Traza famatu horiek gorde ez direnez, badago alderdi bat erabat ezezaguna zaiguna, hots, haien zehaztasun maila, haien doitasuna neurrietan eta xehetasunetan, etab.; alderdi guzti horiek arkitektoak, eraikuntzaren guztizko buru gisa, duen zeregin berriaz hitz egiten digute.

Marías-en aipamen luzea eginez, arazoa gehiago argituko dugu: “*Otra novedad habría sido la absoluta corrección de medidas y la aparición de verdaderos tomos de dibujos para una obra que alcanzan con el montañés (Herrera) caracteres totalizadores, permitiendo a aparejadores y constructores tener sobre el papel y desde el inicio de las obras prácticamente resueltos, o por lo menos diseñados, todos los problemas y detalles. Series conservadas parcialmente (...) incluían desde plantas, montes y secciones generales hasta detalles en escala 1/1 de capiteles, basas y moldurajes...*”<sup>80</sup>.

Pasarte luze horren ondoren, Aramburuk eman eta Ondarza eta Garaiburuk egindako trazaren doitasunaz galde dezakegu. Gure ustetan, kanpoaldeko fatxadeti dagokienean, doitasunak erabatekoa izan behar zuen, hain ikusgai ez ziren alderdiak harginen senaren baitan geratzen zirela, hala nola zimendatze batzuk edo atzealdeko zenbait pareta. Horretaz aparte, seinalaturiko zenbait hobekuntza (harrizko eskailera, erlaitz apainduagoa, etab.), neurri handi batean, harginek burutuak izan zitezkeen. Guk hala uste dugu, bigarren trazez hitz egiten bada ere, zeren eta, adibidez, hizkuntza klasikoaren ikuspegitik, goialdeko erlaitzean biltzen diren akatsak nekez burutu zitzaizkeen Aramburuk berak. Bestalde, harrizko eskailerak egitea trebetasunezko ariketatzat har zezakeen eskarmentuko harginak, arkitektoaren gauzetan zertan sartu beharrik ez zuela. Amaitzeko, edozein modutan ere zalantzan jartzen dut lehen trazaren zurezko eskailera hain gutxi zehaztua izatea.

Amaitzeko, eraikuntzaren diseinuari dagokionean, hiru zehaztasun-maila posibleren aurrean aurkitzen garela esan behar. Lehen buruan, xehetasun-maila bat kanpoko fatxadetan; bigarrenik, xehetasun-maila txikiagoa oinplano, zimentarri eta atzealdekoetan (dokumentazioak hori iradokitzen digu) eta, azkenik,

<sup>78</sup> “*baizik eta hasia zegoen trazan eta moldean*”.

<sup>79</sup> “*erremateko trazak eta gero Miguel de Aramburu fraileak eman zituenak*”. EUA, A Saila, 1. Bulegoa, 11. Liburua, 1251v folioa.

<sup>80</sup> “*Beste berrikuntza bat neurrien erabateko zuzentasuna eta benetako marrazki-liburuen agerpena da, Herrearekin izaera totalizatzailea iristen duen obra batentzat, aparejadoreei eta eraikitzaileei paperaren gainean eta obren hasieratik arazo eta xehetasun guztiak konponduak, edo gutxienez diseinatuak, izatea bideratuz. Partez gorde diren sail batzuek (...) montio eta sekzio orokorretatik kapitela, harroin eta molduren 1/1 eskalako xehetasunetara*”.

MARÍAS, Fernando: *El largo siglo XVI*, Madrid, 506. or.



gutxieneko xehetasuna zurgintza obran, lehendabiziko eskailera barne. Azken alderdi horri dagokionez, dokumentazioak hargintza-obrarakiko erabateko independentzia seinatzen du zen, bai eta kostua, zur kopurua, etab. zehazteko peritajeak egiteko premia ere, eta horrek ematen digu aditzera guzti hori ez zegoela zehaztua Arambururen trazan.

Ez dugu aipatu oraino garai haietarako arkitektoaren lanbideak iritsia zuen nagusitasun ekonomikoa, harginaren eta eraikuntza alorreko beste lanen aurrean.

Nolanahi den, Arambururi udaletxeagatik ordaindutakoaz ez dago daturik. Orobat, ez dakigu zer ordaindu zieten Ondarza eta Garaibururi soldata gisa, material eta hornizioen kostuekin nahasirik zirenez, ezinezkoa baita alokairua haietatik bereiztea. Halaz guztiz, ezaguna da udalak zein kopuru agindu zuen gorago aipatu den Trinitateko komentuaeren trazengatik: 20 dukat. Kopuru hori urrun da 25 urte lehenago Herrerak Sevillako Lonjagatik kobratu zituen 1.000 dukat haietatik. Egia da erresumako arkitektoak ospetsuena zela Herrera, bai eta kopurua guztiz handia zela. Francisco de Mora, errege-arkitektoak, adibidez, 106 dukat kobratu zituen Colegio de la Madre de Dios hartarako diseinuengatik. Zalantzarik gabe, Arambururen sariak ez dirudi eskasegiak zirenik, lanaren garrantzia (komentu txiki baterako planoak) eta arkitektoaren tokiko ospea kontuan hartuz gero. Dokumentazioak hartarako bidea eman izan balu, interesgarria izango zatekeen arkitektoaren eta harginen soldaten arteko aldea ezagutzeari, handia seguruenik eta XVI. mendean zehar etengabe handitu egin zena.

Ohartu beharra dago, azkenik, modernotasun beteko urte batzuen ondoren, 1614 urte arte luza daitezkeenak, ordukoak baitira Madrilgo Francisco de Mora-k egin Erretereriako Parrokiako portadarako trazak, eraikuntzako lan-antolamenduari dagokionez, Erdi Arokoekin zerikusi handiagoa duten moldeetara itzuliko da XVII. mendean eta Euskal Herri osoan. Chueca Goitiaren arabera, harginen taldeetara itzuliko dira eta haien artean ez dira funtzio garbiak bereiziko, garaturiko ereduak behin eta berriro errepikatuko direlarik.

### 3. UDALETXEA. ELEMENTUAK ETA ARKITEKTURA

#### 3.1. Oinplantak eta altxaerak

Atal honetan eraikuntzari buruzko ohar orokor batzuk eman besterik ez dugu egingo. Lehen buruan, Erretereriari dagokiona guztiz ados dator lan honen hasieran aipatzen genuenarekin; hots, anitz aldiz errepikatzen den udaletxe-mota baten aldaera bat gehiago dela. Goian adierazitakoa gorabehera, pentsatzekoa da gero eta arreta gehiago jarriko zutela eraikuntza osatzen duten elementuen ardazkera egokian. Horrenbestez, gure eraikuntzan ahalik eta ardura gehiena jarri zen taldean, atarian, eskaileran (oraingoa moderno bada ere, lehengoaren toki bera hartzen du), bilera-aretoan, halako moldez non bai estetikaren eta bai irudikapenaren alde tik erabat baturik agertzen den.

Halaber, fatxada nagusiaren ornamentazioa eta konposizioa zaindu egiten da, hori baita udalaren ospea eta ahalmena adierazteko modurik nabariena; dena den, konposizioari dagokionean atal honetan seinalatuko ditugun zenbait muga daude. Muga horiek bai udaletxeak eraikuntza gisa, bai udal erakundeak eta bai Arambururen trebetasun eta antzeak dute iturburu. Horrekin argiegia ez den fatxadaren konposizioaz ari gara. Hasteko, lau kalek zatitzen dute fatxada horizontalean; modu horretara, ardatz baogunerik batere ez da eta hori, ikuspegi neoklasizistatik ez da oso gauza desiragarria. Zalantzarik gabe, Berpizkundean soluzio askoz ere konplituagoak eskaini zituzten antzeko premiak eta orubeak zituzten eraikuntzetarako; soluzio horiek, alabaina, edo Aramburuk ez zituen eza-gutzen, edo ezin imajinatu edo ezin burutu zituen. Beste gauza bat ere gerta zitezkeen, alabaina: udalak bestelako altxaera “ausartago” batzuk arbuiatzea, alegia, dela kontserbadurismoagatik dela eraikuntza funtzionala nahi zutelako: ahalik eta sendoena eta, aldi berean, ahalik eta argiena. Hartarako, oraingo antolaketa proposena da, hutsune kopuru handiena irekitzen baitu eraikuntzaren egonkortasuna kolokan jarri gabe.

Zatiketa bertikalari dagokionez, ez da ezer esaterik, baizik eta berritasun gutxikoa dela (solairu bakoitza erlaitz batek seinalatua da); horrek esan nahi du arkitektoak ez zituela ordenamenduari buruzko berrikuntza italiarrak ezagutzen (ordena erraldoia, etab.), agertu zirenetik mende erdia iragan bazen ere. Dena dela, litekeena da, berriro ere, udala bera izatea berrikuntza horiei uko egin izana.

### 3.2. Elementuak

Atal honetan, gure eraikuntzaren izaera sakon adierazten duten elementu sail bat aztertzeari ekiten diogu. Elementu horien estilo-jatorria aurkitzen saiatuko gara eta, horren bidez, beste ataletan agertuari eutsiko diogu.

Ukitu beharreko lehen alderdia erlaitzei dagokiena da, bertikalean eraikuntza zenbait solairutan zatitzen dituen, goialdeko solairua taulamendu oso batez errematatua delarik. Ohartu beharra dago moldura guztiei erlaitz izena ematen diegula, baina bestelako eraikuntzatan haietariko batzuei inposta izena egokiago eman litzaiek, zeren eta eskema bera garatzen baitute, bai azken solairuko “egiazko” erlaitzean eta bai beste bi solairuetako molduretan ere. Eskema hori gutxi-asko Vignola-ren toscanar ordenarena edo Serlio-ren doriarrarena bera da.

Lehen erlaitz-lerro biak hormaren gainean bermatzen dira zuzenki, errealitatean hizkuntza klasikoarekiko akatsa dena: erlaitz batek taulamendua errematatu behar du, eta ez horma baten erdian bere gisa utzia izan. Garai hartan, betiko “arkitrabe-friso-erlaitz” saila saihesteko modua eskema guztia irtenune baten bidez iradokitzea zen, El Escorialen hain erabilia izan zena.

Hemen, alabaina, esana dugunez, Aramburuk ez zuen ezta neke hori ere hartu. El Escorial herriko San Bernabe eliza ez izatera, non Francisco de Mora-k



antzera jokatzen duen, pentsatu beharko genuke gure udaletxean Aramburuk ezjakintasuna erakusten zuela.

Erlaitz horiek duten alderdi oso deigarria, jadanik aipatua, sendotasuna da; goian adierazi bezala, Alhambrako Puerta de las Granadas deiturikoan dago horren aurrekoa, Pedro Machuca-k proiektatua baina geroago Juan de Orea-k antza-burutu zuena. Erreneriakoen berdinak diren erlaitzen itxura sendo hori, bestalde, lehen aipatu San Bernabe elizan ere aurkitzen dugu. Puntu honetan seinalatu beharra dago askotan aipatu dugula Francisco de Mora; izan ere, haren zeregina Errenerian, Madrilgo arkitekto batentzat suposa litekeena baino handiagoa izan bide zen, baina hori, tamalez, beste toki batean ukitzeko gaia dugu.

Nolanahi den ere, aurreko "ikasi" horiek, hau da, Herreraren estiloa eta Francisco de Morak hartaz burutu bilakaera, bai eta Oreak egindako erlaitza baldin badira ustezko akats horren iturburua, esan dezakegu eraikuntza bide onetik doala. Kontuan hartuz, beti ere, harginek Arambururen diseinuez egindako interpretazio okerretik sortuak izan daitezkeela ezaugarri horiek.

Azken hipotesi horrek balio zerbait hartzen du azken solairuko taulamendua zehatzago aztertzerakoan, bertan inkongruentzia batzuk aurkitzen baititugu. Esan bezala, lehen proiektuaren ondoren erantsitako elementua da, dokumentazioak seinalatzan duenez: *"la cornisa última en que se remata la obra conforme a esa traza que dio quedaba pobre (...) y así su parecer (de Aramburu) es que se eche algún ornato dórico y cornisa bien ordenado"*<sup>81</sup>. Antza denez, "aberaste" horrek zerikusi handiagoa zuen eraikuntza itxurosoago ager zedin nahiarekin -arkitektoak jasandako kanpoko presioek eraginda-, arkitektura-eskaerekin baino. Horrenbestez, fatxadako beste elementuekin alderatua aski desberdina den eta hain landua dagoen errematearen argitan, ez da harritzekoa gainerako gutzia urri baino areago xuhur azaltzea ere.

Bestalde, erlaitz eskerga horretako xehetasun aski desegokia nabarmendu beharra dago; eraikuntzaren izkinako triglifo zatituaz ari gara. Zalantzarik gabe, taulamendu doriarra tratatzeko izan daitekeen modurik desegokiena da angelu bat okertzen baitu, ohikoagoak diren bien aurrean (haietako bat parrokiako portadan. Gainera, doriar edo toscaniar taulamendu baterako joniar edo korintiarrari dago-kion arkitrabe bat aukeratzeak suposatzen duen askatasuna kontuan hartu beharra dago.

Hala beraz, lehen begiratuan paradoxikoak diren zenbait elementuk jatorri ikasia eta jantzia dutela esan badaiteke ere, beste batzuk azken orduko inprobisazioen fruitu direla ematen du, apaindurazko edertasuna lortzearekin azken emaitza egokia iristearekin baino zerikusi handiago dutela alegia. Inprobisazio horiek

<sup>81</sup> "traza horren arabera, errematea ematen duen azkeneko erlaitza pobre gelditzen zen (...) eta, hala, haren iritzia (Arambururena) apaindura doriarren bat eta erlaitz bat ondo ordenatua ematea da".  
EUA, A Saila, I. Bulegoa, 11. Liburua, 75 folioa.

Ondarza eta Garaiburuk eginak dira inolako zalantzarik gabe; horiek ornamentuak jarri zituzten gogoeta gehiegi egin gabe, eta halaxe jokatu bide zuten Mora-*k* diseinatu zuen parrokiako portadarekin.

Taulamenduko azken elementu bat geratzen zaigu aztertzeko: zirkulu hutsez apainduriko metopak (ez dira lore-motiboak), Berpizkundean beste eskualdeetan erabili ziren ispiluen antzekoak direnak. Gai horri buruz hitz egin dugu jadanik; bakarrik metopa bat apaintzeak eredu herrerianoetatik aldentzen gaituela azpimarratu beharra dago hemen, eta horrek Arambururen eklektizismoaren berri ematen digu berriro ere. Horretaz aparte, esan daiteke harginek egin dezaketen gutxieneko apaindura dela hori, hortaz ez dago arazorik diseinua eta errealizazioa haiei egozteko.

Erlaitzetatik jaitsi eta leihoak aztertuko ditugu orain, eta bereziki leiho horiek inguratzen dituen moldura. Izkinak gurutze itxurazkoak dituen irtenune errektangularraz ari gara. Haren jatorria Herreraren arkitekturarekin erlazionatu daiteke zehaztasun handirik gabe, baina egia esan, ez du aurreko zehatzik (gutxienez, ez dugu horrelakorik aurkitu). XVII. eta XVIII. mendeetan, ordea, guztiz ohikoa izango da Euskal Herri osoan, baina 1603 urtea den bezain data goiztarrak erabateko hasikin bihurtzen du Erretereriako kasua.

Amaitzeko, beheko solairuan irekitzen diren atariko arkupeez arduratuko gara. Arkuez ez da ezer apartekorik esan behar, baizik eta oso harrigarria dela haien gehiegizko urritasuna. Hona zergatik: harrigarria da arkuak kanpoaldera nabarmenduko lukeen moldura zentrokiderik ez agertzea; halakorik ez denean, dobela berdinek antzeko zeregina izan ohi dute. Erretererian (eta Azkoitiako komentuan ere) ez da hori gertatzen: ez dago moldurarik nabarmentzeko eta dobelak, despieze guztiz klasikoarekin, ez dute inolako zereginik betetzen zentzu horretan. Soilki Serilioz eta haren arkuetarako ereduez -despiezea funtsezkoa dutenak- oroituz gero, aurrekoren bat aurki diezaiekegu. Hala eta guztiz, autore horrek ez du modu horretara erabiltzen, ez bada kuxindura oihasaz baliatzen, inoiz ez gurea bezalako paramentu "leunetan". Gure udaletxeak jasan dituen zoritxarreko "garbiketa" horietako bat izango ote da fatxadaren leuntze horren erantzule? Ez dago horri buruzko dokumentaziorik eta, edozein modutan ere, dobelak txiki-giak dira Serlioren formuletan eskatzen dena bete ahal izateko.

Hala bada, zein ziren Arambururen arrazoiak Herrera bera baino apaindura gutxiagorekin azaltzeko? Zeren eta ohartu beharra baitago bai Herrerak eta bai garaiko edo ondoko beste arkitektoek beti arreta handiz agertarazten dutela arkuaren erroska... baita guztiz erabiltzekoak diren obretan ere. Herrera bakarrik nitxotetan azaltzen da hori bezain soil: apaindurarik gabe eta geometria hutsa, batere entretenigarriarik gabe (neurri monumentalak iritsiz mende amaieran egin Salomonen Tenpluaren berreraikuntzetan).

Aramburuk, antza denez, ezin ofizialagoa zen ornamentaziorik ezak "modako" hizkuntza gisa zuen garrantziaz oharturik, modu zorrotzez gailurrean egon nahi izan baitzuen, baina hori, beste alde batetik, gezurtatu egiten da "aberasturiko" erlaitza hori dela medio.



#### 4. BIBLIOGRAFIA

- CERVERA VERA, Luis: *El convento de Santo Domingo de Lerma*. Madrid 1969.
- CAMARA MUÑOZ, Alicia: *Arquitectura y sociedad en el Siglo de Oro*. Madrid 1990.
- CHUECA GOITIA, Fernando: "Arquitectura del siglo XVI". *Ars Hispaniae*. Madrid 1953.
- CHUECA GOITIA, Fernando: *Historia de la Arquitectura occidental. El Renacimiento*. Madrid 1984.
- ÍÑIGUEZ ALMECH.: "Juan de Herrera, arquitecto, matemático y filósofo." *Revista Nacional de Arquitectura* 1957.
- KUBLER, George: "Arquitectura de los siglos XVII y XVIII". *Ars Hispaniae*. Madrid 1957.
- KUBLER, George: *La obra del Escorial*. Madrid 1993.
- LARRÍNAGA, Fray Juan Ruiz de: *La tradición artística franciscana*. San Sebastián 1923.
- LINAZASORO, J.I.: *Permanencias y arquitectura urbana*. Barcelona 1978.
- LIZARRALDE, Fray José Adriano de: *Historia del convento de la Purísima Concepción de Azpeitia*. Santiago 1921.
- MARÍAS, Fernando: *El largo siglo XVI*. Madrid 1989.
- MARTÍN RAMOS, Angel: *La construcción de Tolosa*. Bilbao 1993.
- MARTÍNEZ GORRIARÁN, Carlos: *Casa, provincia, rey*. Irún 1994.
- MÚGICA, Gregorio de: *Monografía histórica de la Villa de Eibar*. Irún 1910.
- ROSENTHAL EARL E.: *El palacio de Carlos V*. Madrid 1988.
- TAYLOR, René: *Magia y arquitectura*. Madrid 1992.
- URKOLA ANSOLA; Jaka Legorburu: *Historia de los Ipeñarrieta y sus casas palacio*. Urretxu 1978.
- VANDELVIRA, Alonso de: *Tratado de arquitectura*. Geneviève Coquelin de l'Isle-ren argitalpena. Albacete 1977.
- VILLALPANDO, Juan Bautista; PRADO, G.: *El Templo de Salomón*. Reedición, Madrid 1991.





### III

## ARKITEKTURA AZTERKETA

### 1. INGURUNEAREN DESKRIBAPENA ETA KOKAERA

Udaletxea Kapitanenea kalearen eta Herriko Plazaren artean kantoi egiten duen eraikuntza da, Errenteriako Hiriaren parte zaharra osatzen duen etxadiaren erdian.

Albo fatxada Kapitanenea kalera begira du. Hasierako herrigunearen kaleetako bat da. Zuzena da, 50 m. ditu luze eta 5,5 m. zabal; Iparmendebal-Hegoekialde hedatzen da.

Fatxada nagusia Herriko Plazara begira du; hartara iristen da Kapitanenea kalea Hegoekialdeko muturretik. Plaza “gogorra” da, harrizkoa, itxura irregularrekoa, hiruki eskaleno baten gisakoa, herriko parte zaharra bitan banatzen duena.

Herriko Plazako eraikuntza nagusia Jasokundeko Amaren parroki eliza da, hirukiaren Hegoaldea mugatzen duela; alde hori du plazak alderik laburrena. Parrokiaren aurrez aurre, enparantzaren alderik luzeenean (Kapitanenea kaleari buruz zut), Udaletxea aurkitzen da, enparantzako eraikuntza zibil garrantzizkoena eta arkupea duen bakarra.

### 2. LURSAILAREN ITXURA ETA EZAUGARRIAK

Lehen ere aipatu den bezala, kale kantoiko eraikuntza bat da, izaera publikoa duena. XVII. mendearen hasiera aldean eraiki zen. Eraikuntza honen berme egitu-

ra karga hormek, hormazurek, eta hareharrizko harlanduzko fatxadek osatzen dute. Eraikuntza hau Euskal Herriko Udaletxeen tipologia berekoa da.

Udaletxea kokaturik dagoen orubea oso-osorik hartzen du udaletxearen eraikuntzak berak. Itxuraz eta oinplanoz ia-ia koadro bat da, 14 x 14,30 m-tako aldeak dituela; horrela bada, oinpanoko azaleraz 200,20 m<sup>2</sup> hartzen ditu gutxi gorabehera.

Fatxada nagusia, Herriko Plazara begira duena, Hegoekialderantz begira du, eta albokoa Iparrekialderantz begira. Hegoekialdeko aldeari dagokionez, hango itxitura tarte horma batek eratzen du gaur egun, baina alde hartatik duen gorputzaren irtengune batek, eta teilatu hegalaren irtengune txikiak frogatzen dutenez, antzina kale estu bat izan bide zen leku horretan. Iparrekialdeko horma tarte horma bati dagokio gaur egun; mugakide duen eraikuntza Udaletxearen osagarri bihurtu da ordea gaur egun, eta horrenbestez igarobideak zabaldu dira horma horretan, bi eraikuntzen artean batetik bestera igaro ahal izateko.

Ohartarazi beharra dago, gainera, inguruko beste eraikinen sakontasuna Udaletxearena baino txikiagoa dela, horrez baliatu zen bere garaian tarte hormaren hondoan eta antzinako etxebitarteari dagokionean patiorako irtenguneak zabaltzeko.

### 3. ERAIKINAREN KANPO ALDEKO ITXURA

Eraikin honek hiru altura ditu, eta beste atiko atzera eraman bat, etxearen eraikuntza garaia baino askoz ere geroago jaso. Beheko solairuaren erdia hartzen duen arkupe batetik du sarbidea, hartara sartzeko lau arku ditu aurrealdean eta beste bi albo banatan, Herriko Plazatik eta Kapitanenea kaletik sartzeko. Arkupe horren barruko fatxadetatik, nagusia eraikuntzarako sarrerari dagokio, abiagunea eta giltzarria nabarmendurik dituzten puntu erdiko hiru arkuz osatua berau, eta aldameneko fatxada tarte horma bati dagokio, bertan esertoki luze bat dela.

#### 3.1. Fatxada nagusia


Eraikin honen fatxada hareharrizko harlanduz egina da, hiru altura ditu, beren artean elkarren bereizgarri hareharri horrez berez egindako zerrenda bat dutela, eta fatxadaren gorenean triglifoz eta metopaz osatutako friso bat du, horren gainean erlaintza finkatzen dela. Erlaintz horren gainean estalki egitura dago, zurezkoa; erlaintz honek zurezko habeburuak ditu fatxadaren gainera oso kanpora irteten den hegal bati eutsiz.

Beheko solairuko arkuteria  $2b=h$  proportzioko puntu erdiko lau arkuk osatzen dute. Inpostetan zerrendak dituzte. Arkuei eusten dioten zutarrien barrena aldeko ertzek 45°-tako angeluz hilik dituzte ertzak. Zutarri horien artean pilastra bat nabarmentzen da, kapitelik gabe beheko solairuaren atalburu eta erremate gisa jokatzen duen molduraraino iristen da.



UDALETXEA  
Ekialdeko fatxada

3. planoa




F. López-Roldán · J. Ubarrechena




UDALETXEA  
hegoaldeko fatxada  
herriko plaza

4. planoa



F. López-Roldán · J. Ubarrechena





Fatxadako hutsarte.  
Frisoaren ikuspegi xheha.

Lehenengo eta bigarren solairuek launa gela dituzte. Gela horiek beheko solairuko arkuen ardatzean aurkitzen dira. Inguru marrak dituzte sarguneetan, eta sargune horiek isten dituen arotzeria zurezkoa da.

Bigarren solairuko gela bakoitzak burdin forjatuzko balkoi bana du, eskubanda zurezkoa duena. Lehendabiziko solairuak eskema berbera du, salbuespen batekin: erdiko bi gelak aldameneko eta goiko baldkoiak baino irtenagoa den balkoi luze bakar batek lotzen ditueta. Bi gela horien artean, eta erdiko balkoiaren gainean, Hiriaren armarrria dago harriz landua.

Fatxada nagusi honen simetria ezkerreko ertzaren gorenean, erremate frisoaren alturan dagoen eguzki ordulari batek eteten du; erlojua alde batera bihurtua dago, Hegoaldera begiratzeko. Eguzki ordutegi hori fatxadaren gainerakoa eginda dagoen material berberaz dago egina.



Eraikin honen tipologia Udaletxearena bada ere, gauza ohargarria da solairu bakoitzean gela kopurua bikoitza izatea. Hain zuzen ere, horrexegatik, eraikinaren simetria ardatza horman aurkitzen da, eta ez sargune batean. Horren ondorioz, Erdiko balkoi bat baldin bada, agintarientzakoa, ohi den bezala, bi sargunetatik izango du irispidea balkoi horrek, eta sargune horietako batek ere ezin izango du sarbide nagusi.

### 3.2. Alboko fatxada

Alboko fatxadaren materialak eta konposizio eskema fatxada nagusiaren berberak dira: solairu bakoitzeko lau gela, goreneko biak balkoiei dagozkiela, eta behekoak beheko solairuko arkupea eratzen duten arkuiei dagozkiela. Era horretako antolamendu hori barreneko eskailera han egoteak eta beheko solairuko arkupean fatxada osoa ez hartzeak aldatzen dute soil-soilik.

Laburtuz, hauek dira fatxada honek fatxada nagusiarekin konparatuz dituen aldeak:

- **Beheko solairua:** Bi arku baizik ez dira arkupea eratzen dutenak, enparantzatik hurbileneakoak hain zuzen. Beste bien lekuan horma atal itsu bat dago; horma atal horrek badu arkuiek inpostetan duten zerrenda. Zerrenda horren gainean, hirugarren tartea izango litzatekeenetik eskuinetarantz aldatuxe, bada sargunetxo bat markoa goragoko sarguneez guten ingurumarraren berdina duena formaz, baina ez neurritz.
- **Lehenengo solairua:** Fatxada nuagusiko lehenengo solairuarekin duen alde bakarra enparantzatik urrutieneko hutsunean dago; hutsune hori eskailerari dagokio. Hutsune hori leiho jaso bat da, beste hiruetan dagoen balkoiaren orde. Hutsune honek ere badu inguruan zerrenda lau bat, zabaleraz eta alturaz besteena bezalakoxea, baina haietan ez bezala, beheko aldetik itxia, izan ere inguru zerrenda bau ez baita solairuko molduraraino iristen. Erdiko bi hutsuneez zeinek bere balkoia du, bien artean balkoi luzatu bakarra izan dez, baina bien artean bada Herriaren Armari bat fatxada nagusikoaren berdina, beharbada hark baino zentzu gutxiago duen arren.
- **Bigarren solairua:** Lehenengo solairuan bezala, hemen ere azkeneko hutsunean dago fatxada nagusiarekiko aldea, leiho bat baita hau ere; honetan ordea leiho honen ingurumarra besteen berdin-berdina da, eta solairu mailako molduraraino iristen da. Horregatik hain zuzen, ez dago proportziorik ingurumarra horren neurriaren eta leihoaren neurriaren artean. Gaur egun Erdiko balkoiaren lekuan hutsunea osorik hartzen duen burdinsare bat jarri da.

Goreneko erremateko frisoa eta erlaitza, eta teilatu hegala eta estalkiaren itingunea fatxada nagusikoaren berdin-berdinak dira.

### 3.3. Tarte horma eta etxartea

Karaitzezko hormarrizkoak dira. Horien barren-barrenean hutsune batzuk zabaldu dira eraikuntzaren aire berritzea eta argi sarrera egin ahal izateko.

- **Iparmendebaleko tarte hormak** lau leiho ditu: bigarren solairuan bi eta lehenengo solairuan beste bi. Beheko hauek mainel batek ebakitzen ditu goitik behera.
- **Hegomendebaleko etxarteak** leiho bat du lehenengo solairuan, eta 1,40x0,90 m.tako irtengune bat bigarren solairuan ere jarraitzen duena, horrek, eta estalkian hegaltxo bat izateak argi uzten du alde horretatik etxartea dela, gaur egun bihurturik dagoen tarte horma izan gabe.

### 3.4. Estalkia

Hiru isuraldeko estalkia da, egitura zurezkoa du, eta arabiar teilak. Bi fatxadai dagozkien isuraldeen hegalkak ia bi metro irteten dira fatxada haien gainetik, eta era horretara eguraldi txarretatik babesten dituzte. Hegalkin horri estalkiaren kanpoko egitura osatzen duten habeburu landuek eusten diote. Etxarte eta Hegomendebaleko tarte horma aldeko isuraldeari dagokionez, hegalkina askoz ere gutxiago irteten da fatxada paretetik, eta ez du habeburu landurik besteek bezala.

Estalki hau 1,20 m.tako alturan moztuta dago, 1905ean egin zitzaion jasotzea egin ahal izateko. Zati jaso horrek 11,80x10,20 m-tako oinplanoa du, fatxada nagusiaren aldera 11,80x 3,30 m-tako terraza bat duela. Eraskin honek ez du bate-re balio arkitektura ikuspegitik.


Eskerrak jatorrizko estalkia fatxadatik asko irteten den, eta eskerrak orobat zati jaso hori fatxaden paretetik atzeratua dagoen, fatxada nagusiaren aldetik hala ere terraza egoteak are gehiago atzeratzen duelarik, kaletik ezin da ikusi eraikuntza puska hori.

## 4. BARNEKO ALDEKO ITXURA

Gaur egun oso aldatuta dago eraikuntza hau, egin zenetik orain arteko aldie-tan eraikuntza honi egin zaizkion eraberritze, erabilera aldatze eta itxura aldatze guztien ondorioz. Jatorrizko egoera eta banaketatik aldatu gabe gorde dituen gauza bakarrak eskailerak duen kokaera eta beheko eta lehenengo solairuen bana-keta ditu agian.

Barreneko egitura era anitzetakoa da: karga horma batez eta zutabez eratua. Karga hormak bi zati gutxi gorabehera berdinetan banatzen du eraikuntza. Beheko solairuan arkupea eta barren aldea banatzen ditu, eta lehenengo solairuan bilera aretoa gainerako geletatik. Bigarren solairuan karga horma horren ordez zutabeak





Eguzki erlojuia eta fatxadako frisoa.

jarri dira. Eskailera, jatorrian zurezkoa zena, aldatu egin da eta haren ordez hormi-goi armatuzkoa jarri da, harmailak marmolezkoak dituen.

Barreneko banaketa era honetara da:

- **Beheko solairua:** Arkupeak oinplanoaren erdia hartzen du. Arkupe horretatik hiru atetatik dago eraikuntzarako sarbidea: ezkerrekoetik gaur egun harrera leku gisa erabiltzen den gela batera sartzen da. Erdikotik eta eskuinekoetik (hau itxita egoten da ia beti) behebarurako eta eskaillerarako sarbidea da. Behebarrua eta eskailera barreneko pasabide batez daude elkarrekin lotuta. Tarte horman egin ziren zulo batzuek, eta 50 cm inguruko maila alde bat gaindituz, harrera gela eta behebarria beste gela edo barrunbe batzuekin lotzen dira (artxibategia, biltegia, instalazio gunea, e.a.), mende honetan udaletxearen eraskin gisa jasotako eraikuntzan baitaude horiek guztiak.

- **Lehenengo solairua:** Eskailerak hiru tramo zuzen ditu, U itxuran, erdikoa beste biak baino luzeagoa dela. L itxura duen korridore baten adar luzeenaren muturrera ematen du. Korridore horren L angeluan, beheko solairuko harrera gelaren gainean, bilera areto bat dago. Barreneko karga hormaren beste aldean, beheko solairuko arkupearen gainean, eta haren azalera bera hartuz, areto nagusia edo kapitulu aretoa daude. Areto hori L itxurako korridorearekin bi ataleko ate batez komunikatzen da, eta bilera aretoarekin atal bakarreko ate txikiago batez; ate bi horiek karga horman daude eginak. Solairu hauxe da, egin diren eraberritze guztiak gorabehera, eraikuntzak hasieran zuen eitea ongien gorde duena. L itxurako korridorearen adar laburrenaren muturren dagoen ate batetik, lehen esan bezala Udaletxearen osagarri den eraikuntzan aurkitzen diren udal bulegoetarako sarrera dago.
- **Bigarren solairua:** Behetik gorako komunikazio gunea beheko solairuan bezala da, eta L itxurako banaketa korridorea ere bai, baina solairu honetan lehenengo solairuan baino laburrakoa da korridore hori. Lehen esan den bezala, solairu honetako egitura zutabez eratua da. Zutabe horiek L itxurako korridorearen adar luzeena mostradoretarako eta bulego orokorretarako espaziotik bereizten dute. L horren angeluan dagoen ate batetik erabilera publikorako ez diren geletara ematen duen banaleku batera sartzen da (alkatearen bulegoa, idazkaritzak, bilera gela eta bulego orokorretako langileen bulegoak). L korridorearen barreneko aldean, tarte horman egindako ate batez, osagarriko eraikuntza dauden udal bulegoetarako sarrera dago: zerga bilketa, diru zaingoa, begiraletza, langileen bulegoak, komunak, e.a.

Eskailera nagusia, eraikin historikoan dagoen bakarra, bigarren solairuraino iristen da. Hirugarren solairurako irispidea, solairu erantsiari dagokiona alegia, eraikuntza osagarritik baizik ezin daiteke egin. Solairu horretan hirigintzako bulegoak eta artxibategia eta delineaatzaileen eta teknikarien bulegoak daude.

Solairu gehitu honek arkitektura ikuspegitik, jatorrizko eraikinari dagokionez, inolako interes berezirik ez duenez, ez gara berori deskribatzen luzatuko.

## 5. ONDORIOAK


Bereziki aipatzeko gaitzik ez da nabari, eraikinaren antzinakotasunari eta zahartasunari zor zaizkionak ezik. Eraikina xede berrietara egokitzeko eta eraberritzeko egin diren obra ugariak eta berorren mantenurako etengabe egin direnek eraginik, eraikinaren egoera ona da bataz beste.

Kanpotiko itxurari dagokionez, eraikinaren azkeneko solairuaren jasotzea egiteko izan zen errespeto urria azpimarratzekoa da. Eztabaidagarria da orobat eraikuntza osagarriaren itxura ere, inolako loturarik ez baitu, solairu kopuruan eta solairu horien alturan ez bada, udaletxe historikoarekin. Eraikuntza honi dagokionez, beronen apaindurazko argiteria jartzean izan zen zuhurtasun urria aipatu




UDALETXEA  
Lehenengo solairua

5. plano




F. López-Roldán · J. Ubarrechena




UDALETXEA  
luzetarako epaia

6. plano



F. López-Roldán · J. Ubarrechena



beharko litzateke orobat, nabarmenegi geratzen baita. Ohargarria da orobat eraikuntza honen fatxadak zein zikin dauden; hori ordea, ez da eraikuntza mantentzeko ardura dutenen arreta faltaz edo utzikieriaz gertatzen, zenbait talderen edo pertsonaren gizalege eta jendetasun faltaz baizik. Fatxada horiek sakonetik eta ondo garbitzea mesedegarria izango litzateke, baina zenbaiten jarrerak aldatzen ez diren bitartean, denbora alferrik galdu eta dirua eralgitzea izango litzateke hori.

Barreneko aldeari dagokionez, oso aldaturik dago, eta zinez esan daiteke jatorrizko egituratik aldatu gabe geratzen den gauza bakarra lehenengo eta bigarren solairuen banaketa dela, barreneko karga hormarekin batera. Leku beharrak jatorrizko eraikinaren jatorrizko egiturekin koherentziarik ozta-ozta batere duten zabalkuntzak egitera bultzatu du.

Administrazioaren handitzeak eta hartu duen konplexutasunak, eta eskaintza eta zerbitzu hobeak eman beharrak eragin dute gaur egungo egoeran eraikuntzari egin zaizkion aldaketa eta zabaltze horiek guztiek ez dituztela oinarriko eta sakoneko arazoak konpondu, alderantziz, larriagotu baizik. Izan ere, eraikuntza honek, gaur den moduan, oso muga larriak ditu; horien artean aipatzekoak dira:

- **Leku urritasuna.** Urritasun hori dela eta zenbait departamentu (gizarte ongizatea, kultura, artxibo ondarea, udaltzaingoa, herri mantenimendua, e.a.) beste leku batzuetara eraman behar izan dira.
- **Eraikinaren egokitzeko zailtasuna.** Instalazio modernoek leku premien aldakortasunak eta konplexutasunak banaketa eta egitura malguagoak eskatzen dituzte, era horretara banaketa aldatu nahi bada, eta indar edo komunikazio sarea aldatu nahi bada eta hartuneak eta lotuneak lekuz aldatu nahi badira obrak egin beharrik izan ez dadin.
- **Arkitekturazko hesiei buruzko arauak ez dira betetzen.** Hori arazo larria da eraikuntza publiko batean. Mugimen urriko elbarriek arazo larriak dituzte udaletxeko zenbait zerbitzu edo geletara iritsi ahal izateko.

Gure iritzian oso seriotan hasi beharko litzateke pentsatzen ea ez ote den komeni udal zerbitzu guztiak gaur egungo udaletxe honek dituen muga eta gabeziak konpondurik izango dituen beste eraikuntza berri batera eramatea.

Era horretara, gaur dituen eginkizunak ez dituela, balio praktikoa baino simbolikoa gehiago duela, ordezkaritzako edo ezaugarritzako eraikuntza gisa gera daiteke, zenbait ospakizun ofizial bertan egiteko.



#### IV. BIBLIOGRAFIA OROKORRA

- BANÚS AGUIRRE, José Luis: *El Fuero de San Sebastián*, San Sebastián, 1963.
- BARCENILLA, Miguel Ángel: *La industrialización de Rentería*. Doktore tesia, Euskal herriko Unibertsitatea, 1991 (Argitara gabea).
- BARRENA, Elena: *La formación histórica de Guipúzcoa. Transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval* (Cuadernos Universitarios Mundaiz, 5. zbk.); San Sebastián, 1989.
- BARRUSO, Pedro: "La población activa de Rentería durante la II República. Una aproximación demográfica" *Bilduma*, 5. zbk., Rentería, 1990, 35-47. or.
- CRESPO RICO, M.A.- CRUZ MUNDET, J.R.- GÓMEZ LAGO, J.M.: *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería*, I. liburukia (Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 32. zbk.) San Sebastián, 1991.
- CRUZ MUNDET, J.R.: *Rentería en la crisis del Antiguo Régimen. Familia, case-río y sociedad rural*, Rentería, 1991.
- CRUZ MUNDET, J.R.: *La Guerra de la Convención en Guipúzcoa (1793-1795): El manuscrito de I.V. de Sarasola*, San Sebastián, 1993.
- GABARAIN, María Teresa: "El liberalismo en Rentería", *Boletín de la RSBAP*, San Sebastián, 1986.
- GABARAIN, María Teresa: "El origen del liberalismo en Rentería" *Bilduma*, 6. zbk., Rentería, 1992, 9-82. or.
- GAMECHO OTAEGUI, M<sup>a</sup> Asunción: "Algunas consideraciones acerca del crecimiento demográfico de Rentería" *Lurralde*, 8. zbk., San Sebastián, 1985, 173-191. or.
- GAMÓN, Juan Ignacio: *Noticias Históricas de Rentería*, San Sebastián, 1930.
- GONZÁLEZ GONZÁLEZ, J.: *Reinado y diplomas de Fernando III*, Córdoba, 1986.
- GOROSÁBEL, Pablo: *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa con un apéndice de las cartas pueblas y otros documentos importantes*, Tolosa 1882.
- LARRAÑAGA ZULUETA, Miguel - LEMA PUEYO, José Angel: *Transcripción de las actas de Juntas, 1453-1521*. Loyola'91 Batzordea (Argitara gabea).
- LASALA, Fermín (Mandas-ko dukea): *La separación de Guipúzcoa y la paz de Basilea*, Argitalpen fakzimila, San Sebastián, 1987.
- LIZARRALDE, Fray José Adriano de: *Historia del convento de la Purísima Concepción de Azpeitia*, Santiago de Compostela, 1921.
- MARÍAS, Fernando: *El largo siglo XVI*, Madrid.

- MARTÍNEZ DÍEZ, G. - GONZÁLEZ DÍEZ, E. - MARTÍNEZ LLORENTE, Félix J.: *Colección de Documentos Medievales de las Villas guipuzcoanas (1200-1369)*, San Sebastián, 1991.
- MUNITA LOINAZ, J.A.: "El original más antiguo de Archivo Municipal de Rentería. El privilegio rodado de Fernando III al Concejo de Oyarzun", *Bilduma*, 1. zbk., Rentería, 1988, 67. or. eta hurr.
- PONTE ORDOQUI, Enrique: "Basanoaga, la nueva Rentería" *Oarso*, 1985.
- ULIA, Lucio: "Historia de nuestra casa concejil" *Rentería*, 22. zbk., 1944.
- ULIA, Lucio: "Proyecto de creación de una nueva Villa de Rentería" *Rentería*, 24. zbk, 1946.
- VÁZQUEZ, Elena - MURO, Koro: *Nuestra Señora de la Asunción de Rentería. Estudio Histórico Artístico*, Rentería, 1993.



AGURKIBIDIA



2


# MADALENA ERMITA




BARRUTI HARRISTUA ETA ARABALA - XVIII. MENDIA 76

E - MADALENA ERMITA 76

MARTINEZ DIEZ C - GONZALEZ DIEZ B - MARTINEZ LIORRENTI  
Plan 1. - Plano de Barrutia Madalenita de las Villas supracoronas



BARRUTI HARRESITUA ETA ARRABALA - XVIII. MENDEA  
ERRENTERIA



E - MADALENA ERMITA

*Belec*  
96



## AURKIBIDEA

I. AZTERKETA HISTORIKOA .....	69
1.- Sarrera .....	69
2.- Eraikuntzaren bilakaera historikoa .....	70
2.1.- Jatorriaren arazoa (XIV-XVI bitarteko mendeak) .....	70
2.2.- Madalena XVI. mendearen erditik aurrera: Zabalkuntzak eta hobekuntzak .....	73
2.3.- XVII-XIX mendeak .....	73
2.4.- XX. mendea. Azkeneko berrikuntzak .....	76
3.- Madalena eta San Lazaro Ospitaleko barne funtzionamendua .....	78
3.1.- Udalarekiko harremanak .....	78
3.2.- Serorak .....	80
3.3.- Elizainak .....	83
II. ARTE AZTERKETA .....	85
1.- Madalena ospitale .....	85
1.1.- Eraikuntza bakarra .....	87
1.2.- Ospitale herrigunea .....	88
2.- Madalena ermita .....	91
3.- Gai mugigarriak .....	93
3.1.- Sarrera ondoko erliebea .....	93
3.2.- Korua .....	93
3.3.- Koruko koadroa .....	94
3.4.- Irudiak .....	95
III. ARKITEKTURA AZTERKETA .....	97
1.- Inguruaren deskribapena eta kokaera .....	97
2.- Lursailaren forma eta ezaugarriak .....	97
3.- Eraikuntzaren kanpoko itxura .....	98

3.1.- Mendebaleko fatxada ..... 98

3.2.- Iparraldeko fatxada ..... 100

3.3.- Hegoaldeko fatxada ..... 101

3.4.- Ekialdeko fatxada ..... 103

3.5.- Estalkia ..... 103

4.- Barneko itxura ..... 103

5.- Ondorioak ..... 105

IV. BIBLIOGRAFIA OROKORRA ..... 107



**I****AZTERKETA HISTORIKOA****1. SARRERA**

Kristau erlijioak tradizioa du Erdi Aroaz geroztik santu eta santei, besteren artean gorputzeko eta arimako era bateko edo besteko gaixotasunen kontra babes-teko ahalmena eta indarra aitortzea. Zentzu horretan Santa Maria Magdalenak ospe handia izan du beti “San Lazaroren eritasunaren” edo legenarraren kontrako babesle gisa. Gogora bedi, gainera, Ebanjelioetan esaten denez, Maria Magdalenak Simon legenartsuaren etxean ezagutu zuela Jesukristo.

Errenteriako Hirian, harresiz kanpo, Magdalenaren edo Madalenaren izena-ren eta babesaren pean, eta herriko udalak beharrianetarako babesema emanik, legenartsuentzako ospitale bat antzinatik izanak, eta erakunde hark hasieratik bertatik zalantzarik gabe burutu izan zuen ongintzazko eta sorospenezko eginkizunak, errenteriarren artean benerazio handian jarri izan du aldietan zehar santa hori. Jasokundeko Amabirjinak (aldi beretsuan hari eskainia baita parroki eliza) izan zezakeen benerazioaren pareko bazen gutxienez santa honi zitzaiona.

## 2. ERAIKUNTZAREN BILAKAERA HISTORIKOA

### 2.1. Jatorriaren arazoa (XIV-XVI bitarteko mendeak)

Erreterian Santa Magdalenari eskainitako sorospen eta gurtza leku baten sorrera Herriaren beraren sorrera garaiko berekoa da, 1320<sup>1</sup>. Madalenaren sorrera argi eta garbi berretsiko duen dokumenturik ez bada ere, 1560an Gaspar de Irigoyen, Madalenako behin betiko bikarioak erredaktatutako txosten batek nahi-koa argi egin dezake gai horretan. Aipatu txosten horretan, honela dio bikario jaun horrek, erakunde horren sorkuntzari buruz diharduela:

*el qual fundaron e hizieron los vecinos particulares, con bienes e hacienda que dieron para el dicho ospital por debocion de la gloriosa Santa María Magdalena y para que en él se acogiesen y se curasen pobres de Sant Lazaro, como se an curado en dozientos y mas años a esta parte*<sup>2</sup>.

Esan daiteke beraz, 1360 inguruan, hau da, Erretereria Hiribildu izendatzen zuen emakida egin eta berrogei urte ingurura, bazela herri honetan legendarrentzako ospitale bat. Erretereriako Hiribilduaren harresiez kanpotik eraiki zen hartarako eraikuntza, Arrabaleko Atetik hurbil. Espero izatekoa zen ospitale hori herriko harresietatik kanpora eraikitzea, legendarra zen eritasunak garai harretan jendartean zuen gaitzespena eta gaixotasun hori zutenek gizartean pairatzen zuten bazterkuntza kontuan harturik.

Fundazioa udalaren lursailetan zegoen kokatua, eta Erretereriako udalari zegokion horrenbestez eraikuntza haien kudeatzea eta administrazioa. Pertsona banako batek edo Hiri batek lursail bat bertan eraikitzeko eliz instituzio bati uztean eskuratzen zuen patroli edo zaindaritza eskubidearen ondorioa zen hori:

*E patronadgo es derecho o poder que ganen las yglesias por los bienes que fazen los que son patronos d'ella, e este derecho gana ombre por tres cosas: la una por el suelo que da a la yglesia en que la fazen; la II. porque la fazen. La III. por heredamiento que le da, a que dize dote, onde bivan los clerigos que la sirvieren...*<sup>3</sup>.

<sup>1</sup> Erretereriak 1320ko apirilaren 5ean jasotzen jasotzen du, Alfonso XI.aren eskutik, herri gutuna, Donostiako forua ematen diona, nahiz eta hori baino lehenago ere Oihartzuko bailarako fooruak, usadioak eta ohiturak berretita egon (Fernando III.ak, Alfonso VIII, bere aitonaren beste bat berretsiz, 1237ko martxoaren 20an). Cfr. CRESPO RICO- CRUZ MUNDET- GÓMEZ LAGO: *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería*, San Sebastián, 1991 (Fuentes Medievales del País Vasco, 32. zbk.), 4-8 eta 1-2. or.

<sup>2</sup> "Herritar partikularrek sortu eta egin baitzuten beren ondasunetz eta diruz, Santa Maria Magdalena aintzatsuaren debozioz ospital horretarako eta bertan babestu eta senda zitezten San Lazaroren behartsuak, halaxe sendatu baitira sendatu ere, orain dela berrehun eta gehiago urte".  
EUA E Saila, 4. Bulegoa, III. Zerbitzua, 2. Liburua, 2. Espedientea

<sup>3</sup> "Eta patronatua da elizek beren patroli direnek egiten dizkieten mesedeendatik irabazten duten eskubide edo ahalmena, eta eskubide hori hiru gauzarengatik irabazten da: elizari eraikitzeko ematen zaion lurreragatik; bigarrena eliza egiten delako. Hirugarrena, hari ematen zaion herentzia edo doteagatik, elizaren zerbitzuan dauden elizgizonak bizi daitezen".  
*Las siete partidas de Alfonso X*. Alonso Díaz doktoreak 1491ean Montalvon egindako lehenengo argitalpenaren faksimilezko argitalpena (Valladolid, 1988). Lehenengo Partida, XV Izenburua, Lehenengo Legea.



Baionako apezpikuak 1541ean Bizaraingo Madalena ermita jasotzeko eman-dako baimenean zehazten den bezala, udala da, eta herriko biztanleak oro har, era horretako eraikuntzak jasotzeko proiektuetarako baimena ematen dutenak.

*Viso consensu totius regiminis et omnium dominorum de consilio dicti ville de Renteria et etiam totius populi eiusdem...*<sup>4</sup>

Horrek ez zuen eragozten ordea Errenteriako biztanleek, nor bere aldetik, ospitaleari haren ondarea finkatu eta indartuko zuten era bateko edo besteko ondusunak eman ziezazkioten. Erdi Aro hondarreko eta Aro Modernoko pentsakera kontuan harturik, ez da batere harritzeko gauza herritar askok beren testamentuetan, elizarako eta debozioetarako oparien artean, ospitalea mantentzeko dirulaguntzak ematea<sup>5</sup>.

Ospitalearen ondoan, hari erantsita, eliza bat jaso zen; arte azterketaren emaitzak eta eskura diren berri iturburu dokumentalak kontuan hartzen badira, XVI. mendearen lehenengo herenean jaso bide da eliza hori. Nekez zehaztu daiteke, ordea, data jakinik sorkuntza horretarako. Udaleko agintariek zehazki aipatzen dute Madalena eliza bat 1523an, urte horretako urtarilaren 14eko udal agirietan. Oraingoz behintzat, eliza horri buruz aurkitu ahal izan dugun lehenbiziko aipamen ziurra da hori. Garai horretan Madalena eliza hori, eta orobat Jasokundeko Amabirjinaren parroki eliza, deboziozko kofradia banaren egoitza ziren. Dokumentazioak argi eta garbi adierazten ez duen arren, badugu susmoa hala ere, garai hartako ohiturak kontuan hartzen baditugu, kofradia horietako kideek induljentiak eta hobari izpiritualak hartuko zituztela eraikuntzaren mantenurako eta harekin batera zihoazen elizkizunetarako laguntzak ematen bazituzten. Hain zehatz ere, urte hartako urtarilaren 14an, Hiribilduko errejimentuak Madalena kofradia kideak uztaileko egun batean –zein zehaztu gabe– bil zitezen agindu zuen, elkarrekin bazkaldu eta kofradiako administratzaileak aukera zitzaten<sup>6</sup>.

Errenteriako udalak, 1534eko maiatzaren 3an bildurik, zenbait erabaki hartu zituen Madalena egin beharreko ziren eraikuntza obra batzuei buruz. Merezki du aipamena hona ekartzea:

*Asymesmo acordaron sobre el hedifiçio que se abia de hazer en la dicha casa, que se hiziese e se tomasen los çimientos por consejo de maese Lope e del contramaestre suyo, pues el dicho maese Lope abia de benir dentro d'estos ocho dias*<sup>7</sup>.

<sup>4</sup> "Aipatu Errenteriako hiriko kontseiluko agintaritzako osoaren eta jaun guztien eta bertako herritar guztien adostasuna ikusirik..."

EUA S. B, N. 1, S. 2, n. 14.

<sup>5</sup> Ikus adibidez, Oñatiko kasua, XVI. menderako behartsuentzako ospitale bat bazena: J. Madariaga Orbea, *Actitudes ante la muerte en el valle de Oñati durante los siglos XVIII-XIX*, U.P.V. - E.H.U. (Mikrofitxa argitalpena), Bilbo, 1990, 1010-1014. or.

<sup>6</sup> Cf. EUA, A - 1 - 1. Liburua (udal agiriak), 11. fol. atzea.

<sup>7</sup> "Orobat erabaki zuten etxe horretan egin behar zen eraikuntzaz, egin zedila, eta zimentuak jar zitzala Lope maisuak eta haren kontramaisuak, Lope maisu hori zortzi egunen barruan etortzekoa baitzen".

Cf. EUA, A - 1 - 4 (udal agiriak), 29 fol. atz.-30 fol. aur.



Eraikuntzaren osoko ikuspegia.

Aipamena ez da, izatez, oso-oso zehatza. Esaten duenez, egun horietan obrak egiten ari ziren Madalengan. Zein zen ordea, zimentuak jarri behar ziren eraikuntza hori? Elizak eta Ospitaleak osatzen zuten multzoaren osagarriren bat, agian?

Nolanahi dela ere, urte horretan zehar udal kontzejuak obrak eginez jarraitu zuten Madalengan, 1534ko urte horretako bertako abenduaren 30ean hartutako erabakiz izendatzen baitira *“por manobrerros de la Magdalena a Saubat de Ysasa e a Juanes de Goyçqueta, çapatero.”*. Testu honek, bere laburtasun horretan, ez du zehazten obra horiek elizan egitekoak ziren ala beste eraikuntza osagarriren batean ziren egitekoak<sup>8</sup>.

<sup>8</sup> *“Madalenako langiletzat Saubat de Ysasa eta a Juanes de Goyçqueta, çapataria”*. Cf. EUA, A - 1 - 4 (udal agiriak), 58 aur.



Eliza horrek eta ospitaleak iritsi zuten ospeak Santa Madalenari eskainitako beste eliza batzuk eraikitzea bultzatu zuen ziur asko, Bizarain mendian “sub invocatione Mariae Magdalenaee” eraikia, adibidez, lehen esan bezala, berori sortzeko baimena Juan de Landa, Baionako elizbarrutiko bikario jeneralak 1541eko abuztuaren 18an eman zuena<sup>9</sup>.

## 2.2. Madalena XVI. mendearen erditik aurrera: Zabalkuntzak eta hobekuntzak

XIV. mendearen erdi inguruaz gero ziurrenera Madalena ospitale bat bazela eta 1523az geroztik santa berari eskainitako eliza bat ere bazela gauza aski ziurtzat emanik, bada, XVI. mendearen erditik aurrera zabalkunde eta eraberritze ugari ezagutu zituen eliza eta ospitalez osatutako multzo horrek. 1547 urterako adibidez froga daiteke horrelakorik. Ekar dezagun berriro hona garai horretako dokumentazioa, eta ikus dezagun urte horretako martxoaren 30ean gertatua:

*Este dia e lugar ante los dichos señores pareçio presente Juanes de Ybañeta, maese cantero, e dixo a sus merçedes que el avia començado a hazer la obra de la casa y ospital de la Madalena y algunas personas le han dicho que los escaños y asientos que estan hazia la calle no ay neçesidad d'ellos. Pedio a sus merçedes que le mandasen cómo querian que se hiziese la dicha obra, porque él, conforme a la voluntad de sus merçedes, quiere hazer la dicha obra. Sus merçedes dixieron que pues estamos cerca de las fiestas de Pascoa, darian parte a todo el pueblo e yrian a beer la dicha obra e darian horden cómo se ha de hazer.*

Testu honetan udalak prozesu horretan zuen protagonismoa azpimarragarria da. Udalak kontratatzen ditu obrak egin beharko dituzten harginak, kasu honetan Juan de Ibañeta. Bere esku du, gainera, obren martxa begiratzera joateko eskubidea, eta kontuan hartzen du herritarren iritzia. Harginak martxoaren 30eko egun hartan zekarren galdera zehatzari dagokionez, zenbait puntu ilun geratzen dira. Zein eraikinetan zeuden birrintzeko edo kentzeko “escaños e asientos” haiek? Elizan ala ospitalean? Ez da argitzen, ezta ere, ea harginak eserleku haiek egin ondoren gauzak zuzendu eta haiek kendu behar ziren, ala obrak egiten hasi aurretik han ziren elementuak ziren kendu beharreko horiek<sup>10</sup>.

## 2.3. XVII-XIX mendeak

XVI. mendeko azkeneko aipamen horietatik XIX. mendearen erdialdera arte ez dira falta Madalena elizaren bilakaerari buruzko edo bertako arkitekturan egin-

<sup>9</sup> Cf. EUA, B - 1 - 2, 14: Lizentziaren jatorrizko dokumentua Baionako elizbarrutiaren zigelua eskegita duena (Ik. transkripzioa asterketa honen eraskinean).

<sup>10</sup> “Egun eta leku horretan, jaun horien aurrean Juanes de Ybañeta hargin maisua aurkeztu zen, eta esan zien ezen Madalena etxearen eta ospitalearen obra egiten hasia zela, eta zenbait pertsonak esan diotela kale aldera dauden harmailak eta eserlekuak ez direla beharrezkoak. Obra hori nola egitea esateko eskatu zien jaunei, zeren berak, haien nahierara egin nahi baitu aipatu obra hori. Kontzejuko jaunek adierazio zioten ezen Pazkoako jaiak hurbil direnez, herri osoari jakin araziko ziotela, eta obra hori ikustera joango zirela, eta gero emango zutela agindua obra hori nola egin”.

Cf. EUA, A - 1 - 3, 24 fol. aur.

dako berrikuntzei buruzko aipamenak. 1710ean<sup>11</sup>, udaleko agirietan elizaren hondamen arriskua aipatzen da, eta XVIII. mendearen erdialdera arte luzatuko den eskuahartze eta berrikuntza sail bat hasten da horrekin. Berrikuntza horietan garrantzizkoenen artean 1717 inguruan egin ziren harrizko bi arku (*maior adorno y desensia de la dicha basílica*<sup>12</sup> izateko) eta 1746an jarri ziren beirate batzuk aipatu behar dira. Baina garai horretako gauzarik aipagarriena, ermita errege bide-tik hurbil egotea da, zeren, hain zuzen ere, udaleko agirietatik ondorioz atera daitekeenez, errege bide hori elizako koruaren azpitik igarotzen baitzen. Hori dela eta herritarren aldetik kezu asko jasotzen dira, haien iritzian era horretara ez baita gordetzen elizkizunetarako leku hari zor zaion begiramendua. Nolanahi dela ere, garai horretatik gordetzen diren erreferentziek aditzera ematen dutenez, Madalenako eraikuntza aski egoera txarrean zegoen, eta egoera hori are gehiago okertuko da XVIII. mendearen bukaera aldera.

Daitekeena da eraikuntza horren lehenengo hondatzeak Konbentzioko Gerra garaian (1793-1795) gertatu izana, ziurrenera frantses osteeek berentzat hartu eta erabiliko baitzuten:

*En febrero (de 1795) llegó a Oyarzun una partida de granaderos, al instante se echaron sobre las cruces del calvario, que eran de buena piedra y estaban en el camino desde la casa blanca de Vicariotegui hasta la basílica de Santa María Magdalena, las arrancaron y despedazaron enteramente por aprovecharse de las barras o palanquetas de fierro con que eran afianzadas*<sup>13</sup>.

Iruñeako apezpikuak Erreterriako udalari 1824ko urtarrilaren 12an igorritako gutun batek dioenetik, badakigu Independentziako Gerran (1808-1813) soldaduek erabili zutela ermita<sup>14</sup>.

“Liberalen Hiru Urteetan” (1820-1823) Madalena basilika soldaduek erabili eta profanatu zuten. Horrela jaso arazi zuen agirian Joaquin Javier Uriz, Iruñeako apezpikuak 1824ko urtarrilaren 12an, Jasokundeko Amabirjinaren parrokiako erretoreari ermitan berriro elizkizunak ospa zitezen haren berriro elizarakotzea egin zezan baimena eman zionean<sup>15</sup>.

Madalena ermitak urte liskartsu horietan zati bat deseginda galdu zuela frogaturik geratzen da D. Antonio Cortázar, Gipuzkoako Probintziako Obretako Zuzendariak 1866ko urtarrilaren 7an eraikuntza horren egoerari buruz

<sup>11</sup> Cfr. EUA A-1, 56 fol.1710

<sup>12</sup> “Aipatu basilikaren dotorezia eta txukuntasun handiagorako izan zedin”. Cfr. EUA A-1, 169. fol., 1717-12-27

<sup>13</sup> “Otsailean (1795ean) granadari talde bat iritsi zen Oihartzuna, berehalaxe gurutzebideko gurutzei ekin zieten, harri onez eginak baitziren, eta Bikariotegiko etxetik Santa Maria Magdalena basilikara bitartean zeuden, erauzi zituzten eta erabat birrindu zituzten, indartzeko zituzten burdinazko barra edo palan-kak erabiltzeko”. Cf. CRUZ MUNDET, J.R.: *La Guerra de la Convención en Guipúzcoa (1793-1795): el manuscrito de I.V. de Sarasola*, Donostia, 1993, 91. or.

<sup>14</sup> EUA, E. Zerbitzua, 4. Bulegoa, III. Zerbitzua, 2. Liburua, 2. Espedientea

<sup>15</sup> EUA E. Zerbitzua, 4. Bulegoa, III. Zerbitzua, 2. Liburua, 2. Espedientea.



Errenteriako udalari igorritako txostena irakurtzen bada. Zalantzarik gabe interes handiko dokumentua delako, eta eraikuntza horretan egin diren azkeneko eraberri-tzeen aurretik ermitak zuen itxuraren lehendabiziko berri dokumentala delako, oso osorik ekarriko dugu hona:

*He examinado detenidamente el estado de conservación en que se encuentra la Basílica de la Magdalena, situada en un extremo de esa Villa, profanada hace muchos años y destinada actualmente a fábrica de campanas.*

*Una parte de dicho edificio está cubierta y la otra descubierta; la parte que está al contacto del camino público, es la que queda descubierta, y como le faltan los medios de enlace que constituyen la estabilidad de las construcciones y éstos se han abandonado completamente, resulta que los muros que forman dicha antigua basílica se han ido separando paulatinamente en términos que han perdido los aplomos primitivos y se han manifestado las grietas de desunión, circunstancias ambas que constituyen lo que se llama ruina.*

*No es de mi competencia indicar a ustedes lo que en tales casos debe hacer una autoridad, pero sí debo manifestar que todavía podría conservarse la parte del edificio que está cubierto, desmontando la parte descubierta para evitar una desgracia por un accidente cualquiera que podría sobrevenir a la ruinosa basílica de la Magdalena...<sup>16</sup>*

Badakigu, beraz, 1866. urtea baino lehen Madalena ermita profanatu egin zela, Cortazarrek aipatzen duen hondamen egoeran aurkitzen zela, eta lehenagoko elizkizunerako erabilera galdurik kanpaigintzako lantegi bihurturik zegoela. Urte horretako urtarrilaren 14ko kontzejuaren bileran Cortazarrek igorritako gutunaren berri eman zen. Udalak haren txostena D. J. Jose Irigoyen, Jasokundeko Amabirjinaren parrokiako erretoreari igortzea erabaki zuen<sup>17</sup>. Irigoyenek otsailaren 2an erantzun zuen, esanez ezen basilika horretako patroia udala zenez, eta basilikak berak bere kabuz baliabiderik ez zuenez, udalak jarri behar zituela eraikuntza hori berriro eraiki eta gordetzeko behar ziren baliabideak<sup>18</sup>. Otsailaren 4an Errenteriako udalak Madalengan erortzeko arriskuan zegoen horma bota eta berriro jasotzeko aurrekontuak prestatzeko agindu zion Hiriko adituari<sup>19</sup>.

<sup>16</sup> “Kontu handiz aztertu dut Herri horretako ertz batean dagoen Magdalenako Basilikak duen kontserbazio egoera, orain dela urte asko profanatua izan baitzen eta gaur egun kanpaigintzako fabrika bezala erabiltzen baita.

*Eraikuntza horren zati bat estalita dago, eta beste bat estalkirik gabe; bide publikoari joz dagoen zatia da estalkirik gabe dagoena, eta eraikuntzen egonkortasuna bermatzen duten lotura gaiak falta dituzenez, eta elementu horiek guztiz utzita daitezenez, antzinako basilika hori eratzen duten hormak zabalduz joan dira, eta lehen zuten plomada galdu dute eta arrakalak sortu dira; horrix da hain zuzen eraikuntza baten hondamen esan ohi dena.*

*Ez dagokit niri horrelakoetan agintariak zer egin behar duten esatea, baina esan beharra dut hala ere eraikuntzak estalirik duen zatia mantendu daitekeela oraindik agian, estali gabe dagoen zatia eraitsiz, bestela Madalenen basilikari gerta lekiokoen ezbeharren bat gerta ez dadin”.*

EUA, E. Zerbitzua, 4. Bulegoa, III. Bulegoa, 2. Liburua, 2. Espedientea

<sup>17</sup> EUA, A/1/lib. 166, 3. fol. aur.-atz.

<sup>18</sup> EUA E. Zerbitzua, 4. Bulegoa, III. Zerbitzua, 2. Liburua, 2. Espedientea.

<sup>19</sup> EUA, A/1/lib. 166, fol. 11r-12r.

Berreraikitze lan hori burutu egin zen, noski, udalak antzinako eliza bat berreskuratzeke zuen interesagatik ez ezik, eraikuntza horrek, zegoen hondamen egoeran zegoelarik, herritarrentzat zekarkeen arriskuagatik ere. 1866ko otsailaren 17an ermitako obretarako aurrekontua aurkeztu zitzaion udalari. 3.479,29 urre erreale inguruko gastuak kalkulatu ziren aurrekontu horietan, ondoren aipatzen diren kontzeptuengatik:

- \* Hondoa jota dauden fatxada nagusiko eta albo hormetako zati bat eraistea.
- \* Hormarriz horma berriak jasotzea.
- \* Aterako, leihoetarako eta eskaileretarako harlandua prestatu eta jartzea.

Beste baldintza batzuen artean, lan horiek guztiak 60 egunen barruan buruturik egon behar zutela jarri zen, epe hori enkante hartzaileari izendatzen ziren unetik kontatuta<sup>20</sup>.

Gipuzkoako Diputazioak baimena eman zion, D. Roman Iriarte Aldun Nagusiak 1866ko otsailaren 26an sinatutako agiriz, Erretereriako udalarik, enkantea eginik, obra horiek egin zitzaizkion, eta martxoaren 15ean obren burutzea onartu zuen, 2.600 errealeko azken balio batez<sup>21</sup>.

#### 2.4. XX. mendea. Azkeneko berrikuntzak

Madalena ermitak 1866an gaur duen itxura hartu zuenetik, ia 120 urte igaro arte ez zuen beste berrikuntza esanguratsurik izan. Mende honetako bosgarren hamarraldiaren erditik aurrera eraberritze eta mantenimendu lan handiak egingo dira ordurako hondaturik zegoen basilikan, D. Joaquín Pérez Lapaza de Martiartu herriko alkate zen garaian eta D. José María Arcauz Aramburuzabala lehenengo aldiz alkate orde izan zen garaian; hau, hala ere, egin ziren obren bultzatzaile nagusi eta, puska on batean bederen, ordaintzaile ere, bihurtu zelarik.

Laurogeigarreneko hamarraldira arte ez da ikusten berriro ermitan eraberritze lanik egin beharrik. 1981eko maiatzaren 6an Josebe Imaz andreak, ermita zaintzeko eta mantentzeko arduradunak, ermita hori aurkitzen zen egoera tamalgarria aipatuz aurkeztu zuen idazki bat zela eta, Kultura eta Kirolerako Batzordeak ermita konpontzeko obrak egitearen aldeko txostena igorri zion Hirigintza Batzordeari. Obra horiek sabaian agertutako hezetasun guneak, estalkiaren egoera eskasak eraginak, eta elizburuko horman agertutako hezeguneak, eraikuntzaren kontserbazio egoera txarrak eraginak (azken finean eraikuntza horrek zuen erabilera urriak eraginak horiek guztiak) konpontzeko ziren obra horiek. Hurrengo egunean Kultura Batzorde horrek 40.000 pezetako dirulaguntza ematea erabaki zuen lehendabiziko konponketak egin ahal izan zitezen<sup>22</sup>.

<sup>20</sup> EUA, E. Zerbitzua, 4. Bulegoa, III. Zerbitzua, 2. Liburua, 2. Espedientea.

<sup>21</sup> EUA E. Zerbitzua, 4. Bulegoa, III. Zerbitzua, 2. Liburua, 2. Espedientea

<sup>22</sup> EUA 2. Saila. 15.3, 821 kaja, 8. Espedientea





Barrenaren osoko ikuspegia.

1881 urte horretako bertako Kultura Udal Batzordearen udal barreneko beste txosten batean ermita horrek estalkipean zuen eskaiolazko ganga beheeratu faltsuaren itsustasuna aipatzen zen, orobat ohartaraziz ganga horrek lurralde honetako tradizioarekin askoz ere adosago zetorren estalkiaren zureria ezkutatzeko zuela ziur asko. Ohar berbera egiten zen elizburuko horman margoturik ageri zen gezurrezko harlanduaz. Ermitaren eraberritzea egiteko Udal Batzorde Iraunkorrek Cristina Fontán andreari eman zion proiektu bat prestatzeko enkargua<sup>23</sup>.

1986ko maiatzean Enrique Ponte Ordoqui, Udal arkitektoak Madalena ermita eraberritzeko proiektu bat aurkeztu zuen. Honela esaten zuen proiektu horretan:

*El edificio se encuentra adosado a la ladera de un monte, habiéndose efectuado en la época de su construcción un desmonte parcial del mismo. De esta manera, si bien no existen en la actualidad problemas en cuanto a su propia estabilidad se refiere, sí se detecta el filtrado de aguas en el nivel inferior del edificio, produciéndose la afloración de humedades, tanto en el propio suelo como en la cabecera de su única nave.*

<sup>23</sup> EUA 821 kaja, 8. Espedientea.

*Por otro lado, el actual estado de conservación de la cubierta provoca la entrada de agua en todo el conjunto del edificio*<sup>24</sup>.

Maiatzaren 20an Hirigintza Batzordeak Madalena ermita eraberritzeko proiektua onartu zuen. Eraberrikuntzaren lehen aldi hori Juan Goiburu Maquirrain-en enpresari izendatu zitzaion 5.269.352 pezetako aurrekontu batez. Enpresa berari izendatu zitzaiozkion 1987an hasi ziren eraberritzearen bigarren aldiko obrak ere, 3.500.000 pezetako aurrekontu batez. Bigarren aldi honetan korua konpondu eta ordezkatu zen, eta basilikaren hormen barreneko aldearen tramendua egin zen<sup>25</sup>.

### 3. MADALENAKO ETA SAN LAZARO OSPITALEKO BARNE FUNZIONAMENDUA

#### 3.1. Udalarekiko harremanak

Madalenako barne araudiaz mintzatu nahi izanez gero, ermita sortu zenetik bertatik parte izan zen erakundea aipatu beharra dago: San Lazaro ospitalea<sup>26</sup>. Lehenago hitz egin da legenardunentzako ospitale haren sorrera garaiaz: XIV. mendearen bigarren erdiaren lehenengo hamarraldietan kokatu da sorrera hori. Esan da, orobat, zein eratako harremanak ziren erakunde haren eta kontzejua zen lekuko agintaritzaren artean. Badakigu udal kontzeju horrek zuela Madalenako patroitza, baina zertan zehazten eta gauzatzen zen eskubide hori? Orokorrean mintzatuz, bost puntutan laburbilduko dugu:

1. Kontzejuak mantentzen du, beharrezanez dagokienez, basilika, eta hark jarzen ditu haren eginkizunak bete daitezen behar diren baliabide ekonomikoak. Basilika osatzen duten eraikuntzek behar dituzten konponketak egiteko behar diren diru partidak ere hark izendatzen ditu eta ematen. Hark kontratatzen ditu, gainera, konponketa horiek egingo dituzten harginak, peoiak edo bestelako pertsonak. Horretatik guztirik eskubide erabakior bat ateratzen da ondorioz: udal kontzejuak kontrolatzen du mantentzen eta kudeatzen dituen erakundeen ondare higikor eta higiezinak. Hala, adibidez, 1717ko uztailaren 25ean Hiriko errejimentua bildu

<sup>24</sup> "Eraikuntza hau mendearen malda bati erantsita dago, eraiki zen garaian malda horretan hustulanak eginik. Era horretara, gaur egun egonkortasunari dagokionez inolako arazorik ez badago ere, eraikuntzaren beheko aldean ura sartzen da haritik irazirik, eta hezetasuna agertzen da bai eraikuntzaren zoruari bai bere nabe bakarreren buruan.

*Beste alde batetik, ermitaren estalkiaren kontserbazio egoera dela eta, eraikuntza osoan sartzen da ura".*

EUA, 821 kaja, 8. Espedientea.

<sup>25</sup> EUA 814 kaja, 8. Espedientea. 1. zbk.

<sup>26</sup> Ospitaleari buruzko datu asko Itziar Izaguirre Urquiolaeren ikerketan aurki daitezko: *Historia de la medicina en la Villa guipuzcoana de Rentería*, II. Lib. 1145-1157. or. 1994ko otsailean Nafarroako Unibertsitatean aurkeztu eta oraindik argitaratu gabe dagoen doktore tesi bat denez, egilearen lana errespetatuz, gai honetan interesa dutenak lan hartara bidaltzen ditugu. Lan horren jatorrizko kopia bat Errenterriako udal Artxiboan aurkitzen da.



zen, besteren artean, basilikaren ondasuna zen Madalen-borda baserria eta inguruko sailak saltzeko baimena emateko<sup>27</sup>.

Udalak ematen zituen diruen erakusgarri izateko, ondoko dokumentu aipamen honek balio dezake; dokumentu honetan Errenteriako udaleko errejimentuak ospitalerako urtero behar diren 500 marabediko egurra nondik atera behar den erabakitzen du:

*Sobre lo qual acordaron los dichos señores...sean pagados en cada un anno de la renta de los pesadores del fierro de la lonja e que se quede siempre obligado el tal arrendador (a pagar) la dicha...leyña del ospital*<sup>28</sup>.

Lehen ere aipatu da herritarrek lagundu ohi zutela, dirulaguntzaz, testamentu bidez, limosnaz edo bestelako emaitza bidez, ospitalearen premiak ordaintzen. Zehaztu beharra dago, ordea, udal kontzejuak hartzen zituela opari horiek, eta bere iritziaren arabera banatzen zituela. Ala, adibidez, 1552ko urtarrilaren 29an, udaleko errejimentuak Madalena elizarako eta ospitalerako limosna gisa bildurik ziren 20 dukat eta 7 tarja jaso zituen Juanes de Echeberria Lesakako biztanlearen-gandik; udal errejimentuak jaso zituen, era berean, 1600ean Martín de Ustáriz-ek bere azken nahian Madalenarako “*para una lámpara o para ornamentos*” utzitako hamar mila marabediak ere<sup>29</sup>.

2. Begirale eta zaintzaile da erakunde horren martxaren ardua dutenak, serorak eta elizainak, aukeratzekoan ere. Batzuetan kargu horietan lehen kargudun izandakoek edo bestelako pertsonak, gehienetan eliz kargudunek, aurkeztutako izendapenak onartu baizik ez ditu egiten; beste batzuetan berriz, berak izendatzen ditu kargu horietarako hautatuak. Geroxeago ikusiko dugunez, arduradun hauek kontabilitatea argitzeko txostenak aurkeztu behar dituzte, eta udal kontzejuak begiratzen ditu txosten horiek.

3. Udal kontzejuak eskubide du bere patroitzak eskumenean dituen zentruekin kidetzen diren kofradiak eta erakundeak kontrolatzeko. Hala adibidez, aurretxoan aipatu dugun bezala, 1523an zenbait erabaki hartu zituen Madalena eta Jasokundeko Amabirjinaren parrokiako kofradiei buruz.

4. Inoiz elizkizunei dagokienez ere hartzen ditu zenbait erabaki. Hala, adibidez, 1535eko apirilaren 28an, zenbait erabaki hartu zituen Madalena elizan egun-sentiko meza ospatzeari buruz<sup>30</sup>.

5. Azkenik, esan daiteke udal kontzejua dela ospitalearen ordezkari, hark harremanak izan behar dituen kanpoko instituzioen aurrean. Hala, adibidez, udal

<sup>27</sup> EUA E. Zerbitzua, 4. Bulegoa, III. Zerbitzua, 2. Liburua, 2. Espedientea

<sup>28</sup> “*Horri buruz erabakia hartu zuten jaun horiei ordain dakiela urtero azokako burdin pisatzaileen erretatik, eta alokatzaile hori gera dadila betirako behartua egun hori ospitaleari ordaintzera*”.  
EUA S. A, N. 1, 2. Liburua, fol. 41v-42r.

<sup>29</sup> “*Lanpara baterako eta apaingarritarako*”.  
EUA S. A/1/7/fol. 35v y S. A/13/9/1.

<sup>30</sup> EUA S. A, N. 1, fol. 75r.



Estalkiaren zureria.

kontzejua jarri zen harrenanetan, lehentxo aipatu den kasuan, Lesakako kontzejua-  
rekin 1552an *“dándoles a entender la buena obra que hazen a la dicha yglesia en  
ello (bildulako limosnez) e serbiçio a Dios”*<sup>31</sup>.

Aise frogar daitekeenez herriko agintaritzak eskumen handia zuen bere arau-  
pean zuen erakundearen funtzionamenduari zegozkion guztietarako. Horrek liska-  
rrak ekarri zituen behin baino gehiagotan, ospitalearen martxa ona arras  
baldintzatu zezaketen erabakiak hartzen zirenean batez ere. Hala, adibidez, liska-  
rrak izan ziren 1560an, udal kontzejua arte San Agustin eta Trinidadeko  
komentueta bizi izandako fraileak Madalengan koka arazi zituenean. Gaspar de  
Irigoyen, Erretereriako behin betiko erretorea, erabaki horren oso kontrario azaldu  
zen, erabaki hori Madalena seroraren eta hara babesten ziren behartsuen kalte-  
tan izango zela esanez<sup>32</sup>.

### 3.2. Serorak

Aurreko atalean esana dugun bezala, serorak ziren, elizainekin batera, ospitale-  
aren mantenuaren ardura zutenak. Antxon Aguirrek honela definitzen ditu serorak:

<sup>31</sup> *“horrekin eliza horri egiten dioten mesedea eta Jainkoaren egiten dioten zerbitzua aitortuz”.*

<sup>32</sup> EUA E. Zerbitzua, 4. Bulegoa, III. Zerbitzua, 2. Liburua, 2. Espedientea.



*sacristana, beata o monja, nombres todos de las mujeres encargadas de cuidar el templo y de su limpieza. Entraban por contrato, mediante la entrega de una dote (como las monjas), y percibían una cantidad de los donativos y ofrendas recolectados en el templo. Habían de ser solteras o viudas de probada moralidad y con preferencia nacidas en la Villa. Con el paso del tiempo se les añadieron nuevas condiciones, como una edad mínima, una dote obligatoria, etc.*<sup>33</sup>

Madalenako serora baten jardueraz iritsi zaigun lehenbuziko berriak, pertsonaia horren ezaugarri berezietako bat erakusten digu: bai bere mantenurako bai ospitalearen eta elizaren zerbitzuak mantendu ahal izateko izan zituen estuasun ekonomikoak alegia. 1534ko maiatzaren 3an udal errejimentuko kideek Madalenako seroraren kexu bat jaso zuten, jasotzen zituen limosnekin ezin baitzuen inola ere eraikuntza konpontzeak zekartzan gastuak berdindu<sup>34</sup>. Seroren mantenua ez zetorren eliztarrek emandako oparrietatik bakarrik, errentak serorarentzat ziren zerga-zor batzuk sortzetik ere bai baitzituzten hartzekoak. Hala, adibidez, 1717an. Erreneriako udal kontzejuak 230 dukateko zerga-zor bat jarri zuen basilikaren alde “kentzean erosgarria”<sup>35</sup>.

Beste dokumentu batek seroraren oinarrizko beste ezaugarri bat erakusten du, oraingo honetan bere eginkizunari zuzenean dagokiona: erakunde horretan zuzenean lan egin beharra, erakundearen hurbileneko arduradun gisa, eta udal kontzejuari haren zailtasunen berri ematea. 1552ko martxoaren 30ean, Graciana de Irura, ospitalearen arduraduna, udal kontzejuaren aurrean aurkeztu, eta bertan adierazi zuen ezen Miquеле de Astigarraga urte askotan zegoela ostatuz ospitalean, “*tiene ocupada la mejor cama que ay en el dicho ospital*”<sup>36</sup>, eta berak bakarrik lo egiteko nahi izaten zuela hura; Gracianak zioenez, askotan behartsuentzat behar izaten omen ziren oheak, eta Miquelek bazuela “*casa, tierras e hacienda y dineros*”<sup>37</sup>. Eskaria egin zuen hura Erreneria bertakoa ez zenez, bidal zezatela bere jaioterrian bizitzera, han bazuela eta zerez mantendu.

*(Sus mercedes) ordenaron a la dicha ospitalera que no le acoja más, e si despues de mandado se acogiere más, que le mandarán hechar a la carçel y desterrar d’esta Villa*<sup>38</sup>.

<sup>33</sup> “sakristana, beata edo moja, eliza zaindu eta garbitzeko arduraz emakumeei ematen zaien izena. Kontratuz sartzen ziren lan horretara, dote bat emanez (mojak bezala), eta elizan biltzen ziren emaitzarik eta oparrietatik zati bat hartzen zuten. Birtutea ondo frogatutako ezkongabeak edo alargunak behar zuten izan, eta ahal zela Hirian jaiotak. Denbora igaro ahala beste baldintza batzuk ere gehitu ziren, gutxienezko adin jakin bat, dotea eman beharra, e.a.”

Antxón Aguirre Sorondo: “Las ermitas de Andoain” *Leyçaur*, 2. xbk. (Andoain, 1992), 70. or. Serorei buruz, ikusi baita ere Larramendi, Manuel: *Corografía de Guipúzcoa*, San Sebastián, 1969.

<sup>34</sup> EUA S. A, L. 1, fol. 29r-30r.

<sup>35</sup> EUA E. Zerbitzua, 4. Bulegoa, III. Zerbitzua, 2. Liburua, 2. Espedientea

<sup>36</sup> “ospitale horretan den oherik onena beretzat hartua du”.

<sup>37</sup> “etxea, sailak, ondarea eta dirua”.

<sup>38</sup> “Ospitale zainzaile horri agindu zioten ez zezala gehiago etxean hartu, eta hau agundu ondoren berriro babesten bazen, sar zezatela espetxean eta egotz zezatela hiri honetatik”.

EUA S. A/1/7/ fol. 46r.

Beste eginkizun bat instalazioen mantenimenduari zegokiona zuen, eta egindako gastuen zerrenda udal kontzejuari aurkeztea. Hala, adibidez, 1560 inguruan, María López de Lasao, Madalenako “freyra”-k 1558. urteaz gero ospitalean, elizan eta haien mendeko ondasunetan egindako hobarien zerrenda aurkeztu zuen. Bere jardueraren berri ezagutzeko, merezi du hark aurkeztutako zerrenda hemen jartzea:

- \* Ospitaleko goiko solairuak sendotzeko 900 besabete gaztain egur erosi zuen.
- \* Gela bat eta korridore bat jarri zuen ospitalean.
- \* Ataria harriz lauzatu zuen.
- \* Zuresi bat jarri zuen.
- \* Marmolezko erretaula bat jarri zuen elizan, Amabirjinaren Agurraren irudi bat eta Gurutzetik Jaistearen beste bat.
- \* San Lazaroren irudia konpondu eta berniza arazi zuen.
- \* Urre harizko oihalezko jantzi bat erosi zuen Santa Magdalenaren irudiarentzat.
- \* Hiru aldare aurreko ekarri zituen Flandriatik.
- \* Arrebillagako baserrian mila sagarrondo, 200 haritz eta 40 gaztainondo landatu zituen.
- \* Gaztain zurezko armairu bat egin arazi zuen elizako jantziak gordetzeko.
- \* Sutarako burdinazko babes bat ekarri zuen ospitaleko sukalderako<sup>39</sup>.

Seroren izendapenari dagokionez, aipatu dugu lehen ere udal kontzejuak horretarako zuen eskua. Informazio hori zehazteko, esan beharra dago udal kontzejuak eskubide zuela horretarako egoki zerizkion pertsona bat aurkezteko, eta hark aurkeztuetatik apezpikuak aukera zezakeela izendatzekoa. 1754an eskubide hori Iruñeako apezpikuak berretsi zuen, elizbarruti horren aurrean Madalenako serora izendatzeko jarrita zegoen auzia erabakitzeko emandako epaiaren bidez; Juana Francisca de Lacoa izendatu zen serora<sup>40</sup>. Horixe izan zen ofizialki izendatu zen azkeneko serora, 1771. urtea baino lehenago Gaztelako Errege Kontseiluak emandako erabaki batez serora lanbidea kendu egin baitzen. Halaxe dago jasota Juana Francisca de Lacoak urte hartan egindako aitorpenetan, udal kontzejuari 1754an seroratzat hartu zutenean emandako dotea, 300 dukatekoa, itzul ziezaion eskatzen baitzion. Dote horretako diru kopurua kontuan harturik, handia baita, esan daiteke serora kargu hori bere gain hartu nahi zuenak Hiriko giza talde diruduneko behar zuela izan. 1771ko azaroan itzuli zitzaion eskatzen zuen dote ordaina<sup>41</sup>.

<sup>39</sup> EUA E. Zerbitzua, 4. Bulegoa, III. Zerbitzua, 2. Liburua, 2. Espedientea.

<sup>40</sup> EUA E. Zerbitzua, 4. Bulegoa, III. Zerbitzua, 2. Liburua, 2. Espedientea

<sup>41</sup> EUA E. Zerbitzua, 4. Bulegoa, III. Zerbitzua, 2. Liburua, 2. Espedientea. Serora karguak probintzia honetako beste leku batzuetan nola desagertu ziren ikus daiteke. Hala, adibidez, Andoainen Santo Kristoren ermitako kargu horren azkeneko aipamena 1767koa da, eta Goiburuko San Estebangoan 1745ekoa (ik. Antxón Aguirre Sorondo: “Las ermitas...”, 80 eta 101. or.).



### 3.3. Elizainak

Serorei zegokienean bezala, “elizainaren” definizioa ere Antxon Aguirreri hartu diogu:

*Persona a quien los patronos encargaban la gestión y control de una obra (ya fuera obra pía, parroquia o ermita). Por lo general se trataba de un vecino seglar de la Villa, elegido por votación por los patronos regularmente para un año*<sup>42</sup>.

Kontzeptu orokor horrez gainera, Madalena ospitaleari eta ermitari dagokionez ezaugarri berezi batzuk aipatu beharko lirateke. Lehenik eta behin, ziur esan daiteke ez zela beti-beti pertsona bakarra izan. 1539ko martxoaren 19an Pedro de Ayzardi eta Juanes de Echalar, 1838. urtean elizain izanak, aurkeztu ziren udal kontzejuaren aurrean, beren elizaingoaren kontu emateko, eta ondoren elizain berriak izendatu ziren<sup>43</sup>.

Elizainen izendapenak eta haien zerrenda zehatz ezagutu daitezke udal kontzejuaren akta agiriei esker. Elizain horietako askok erantzukizuneko karguak izan zituzten gainera herriko gobernuan, baina bi karguak ez zituzten inoiz batera izan behar<sup>44</sup>. Elizain izan ziren pertsona askoren ospe handiko deiturak kontuan hartzen badira, pentsa daiteke, huts egiteko gehiegizko arriskurik gabe, Hiriko gizarteko jende ezagutu eta izen handikoen artean hautatzen zirela elizain horiek.

Elizainak hartzen ditu erakundeak jasotzen dituen diru emaitzak, hark egiten ditu ordainketak, ondare higiezina administratzen du, eta bere kargu aldia amaitzen denean, bere jestioaren kontu ematen dio udal errejimentuari.

Zeregin horiek betetzeak izan zituen, nonbait, bere arazoak. Horrela uler daiteke, adibidez, 1552an kargua zuten elizainek beren karguak utzi izana, eginkizun hori beren gain izatez nekaturik zeudela esanez, eta horrenbestez udalari kargu horretarako beste batzuk izenda zitzaizkizuten eskatuz. Kontzejuko kideek hurrengo igandean parroki elizan horren berri jakinarazi zuten, elizainak, erretorea eta kargua uzten zuten elizainen kontu ematea entzun nahi zuen oro astelehenean errejimentura joan zedila aginduz<sup>45</sup>. Nolanahi dela ere, izendatzeko unean ezin zitekeen kargua utzi; 1557ko urtarrilaren 9an, errejimentuko kideek Martín Pérez de Sara izendatu zuten Madalena elizako eta ospitaleko elizain, eta “mandaron que acepten los dichos cargos (parrokiako elizaina ere izendatu baitzen) so las penas contenidas en las ordenanças”<sup>46</sup>.

<sup>42</sup> “Patroiek obra baten (errukizko obra, parrokiakoa edo ermita) jestioaren eta kontrolaren ardura ematen zieten pertsona. Normalean hiritar sekular bat izan ohi zen, patroiek arauz urte baterako hautatua”.

Antxón Aguirre Sorondo: “La Ermitas...”, 70. or.

<sup>43</sup> EUA S. A/1/4/fol. 8r.

<sup>44</sup> 1551ko abenduaren 2an, adibidez, Juan de Olazábal y Pedro de Berrotarán izendatu zituzten errejimentuko kideek Madalenako elizain. Azkeneko hau ordean errejidore izendatu zuten handik gutxira, eta Pedro de Arizmendik hartu zuen haren lekua elizaingoan. EUA S. A/1/7/fol. 25r-v.

<sup>45</sup> EUA S. A/1/7/fol. 70r.

<sup>46</sup> “kargu horiek har zitzatzen agindu zieten, ordenantzetan agindurik dauden zigorreren pean”.

EUA S. A/1/3/fol. 101v.

Ez da frogarik elizain karguan seroretan XVIII. mendearen erdialdera izan zena bezalako krisialdirik izan zenik ziurtatzeko. Hain zuzen ere, kargu hori oinarri-oinarrizko elementua izan zen, Madalena elizaren eta ospitalearen administrazioan ez ezik, baita udal patronatoaren mende zegoen beste edozein eliz erakunderenean ere.

*[The following text is extremely faint and largely illegible. It appears to be a historical document or a list of records, possibly related to the church or hospital mentioned in the text above. It contains several lines of text, some of which are partially readable, such as "Madalena elizaren" and "ospitalearen".]*



## II

# ARTE AZTERKETA

## 1. MADALENA OSPITALE

Azterketa historikoan adierazi den bezala, Madalena ermitak XIV. mendean sortu zen antzinako legenardunentzako ospitale batean du ziur aski bere jatorria. Antzinako ospitale horretatik ermita hau baizik ez da geratzen, eta eraikin hark izan zitzakeen ezaugarriak ez dira ezagutzen, dagoen dokumentazioak ez baitu ezer argitzen gai horrez.

Aurrera baino lehen, Madalenako eraikuntza ulertzen eta haren ezaugarrieta-ko batzuk irudikatzen lagunduko dituten zenbait ohar kontuan harrarazi behar dugu.

Lehenik eta behin, Aro Modernoa arte medikuntzazko sorospenaren eta erlijioaren artean izan den lotura guztiz estua azpimarratu behar da; dela ospitaleak ordena erlijiosoan zuzendaritzapean egon ohi zirelako (nahiz eta gurean ez den horrelakorik gertatzen), dela beti ere gorputza zaintzearen eta arima zaintzearen artean ezarri izan den lotura estuagatik, pentsatu ere ezin zitekeen egin ospitalerik berekin batera kaperaren bat edo elizaren bat ez zuenik... Gure erakundearen gainean udalak zuen patronatoa ahaztu gabe, kontuan hartu behar da Europan bazela ordena erlijioso bat, XI. mendean sortua, bere eginkizun zehatz eta berezia legenardunak zaintzea zuena. Ez dakigu ordena erlijioso horrek Erreterian inoiz eginkizunen bat izan zuen ala ez. Zentzu horretan Lizarrako legenardunen ospitalea daukagu alderagarri izan daitekeena, hartan izan ere, "...al abandonarla los reli-

*giosos pasaron ella y sus posesiones a ser propiedad del Concejo de Estella, pues del siglo XIII ya tenemos documentos que nos atestiguan el ejercicio de dominio por parte de aquél*"<sup>47</sup>.

Beste alde batetik, gauza frogatua da Europa osoan legenardun ospitaleek San Lazaro zutela batez ere babesle, baina baita Santa Magdalena ere (bere azken egunak gaixorik eta basamortuan penitentzia eginez eman baitzituen); bi babespen horiek, edo elizen eskaintza horiek, gaur egungo elizen ondoan antzina legenardun ospitaleak izanaren adierazgarri izan ohi dira.

Ohartzekoa da nola Madalena ermita ere, legenardunen ospitale zen aldetik, itxaro izatekoa zen bezala, jende ososuntsuarengandik urruti dagoen leku batean dagoen kokatua, oso gaixotasun kutsaerrez bati dagokion bezala. Nolanahi dela ere, gure kasu honetan gauzak ez dira Núñez de Cepeda-ek Zangotzako antzinako ospitaleari buruz (bestalde legenardun ospitalea izan ote zen ere aski gauza zalan-tzazkoa dena) dioen bezain zorrotz, Hiribildutik 600 metrotara baitzegoen "*...entre los ríos Aragón y Onsella, sitio que reúne todas las condiciones exigidas antiguamente para ser hospital de leprosos, en las afueras de la localidad habita-da, con dos ríos por barrera y completamente aislado de los lugares por donde transitan los hombres sanos*"<sup>48</sup>. Errenteriako Madalenak errekatxo bat baizik ez du bereizgarri, eta aski hurbil dago, edozeinetara ere, izen bereko arrabaetik.

Esandakoari dagokionez, bada, herriguneetatik bereizita jartzeko gomendioak gorabehera, Goti Iturriagak ohartarazten duen bezala, "*...casas de San Lázaro o de la Magdalena se sitúan, en Navarra, de preferencia, en las inmediaciones de la ruta jacobea, así en Pamplona, en Sangüesa y Estella...*"<sup>49</sup>. Izatez hori ez da nafarroan bakarrik gertatzen, eta badira legenardunen ospitaleen aipamenak Somporteko mendatean bertan eta Santiagorako bidearen Pirinioaz iparraldeko beste zenbait lekutan. Gureari dagokionez, ezertxo ere ez dakigu Errenteriako ospitale honek Santiagorako itsasaldeko bidearekin zer ikusirik basuenez.

Aipatzekoa da, azkenik, zenbait autoreren arabera, Nafarroako gure inguruan ziren legenardun ospitaleen ugaritasuna; horren arabera halako ospitaleak ditugu inguruko zenbait herritan, Lesakan eta Goizuetan, adibidez, edo Baztanen ere.

<sup>47</sup> "erlijiosoak utzi zutenean, ospitalea bera eta haren lur sailak Lizarrako Kontzejuaren jabetza bihurtu baitziren, zeren XIII. mendean gero baditugu kontzeju hark erakunde horretan duen nagusigoa frogatzen diguten dokumentuak".

NÚÑEZ DE CEPEDA, Marcelo: *La beneficencia en Navarra a través de los siglos*. Pamplona 1910, 48. or.

<sup>48</sup> "...Aragon eta Onsella ibaien artean, antzina legenardunen ospitale izateko eskatzen ziren baldintza guztiak betetzen dituen lekuan, jendea bizi zen lekutik urruti, hesi gisa bi ibai dituela, eta jende osasun-duna ibiltzen den lekuetatik gutziz bereizirik".

NÚÑEZ DE CEPEDA, Marcelo: Op. cit.

<sup>49</sup> "San Lazaroren edo Santa Magdalenaren etxeak Santiagorako bidearen inguruan daudela batez ere kokatuta Nafarroan, bai Iruñean, bai Zangotzan, bai Lizarran..."

GOTI ITURRIAGA, José Luis: *Historia de los hospitales vascos. I. Navarra*, Salamanca 1981.



Hala balitz, frogaturik geratuko litzateke gaixotasun horrek gure eskualde honetan izan zuen berebiziko indarra eta zabalkundea.

Gure ospitale honen tipologiaz mintzatzen hasteko, gauza frogatua da gure ospitale honetako eraikuntza eta orobat gisa bereko Europako erakunde gehienak, XVI. mendearen erdi aldera beren legenardun ospitale izateari utzi egiten diotela. Badirudi aztertzen ari garen eraikuntzak ere XVII. mendearen hasierarako betirako utzirik duela bere ospitale edo babes etxe izatea. Horren ondorioz atera daiteke sorospenerako eraikuntza bezala behintzat Erdi Aroko tipologia bat izango zuela gehienez ere. Orobat esan nahi du eraikuntza honek ez duela inolako zer ikusirik XV. mendearen bukaera aldera Iberiako Penintsulan eraikitzen hasten diren ospitale handi haiekin. Erregeren fundazio izan ohi diren gurutze formako –kapera erdian dutela– eraikuntza handiak esan nahi dugu, BERPizkunde garaian tipiko direnak, eta jatorriz Italiako eredu bati jarraituz eraiki bide zirenak.

Horregatik hain zuzen, Erdi Aroko tipologia tipikoagoak bilatu beharko dira honetarako, eraikuntza mota honetarako Erdi Aroko tipologiari izan zela esan baldin badaiteke, noski. Badira, nolana ere, bi aldaera nagusi edo oinarrizko, ospitaleen antolamenduari dagokionez. Biak gerta bide zitezkeen Erreterian, eta ondoren aipatzen ditugun hauek dira horiek.

### 1.1. Eraikuntza bakarra

Eraikin bakarra diogunean, gaur egungo ermita, ospitalea, eta beste zenbait eraikin osagarri (sukaldeak, bulegoak, e.a) bere baitan hartzen zituen eraikuntza zabalago edo estuago bat nahi dugu esan. Ez dugu eskatzen ez plano erregular bat edo ikuspegi bateratu batez egina izatea ere, aski litzateke sorospenerako eraikuntza ordena handirik gabe bat, Palma de Mallorcan edo Sevillan kontserbatu direnen gisakoa. Aipatu berri hauek izan ere, gureak baino helburu zabalagoak eta baliabide gehiago zituztenak noski, ardatz baten inguruan eratutako plan jakin bat gabe, eliza, gaixoentzako gelak, gela osagarriak, e.a. arau jakin zehatzik gabe zenbait patiorengan inguruan multzokatuz eta kokatuz eginak dira.

Guregandik aipatu horiek baino askoz ere hurbilago dagoen gisa horretako adibide bat Gasteizko legenardun ospitalearen deskribapenak emango liguke; ospitale horretatik ordea ez da arrastorik geratu. Núñez de Cepedak ematen digu berriro haren berri: “... *la primera puerta que se encontraba daba acceso a un patio y en él existía un portegado (tejavana o cobertizo) que servía de vestíbulo a la iglesia (...)* La casa tenía un gran número de habitaciones distribuidas en dos pisos, con cuartos separados para hombres y mujeres y aposentos especiales para los enfermos”<sup>50</sup>.

<sup>50</sup> “...topatzen zen lehenengo atetik patio baterako sarbidea zen; patio hartan bazen aterpe bat (estalpea edo teilapea) elizako atari gisa erabiltzen zena (...) Etxean gela ugari zen, bi solairutan banatuta, gizonentzako eta emakumeentzako gelak bereizirik, eta gaixoen gela bereziak zituztela”.

NÚÑEZ DE CEPEDA, Marcelo: *Hospitales vitorianos: El santuario de SMA. Virgen de Estíbaliz*. El Escorial 1931, 41. or.

Madalena ospitale hau aipatzen ari garen ospitale mota honetakoa zelako hipotesiaren bermagarri, ermitak baditu Hegoaldeko fatxadan ate baten eta leiho izan zitekeen baten hondakinak, oso itxuragabetuta ordea. Pentsa daiteke antzina elizak ondoan zukeen eraikuntza osagarri baterako –ospitalea, zalantzarik gabe– igarobidea izan zitekeela; ustekizun hori defendagarria izango litzateke baldin eta horma hori XVIII. mendean egin zen ermitaren eraberritzea baino lehenagokoa balitz, eraberritze horri buruz ordea, geroxeago mintzatuko gara. Gerta daiteke ordea, elizarako antzinako sarrera izatea ere, inguru hauetan ohitura handia baita elizarako sarrera hegoaldeko fatxadatik jartzea. Horregatik hain zuzen, gerta daiteke aztarren horiek elizari eratxekirik zegoen sorospenerako eraikuntzari buruz ezeren berririk emateko ez balio izatea, horrek sor litzakeen kronologia arazoekin, gainera.

## 1.2. Ospitale herrigunea

Bigarren hipotesi honek ospitale izateak gaur egun duen zentzutik urrundu egiten gaitu, eta legenarraren ezaugarriak dakarzkigu gogora: hain zuzen ere legenarra arindu baizik ezin zitekeen egin, ezen ez sendatu, eta legenartsuak gainerako biztanleetatik bereizirik eta urrundurik edukitzea eskatzen zuen batez ere. Horretarako aski da beste biztanleetatik bereizirik bizi badira, eta are bizimodua atera ere beren kabuz ateratzen badute, jende osasundunarekin elizan ere nahasten ez direla (horretarako dute beren eliza berezia).

Puntu honetan ez da ahaztu behar agoten bazterkuntzaren jatorria haiek ustez jaiotzatik berez zuten legenarra (edo legenardunen seme-alaba izatea) izan daitekeela. Honela dio Caro Barojak gai honi buruz: *“El caso de los agotes se funda en la conexión que se establece entre un criterio moral y un criterio biológico, o si se quiere, entre la religión y la patología, de suerte que a las faltas morales se les impone un castigo hereditario, físico, corporal”*<sup>51</sup> (irizpide hori berori erabiltzen da, jakina, egiazko legenardunentzat ere). Horregatik gainerako biztanleekin tratutan ez aritzea (eta are gutxiago haiekin ezkontzea) eta haiekin ahalik eta harreman gutxiena izanez zigortzea merezi dute. Agotek, beren aldetik, izan dezakete eliza berbera “osadundunekin”, haien berberak ez diren ateak, ponteak, lekuak, e.a. erabiltzeko baldintzarekin ordea.

Horregatik, honela izatera, legenardunen ospitalea herri bereizi bat baizik ez da izango, legenartsuak “medikuntzazko” eta katitatezko gutxieneko laguntza batez lagundurik bizi direna. Zentzu honetan badira Bordeleko legenardun ospitalearen berriak, Fay doktoreak jasoak: *“... las viviendas de los leprosos y de los*

<sup>51</sup> “Agoten arazoa irizpide moral baten eta irizpide biologiko baten artean egiten den loturan oinarritzen da, edo bestela nahi bada, erlijioaren eta patologiaren artean egiten den loturan, zeren hoben moralentzat hereditiazko zigor fisiko, gorputzeko bat jartzen da”.

CARO BAROJA, Julio: *Las formas complejas de la vida religiosa (siglos XVI y XVII)*, Madrid 1985, 508. or.





Ur bedeinkatuaren  
ontzia.

“gahets” (agoten pareko edo izan zitezkeenak) se elevaban en torno a la iglesia de San Nicolás, es posible que se localizase allí un hospital para los más enfermos de entre ellos. Cultivaban las tierras contiguas a la iglesia por las cuales pagaban un censo al cabildo de San Andrés”<sup>52</sup>. Fay honek berak Lescar-eko (Biarno) legenardun herriari buruz ere ematen digu zenbait berri; bere garaian hain zuzen, “hameau des lépreux” (legenardun herri) deitzen baitzioten leku hari. Esaten duenez “La leprosería presentaba el aspecto de aldea donde los enfermos podían vivir con sus esposas; algunos, solteros, ocupaban solamente una habita-

<sup>52</sup> “...legenardunen bizilekuak eta “gahet”-enak (agoten pareko edo izan zitezkeenak) San Nikolas elizaren inguruan zeuden; daitekeena da gaixotasunak gehien jota zeuzkanentzat ospitale bat izatea han. Elizaren inguruko lur sailetan zituzten beren alorrak, eta lur horien ordainez zerga bat ordaintzen zioten San Andresko batzarrari”.

FAY, Dr. H: *Lépreux et cagots du Sud-Ouest*. Paris 1910, 270. or.

*ción (...) la subsistencia de los enfermos estaba asegurada parcialmente por la tierra, en parte por las rentas, en parte por la caridad pública*"<sup>53</sup>.

Esan beharrik ere ez dago, Erreterriako Madalena ospitalea bigarren era honektoa izan zela ziurtatzeko ere ez dugula inolako frogarik. Agian esan daiteke hipotesi hau baztertzeko bai, badirela nolabaiteko testigantzak; hala, adibidez, 1547ko martxoaren 30eko dokumentu batean esaten denez "... *avia comenzado a hacer la obra de la casa y ospital de la Madalena...*"<sup>54</sup>. Esaldi horrek badirudi ez duela zalantzarik uzten eliza bat, dokumentuan aipatzen ez dena baina kontserbatzen dena, eta ospitale-etxe bat baizik ez zirela ziurtatzeko. Lehen ere esan dugu, nolahi ere, bizitokitarako eta bestelako eraikinen artean izan zitekeela bat "gaixotegi" soilik zena, aipatu berri den dokumentuan esaten den "casa" izan zitekeena.

Horrenbestez bada, esan beharra dago proposatu diren bi tipologietatik edozein izan zitekeela Erreterriako Madalena legendarunen ospitale honena. Arkeologia indusketa bat beharko litzateke zalantza hori argitzeko. Gainera era honetako erakundeetarako Gipuzkoan izan den arreta urriaren ondorioz, oso zeharkakoa dugu gai honi buruz dugun ezaguera apurra eta gauza banaka batzuk baizik ezin argitu diezazkiguke.

Hurrengo puntura baino lehen, gure sorospen zentru honen bilakaera zertxobait gehixeago argitzeko balio diezaguketuen testigantza pare bat ekarriko dugu hona.

Testigantza horietako lehenengoa Baionako legendarun ospitaleari dagokio, elizbarruti horretakoa izan baizen izan ere Erreterria 1566ra arte; Fay doktoreak dakar testigantza hori. "*Guillaume de Castelgelos donó a los hospitalarios de San Juan de Jerusalem un terreno situado en el barrio de San León, extramuros de la ciudad, sobre el cual la orden elevó un hospital y una capilla donde fueron cuidados al parecer los leprosos. No creemos sino que a partir de 1266 los "grandes leprosos" (verdaderos enfermos en oposición a los agotes) eran raros en Bayona y que los agotes, que precisamente vivían en San León, eran los únicos leprosos de la ciudad que recibían los cuidados de los hospitalarios de San Juan de Jerusalem o de los hermanos de San Lázaro*"<sup>55</sup>. Hori guztia kontuan harturik bada, ez ginateke batere harritu beharko Erreterriako Madalena egiazko ospitale

<sup>53</sup> "legendarun herri horrek herritxo baten itxura zuen; gaixoak beren emazteekin batera bizi zitezkeen han; batzuek, ezkongabeek, gela bakarra izaten zuten (...) gaixoen mantenuaren zati bat nekazaritzatik ateratzen zen, beste zati bat errentetatik, beste bat jendearen erruki oparrietatik".  
FAY: Op. cit., 264. or.

<sup>54</sup> "Madalena ospitalearen eta ospitalearen obra egiten hasia zen".  
EUA, Secc. A., Neg. 1, Lib. 11, fol. 53v.

<sup>55</sup> "Guillaume de Castelgelos-ek Jerusalemeko San Juaneko ospitalerrei lur sail bat eman zien San Leon auzoan, Hiriaren harreresiez kanpoan; lur sail horretan ordena erlijioso horrek ospitale bat eta kapera bat eraiki zituen; itxura denez horietan legendarunak zaindu ziren. Gure ustez 1266az gero oso gutxi ziren "legendar handikoak" (egiaz legendarrez gaixo zirenak, agotetatik bereizteko), eta uste dugu agotak zirela, San Leon auzoan bizi baitziren hain zuzen ere, Jerusalemeko San Juaneko ospitalerren edo San Lazaroko frailean laguntza eta arta hartzen zutenak".  
FAY: op. cit., 268. or.



oso denbora laburrez izan bada, eta zinez agoten “ghetto” baizik ez izatea, eta bertako ospitalea, gaixotasun orotarako ospital edo txiroen babesleku izatea batez ere. Horrela ulertuko litzateke Hiriaren hazkunderan Erdi Arotik bertatik hasita legendardunen ospitale horretarantz egiteko izan den erreparo urria. Pentsatzekoa baita, hain zuzen ere, Madalenan egiazko legendardunak izan balira, gehixeago atzeratuko litzatekeela Erretereriako herria bere arrabala norantz eta horren kutsagarri zirudien leku baterantz zabaltzetik.

Zer gertatu zen, ordea, Madalenan bizi bide ziren ustezko agote haiez? Poliki-poliki bertakotuz eta herritartuz joan bide ziren ziurrenera; bertakotze hori, Lapurdin eta Nafarroan ez bezala, probintziako agintariek onetsi eta berretsi egin zuten, endredagarri izan zitezkeen txikikeriatan hasi gabe odol garbitasun orokor batez estali nahi baitzituzten guztiak. “*En esta línea, las instituciones solariegas emprendieron una versión agresiva de la “política del avestruz”: negaron la existencia de judíos conversos, herejes y agotes*”<sup>56</sup>. Horren ondorioz XVI. menderako ez zen gehiago lehendik izan zitezkeen agoten aztarren batik ere geratzen, “gogoratzen den guztitik”, gainera, ziur aski.

## 2. MADALENA ERMITA

Askotan esan dugu orain arteko guztian antzinako sorospen eraikuntza multzotik Erretereriako patronaren ermita besterik ez dela geratzen gaur egun. Atal honetan eraikuntza horren zenbait alderdi komentatuko ditugu, ermitaren tipologiari eta eliza horren eraikuntzak izan dituen eraikialdi desberdinen datatzeari dagozkionak besteren artean.

Lehendabiziko puntuari dagokionez, tipologiari dagokionez alegia, ermiten eraikuntzan aurkitzen den guztizko askatasuna aipatu behar da lehendabizi. Egia da, hala ere, joera handia dela ermitak oinplano laukizuzen batez egiteko, eta hala xe gertatu dela, gertatu ere, aztertzen ari garen honetan ere. Esan beharrik ez dago, beraz, Madalenako eraikuntza honek, ospitaleko eliza bezala zein ermita bezala, ez duela inolako berezitasunik eraikitzeko moduari dagokionez.

Gure eraikuntza honetako gauzarik deigarriena aldarea hartzen duen tabernakuloa da, gurutze gangaz estalia, eta abside plano deitu ahal izateko txikiegia, itxuraz bederen gaur den eraikuntza baino askoz ere handiagoa behar zukeen bati legokiokeena. Edozeinetara ere oso herri giroko estilo bateko eraikuntzak dira horrelakoak, unean bertan asmatutako edozein soluzio har ditzaketanak, eta horrenbestez ez da harritzekoa proportzio falta hori.

Eraikuntzaren eraiki aldiei dagokienez, dokumentu bidez ziurta daitezkeen eta aldi berean eraikuntzan bertan ere bereizi daitezkeen eraiki aldi ziurrenak baizik ez ditugu aipatuko.

<sup>56</sup> “Zentzu horretan, alegia, orube etxeen erakundeek “ostruka politika” lehiatsu bati ekin zioten: judu konbertiturik, heretikorik eta agoterik probintzian bazenik ukatu egin zuten”. MARTÍNEZ GORRIARÁN, Carlos: *Casa, Provincia, Rey*. Irún 1993, 72. or.

Badirudi Madalena sortu zen garaiko hasierako eraikuntzatik ez dela ezertxo ere geratzen, eta lehen aipatu dugun tabernakulo hori dela eraikuntzak duen zatirik zaharrena. Zati horretan bada, berorren eraikuntza elementuek eta batez ere gangaren zainek XVI. mendearen erditik aurrerako eraikuntza bat dela susma arazten digute. Ganga zain horiek hain zuzen ere BERPIZKUNDE garai aski aurreratu batekoak lirateke, garai horretan oraindik ere eraikuntzak estilo gotikoan egiten badira ere, garai berrietako estilo berrien moldurak eta epaiak ari baitira hartzen eraikuntza horietako elementu asko. Hain zuzen ere, ganga zain horien epaia ia laukizuzena delako esaten dugu hori (estilo gotiko bete-betean epai horrek hiruki itxurakoa izateko joera izan ohi baitzuen), eta saihetsetan arkitrabe klasiko bat duelako, beheko partean ere joera klasikoazale agerikoa duten sakonuneak dituela.

Horregatik, orain arte aipatu dugun dokumentu aipamenik zaharrenak ematen duen 1547ko data hartuz, elizaren zati horrentzako aski egokia izan daiteke data-tze hori, era horretako arkitektura soluzio baterako aski goiz bada ere. Nola nahi dela, aitortu beharra dago, eta kontuan hartu, Gipuzkoan XVI. mendean baliatu ziren forma artistikoei buruzko dokumentazio osorik ez dela, ez eta gutxiagorik ere. Horregatik, bada, berriro diogu, zuzena izan daiteke data hori, Erretereriako parrokiaren bertan, esate baterako, ukitu klasizista hori askoz ere geroagokoa den arren.

Ermitaren eraikuntzan izan den beste aldi ziurra, joan den hamarraldiko konponketak alde batera utzita, XIX. mendearen bigarren erdian fatxada nagusia osorik berritu zenekoa da.

XVI. mendeko eta XIX.eko obren artean (eraikinaren historiari buruzko atalean aipatu ditugunak alegia), ermitaren zatirik handienaren eraikuntza dago; hortaz guztiaz, jakin ezer ere ez dakigu, Gamonek eta udal agiriekin ematen dituzten berriak ez badira. Gamonek ur sarreragatik eta zimentazio arazo larri batzuegatik 1716rako eraikuntza arriskutan jartzen ari ziren arazoak konpontzeko hasitako obra sail bat 1718an burutu zela aipatzen du. Urte horietan eta geroago ere, eraikuntza finkatzeko eta konpontzeko hainbat obra egin ziren; obra horiek alferrik izan ziren ordea, hondoa joko baitu azkenean eraikinak, eta berriak hasi beharko baita berriro eraikitzen (horrek ez du esan nahi lehendik eraikita zeuden zati batzuk berrirako baliatuko ez zirenik). Gamonek kontatzen duenez, orobat, 1732rako buruturik zegoen obra berria, eta bertan meza emateko baimena emana zuen. Ez dakigu eraikuntza berri honetan lehenagokoaren planoa aldatzen den ala haren planta bera gordetzen den oinarrian. Gure iritzian daitekeena da eraikinak zituen ezaugarriak asko aldatzeko asmo handirik ez izatea, eta horrenbestez lehenagoko eraikuntzak zituen akatsak zuzentzea izango zen batez ere asmoa, haren ezaugarri nagusiak bere hartan gordez.

Aipatu dugu gangaz estalita dagoen zatiaren eta eraikinaren gainerako guztia-aren artean dagoen proportzio falta; hasieran neurri txikiagokoa izan zitekeela (izatez edo proiektuz) idaroki lezake horrek.

Eraikin guztia gangaz estalia izateko proiektatu izana ez da ordea erraz sinestekoa: garrantzi handirik ez zuen eraikuntza erlijiosoa izanik, aski da eraikuntza



ahaleginik handiena elizburuan dagoen alderik sakratuen eta ohorezkoena eraikitzeke egitea. Ez da ahaztu behar gainera, zurezko estalkia ere, zureria soilik utzita ala kasetoiz apaindua, egokitzen ematen dela Europa osoko garrantzi handiko eraikuntza erlijioso askotan. Euskal Herri osoan tradizio handia du gainera zurezko estalkiak, eta alde guztietan da egoki ez ezik merke ere.

Madalena legenardunen ospitale zen garaietatik geratutako testigantza gisa hartu nahi genituzkeen azkeneko dokumentuak aldarearen alde bietara dauden horma konkak dira, Europako legenardun ospitaleek izan ohi zituzten hiru santu babesleak gogoratzen baitizkigute. Honi dagokiola, lehen ere aipatu dugun Gasteizko Madalenako legenardun ospitaleak hiru aldare zituen: bata, nagusia, Santa Madalenari eskainia, eta beste biak, ezkerrekoa San Lazarori eskainia eta eskuinekoa Santa Agedari. Esan beharrik ez dago denboran zehar haietako irudiak lekuz aldatuak izan daitezkeela, eta horren ondoren aldareak bestetarako izendatuak (gaur egun Amabirjinaren eta San Joseren irudiak daude haietan).

### 3. GAI MUGIGARRIAK

Atal honetan Madalena ermitako zenbait elementuren berri emango dugu; horietako batzuk ezin dira zehazki gai mugigarritzat hartu: ur bedeinkatuaren ontziaren gainean dagoen orotarria eta koruaren zureria batez ere.

#### 3.1. Sarrera ondoko erliebea

Elementu hau gai mugigarritzak hartzen dugu, zeren harnabarrez egina izan eta hormari itsatsia badago ere, itxuraz behintzat badirudi antzikako obra bat dela, joan den mendean fatxadaren egindako eraberritzean han jarria. Gurutze baten irudia du, inguruan Jesukristoren Nekaldiko zenbait gai dituela, hala nola eskailera, ilteak, e.a. Gai ikonografiko gisa Barroko aldiko sentsibilitateari legokioke batez ere, eta garai horretan egina dateke ziurrenera ere.

#### 3.2. Korua

Korua egiteko erabilitako gaiak eta gai horien iraunkortasun urria kontuan harturik, ez da batere harritzeko gauza gaur egungo korua berria izatea. Daitekeena da azkeneko bi mendeetan behin baino gehiagotan berritik egina izatea ere. Koru baten lehendabiziko berri dokumentatua 1604koa da, non esaten baita ezen “...*para el aderezo y reparo de los lugares de la casa y coro de la iglesia de la Magdalena tienen necesidad de hasta dos docenas de robles...*”<sup>57</sup>. XVIII. mendean egin zen berreraikitzean koru osoa desagertu zela ziur dakigun arren, pentsa dezakegu koru horren jatorrizko itxura ez zela gaur duenaren oso bestelakoa.

<sup>57</sup> “...*etxeke lekuak eta Magdalena elizako korua txukuntzeko eta konpontzeko bi dozena haritzetaraino behar dituzte...*”.

EUA Secc. A, Neg. I, Lib. 11, fol. 53v.

### 3.3. Koruko koadroa

Koruan bada neurri handitako koadro bat, oso egoera eskasean dagoena, baina iruzkin berezi bat merezi duena.

Lehenik eta behin, oihalaren oinean ageri den sinadura eta data XIX. mendekoak diren arren, data hori baino askoz ere antzinagokoa da koadroaren itxura, eta hala erakusten du koadroari eusten dion markoaren egiturak ere, ez baita batere XIX. mendean ohi bezalakoa. Egia da marko hori beste batetik hartu eta honetarako erabilia izatea, baina ondoegi egokitzen da oihalaren neurrietara hala izateko. Gure iritzian XIX. mendeko sinadura hori koadroaren konpontzailearena eta oiha-lari berriro margo eman zionarena izan daiteke, eta oi hala bera askoz ere antzinagokoa izan bere aldetik. Markoak ez ezik, ikonografiak ere askoz ere data zaharragoa iradokitzen digu koadroaren sorkuntzarako: Berpizkunde garaikoa dela esateak arrazoizkoa dirudi. Espainiako pinturako manierismo berrian guztiz ohizkoa eta beste leku batzuetan oso urria den konposizio modua du gainera. Beste koadro askotan ikusten da konposizio hori bera, antzeko eskema bati jarraituz: bi irudi eseri goiko aldean alde banatan, eta erdian, behe-rago beste bat, Espiritu Santuaren azpian.

Erretereriako koadro hau Espainiako manierismo berriarekin lotzeko modua Francisco de Ibia pintorearengan aurki dezakegu. Pintore honi buruz dokumentazio ugari dago bai Ameriketara bai Europan, eta bera da parrokiako antzinako erre-taularen egilea (XVIII. mendean haren lekuan beste bat eta azkenik oraingoa jarri aurretik). Francisco de Ibia honek, Zumaian jaioa bazen ere, Mexikon egin zuen bere lan gehiena, non aski fama handia lortu baitzuen artista eta maisu bezala Baltasar de Echave zumaia-tarkideak. 1594 inguruan<sup>58</sup> Zumaiara itzuli zen berriro, ospea eta familia Ameriketara utzirik (Gipuzkoan bere semearen alde aiton seme-tza lortzeko jesterio batzuk egin zituen arren), eta bere lanbidean jarraitu zuen, Erretereriako parrokiara dokumentaturik dauden obrak egiterakoan behinik behin.

Gure ustea honako hau da: koadro hori parrokiako antzinako erretaula atalkatu hartatik datorrela, eta hartan dutela jatorria orobat parroki elizan bertan eta Madalenako ermita honetan banaturik dauden “antzinako” beste zenbait irudik ere. Badirudi parrokiaren eta ermitaren arteko aldare eta irudi truke hori oso ohiko gauza izan dela. Gamonek berak dakar, adibidez, bi aldaretxoren kasua: “...*servieron en los dos primeros pilares de la parroquia hasta que en 1770 fueron trasladados a la basílica de Santa María Magdalena, con motivo de haberse erigido con licencia de la Villa en su lugar otros dos*”<sup>59</sup>. Are gehiago, itxura guztia du parrokiara soberan geratzen den guztia Madalenara eramaten dela, beste xede hoberik ezean.

<sup>58</sup> “...parrokiako aurreneko bi zutabeetan egon ziren 1770ean, Herriaren baimenarekin haien lekuan beste bi egin zirelarik, Santa Maria Magdalena basilikara eraman ziren arte”.

GAMÓN, J.I.: *Noticias históricas de la Villa de Rentería*, San Sebastián 1930, 312. or.

<sup>59</sup> AGG, Hidalguías, SS-269.5.



Azkenik koadroan irudikaturik dagoen gaia era aipatu behar da: Amabirjinaren Korroatzea, Amabirjinaren Jasokundeari eskainita dagoen eliza batean askoz ere laku egokiagoa zuena, zalantzarik gabe, Santa Maria Magdalenari eskainitako batean baino.

Gure hipotesi hau egia bada, aipatzen ari garen pintorearenetatik gorde den koadro bakarra izango litzateke hau: Mexikon dokumentaturik zeuden haren koadro guztiak galdu egin baitira. Horrexegatik hain zuzen, koadro hau pintore horren koadrotzat izendatzea Espainiako manierismo berriaren joeretan eta ikonografietan oinarriturik egin behar izan da, eta ez artista horren pintatzeko modu zehatzean, ez baita ezagutzen pintatzeko modu hori. Esan beharrez ere ez dago zein balio handia izango lukeen koadro honek, egilea egiaz Francisco de Ibía balitz, eta esan beharrik ez dago orobat obra horrek birgaitzeko duen premia larria.

### 3.4. Irudiak

Gai honi dagokionez, lehenik eta behin esan beharra dago gorde diren irudi gehienak ez direla antzinakoak ez balio handikoak, aldarearen eskuinean dagoen horma konkan dagoen San Joseren irudia salbu. Irudi horri dagokionez, jatorria eta kronologia argituko dituen dokumentaziorik ezean, Barroko aldiaren egintzat eman daiteke printzipioz. Hala erakusten du batez ere irudiaren oihal lanak eta oina tunika artetik aurreratuta edukitzeak adierazten dinamismo bilaketak, garai horretako Espainiako pinturan eta eskulturan ohikoa den baliabidea azken hau hain zuzen. Aipatzekoa da, azkenik, obrak bere osotasunean duen dinamismoaren eta eskuetan eta aurpegian duen zurruntasunaren arteko armonia urria. Jesus Haurrak, bere aldetik, bere gorputzaren egoeraz eta keinuez, osotasunaren efektua indartu nahi du.

Interesagarria iruditzen zaigu, orain artekoaz gainera, gaur egun desagerturik dauden baina bere garaian ermita honetan egon ziren zenbait obra aipatzea, tradizioak eta Gamonek diotenez, Ingalaterratik ekarriak guztiak. Orobat aipatu behar dira lehen ere esan den bezala garai batean parrokiaren egon eta ermitara ekarri zirenak, estiloz eta jatorriz parrokiaren gordetzen den Animatako aldarearekin kide ziratekeenak. Eta beste alde batetik, Kristo bat, garai batean Herri honetan debozio handia izan zuena, debozio hori galdu zelarik, ermita honetara ekarria.

**BIBLIOGRAFIA**

- CARO BAROJA, Julio: *Las formas complejas de la vida religiosa (siglos XVI y XVII)*. Madrid, 1985.
- FAY, Dr. H.-M.: *Lépreux et cagots du sud-ouest*. Paris, 1910.
- GAMÓN, J.I.: *Noticias históricas de la Villa de Rentería*. San Sebastián, 1930.
- GOTI ITURRIAGA, José Luis: *Historia de los hospitales vascos. I Navarra*. Salamanca, 1981.
- LÓPEZ DÍAZ, María Teresa: *Estudio histórico farmaceutico del hospital del Amor de Dios de Sevilla (1655-1755)*. Sevilla, 1987.
- LÓPEZ MOLINA; DE ABIZANDA, Esteban: *El hospital provincial de Baleares 1456-1960*. Palma de Mallorca, 1961.
- MARÍAS, Fernando: *El largo siglo XVI*. Madrid, 1989.
- MARTÍNEZ GORRIARÁN, Carlos: *Casa, Provincia, Rey*. Irún, 1993.
- NÚÑEZ DE CEPEDA, Marcelo: *Hospitales Vitorianos, el santuario de SMA. Virgen de Estíbaliz*. El Escorial, 1931.
- NÚÑEZ DE CEPEDA, Marcelo: *La beneficencia en Navarra a través de los siglos*. Pamplona, 1910.
- PEÑA SANTIAGO: *Ermitas de Guipúzcoa*. San Sebastián, 1975.
- RUIZ GOMAR, Rogelio: *El pintor Luis Juárez. Su vida y su obra*. México, 1987.
- TOVAR DE TERESA, Guillermo: *Pintura y escultura del renacimiento en México*. México, 1979.
- VÁZQUEZ ESCUDERO, E.; MURO ARRIET, K.: *Nuestra Señora de la Asunción de Rentería: Estudio histórico artístico*. Rentería, 1993.



### III

## ARKITEKTURA AZTERKETA

### 1. INGURUAREN DESKRIBAPENA ETA KOKAERA

Madalena ermita, joan den mendearen bigarren erdian han zegoen antzinako legenardunen ospitale baten hondarretan eraikia, Erdi Aroko harresietatik kanpora dago, antzinako Donostiarako bidean, Errenteriako harresietako Arrabaletako Atea izan zenetik hurbil. Horrek ez dio axola ordea, gaur egun herriko parte zaharreko-tzat har dadin, Parte Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziak bere baitan hartuz egiten duen bezala.

Antzinako garaietan ermita hori herrigunetik harresiek bereizita bazegoen, gaur egun burdinbideak bereizten du hartatik (“Topoak”), ermitatik hurbil igarozten baita zorua baino gorago jaso, eta ermitaren sakristiako eraskinaren zati bat estaltzen baitu.

### 2. LURSAILAREN FORMA ETA EZAUGARRIAK

Ermita aurkitzen den lursaila irregularra da, Iparraldetik Topoaren zubiak mugatzen du, Ekialdetik mendi maldak eta Gaztaño auzorako eskailerak, Mendebaletik Maria Lezo kaleak, garaje baterako sarbidea eratzen duen kaletxo batek eta Gaztañora igotzeko eskailerak.

Eraikuntza bakandua da, “areto-eliza” tipologiari dagokiona. Zurezko egitura du, karga hormek eusten diotela. Oinplano irregularra du (12,10 m. zabal eta 17

m. luze), abside bat du, aldareari dagokiola, irregularra berau ere, 4,60 x 2,60 m.takoa, eta sakristia bat Iparraldeko fatxadan, altura txikiagoko bi gorputzez osatua (3,60 m. elizaren gorputz nagusiak eta absidea duten 9 m.ko alturaren aldean). Bi gorputz hauetatik bata laukizuzena da, handiena, sakristia bera dei daitekeena osatzen duena, 4 x 5,10 m.takoa, eta bestea gorputz trapezoidal bat hari eratxikia, komun txiki bat dagoena. Bi gorputz hauen azalera 27,68 m<sup>2</sup>-takoa da, eta ermitaren azalera eraikia, absidearekin eta sakristiarekin batera, guztira hartuta, 244 m<sup>2</sup> da.

Ermitak Maria Lezo kaletik du sarrera; kale hori Ipar-Hegoalde hedatzen da. Sarrera, hortaz, ermitaren Mendebaleko fatxadan dago. Absidea Ekialdeko fatxadaren erdian dago; horregatik eraikuntza simetrikoa izango litzateke, Iparraldetik eratxikita duen sakristiarengatik izango ez balitz.

Absidea Ekialderantz begira edukitze horrek berorrek iradokitzen du ermita honen antzinatasuna, gaur egun den ermita lehenagoko baten berreraikitzea bada ere. Hain zuzen ere, Erdi Aroan eta batez ere Erromaniko garaian, elizetako, ermitetako eta katedraletakoa aldarea Jerusalemara begira jartzeko ohitura izan zen; gure alde honetan ekialderantz begira, beraz.

### 3. ERAIKUNTZAREN KANPOKO ITXURA

#### 3.1. Mendebaleko fatxada

Eraikuntza honen zatirik berriena da, joan den mendearen azken herenean eraikia baita. Fatxada hau hareharrizko harlanduz egina da, eta ohargarria da berorren zuhertasuna, ermitaren fatxada nagusia eta berorretarako sarrera izanagatik ere.

Egitura simetrikoa du, elementu bakunak ardatzean ditu, alde banatan eskegitu dituen fundiziozko bi farol eta ur bedeinkaturako ontzia salbu. Ontzi honen gainean bada koadroko harlandu bat, harnabarrezkoa, gurutze bat zerrendaz inguratua tailaturik duena. Atearen ezkerretara dagoen ur bedeinkaturako ontzi edo aska hau da, bere tailarekin, fatxadaren simetria eteten duen elementu bakarra.

Ermitarako sarrera atea zurezkoa da, margotua, kasetoietan banatua. Kasetoi horietako batek, erdian dagoenak, leihotxo bat du, burdin forjatuzko burdinsare batez babestua. Atearen atalburua arku beheratu batez osatua da; kaleko zoria baino goraxeago dago, eta horrenbestez bi eskailera maila igo behar dira atera iristeko.


Sarrerak markesina bat du atea babesteko, zurezko egitura eta hiru isuraldeko estalkia, teilazkoa, dituena. Aterpe horren gainean hutsune bat bakarra dago, 90 x 135 cm. ingurukoa, gainerako leiho guztiak bezala burdinsare batez babestua dagoena.



# MADALENA ERMITA

## Oinplanoa

8. planoa




# MADALENA ERMITA

## Fatxada nagusia - mendebala

### Maria Lezo kalea

9. planoa





Absideko gurutzeriaren ikuspegi xehea.

Teilatu hegalararen gainean kanpandorretxo bat du, bi isuraldeko estalkia duela, eta eraikuntzaren gailurra koroatzen duen eta haren erabilera adierazten duen gurutze bat ageri du.

Sakristia dagoen eraskinaren Mendebaleko fatxada da gorputz hark agerian duen zati bakarra, gainerako guztiak burdinbidearen zubiak ezkututzen baitizkio. Zurezko ate soil bat du, sakristiara zuzenean sartu ahal izateko, eta leiho bat, besteak bezala burdinsarez babestua, sakristiara argia eta eguratsa sar daitezen.

### 3.2. Iparraldeko fatxada

17 m. ditu luze, eta 9 m. altu; hareharrizko hormarriz egina da. Horri erantsita sakristia dago, Ekialdeko ertzetik 1,5 m.tara.

Bi leiho ditu. 1,20 m. zabal eta 1,50 m. altukoak. Leiho horien barrena lurretik 4,8 m.tara dago; hala eta guztiz ere, barrenetik korura igotzeko igoeratik haie-tara irits daiteke.

Fatxada honetan ohargarria da Mendebaleko ertzetik hurbil goitik behera dagoen arrakala bat, joan den mendean Mendebaleko fatxada berriro eraikitzean oinarria aldatu izanaren ondorioz sortua ziurrenera.





Ermitako irudi baten  
ikuspegia

### 3.3. Hegoaldeko fatxada

Iparraldeko fatxada bezalaxe, baina sakristiaren eraskinik gabe. Fatxadari buruz zut eraiki den horma batek garaje batekin lotzen du, era horretara Ekialdeko ertzera iritsi ezin daitekeela.


Iparraldeko fatxada bezala, bi leiho ditu, hartakoek bezalako ezaugarriak eta neurri berberak dituztenak.

Iparraldeko fatxadan bezalakoxe arrakala bat du, baina hartakoa baino handiagoa; horrek indar gehiago ematen dio joan den mendean eraikitako zatiaren finkatze desberdinaren teoriari.

Aipatzekoak dira, orobat, lurra ukitzen dagoen lehenengo harlandu zerrendan ageri den hezetasuna ere.

MADALENA ERMITA  
alboko fatxada - hegoaldea

10. plano




F. López-Roldán · J. Ubarrechena

0m. 10m.

MADALENA ERMITA  
Luzetarako epaia

11. plano



F. López-Roldán · J. Ubarrechena

0m. 10m.



### 3.4. Ekialdeko fatxada

Fatxada hau ermitaren atzealdea da, mendiaren kontra baitago; horrek hezetasun eta ur sartze asko eragin zituen laurogeiko hamarraldian urarentzat hustubideak jartzeko obrak egin ziren arte. Atzeko aldea denez ez da harlanduz egina, hormarriz baizik, beste hiru hormetakoak baino harri txikiago eta irregularragoz egina hain zuzen.

Aldarearen aldeko horma da, eta horregatixe, horma honetan dago absidea, hormatik eraskin baten gisa irtena; abside hori da, hain zuzen, fatxada honek duen elementu ohargarriena ere. Fatxada honek ez du hutsunerik.

### 3.5. Estalkia

Eraikuntza honek teilazko lau isuraldeko estaldia du, Iparralderako eta Hegoalderako isuraldeak lotzen dituen gailur batekin. Ekialdeko fatxadari dago-kion isuria beheraka luzatzen da absidea estaltzeko. Hegalak teilatu hodi bat du, euria jaisteko lau hoditatik hustutzen dena; lau hodiok, bat Hegoaldeko fatxadaren Mendebaleko ertzean, bestea Iparraldeko fatxadaren alde bereko ertzean, eta beste biak barren horma, edo Ekialdeko fatxadaren bi ertzetan.

Sakristiaren estalkia estalki nagusitik bereizita dago, sakristiako eraikin gorputza harena baino alturaz apalagoa delako. Hiru isuralde ditu, eta teilazkoa da hau ere. Estalki honen zati bat burdinbidearen zubiaren azpian ezkutatuta dago.

## 4. BARNEKO ITXURA

Lehen esan den bezala, eraikuntzaren berme egitura karga hormaz eta estalkia osatzeko hormazuzer eratua da.

Koruari eusten dion egitura guztia ere zurezkoa da. Koru honek hiru puska ditu, U baten gisan, zortzi zutaberen gainean, Iparraldeko, Hegoaldeko eta Mendebaleko hormen kontra eusten dela. Erdiko zatia, mendebalekoa, alboetakoak baino altuago dago. Erdiko zati horretara alboetako koruetatik iristen da, atearen eta aldarearen alde banatara duden eskilara pare banatatik. Koruak eratzen duen egitura simetrikoa da ermitaren konposizioak, sakristiaren gorputza kontuan hartu gabe, eratzen duen Ekialde-Sartalde ardatzari buruz.

Zoladura harlosaz eratua da. Aldarea 1,20 cm. gorago dago elizaren nabea baino. Zortzi eskailera maila daude batetik bestera, eskaileraren albo banatan aldarearen maila berean balkoi bana geratzen dela; balkoi horietatik korura igo daiteke. Sakristiarako sarrera eta hark duen komunerako bidea ere aldaretik denez, haiek ere eliza nabea baino gorago daude.

Elizaren barreneko hormak zarpiaturik daude. Ekialdeko horman, aldareari dagokionean, bi konka daude, aldarearen alde banatara, bakoitzean irudi bat dago-



Argazkia: Jesús Hospitaler

Korurako igarobidean  
gorde den koadroa.

ela. Aldarea puntu Erdiko arku batez inguratua dago, eta Ekialdeko fatxadari dago-kion irtelegua hartzen du.

Aldarearen gaina ganga zaindun baten gisako sabai faltsu bat da. Ermitaren azkeneko eraberritzea egin zen arte, ermita osoaren estalki zureria, gaur egun ermitaren nabean agerian dagoena, kanoi Erdiko ganga beheratu faltsu batek ezku-tatzen zuen. Gaur egun ere ikus daiteke oraindik ganga horrek zer itxura zuen eta non zegoen, aldareko horman zarpioaren banalerroari erreparatuz. Zarpio hori har-landuzko obra baten ildoak irudikatuz egina dago. Berorretan ikus daitezke gan-gak gezurrezko euskarri zuen arkuaren dobela itxurak.

Lehen ere aipatu den bezala, ermitak zuen gezurrezko sabaia kentzean, estal-kieren zureria agerian geratu da. Egia da eragiketa horren bitartez ermitak zabal-tasun handia irabazi duela eta barreneko proportzioak hobetu egin direla, baina egia





Horman diren arrakalak.

da orobat zureria hori ez dela begien bistan egoteko pentsatua. Zura oso gutxi dago landuta, piezak irregularrak dira, enborrak zeuden zeudeneak jari ez direnean. Enbor horien epaia irregularra da. Piezen arteko loturak, tiranteen eta zutikoarren artean, adibidez, lakarrak eta oiesak dira oso, eta burdinazko piezak ere ikus daitezke, egitura sendotzeko jabaloiak eta kartelak adibidez.

## 5. ONDORIOAK

Ermitak mendia uki zezan ezagozte, eta handik zetorren urari hustubideak jartzea egin beharreko obra zen, eta eginik dago, zorionez.

Gaur egun itxiera da eraikuntza honek egoera txarrean duen elementua. Iparraldeko fatxadarena eta Hegoaldekoarena batez ere, nahikoa hondaturik bai-

taude. Horiek gaurbitu eta behar duten trataera eman beharko litzaieke, gehiago honda ez daitezen. Hezetasunetik batez ere oso ongi babestu behar dira, zeren airean dagoen oxigenoarekin konbinaturik harriari erasotzen baitio burdin hidroxi-doak eratzen dituelarik (burdina hain zuzen hareharriaren osagarri den silizearen oinarritzko osagarri bat da). Hidroxidoak eratzen direnean, puztu eta handitu egiten da harria, eta horrenbestez xehetu egiten da.

Iparraldeko eta Hegoaldeko fatxadetako arrakalei ere kontu egin beharko litzaieke, horretarako igeltsuzko testiguak jarriz edo beste sistemaren bat erabiliz. Era horretara arrakala horiek eragin dituen zimentu finkatzea zaharra den eta horrenbestez dagoeneko finkatua dagoen, ala oraindik ere egiten ari den, eta horrenbestez arrakalak oraindik ere handituz doazen, jakin ahal izango litzateke.

Azkenik, eta estalki egitura agerian uzteko bere garaian hartu zen erabakia kritikatu gabe, bere alde onak ere bai baititu horrek, lehen esan den bezala, ohar-garria da ermita honetan bere barrualdearen (zuhurra eta serioa, baina areto-eliza bat den eraikuntza noble bati dagokion bezalakoa eta duina) eta berorren estaldia-  
ren artean (baserri bateko ganbara edo mandiokoa dirudiena) eratzen den kontras-  
tasuna.



**BIBLIOGRAFIA OROKORRA**

- AGUIRRE SORONDO, A. "Las ermitas de Andoain" *Leyçaur*, 2. zbk., Andoain, 1992.
- CARO BAROJA, Julio: *Las formas complejas de la vida religiosa (siglos XVI y XVII)*, Madrid, 1985.
- GOTI ITURRIAGA, José Luis: *Historia de los hospitales vascos. I. Navarra*, Salamanca, 1981.
- CRESPO RICO, M.A - CRUZ MUNDET, J.R. - GÓMEZ LAGO, J.M.: *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería*, I. liburukia (Fuentes Documentales del País Vasco, 32. zbk.), San Sebastián, 1991.
- CRUZ MUNDET, J.R.: *La Guerra de la Convención en Guipúzcoa (1793-1795): el manuscrito de I.V. de Sarasola*, San Sebastián, 1993.
- FAY, H.: *Lépreux et cagots du Sud-Ouest*, Paris, 1910.
- GAMÓN, J.I.: *Noticias históricas de la Villa de Rentería*, San Sebastián, 1930.
- MADARIAGA ORBEA, J.: *Actitudes ante la muerte en el valle de Oñati durante los siglos XVIII-XIX*, Bilbao, 1990.
- MARTÍNEZ GORRIARÁN, Carlos: *Casa, Provincia, Rey*: Irún, 1993.
- NÚÑEZ DE CEPEDA, Marcelo: *La beneficencia en Navarra a través de los siglos*, Pamplona, 1910.
- NÚÑEZ DE CEPEDA, Marcelo: *Hospitales vitorianos: El Santuario de SMA Virgen de Estíbaliz*. El Escorial, 1931.
- Las siete partidas de Alfonso X*. Alonso Díaz doktoreak 1491ean Montalvon egin-dako lehenengo argitalpenaren faksimilezko argitalpena, Madrid, 1988.
- IZAGUIRRE URQUIOLA, Itziar: *Historia de la Medicina en la Villa guipuzcoana de Rentería*. Doktore tesia. Nafarroako Unibertsitatea, 1994 (Argitara gabea).






AURKIBIDEA



3

# MORRONTXO DORREA






BARRUTI HARRESITUA ETA ARRABALA - XVIII. MENDEA  
ERRETERIA

0m. 100m. 200m. 300m.

C - MORRONTXO





## AURKIBIDEA

I. AZTERKETA HISTORIKOA .....	113
1.- Morrontxo Dorretxea: XVI. Mendetik Espainiako Independentzia Gerrara arte .....	113
1.1.- Lehenbiziko aipamenetatik (XVI. mendekoak) Olazabaldarren maiorazkoa sortu arte (XVII. mendearen azkenaldean) .....	113
1.2.- Maiorazkoaren sorrera (XVII. mendearen bukaera aldera) .....	114
1.3.- XVIII. mendeko arazoa: olazabaldarren eskutik aldunzindarren eskutara nola .....	115
2.- Dorretxearen jabeak Espainiako Independentzia Gerratik gaur arte .....	117
3.-Dorretxeak zein jabe izan dituen: eskema .....	120
4.- Agiri gehigarriak.....	122
II. ARTE AZTERKETA .....	131
1.- Ingurunea .....	131
1.1.- Defentsarako dorreak .....	131
1.2.- Herriko ingurunea .....	135
2.- Eraikuntzaren historia: hipotesia .....	138
2.1.- Defentsako dorrea .....	138
2.2.- Dorretxea .....	139
2.3.- Noizkoa den .....	140
3.- Oina .....	140
4.- Hormak eta horiek egiteko erabili zen materiala .....	142
5.- ELEMENTUAK .....	143
5.1.- Almenak .....	143
5.2.- Irekiuneak eta flandiar estiloko leihoa .....	145
5.3. Komunari buruzko hipotesia .....	147
6. Ondorioa .....	148

III. ARKITEKTURA AZTERKETA .....	151
1.-Inguruaren deskribapena eta kokaera .....	151
2.-Lursailaren forma eta ezaugarriak .....	151
3.-Eraikuntzaren kanpoko itxura .....	152
3.1.- Estalkia .....	153
3.2.- Fatxaden deskribapena .....	154
3.2.1.-Fatxada nagusia (Iparrekialdekoa) .....	154
3.2.2.-Albo fatxada (Hegoekialdekoa) .....	158
3.2.3.- Atzeko fatxada (Hegomendebaldekoa) .....	160
3.2.4.- Tarte hormako fatxada (Iparrekialdekoa) .....	161
3.3.- Barneko itxura.....	162
4.-Ondorioak .....	166
IV. BIBLIOGRAFIA OROKORRA .....	167



## I

## AZTERKETA HISTORIKOA

**1. MORRONTXO DORRETXEAK: XVI. MENDETIK ESPAINIAKO INDEPENDENTZIA GERRARA ARTE**

Morrontxo dorretxeak zein jabe izan dituen eta eskuz nola aldatu izan den agertzea da txosten honen helburua. Historian zehar Errenteriako herrian gertatu diren gorabeherekin zerikusi gehiena izan duten etxeetako bat da Morrontxoko hau. Morrontxorena eta San Juango etxea izenez ere ezagutu izan da lehenagoko mendeetan.

**1.1. Lehenbiziko aipamenetatik (XVI. mendekoak) Olazabaldarren maiorazkoa sortu arte (XVII. mendearen azkenaldean)**

Dorretxe horren gainean egin den arte azterketan adierazten denez, Berant Erdi Arokoa litzateke hori, baina ez da esandakoa ziurta lezakeen dokumenturik aurkitu. Aipamenik zaharrena XVI. mendearen hasierakoa da, orduan Dorretxearen jabe-edo bide zen María de Gamon bati buruzkoa; bataioko izenik ezagutzen ez zaion Yerobitar batekin ezkondua zegoena hori. Dorretxe horren familiazko jabe-tza, hipotetikoa, aipatu diren bi horien alabarengan azaltzen da hurrena, Gracia de Yerobi y Gamón, 1522tik 1561a bitartean Ama Birjina Igokundeko parrokiako bikario izan zen Juan de Yerobiren<sup>1</sup> arrebarengan, hain zuzen.

<sup>1</sup> Badaiteke yerobitarrak Oiartzungo bailarakoak izatea, zeren bailara horretan Jacue de Yerobi izeneko bat bazela behintzat gauza jakina baita: “señor e dueño de la casa de Yerobi de Suso, que es en la tierra e valle de Oyarçun”, Gracia de Yerobiren tarteko bat agian (A.P.O., 3, Leg. 2008, fol. 37r.-38r.).

Gracia hori, berriz, Lazoandiako Guillén de Lezo ontzi-kapitainarekin ezkondu zen, eta horien alaba zen Maria, Morrontxo dorretxeko oinordekoa. Gamonen arabera, Maria da dorretxearen jabe izan zela seguru ziurta daitekeen lehenengoa.

Maria de Lezo hau Miguel de Lasao, Aizarnako Lasao etxeko semeetako batekin ezkondu zen. Historiografian, Ingalaterrako bi erreginen, Katalina Aragoikoaren edo Enrique VIII.aren lehenengo emaztearen eta errege-erregin horien alaba zen Maria I.aren gelazain eta ohoreko andere gisa agertzen da. Dorretxearen jabetza Miguel de Lasarekin izan zuen semeetako bati, Francisco de Lasiori utzi zion, eta hau María Martínez de Uranzurekin ezkondu zen. Ditugun aipamenetan azkeneko bi horiek agertzen dira 1590ean Morrontxoko biztanle.

Belaunez belaun gamóndar eta yerobitarretatik lezotar eta lasaotarretara zetorren familiazko oinordekotza hori Francisco de Lasaoren seme-alabekin bukatu zen: Francisko eta Magdalena de Lasarekin, izan ere, bata, dakigun bezala, presbitero sartu baitzen, eta 1626an hil. Eta, noski, garaiz hil izana aparte, elizgizon izatea ez zuen Morrontxoko oinordekotza bereganatzeko edo inori uzteko egokierarik onena. Arazorik gogorrena ordea gero sortu zen, Magdalenak ere, anaia hil eta laister, moja sartzea erabaki zuenean<sup>2</sup>. 1629ko azaroaren 11n Magdalena de Lasao agustindarren Erretereriako mojetxean onartu zuten. Moja-sartze horretan San Juan de Olazabal eta Sabina de Acorda horren emaztea izan ziren, komentuan sartu ahal izateko Magdalenari mila dukateko dotea agindua ziotenak, alegia. Mila dukat horiek hartu zituen egun berean, Magdalena de Lasao "Morrontxorena" izenez ezagutzen zen bere "jaiotetxearen" esku-aldaketako gutuna sinatu zuen Oiartzungo notario zen Esteban de Arbideren aurrean. Gutun horren bidez, jaiotetxea ezezik beste zenbait ondasun ere utzi zizkien Juan de Olazabal eta Sabina de Acordari. Orduetik aurrera, lehengoaz gainera San Juango etxea izena hartu zuen dorretxeak, jabe berrien esku zegoela adierazteko<sup>3</sup>.

## 1.2. Maiorazkoaren sorrera (XVII. mendearen bukaera aldera)

Juan de Olazabal, jabe berria alegia, orubea Altzon zuen etxe batekoa zen jatorriz. Aita eta aitaren aita, jabe berriaren izen berekoak biak, Altzon jaiokak ziren. XVI. mendearen erdialdetik aurrerako urteren batean, Erretereriara aldatu bide zen aita, eta Erretererian jaio zen semea, gero Morrontxo dorretxearen jabe egin zena. San Juan de Olazábal ospe handiko gizon bihurtu zen Erretererian. Udaleko hautetsi izan zen 1600dik aurrera eta alkate 1615az gero. Pasaiaiko portu

<sup>2</sup> Ikus J.I. GAMÓN, *Noticias históricas de Rentería*, San Sebastián, 1930, 308-315 or.. Gai honetan Gamón kronikalariaren arrastotik ibili gara, zeren, lezotarrekin tarteko egiten zenez, aipatzen dituen kontuak, familiako artxoboan bildu ahal zituelako edo, zuzenekoak izan baititezke.

<sup>3</sup> Oñatiko Protokolo Artxiboa, 3, leg. 2066, fols. 59r-68r. Hiru dokumentu dira: Magdalena de Lasao agustindarren Erretereriako komentuan sartzeari dagokiona, Morrontxoko dorretxearen esku-aldaketari dagokiona eta San Juan de Olazabalek eta emazteak aipatu den komentuari urtero 45 dukat emango zizkiotela adierazten duena. Ikus halaber GAMÓN, *Noticias...*, 321 or. ere.



aldean erosi zituen zenbait errotaren jabe zen, besteak beste. Osperik handiena, halere, ontzigintzako enpresa jabe izateak eman zion. 1600 eta 1633a bitartean 500-600 tona bitarteko 17 galeoi ordaindu edo eginarazi zituen. Baina gizon liskarzalea eta epaietara erraz jotzen zuena bide zen aldi berean. 1606an eta 1631n Erreenteriako parrokiako benefiziaduekin auzitan ibili zela gauza jakina da behintzat. Zernahi ere, itzal handiko gizona zen Erreenterian. Eta Gipuzkoako agintarien artean ere horiek zenbait lan edo eginkizun eskatzeko bezain ezaguna gutxienez, zeren, 1650ean Mutrikun bildu ziren Batzar Nagusiek hainbat lan edo eginkizun eskatu zizkiotela behintzat, gauza jakina baita. 1660 eta 1670 bitartean hil bide zela uste dugu. Erreenteriako Jasokundeko parrokian ehortzi zuten; halaber emaztea eta, gutxienez, jarraian aipatuko ditugun bi seme ere<sup>4</sup>.

Gorago esan bezala, Morrontxoko jabe berria Sabina de Acordarekin ezkondua zegoen 1629an. Gutxienez lau seme izan zituzten: Antonio, Jasokundeko parrokiako benefiziadu izan zena, Juan (1681ean hil zena), Cristóbal (1682an hila) eta Gipuzkoako Merkataritzako eta Kontrabandoko Begirale Orokor izan zena, eta José. Azkeneko horrek, **José de Olazábal y Acordak** sortu eta eratu zuen, heredentziaz eskuratu zituen ondasunekin, gorago aipatu den maiorazko edo oinordekotza hautabidezkoa, Morrontxo dorretxeaz aparte Erreenteriako, Astigarrako eta Tolosako zenbait sail eta etxez osatua. Oinordekotza hori XVII. mendearen azkenaldean sortu izango zuela uste dugu, zeren, Juan eta Cristóbal bere anaiak hil zirenean, 1681ean eta 1682an hurrenez hurren, José bizi baitzen artean, eta oinordekotza bera hil aurretik, testamentu bidez edo sortu izatea da sinesgarriena<sup>5</sup>.

### 1.3. XVIII. mendeko arazoa: Olazábalarren eskutik Alduncindarren eskuetara nola

Garai horretan Morrontxo dorretxearen oinordekotza zein bidetatik ibili zen ez dago oso garbi. Orain arte aurkitu ditugun dokumentuen arabera, hau esan genezake ziur, XVIII. mendearen azkenaldean, **Alduncindarren** eskuetara aldatuak zirela dorretxea eta gainerako ondasunak, eta bizi, Gipuzkoan baina batik bat Erreenterian ondasunik bazuten arren, Iturenen eta Goizuetan bizi zirela alduncindarrak. Eta beste gauza bat oraindik: **D. José Joaquín de Alduncin y Cortajarena**, sortzez iturendarra zena eta Francisca de Aguirre y Ustarizekin

<sup>4</sup> Ikus GAMON, op. cit., 313 eta 320-321 or.; José Luis SALES TIRAPU eta Isidoro URSUA IRIGOYEN, *Catálogo del Archivo Diocesano de Pamplona. Procesos*, Pamplona, 1988-1989, 4. lib., 948. zbk., eta 5. lib., 1184. zbk. Ehorzketari buruz, berriz, A.P.O., 3, Leg. 2396, fol. 36r.-39r. (codicilo de Cristóbal de Olazábal).

<sup>5</sup> Ikus EUA. E Saila, 7. Bulegoa, I. Zerbitzua, 31. Liburua, 6. Espedientea Oinordekotzaren sorrerari buruzko datuak 1819koak dira, D. Juan Francisco de Alduncinek urte horretan Erreenteriako alkatearen aurrean egin zuen deklaraziokoak. Cristóbal de Olazábal y Acorda begiraleak berak hil baino egun batzuk lehen (22-III-82) egindako kodizilotik ere susma daiteke beste zenbait informazio (ikus A.P.O., 3, Leg. 2396, fol. 32r. y 36r.-39r.). Ikus halaber, GAMÓN, *Noticias...*, 320-321 or. ere.

ezkondua zegoena, maiorazko horren oinordeko gisa agertzen dela XVIII. mendeko 80a aldean. Baina noiztik zeuden ondasun horiek alduncindarren esku? Eta nola gertatu zen olazabaldarren eskuetatik alduncindarren eskuetarako aldaketa? Ez da bi galdera horiei zuzen erantzutea lan erraza. Baina lehenengoaz esan daiteke nahiko ziur D. Joaquín de Alduncinek bere guraso eta aiton-amonengandik eskuratu zuela oinordekotza edo maiorazkoa, horrekin batean Morrontxoko jabe izatea ere. Eta hori ziurtzat ematera bagenuke XVIII. mendearen lehenengo hereneraino atzeratzeko eskua ere. Bigarren galderan, alduncindarrek oinordekotza nola eskuratu zuten da arazoa, olazabaldarrekin ezkondu eta horiek oinordekotza gisa utzita edo erostez berenganatuta<sup>6</sup>.

Saiatuko gara arazo honi buruz ahalik argibide gehienak ematen eta auziaren soluziorako bidera hurbiltzen. Alduncindarren familia, gehiena bederen, Iturenen eta Goizuetan zegoen finkatua, gorago esan denez. Goizuetan, jauregi bat zuen bere orubearekin, Anustarreako hauzoan, eta hori 1550az gero gutxienez. Familiako adar bat ordea Erreteriarra aldatu zen, XVII. mendearen hasierako dokumentu batean ageri denez. 1616an, Erreteriarra alkate zen Esteban izeneko alduncindar bat. Erreteriarra jaio eta bizi izan zen Miguel de Alduncin lizentziatua, 1627an Erreteriarra herriaren aldetik Donostiaren eta Pasaiako portuaren arteko komenio bat sinatu zuena ere. Miguel de Alduncin hau, bestalde, lezoandiatarrekin tarteko egiten zen amaren aldetik. Marina de Lezoren seme eta Domingo de Lezo kapitainaren iloba-txiki baitzen izan, eta Domingo de Lezo hori berriz, kasualitatea bada ere, Morrontxoko jabe izandako Maria de Lezoren tarteko zen. Badago beraz, XVII. mendearen lehenengo herenez gero (lehenagotik agian) alduncindarrak Iturenen eta Goizuetan ezezik Erreteriarra ere interes ekonomikoak eta sozialak lotuz zetozen aztarna historikorik. Erreteriarra handikiekin edo oligarkiarekin ezkontzaz tartediko bihurtzeko joera nahikoa zabaldua zegoen, bestalde. Horregatik deritzagu alduncindarrek Morrontxo dorretxea ezkontzaz eskuratu izana sinesgarria. Alduncindarren eta olazabaldarren arteko harreman kontuan badago, zehatzago aztertuz gero, XVII. mendearen bukaera eta XVIII. mendearen hasiera bitartean zein urtetan gertatu zen jakin daitekeen ezkontza bat ere, Alduncingo eta Bertizko jaun zen **Francisco Manuel de Alduncin de Burgoa** baten eta **Catalina de Olazábal**<sup>7</sup> zeritzan emakumezko baten artekoa.

Ez litzateke, horrenbestez, Morrontxo dorretxearen maiorazkoa alduncindarrei Catalina de Olazábalen eskutik iritsi ote zitzaian susmoa hain bide okerrekoa.

<sup>6</sup> Ikus txosten honetako 3. oharrean aipatzen den dokumentua. Dokumentu horrek zera dio: José Joaquín Alduncin “Y TODOS SUS ASCENDENTES estuvieron en quieta y pacífica posesión de todos los bienes del mayorazgo”. “*Ascendentes*” horrek guraso eta aiton-amonetaraino (aitaren aldekoak edo amaren aldekoak?) jotzeko eskua emango liguke, eta horien eskutik, XVIII. mendearen lehenengo hereneraino edo bigarren herenaren hasieraraino gindoazke ja.

<sup>7</sup> Ikus GAMÓN, op. cit., 312 eta 319 or. (Miguel de Alduncini buruz); J. L. SALES eta I. URSUA, *Catálogo del A.D.P.*, vol. 4, nº 876 (Esteban Alduncini buruz); A. eta A. GARCÍA CARRAFFA, *El solar vasco-navarro*, I. liburukia, 243 or. (Alduncin-Olazábal ezkontza).



Baina nor edo zein zen Catalina hori? Galdera horrek bi susmo eta sendi-adarretara garamatza: Catalina hori Morrontxo dorretxearen oinordekotza sortu zuen José de Olazábalen alaba ote zen uste izatera, batetik, eta, Catalina hori eta José de Olazábalen anaia zen Cristóbalen alabetako bat, María Catalina, pertsona bera ez ote diren susmora, bestetik. Bigarren susmo hori ontzat emateak beste suposizio bat egitera garamatzake, José de Olazábal ondorengorik gabe zendu zela eta testamentua Catalinaren alde egitea erabaki zuela suposatzeraz, alegia. Hori horrela izatera, Catalina Alduncinen batekin ezkontzetik zetorkzion Nafarroako familia horri ordura arte olazabaldarrenak ziren ondasunen eta Morrontxo dorretxearen oinordekotza<sup>8</sup>. Den berean, hipotesi gisa uzten dugu esandakoa, eta badu, Erreterriako historia hobeto aztertu eta guk esana dokumentuz gezurta dezan edonork hipotesi hori aldatzeko eskua.

## 2. DORRETXEAREN JABEAK ESPAINIAKO INDEPENDENTZIA GERRATIK GAUR ARTE

**Juan Francisco de Alduncinek** 1819ko maiatzaren 6an Erreterriako alkate eta ohizko epaile zenaren aurrean egindako deklarazioan bada alduncindarren familiari eta familia horrek Morrontxo dorretxearekin zituen ikuskizunei buruzko argibiderik. Gorago aipatu diren José Joaquín de Alduncin y Cortajarena eta Francisca de Aguirre y Ustariz zituen horrek guraso. Juan Francisco horrek bazuen, bestalde, **José Manuel de Alduncin y Aguirre** zeritzan anaia bat, sortzez nafarra (ituredarra) eta Erreterriako “jauregi armarridunaren” jabe zena, Micaela Francisca de Irigoyenekin ezkondua. José Manuel hori 1817ko martxoaren 31n zendu zen, 46 urte zituela. Juan Franciscok deklarazio horretan dioenez, bazuen bere familiak oinordekotza bat, gorago aipatu den José de Olazábal y Acordak sortua. Oinordekotza hori berari utzi ziotela dió eta

“...aquellos (bere gurasoek) y Don José Manuel de Alduncin y Aguirre, mi hermano mayor ya difunto... y todos sus ascendientes estuvieron en quieta y pacífica posesión de todos los bienes del mayorazgo”<sup>9</sup>.

adierazten du aldi berean. Artean Don José Manuel horren esku zeuden Juan Franciscok epaileari beretzako eskatzen zizkion Erreterriako zenbait ondasun: Morrontxo dorretxea, horri jabetzaz lotua zegoen Morrontxo baserria, Goiko kaleko orube bat eta Juan Bordaren etxe-saila. Juan Franciscok bere deklarazioan dioenez Morrontxok zituen orduan

...ciento veinte y tres posturas de tierra sembradía con inclusión de su huerta, paredes y vallados de su perímetro, la cual confina, por el norte, con otra tie-

<sup>8</sup> Cristóbal de Olazábalen ondorengoez ikus, A.P.O., 3, Leg. 2396, fol. 36r. - 39r.

<sup>9</sup> “haiek (bere gurasoek) eta Jose Miguel Alduncin y Aguirre jaunak, nire anaia gehien zenak... eta beren arbaso guztiek beren jabetza bakezkoan izan zituzten maiorazkoaren ondasun guztiak”

*rra de la casa de Gaztelunea y de Manuel de Elizondo, por mediodía, con un camino sendero, por el mediodía y poniente con dos caminos públicos*<sup>10</sup>.

Agustín de Olacireguik, Errenteriako alguazilak, Morrontxo dorretxearen eta Goiko kalean, dorretxe horren ondoan, zen orubearen eta orubean ziren labeen jabe egin zuen Juan Francisco de Alduncin y Aguirre. Juan Francisco 1819ko maiatzaren 6an sartu zen Morrontxon eta erritu batez erakutsi zuen handik aurrera haren jabetza berari zegokiola: atea eta leihoak ireki eta itxi, geletan hara eta hona ibili eta belar eta lur eskutada batzuk atera zituen lurretik<sup>11</sup>.

Hurrengo pausoak edo dokumentuak 1828ko urteraino garamatza. **“Viuda de Alduncin”** bat aipatzen da urte horretako Errenteriako udal artxiboko dokumentu batean, Juan Francisco de Alduncinen alarguna seguru asko. Morrontxo dorretxeari jabetzaz loturik zeuden ondasunen jabe bezala agertzen delako *“viuda de Alduncin”* hori, Morrontxo baserriaren eta Goiko kaleko labearen jabe bezala, alegia. Baina, gutxienez 1810az gero José Manuel de Alduncinenak ziren Bordaberi eta Txirrita baserrien jabe ere bai, aldi berean. Morrontxo dorretxea ere berea izango zuela pentsatzera garamatza horrek<sup>12</sup>.

Joan zen mendearen erdialdeko dokumentuetan, berriz, bi zatitan banatua agertzen da Morrontxo: Morrontxo 1. eta Morrontxo 2. Eraikuntza bi plantatan banatua zegoelako agian. Morrontxo leian, zazpi pertsona bizi ziren 1856an eta 1857an: José Erquicia nekazaria, alargundua, horren alaba Josefa Paula Erquicia eta senarra, Antonio Aldazabal, eta hauen lau haur. Morrontxo 2an, berriz, bost: Martín José Carrera nekazaria eta María Vicenta Erquicia, aurrekoaren emaztea, eta horien hiru haur. Esan den bezala, bizi, aipatu diren bi familia horiek bizi ziren Morrontxon, baina badaiteke dorretxearen jabe, artean ere alduncindarren bat egoitea, **D. Juan José Alduncin** esku izatekotan, eta izendatu diren familiak horren maizter. Nolanahi ere, lehenagoko gainetatik jaitsia zegoen Morrontxo, ez zuen orain garaietako itzalik eta eginkizun sozialik, izan ere, Errenteriako handikietan handienetako familien egoitza izateari utzi eta familia xume batzuen egoitza izatera etorria zegoen eta<sup>13</sup>.

Juan José Alduncin 1861eko ekainaren 6an hil zen. **Antonio de Aldazábal** Morrontxoko biztanle eta dorretxe horren jabe bezala agertzen den lehenengo

<sup>10</sup> *“ehun eta hogeita hiru postura (Gipuzkoa eta Arabako antzinako neurria: 34,26 m<sup>2</sup> inguru) sorolur, baratzea, eta inguru itxituraren horma eta hesia barnean dela, iparraldetik Gaztelunea etxeko eta Manuel de Elizondoren beste sail batekin muga egiten duela, hegoaldetik bide zidor batekin eta hegomendealetik zorpeko bi biderekin”.*

<sup>11</sup> EUA. E Saila, 7. Bulegoa, I. Zerbitzua, 31. Liburua, 6. Espedientea. José Manuel de Alduncin, Juan Franciscoren anaia, Errenteriako Bordaberi eta Txirrita baserrien jabe agertzen da 1810ko ekainaren 19ko dokumentu batean (ikus EUA. E Saila, 5. Bulegoa, II. Zerbitzua, 3. Liburua, 1. Espedientea). Juan Francisco berak ere, gorago aipatu den oinordekotzaren jabe egiterako, zenbait ondasun eskuratuak zituen Errenterian, GABARAINEN *Bilduma*-n agertzen denez, 1818ko abenduaren 20an 203 postura erosi baitzituen 609 errearen truke, Errenteriako herrisailetan (ikus Gabarain, *Bilduma*, 6. zbk., 81. or.).

<sup>12</sup> Ikus EUA. B Saila, 4. Bulegoa, I. Zerbitzua, 1. Liburua, 1. Espedientea.

<sup>13</sup> EUA. B Saila, 4. Bulegoa, V. Zerbitzua.



dokumentu egiaztagarria ere, berriz, urte berekoa da. Beraz, Juan José Alduncin hiltzean, maizterren parte bat, Antonio Aldazábal buru zuena hain zuzen, testamenturen baten bidez Morrontxoko parte baten jabe egin izango zela atera dugu. Daitেকেen gauza da Juan José Alduncinen oinordekoek Aldazabali hau bizi zen aldean saldu izana ere. Dena den, Martín José Carrerak eta bere familiak Morrontxon jarraitu zuen bizitzen, eta alduncindarrekin zer ikusteko zuen ez dakigun **Miguel Antonio Irazusta** izeneko bat zen 1863an Carrera familia bizi zen aldearen jabe. 1870ean, beste bat, **Cruz Irazusta** izeneko bat zen Carreratarren edo horiek bizi ziren aldearen nagusi, Miguel Antonioren anaia edo semeren bat agian<sup>14</sup>.

Itxura denez, urteak aurrera ahala partituz eta txikituz joan zen dorretxearen jabetza ere, zeren, Erretereriako artxiboan diren 1882ko dokumentuetan, puska baten jabe agertzen baita **Martín José Carrera** ere. Dokumentu horiek diotenez, ez zuen Cruz Irazustak ere dena galdua, hori ere Morrontxoko nagusi gisa agertzen baita 1887-1888 eta aurrerako urteetan behintzat. Dokumentuetan gauzak horrela agertzen direnez, salmentaz edo bestela, Irazustak Morrontxoko parte bat bakarrik utzi izango ziela Carreratarrei, eta logikaz hori 1870tik 1882ra bitartean egin zuela, pentsatu dugu.

Martín José Carreraren ondoren, horren emaztea, **María Vicenta Erquicia** egin zen emazte bezala zegokion partearen jabe, eta hala agertzen da 1885eko, 1886ko eta 1889ko dokumentuetan. Baina, lehenago ez zen **José de Zabala** izeneko nagusi bat ere agertzen da aipatu ditugun hiru urte horietako dokumentuetan; aldazabaldarren lekua hartu zuenen bat seguru asko, zeren hauen izenik ez baita, 1880tik aurrerako hamarraldian behinik behin, ezertarako agertzen. Cruz Irazustak ere, bestalde, Erretereriako udaletxeko 1899ko, 1909ko eta 1910eko<sup>15</sup> erroldetan ageri denez, alokatu egin zuen artean bere izenean zegoen puska.

Bada udaletxe bereko berrien artean XIX. mendearen azkenaldea eta XX. mendeko lehen hamarraldiak bitartean zuzenean edo zeharbidez Morrontxoko dorretxean eragina izan zuten obren albisterik ere. 1895ko urriaren 17ko baldintza zerrenda batean, Goiko Kalea, Morrontxotik Amabirjinaren Jasokundeko parrokira bitartekoa galtzarazteko presupuestoak eta planoak agertzen dira, esate baterako. Handik 40 urtera, 1925ko urtarilaren 17an zuzenago esateko, Fausto Gaiztarro arkitektoak Goiko Kaleko 24 zenbakian (Morrontxon) obrak egiteko baimena eskatu zion Udalari. Eraikuntza horren plano bat ere egin zen bide batez. Bi egunen barruan jaso zuen obrak egiten hasteko baimena. Handik urte bete eta zortzi hilabetera, 1926ko irailaren 18 eta 20a bitartean, berriz, Morrontxo dorreari<sup>16</sup> zegozkion sailtan etxe bat egitea bideratu zen udaleko agintarien aurrean.

<sup>14</sup> Ikus Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa, A 1 33, R 23 d (Juan José Alduncinen heriotza); EUA. B Saila, 4. Bulegoa, 3. Zerbitzua, 1. Liburua, 1. Espedientea. eta B Saila, 4. Bulegoa, 1. Zerbitzua, 2. Liburua, 1. Espedientea.

<sup>15</sup> Ikus aurreko oharra, 12. zbk.

<sup>16</sup> EUA. E Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 7. Espedientea eta E Saila, 1. Bulegoa, 1. Liburua, 4. Espedientea.

### 3. DORRETXEAK ZEIN JABE IZAN DITUEN: ESKEMA

.... (?) DE YEROBI \_\_\_\_\_ (E) \_\_\_\_\_ **MARÍA DE GAMON**

**GRACIA DE YEROBI Y GAMÓN** \_\_\_\_\_ (E) \_\_\_\_\_ **GUILLÉN DE LEZO**

(ontzo kapitaina 1527an)

**MARÍA DE LEZO** \_\_\_\_\_ (E) \_\_\_\_\_ **MIGUEL DE LASAO**

(1554an hil zen,  
Morrontxoko jabea)

**FRANCISCO DE LASAO** \_\_\_\_\_ (E) \_\_\_\_\_ **MARÍA MARTÍNEZ DE URANZU**

(1590ean Morrortxon bizi ziren)

**MAGDALENA DE LASAOK: MORRONTXO UTZI:**

(1629-XI-11)

**SAN JOAN DE OLAZÁBALI ETA (E) SABINA DE ACORDARI**

**JOSÉ DE OLAZÁBAL Y ACORDA: OINORDEKOTZA BAT SORTU ZUEN, TOLOSAN, ASTIGARRAGAN ETA ERRENTERRIAN ZEGOZKION ZENBAIT ONDASUN BARNE HARTZEN ZITUENA; HORIEN ARTEAN SARTZEN ZEN MORRONTXO ERE.**

(XVII. mendearen azkenaldian?)

**CATALINA DE OLAZÁBAL** \_\_\_\_\_ (E) \_\_\_\_\_ **FRANCISCO MANUEL DE ALDUNCIN,**

(José de Olazábalen  
alaba edo iloba)

Alduncingo eta Bertizko jauna.

**JOSÉ JOAQUÍN DE ALDUNCIN** \_\_\_\_\_ (E) \_\_\_\_\_ **FRANCISCA DE AGUIRRE Y USTARIZ**

(diren dokumentuen arabera,

José de Olazábal y Acordak

bere garaia sortu zuen oinordekutzaren jabea,

¿Francisco Manuel de Alduncinen iloba txikia?)

**JOSE MANUEL DE ALDUNCIN** (anaiak) **JUAN FRANCISCO DE ALDUNCIN**

(Morrontxoko jabea,

1810z gero gutxienez

1817-III-31n hil zen)

(Morrontxoko jabea,

1819-V-6an egin zen jabe)

**VIUDA DE ALDUNCIN** (Juan Manuelena, Micaela Francisca de Irigoyen y Bordarekin ezkondua zegoenarena, edo Juan Franciscorena?)

(Propietaria en 1828)

**JUAN JOSÉ DE ALDUNCIN?** \_\_\_\_\_ (E) \_\_\_\_\_ **PETRA DE LECUONA**

(1815ean jaio, 1861-VI-6an hil)



**JABETZAREN PUSKAKETA****ANTONIO ALDAZÁBAL**

(Morrontxoko parte baten jabe, 1861ean)

**MIGUEL ANTONIO IRAZUSTA**

(Morrontxoko parte baten jabe, 1863an)

**CRUZ IRAZUSTA**

(Morrontxoko parte baten jabe, 1870-1910 bitartean)

**MANUEL JOSÉ CARRERA**

(Morrontxoko parte baten jabe, 1882an)

**MARÍA VICENTA ERQUICIA**

(Manuel José Carreraren emaztea, jabekidea, 1885-1889)

**JOSÉ DE ZABALA**

(jabekidea, 1885-1889)

#### 4.- AGIRI GEHIGARRIAK

##### 1

#### 1629-azaroa-11; Erretereria (hirutasunaren komentua)

*Magdalena de Lasaok, San Agustinen ordenako Erretereriako Hirutasun Santuaren komentuan lekaiame sartzen delarik, San Juan de Olazabal kapitainari eta haren emazte Sabina de Acordari uzten dizkie bere onibarrak, "Morrontxoenea" besteren artean, onibarren hartzaileek bere erlijioan sartzeko gastuak ordaintzearen truke.*

Oñatiko Protokolo Artxiboa. 3. Sorta. 2066. 61 folio atzea. - 64. folioa aurrea.

En la portería y rescividor del monasterio de la Santísima Trinidad de la Horden de San Agustin de la Noble y Leal Villa de Rentería, a honçe dias del mes de noviembre de mill y seiscientos y veinte y nueve años, por testimonio de mí, el escrivano, y testigos paresçio pressente doña Madalena de Lasao, vecina de la dicha Villa, y dixo que por quanto oy dia de la fecha d'esta carta el capitan San Joan de Olaçaval y doña Savina de Acorda, vecinos d'ella, an fecho y otorgado una escriptura de conçierto y promessa de dote con las señoras priora y monjas del dicho convento y por ella se obligan las dichas priora y monjas de rescivir a esta otorgante por monja corista del dicho monasterio, para que en él esté y permanezca e sea tenuta y admitida como las otras monjas del dicho monasterio, y aviendose fecha con ella las diligencias que se requieren conforme manda el Santo Concilio Tridentino de darla la profession y velo segun se a acostumbrado dar a otras monjas del dicho monasterio, y para que lo susodicho lleve efeto, los dichos capitan San Juan de Olaçaval y la dicha su muger se an obligado de dar y pagar por su dote y alimentos [...] año de su nobiciado mill ducados, los novcientos d'ellos fundados a çensso sobre las dichas sus perssonas y vienes, especial y señaladamente sobre los espressados en la dicha escriptura de çensso, y los çien ducados pagados al dicho convento para el dia de Navidad de primero d'este presente año por la raçon contenida en la dicha escriptura a que se referia, atento lo qual y por las muchas y buenas hobras que de los susodichos a rescevido y espera rescevir, en cuya renumerazion y para que mexor se puedan sustentarsse, por el thenor de la presente dixo les hacia e hizo donacion y renunçiacion // pura, mera, perfecta, yrrevocable entre bivos a los dichos capitan San Juan de Olaçaval y doña Sabina de Acorda, su muger, para ellos y para sus hijos y subçessores y para aquel o aquellos que d'ellos hubieren titulo, caussa y raçon en qualquier manera, es a saver, primeramente de la su cassa natiba llamada Morronchorena que está sita en la dicha Villa, con su jardin enparedada, que está pegante a la misma cassa, y de dos sepulturas que tiene en la parroquial de la dicha Villa y cada una dos asientos de embra y demas honores que tiene en la dicha parroquia, y otra guerta çerrada que está más arriba de la dicha cassa, que alinda con el camino real por donde se



ba al dicho convento, yten la casseria llamada Morronchorena con su mançanal y termino y demas pertenecido, yten una cassa que está en la plaça d'esta Villa, que, por la una parte, alinda con la cassa de Julian de Goyçqueta y, por la otra, con cassa de Marcola, yten una guerta que está junto al palacio que alinda, por la una parte, con el palacio y, con la otra, con la açequia que passa por junto a la Villa, y, por la otra, con la calçada que ba al ospital, que su madre d'esta dicha otorgante vendio por ochenta ducados, siendo vella/ menora de hedad y sus hermanos, siendo la dicha guerta de nuestro padre que siendo su voluntad, pagando los dichos ochenta ducados pueda pedir recurssso, yten media herreria, que está cayda, en el valle de Oyarçun, llamada Orcazpío, con cargo y obligacion de treinta ducados a Juan d'Elcoro Galar[...], vezino de Vergara, y con declracion que haze que no tiene en ella ninguna accion ni derecho el capitan Leon de Curco, por que los otros que tenian la otra mitad // no le consentieron tomar possession, yten dos mill duçientos y tantos ducados en la hacienda y vienes del licenciado Arana y doña Maria Lopez de Lasao, su muger, vezinos que fueron de Azpeitia, de que ay executoria, yten de todo el derecho y accion que \tiene/ en los vienes del capitan Gregorio de Renteria, como constara por los papeles que ay en raçon d'ello, yten todo el derecho que tiene en el palacio de la dicha Villa de Renteria contra la hacienda y vienes que dexo doña Marina de Hurançu por raçon de la legitima del capitan Martin de Renteria, su abuelo, como se vera por los papeles, y al tiempo que se cobrare, ay obligacion de dar a la yglessia parroquial d'esta dicha Villa treinta ducados por haver dexado otra manda a la dicha yglessia, yten el derecho que tiene a los vienes de doña Estefania de Renteria, cuya herencia es de doña Hurraca de Elduayen por el mismo derecho de la legitima, yten más los derechos que puede tener e la hacienda que fue de su padre y la goça Leon de Curco, que viendo seguro el pleyto, el processo se allara en Valladolid en el [...] de Françisco Silvestre, la qual dicha donaçion y renunçiacion de las dichas cassas y de sus pertenecidos, guertas y [de]mas vienes y derechos que de susso se contenia les [hace] con las cargas y condiciones y obligaciones siguientes:

La primera, que los dichos capitan San Juan de Olaçaval y la dicha su muger ayan de fundar a çensso y tributo \redemible/ de solo y dicho dia para adelante çien ducados de principal de a raçon de cinco por ciento para con ellos fundar una capellania de çinco ducados de renta en cada un año sobre vienes libres y seguros, para que desde oy dia en adelante perpetuamente en cada un año // se recen en la parroquial de la dicha Villa diez y siete missas reçadas en los nueve dias de festividades de nuestra Señora y los quatro dias siguientes a las quatro festividades de la Natividad del Señor, de su Resurreccion, Pascoa, del Espiritu Santo y Todos Santos y los otros quatro dias de San Agustin, San Josef, San Francisco y San Valentin, la qual dicha capellania aya de goçar y goce mientras su vida don Juan Martinez de Yguereta y despues de sus dias la nombracion del que hubiere de ser, sea y que a elecion del dicho capitan y su muger y de sus herederos y subcessores. Otrossi, los susodichos ayan de ser y sean obligados de dar y pagar desde oy dicho dia en adelante mientras su vida en cada un año quince ducados en dinero

para sus necesidades y regalo y despues de sus dias sea visto haver cumplido en quanto ellos con su obligacion y quedarse libres d'esto. Yten más, ayan de ser y sean obligados los dichos capitán San Juan de Olaçaval y la dicha su muger o sus heredades de pagar todas las devidas obligaciones y mandas que esta otorgante dexa espressadas en un memorial firmado del padre fray Agustin de Aliprando, prior del convento San Agustin de la Villa de Azpeytia, y el padre fray Pablo de Goyaz, conventual del mismo convento, y la señora Madalena de Gamon, priora del convento de San Agustin d'esta Villa y el dicho capitán/ [...]da en ella a diez dias del mes de nobiembre d'este presente año, segun y como y a las perssonas en ella referidas y demas de todo lo susodicho, como dicho está de susso, ayan de hacer y otorgar y fundar sobre las dichas sus personas y vienes de sus herederos y subçesores los dichos novecientos ducados a çensso y tributo // en favor d'este dicho convento y de la priora y monjas del que al presente son y seran de aqui adelante, asta su redencion por el dote d'ella, como está acordado entre las dichas señoras priora y monjas y ellos, atento lo qual, por las caussas suso referidas devaxo de las dichas condiciones de suso espressadas, les doy poder ynrevocable en su propia caussa a los dichos capitán San Juan de Olaçaval y a la dicha su muger y a sus herederos y subçesores para la cobrança del principal y reditos de las dichas cassas y de todos los demas vienes y derechos contenidos en esta dicha escriptura desde oy a los tiempos y plaços que a ella le pertenecen y avia de cobrar, y de lo que cobrare puedan otorgar cartas de pago fyniquito, lasto y cesion y valgan como otorgadas por partes legitimas y los puedan pedir en juicio y fuera d'él y hacer los pedimentos y requerimientos y diligencias que se requieran judicial y extrajudicialmente, que para ello y hacer las diligencias y lo demas necesario, les cedia y renunciava y traspasava sus derechos y açiones reales y personales, hutiles, directos mistos y executivos y se devistia y divistio de los que tenia y tiene y los subrogo y pusso en su derecho y lugar con general administracion y la misma possession que les pertenece como a dueños que por esta escriptura quedan, sin que le quede recurssso, accion ni otro derecho, antes se constituya y constituyo por su ynquilina, tenedora y poseedora, y se entiende les hace esta dicha donacion y renunciacion con los propios derechos que tiene sin liquidar obligada a más y si esta donacion y renunciacion eçediere all (sic) valor de los quinientos // sueldos, les dava y dio poder para que la ynsignuen ante qualquier juez y la dava desde luego por ynsignuada con las circunstancias y solenidades que de derecho se requiere para que balga como si fueran muchas donaciones fechas en diferentes dias y tiempos e ninguna ecediente al dicho valor, y renuncio el derecho que requiere ynsignuancia y las demas leyes, fueros y derechos que podrian hacerla ynbalida, y se obligava y obligo de no la revocar por testamento, cobdecillo, escriptura publica ni en otra ninguna forma ni por caussa ni raçon que aya aunque sea de las permitidas, ni alegara no quedarle congruo sustento porque con las resevas que tiene echas y condiciones d'esta dicha escriptura confieffa le queda suficientemente y que esta dicha donacion y renunciacion hacia [...] de su agradable voluntad y por las caussas y raçon susodichas y no otra ni lession, apremio, respecto ni ynducimiento y si la revocare, sea ninguna la tal revocacion y por



el mismo caso sea visto ratificarla y aprobarla para que siempre se goarde y cumpla su tenor y forma ynbiolablemente.

Luego los dichos capitán San Juan de Olaçaval y su muger, doña Savina de Acorda, que a todo lo susodicho estaban presentes, la dicha doña Savina con licencia que pidió al dicho su marido y él se la dio, dixieron que aceptaban y aceptaron esta dicha escritura de donaçion y renunciacion, segun y como y con las condiciones y obligaciones // en ella contenidas y se obligaron de las goardar y cumplir y para ello todas las dichas partes dieron poder cumplido a todas y qualesquier justicias de Su Magestad de qualesquier partes que sean a cuya jurisdiccion se sometieron, y renunciaron el suyo propio y la ley “sit conbenerid de jurisdiccion omnium ju(di)cum” (sic), rescivieronlo por sentencia difinitiva de juez competente passada en cossa juzgada, renunciaron qualesquier leyes de su favor y la general. Y demas d’ello, las dichas doña Mariana de Acorda y doña Madalena de Lasao por ser mugeres, renunciaron las leyes de los enperadores Justiniano y Veliano y la nueva y vieja constitucion, leyes de Toro y Partidas que son y ablan en favor de las mugeres, de cuyas fuerças fueron havissadas por el presente escrivano, que d’ello doy fee. Y para mayor firmeça juraron a Dios nuestro Señor y a la señal de la Cruz semexante que está de no yr ni venir contra esta dicha escritura ni parte de ella en tiempo alguno ni por caussa ni raçon que aya, diciendo que fueron enganadas, lesas ni [dani]ficadas en poca ni en mucha suma, ynorme ni [...]namente y no pediran avsolucion ni relaxacion d’este juramento a nuestro muy Santo Padre ni a su nuncio ni de legado que su poder para ello tenga, y si de su “propio motuo” (sic) les fuere concedido, no hussaran d’ello so pena de ser perjuras, feementidas y de caer en caso de menos valer. En testimonio de lo qual lo otorgaron asi esta carta siendo testigos el capitán Miguel de Laramendi, Miguel de Arpide y Francisco de Oyarçaval, // vezinos de la dicha Villa y valle de Oyarçun, y los dichos otorgantes a quienes yo, el dicho escrivano, doy fee, conozco. El dicho capitán lo firmo de su nombre y por las dichas doña Madalena y doña Savina que dixieron que no savian escribir, el dicho Miguel de Arpide.

## 2

(1819 - maiatza).

*Juan Francisco de Alduncinek eskaera egiten dio Errenteriako alkateari jaso duen oinordekotzaren bidez Hirian dagozkion onibarren jabetza publikoki aitordakion.*

EUA. E. Sailsa, 7. Bulegoa, I. Zerbitzua, 31. Liburua, 6. Espedientea.

Sr. Alcalde de esta Noble y Leal Villa de Rentería.

Don Juan Francisco de Alduncin y Aguirre, vecino de la Villa de Yturain, en el reyno de Navarra, estante presentemente en ésta de Rentería, hijo legítimo de D. José Joaquín de Alduncin y Corrotejarena y D<sup>a</sup>. Francisca de Aguirre y Uztariz,

ante vuestra merced parezco como mejor puedo en Derecho, y digo que aquéllos y D. José Manuel de Alduncin y Aguirre, mi hermano mayor ya difunto, cuja partida de difunción presento con la devida solemnidad, y todos sus ascendientes estuvieron en quieta y pacífica posesión de todos los vienes del mayorazgo electivo que fundó el capitán D. Josef de Olazábal y Acorda, sitios en la Villa de Tolosa, en ésta de Rentería, en la de Astigarraga y otros pueblos y aunque también yo estoy en la misma quieta y pacífica posesión, sin embargo me conviene tomar posesión judicial de la casa-torre Morroncho // con sus pertenecidos, de la casería de Morroncho y los suios, en el terreno de la casa o borda germada de San Juan Borda y de un suelo de casa en la calle de Arriva, sito en esta Villa, y de la casería de Alanochipi y sus pertenecidos, sitios en jurisdicción de la Villa de Astigarraga y cualesquier otros vienes pertenecientes al dicho vínculo y mayorazgo sitios en esta Villa en esta atención.

Suplico a vuestra merced se me dé posesión real de todos los dichos vienes amparándoseme en la que así aprendiere con las penas que se sirviese vuestra merced imponer a quien me molestore, mandando también que los inquilinos y arrendadores me acudan con sus frutos y rentas, como lo han hecho hasta ahora, y que en lo respectivo a dicho Alla- // nochipi, en atención a estar en jurisdicción de la Villa de Astigarraga, se despache al intento la correspondiente requisitoria dirigida a su justicia ordinaria, pues es justicia que pido, y para la maior claridad yo a fin de que conste en todo tiempo, presento el adjunto testimonio de las cavidas y linderos de las dichas fincas comprendidas en la declaración del perito de esta Villa D. Baupista de Huizi.

(Firmado) Juan Francisco de Alduncin.

### 3

#### 1819 - maiatza - 6; Erresteria.

*Antonio María de Sorondo, Erresteriako eskribauak, agiri bat sinatzen du Juan Francisco de Alduncinek, berak hiri honetan dituen ondasun higiezin dagokienez, egindako aitoren bat jaso duela ziurtatuz.*

EUA. E Sailsa, 7. Bulegoa, 31. Liburua, 6. Espedienteak.

Yo, el infaescrito escribano real y numeral de esta Villa de Rentería, certifico, doi fe y por verdadero testimonio a los señores que el presente testimonio vieren, que D. Juan Francisco de Alduncin, vecino de Yturain, en Navarra, estante presentemente en ésta de Rentería, me ha exivido y puesto de manifiesto una declaración hecha por el perito de esta Villa de diferentes fincas del dicho Alduncin el día primero de este mes, de sus cavidas, linderos, etc. y entre otras hay las declaraciones siguientes:



La casa-torre de Morroncho contiene ciento veinte y tres posturas de tierra sembradía con inclusión de su huerta, paredes y vallados de su perímetro, la cual confina por el norte con otra tierra de la casa de Gaztelunea y de Manuel de Elizondo, por mediodía con un camino sendero, por el oriente y poniente con dos caminos públicos.

La casería de Morroncho alinda por el oriente con los pertenecidos de Cherrita, Tovar, Magdalen-vorda y San Juan Borda, por mediodía con los de Alvin-azpicoa, // por el poniente con un camino carretil y por el norte con un jaro de D. Juan Francisco de Echenique, resultando en su jurisdicción seiscientos setenta y siete y tres cuartas posturas de tierra labradía, sesenta y tres posturas de tierra sembradía, juntamente con sesenta pies de manzanos, con más veinte y seis silvestres, setecientos treinta y nueve posturas y tres cuartas de tierra manzanal con cincuenta y tres posturas de inculca, mil quinientas sesenta y ocho y media posturas de tierra inculca, entre argomales, trasmochales y castañales.

En el terreno de San Juan Borda resultan setecientos y tres posturas poco más o menos.

La casería de Alanochipi, cuios pertenecidos alindan por la parte septentrional con los de la casería de Eramonea, Bordazar y Amordea, por mediodía con los de la casería // de Purzueta, por el poniente con el camino carretil público, en los cuales resultan seiscientos diez y ocho y tres cuartas posturas de tierra sembradía, trescientas una postura y tres cuartas de tierra manzanal, ciento ochenta y una y media posturas de tierra inculca, existentes parte de ellas a medio de las tierras sembradías y manzanales y el residuo en el terreno que ocupa la casa en antepuerta y extremo de la jurisdicción, setecientos sesenta y una y media posturas de tierra jaral, que resultan en su jaro con unos pequeños vacíos en sus extremos, doscientas tres posturas de tierra argomal y alechal radicada en el partido de Bordazar.

Así resulta más estensamente de otra declaración que devolví al referido Alduncin, en cuyo testimonio con la remisión necesaria signo y fir- // mo como acostumbro, en esta Villa de Rentería, a seis de mayo de mil ochocientos y diez y nueve. Entre renglones "n".

En testimonio (signo) de verdad Antonio María de Sorondo.

#### 4

### 1819 - maiatza - 6

*Juan Francisco de Alduncin Morrontxo dorretxearen jabe egiten da.*

EUA., E Saila, 7. Bulegoa, I. Zerbitzua, 31. Liburua, 6. Espedientea.

Acto continuo, dicho Agustín de Olaciregui, // alguacil de esta Villa, por fe de mí el escribano, en virtud de la comisión que le está conferida en el auto ante-

cedente, dio a D. Juan Francisco de Alduncin y Aguirre, vecino de Yturain, en el reyno de Navarra, sin perjuicio de tercero que mejor derecho tenga, la posesión real, actual, corporal, “velcuasi”, en forma, de la casa-torre de Morroncho y de su heredad y pertenecido, cuyas situaciones, cavidas y linderos se especifican en el testimonio que queda unido a este espediente, y de la huerta pequeña de junto a Santa Clara que expresa el pedimento unido a este expediente. Asimismo, le dio igual posesión sin perjuicio de tercero que mejor derecho tenga, del suelo de casa que expresa el pedimento antecedente, existente en la calle de Arriba de esta Villa junto a la dicha casa-torre de Morroncho por enfrente, en cuyo suelo se hallan construidos unos hornos, que la que los maneja expresó los disfruta un tal D. José Antonio de Eleviegui de la ciudad de San Sebastián, a la que se encargó por dicho Alduncin podía darle a entender para entenderse con él armoniosamente sobre los citados hornos construidos en dicho suelo. Y en señal de verdadera posesión dicho alga- // cil le entró de la mano al referido Alduncin en la insinuada casa-torre, su heredad y pertenecido en dicho suelo de casa, y habrió y cerró sus puertas y ventanas y se paseó por sus piezas arrancando yervas y puñados de tierra e hizo otros actos posesorios y en ella le amparó, defendió he impuso para la cámara de Su Magestad la pena de treinta mill maravedís, que contiene el auto antecedente, a quien se la perturbe sin vencerle primero en juicio, y de haberla tomado quieta y pacíficamente los pidió por testimonio e para su resguardo siendo testigos: D. Ygnacio de Aguerrebere y D. José Esteban de Labiano, vecinos de Elgorriaga e Yturain en el reyno de Navarra, y Manuel de Michelena, de esta Villa. Firmó dicho Alduncin, no firmó el alguacil por no saber y a su ruego hará un testigo de que doy fe. Entre renglones “pequeña de junto a Santa Clara”. Testado “de Itugarrize”.

(Firmado) Juan Francisco Alduncin y Aguirre. Manuel de Michelena.

Ante mí, Antonio María de Sorondo.





Argakia. Jesús Hospitaler

Fatxada nagusia.  
Migel Aldunzin kalea.





## II

# ARTE AZTERKETA

## 1. INGURUNEA

Morrontxo dorrearen ezaugarriek Europako, Gaztelako eta Euskal Herriko beste batzuenekin zer ikusteko duten agertuz ekingo diogu eraikuntza horren arte azterketari.

Azterketa historikoan aditzera eman denez, familia jakin baten edo batzuen dorretxea izan da Morrontxo, baina, Euskal Herriko zutik irauin duten beste batzuek ez bezala, harresi aldera ate bat oraindik baduena, Erretereriako hiriaren Nafarroa alderako atea, hain zuzen. Beraz, eraikuntza horren eginkizuna zein zen eta duen forma zergatik duen ulertzen lagunduko diguten ohar orokor batzuk egingo ditugu aurrena.

### 1.1. Defentsarako dorreak

Erretereria sortzetik izan da herri harresiduna, eta kontu handiz gotortua gainera, izan ere akitaniarren eta nafarren oso eskuera baitzegoen.

Harresiari buruz ia ezer ez dakigun arren, ez zen seguru asko horma sendo lodiz egina izango, ez behintzat ezagutzen diren Europako beste asko bezain sendoa, bost bat metro alturako hesi bat edo baizik, oraindik ere zutik dirauen Bilbokoaren antzeko zerbait, alegia. Eraikitzen hasi, Erretereria egiterakoan bertan hasi ziren, baina ez zen hasaldi batean bukatu, gero ere aritu ziren puskak erasten

eta zituenak berritzen, eta hori egiteak dirutza handiak enplegatzea eskatzen zuen. 1494an eman zuten bukatutzat (izan zituen berrialdietakoren bat, segurunik).

Harresiak bost ate zituen; Nafarroa alderakoa zen horietako bat, Morrontxok eta ondoan zuen Torrekuak defendatzen zutena, hain zuzen. Badaiteke gainerako atean ere, garaietan, defentsarako dorreak izatea. Frantzia edo Hondarribi alde-rako ateari dagokionez behintzat, iritzi horretakoa da Obeso. Horren ustez Zubiaurre jauregiaren ondoko orubea izango zen delako dorre horren lekua (dorre harenak izango lirakeke geratu diren txapitula edo matakana, gargola eta jauregiaren kontra dagoen horma). Bada, bestalde, gaur Zumardia den aldera begira zen atearen ondoko dorre posibleren baten aipamenik ere.

Azterketa historikoan esan bezala, defentsarako dorre eta aldi berean etxebizitza zen Morrontxo, eta halaber Torrekua ere, familia jakin batzuen egoitza, alegia, baina herria babesteko eginak. Aipatu diren beste biak ere hala izango ziren seguru asko. Antzinako Magdalena eta "Itsasalderako" ateen ondoan diren etxe eta orubeen neurriak ere garai batean dorre izandako lekuak ez ote diren pentsarazten digu. Horrek, egia bada, Erretereriako bost ateak dorretxe partikular banaren azpian zeudela esan nahi du, eta gauza horri dagokionez Erretereria eta Bilbo, esate baterako, berdintsuak zirela, han ere dorre partikular bat baitzen Zazpi Kale famatuen irteerako ate bakoitzaren ondoan. Somera kalearen irteeran bada oraindik ere etxe bat Leguizamon armarría berekin duena; leku horretantxe zen Leguizamon familiaren dorrea ere. Gainerako dorreei buruz, non ziren eta jabeak zein ziren bakarrik agertzen da dokumentuetan. Eta horrenbeste zehaztasun (dorreak non zeuden eta zeinenak ziren) Bilbokoez bakarrik dakigu Euskal Herriari dagokionez. Martínez Gorriaránek Donostiari buruz ari dela, "*el plano de la San Sebastián anterior al catastrófico incendio de 1813 parece indicar que la familia pudientes –Oquendo, Idiáquez, Amézqueta, Engómez, Embeltrán– lograron enclavar sus espaciosos solares junto a la primera muralla, mientras que la gente de menor fortuna se repartía más igualmente el centro de la Villa, muy densamente edificado...*"<sup>17</sup> dioen arren. Agian berriki erosiak zituzten orubeak eta ez zen ere haietan inoiz dorrerik izan izango, beharbada, baina badaiteke horien ibilbidea ere gure eskematik oso urrun ez ibiltzea, eta esanaren alde, bakarra bada ere, Arizaga Bolomburuk aipatzen duen kasua daukagu lekuko: "*Esta casa-torre de Engómez hacía fortificación y esquina a la actual calle Narrica por una parte y defendía por otra la entrada a la ciudad*"<sup>18</sup>.

Gipuzkoako beste Hiribilduei buruz, berriz, beste hau dio Arizagak: "*Mientras que las casas-torre se sitúan en los extremos de las Villas, en las proxi-*

<sup>17</sup> "1813ko erreketak izugarria baino lehenagoko Donostiako planoak adierazten duenez, hiri horretako familia dirudunek –Oquendo, Idiáquez, Amézqueta, Embeltrán– lortua zuten beren orubeak lehenengo harresiaren ondoan kokatzea, eta diruz eskasago zebiltzanak, berriz, Hiriaren erdialdean, nork zenbat zezakeen oso kontuan izan gabe, eta elkarren kontra pilatuta zeuden etxeetan bizi ziren..."  
MARTÍNEZ GORRIARÁN, Carlos: *Casa, provincia, rey*. Irún 1993, 94. or.

<sup>18</sup> "Engomezen dorretxe edo delako hori gaur egun Narrika kalea deritzanaren kalearen izkina eta eraikuntza gotortu zen garaietan, eta Donostiako sarreretako bat zaintzen defendatzeko eran kokatua zegoen".  
ARIZAGA BOLOMBURU, Beatriz: *Urbanística medieval. Guipúzcoa*. Donostia 1990, 130 or.





Morrontxo eta Torrekuta. Nafarroako Atea.

*midades a las puertas, como tratando de defenderlas, los palacios están situados en el interior del cuerpo urbano y su masa edificatoria nunca se puede utilizar como reforzamiento de las murallas o de las obras defensivas de la Villa”<sup>19</sup>.*

Errenteriako dorretxe horren kokagunea eta eginkizuna ez ziren, beraz, bereziak, Euskal Herriko beste dorretxeekin konparatuta behintzat; ikus ditzagun orain hirien sarreretan eta harresietan kokaturik zeuden Europako dorretxe batzuen kasuak.

Dirudienez, Italiako Erdialdean eta Iparraldean (hor dago San Gimignano, dituen dorreengatik gaur leku turistiko bihurtua), Alemaniako Erdialdean eta Hegoaldean, Proventzan, Akitanian eta Gaztelako Iparraldean, gauza normala zen dorreak pertsona partikularrenak izatea. Zernahi ere, badute horietako askok eta Morrontxok alde bat: Morrontxon beti bizi izan zen norbait, horietako askotan, berriz, ez; arrisku aldietako babesleku baitziren asko. Heers-ek esaten duenez, oro har *“sería relativamente fácil establecer un estrecho paralelismo entre la existencia de estas fortalezas urbanas y el mantenimiento de estructuras sociales complejas, marcadas por la presencia de amplios grupos familiares o*

<sup>19</sup> *“Dorretxeak Hiribilduen kanpo alderako muturretan, atera edo sarrera inguruetan egin izan dira, hiribilduak defenda ditzaten edo, eta jauregiak, berriz, hiribilduen barruan, eta eraikuntza horiek ez erabili ahal izan harresiak indartzeko edo Hiribilduak defendatzeko”.*

ARIZA BOLOMBURU, Beatriz, Op. cit., 270 or.



Argazkia: Jesús Hospitaler

Hegomendebalerako fatxada.

*suprafamiliares*”<sup>20</sup>. Heersek Europari buruz egiten duen ohar hori zuzen baino zuzenago dagokio Euskal Herriko kasuari.

Euskal Herritik kanpora ere, hirietako harresi izkinetan ziren dorretxeak familia batzuen eskuetan egon ohi ziren, itxura denez, haiek dorretxe horien jabe zirela edo horien gain nolahalako eskubideren bat zutela. Dorre partikularrak hirietako ate ondoetan kokatuak egotea ez zen ohizkoa, halere, horrelako kasuak badiren arren.

Eta Heersen eskutik, interesgarriak iruditu zaizkigun Europako zenbait dorretxeren kasuak aipatuko ditugu, Euskal Herritik urrun ez direnenak, gainera: “*En Burdeos, las grandes residencias de los nobles, los oustaus se apoyan en su mayo-*

<sup>20</sup> “nahiko gauza erraza izango litzateke hirietan leku gotor horiek izatearen eta familiazko edo familiaz gaineko harremanez osatutako gizatalde handi samar batzuek markatzen zuten giza egitura konplexu batzuen artean paralelismorik bazela agertzea”

HEERS, Jacques: *El clan familiar en la Edad Media*, Barcelona, 1978.



*ría en las murallas exteriores de la ciudad (...) Ocurría del mismo modo en Dax y Bayona. (...) En Carcasona los caballeros poseían a menudo en los feudos del vizconde una de las torres o incluso una de las puertas del recinto de la ciudad*"<sup>21</sup>. Heersengana joko dugu esandakoa biribiltzeko ere: "en todo el Occidente Medieval las grandes familias intentaron asegurarse el control de las principales fortificaciones urbanas en especial donde subsisten murallas romanas. (...) En las ciudades donde se construyeron otras murallas más tarde y con otras piezas, por el soberano o por el municipio de burgueses, algunas familias estaban encargadas de mantener y defender alguna de las torres"<sup>22</sup>, –dio horrek.

Esandakotik ikusten denez, Morrontxo dorretxearen eta Euskal Herriko beste askoren eginkizuna, hau da, pertsona partikular batzuenak izanik ere hiria defendatzeko egotea, ez zen batere gauza bitxia.

Baina bai, Ahaide Nagusien arteko gaztazka garaian horiek izan zuten zoria, erregearen aginduz beste defentsarako ez zirenak moztu zituztenean, horiek tente geratzea. Defentsarako eginak zirelako salbatu ote ziren horiek? Badirudi baietz; Morrontxo eta Torrekua behintzat horregatik salbatu ziren, dirudienez. Zernahi dela ere, ez dago nahikoa daturik Euskal Herriko beste dorreengatik zera bera esateko, eta are gutxiago gorago aipatu diren Bilbaoko ta Donostiakoak horregatik salbatu zirela esateko.

## 1.2. Herriko ingurunea

Has gaitezen orain inguruan zuenak, hau da, harresiak eta ondoko eraikuntzek Morrontxoren egituran zer eragin izan zuten adierazten.

Eta zuen itxurari dagokionez, zera dago esan beharra hasteko, ez dela, Hiriko ate batera begira zuen puska izan ezik, Morrontxo etxe soil berezia izatea, antza denez, ezinezkoa. Eta horrela izandako itxura guztiak ditu, zeren, dorretik Mendebalerako harresi puskan (Udal Merkatuaren aurrean Goiko Kalearen paraleloan duen aldean) ez bide baitzuen eraikuntzarik erantsita. Hori zen bederen Alfontso X.ak hainbeste aldiz aipatu izan den bere partidari aditzera eman nahi zuena: "desembargadas et libres deben seer las carreras que son cerca de los muros de la Villa et de las cibdades... de manera que non debe hi facer casa nin edificio nin se arrime a ello"<sup>23</sup>. Harresiak kontra eraikuntzarik ez zutela eta barru-

<sup>21</sup> "Bordelen, jende dirudunen edo handikien egoitza gehienak, oustaus edo delakoak, hiriaren kanpoaldeko harresien kontra zeuden (...) Era berean zeuden Akize edo Daxen eta Baionan ere. (...) Eta Carcasonan ere zaldun askok zuen bizkondearen feudoetan dorreren bat edo hiriaren hesietan aterten bat"  
HEERS, J.: Op. cit., 208 or.

<sup>22</sup> "Erdi Aroan, familia dirudun gehienak ahalegindu ziren hirietako harresien alde nagusiak kontrolatzen, are gehiago hirian erromatarren garaiko harresirik bazen; eta hori Mendebaleko lurralde guztietan gertatu zen horrela. (...) Lekuan lekuko jaunak edo agintariek harresi berriak eta pieza berriekin eraiki zituzten hirietan bertan ere, familia jakin batzuen gain geratzen zen dorreak berritzea eta defendatzeko ardura"  
HEERS, J.: Op. cit., 209 or.

<sup>23</sup> "Hiribilduen eta hirien harresien ondoan dauden kaleak oztopo gabeak eta libreak behar dute izan... eta ez da etxerik egin behar han, ez hartara hurbildu".  
VALDEÓN, J.: "Reflexiones sobre las murallas urbanas de la Castilla Medieval" *La ciudad y las murallas*, Madrid 1991, 80. or.

ko aldean ibilbidea zutela eduki nahi horrek bazuen bere arrazoia, harresiak eta herria defendatu behar zutenek hara eta hona mugitu ahal izateko egokiera izatea.

Aginduak agindu, kanpoko erasoen arriskua pasa zenean, gero eta eraikuntza gehiago egin zen harresiaren kontra, hala horren barruko aldean nola kanpokoan. Arizagak dioenez, *“dificultaban la defensa de la Villa en el interior y favorecían el ataque desde el exterior; sobre todo cuando las casas del arrabal también estaban pegadas a la cerca por su parte externa. Y este fue exactamente el argumento presentado por Rentería para solicitar el permiso real de derrocamiento de dichas edificaciones”*<sup>24</sup>.

Arizagak dioenez, bazen harresien kontra, horiek baino etxe garaiagorik ere: *“parece que no era infrecuente entrar o salir de la Villa por encima de las cercas, sin utilizar los cauces propios para ello, como eran las puertas, ya que en el capítulo 130 de las Ordenanzas Municipales de San Sebastián se prohíbe la mala costumbre, conminando a los vecinos a que no entren ni salgan por encima de las cercas”*<sup>25</sup>.

Hona bitarteko dokumentuetan adierazten denez, kasu gutxi egiten zitzairen delako ordenantza horiei, eta ez ziren, harresiak berak ere, oso sendoak izan ohi. Dena den, delako printzipio hori, harresiak etxerik gabe eta kanpotik eta barrutik erraz iritsi ahal izateko eran uztekoa, hasieran behintzat bete izango zela uste dugu, hasieran behintzat. Eta hala egin izango zutela Erreterian ere.

Eta Alfontso X.aren Partidako auzira itzulirik, esan, Morrontxotik mendebalerako harresi puskaren barruko aldetik eta horren paraleloan bazela, antza denez, etxerik gabeko espazio bat, etxe iladaren eta harresiaren artean. Gizpuzkoako herrietan Erdi Aroan ziren sailen batezbesteko neurria kontuan izanik, harresiaren paraleloan bide bat behar zuela uste dugu. Eta horren arabera, ez zuela Morrontxok ere, hasieran behinik behin, gaur Ekialdean duen etxerik izango. Delako dorreak alde horretatik luzeran dituen 18 metroetatik, 2 metro inguru harresiak eta bere paraleloan zuen bideak hartuko zituen, eta gainerako 16ak, ondoko etxeak eta etxe-orube guztietan zen baratzeak. Horrez gainera, Erdi Aroan hemen etxe apalak egin ohi zirela kontuan izanez gero, ez da Morrontxo etxe soil bakar bezala imajinatzea harrizkoa.

Dena den, eta gorago esan bezala, Hiribilduetako leku urritasunak delako bide paralelo horietan eta baratzetan bertan ere etxeak egitera eragin zuen jendea. Gaztelako legeetan, harresien “garbiketari” buruz atalean ez ezik, udal ordenantzetan ere aipatzen da arazo hori; gai horri buruz zera dio Martínez Gorriaránek: *“las Villas pequeñas debían tomar sus precauciones para no verse privados de ciertos basti-*


<sup>24</sup> “barruko aldetik zeuden eraikuntzek zailago bihurtzen zuten Herria defendatzeko lana, eta harresiaren kanpoko aldetik zeudenek, berriz, lana errazten zieten erasora zetoztenei, harresiaren kontra zeudenek behintzat. Erreterriako herriak arrazoi hori erabili zuen Erregearengadik eraikuntza horiek botatzeko baimena lortzeko”.

ARÍZAGA BOLOMBURU, B.: Op. cit., 125. or.

<sup>25</sup> “antza denez, ez zen, normala den bezala, jendea Hiribilduetara ateetatik ez baino harresien gainetik sartzea eta irtetzea hain arraroa, zeren, ohitura hori debekatu ezetik hiritarrik harresien gainetik sar edo irten ez dedila ere agintzen baita Donostiako Udal Ordenantzetako 130. kapituluan”

ARÍZAGA BOLOMBURU, B.: Op. cit., 128. or.





Hegomendebalerako eta Iparrekialderako fatxadak.

*mentos; probablemente por esta razón las ordenanzas de 1606 de Rentería mandaban que todas las casa mantuvieran y cuidaran su respectiva parcela de huerta*<sup>26</sup>.

Hiribilduetako sail guztiak aprobetxatu behar horrek ez zuen, XVI. mendetik aurrera, lehengo indarririk izan. Errenteriako kasuan, Martínez Gorriaránek zera dio horri buruz: *“En 1802 había 146 casas urbanas, pero muchas de ellas fueron levantadas en el próspero siglo XVI y a la sazón sólo 86 seguían habitadas. Hasta 1857 no llegarán a ocuparse 142 casas; son casi 300 años de depresión urbana y de profunda ruralización. Además, las de la calle son casas demasiado parecidas al caserío rural: la mitad poseían huerta pegante, y la tercera parte de las propiedades urbanas llavaban aparejadas parcelas de tierra cultivable*”<sup>27</sup>.

Eta ingurunea agertuz erainkuntza bera ere pixka bat aurkeztu dugunez, has gaitezen zein ezaugarri zituen adierazten.

<sup>26</sup> “Hiribildu txikiak beraiek hartu behar zituzten zenbait janari gabe ez geratzeko neurriak; etxe bakoitzak bere baratze puska izan eta zain zezala, seguru asko arrazoi horregatik agintzen zen Errenteriako 1606ko ordenantzetan”  
MARTÍNEZ GORRIARÁN, C.: Op. cit., 93. or.

<sup>27</sup> “1802an, 146 etxe ziren Errenteria barruan; horietako asko, ordea, XVI. mendeko urte oparoetan eginak ziren, eta esan direnetatik 86tan bakarrik bizi zen jendea. 1857a arte ez zituen 142 etxe biztanledun izan; ia 300 urte bitartean, herria utzi eta nekazaritzara joan zen jendea. Kaleko etxeak baserrien oso antzekoak ziren, gainera: etxeen erdiak zuen ondoan baratzaren bat, eta hirietako orubeen herenak lan zezakeen sailen bat”  
MARTÍNEZ GORRIARÁN, C.: Op. cit., 318. or.

## 2. ERAIKUNTZAREN HISTORIA: HIPOTESIA

Zein garaitan egina den eta noiz eta zer berrikuntza izan dituen adieraz liezagukeen dokumentu askorik aurkitu ez dugun arren, eman ahal izango dugu gutxi gorabeherako bat bederen, zeren ikusten baita zein estilotan eta zertarako egina den, eta zeharbidezko zenbait dokumentu ere ba baitugu, zorionez.

### 2.1. Defentsako dorrea.

Hasteko, gauza bat esan daiteke behintzat, duen itxuragatik, dagoena baino lehen, oraingoaren zoru-zabalera bereko eta garaiera beretsuko dorre bat izan zela hor, eta gerrarako dorreen ezaugarriak zituela.

Gerrako eraikuntza zenez, ez dezakegu lehen zuen kanpoko itxuraz gauza handirik jakin, zeren, defentsako eraikuntza guztiak bezala, parterik handiena zurezkoa izango baitzuen, ez harrizkoa, luze irauten ez duen material batez egina, alegia. Esan nahi genuke horrekin, bestela behar zuela dirudien arren, Erdi Aroan eta Europan guztian, zurez, erraz sutzen eta erretzen den material horrez, egin ohi zela eraikuntza militarren parterik handiena, eta are badugula Euskal Herrian erabat zurez egina zegoen zenbait dorreren aipamenik ere.

Arestia esana honela labur genezake: harriz egindako hormek betetzen zuten dorre baten defentsarako eginkizuna eta zurezko egiturek, horien erasorako eginkizuna.

Eta horrela, pisu bateko edo gehiagotako zurezko txapitulak eta babeslekuak izaten zituzten dorreek, hornei erantsirik; horiez eta grabitatearen indarrak baliatzen ziren hiritarrak etsaiaren erasoetatik babesteko eta haiei zernahi gauza mingarri botatzeko.

Horietatik, horma barruan geratutako zenbait zurrun puska eta Cadahalso edo deritzaten zurezko txapitulen zurtoinei eusten zien berma-harriak bakarrik ikus daitezke gaur egun.

Morrontxon ere, Mendebaleko edo harresiaren barruko aldera begira zegoenez zer defendaturik ez zuen hormak izan ezik, beste guztiek dituzte teilatupean, txapitula-zurtoinen harburu edo berma-harriak. Pisu batean ezezik, bi edo hirutan ere baditu aztarnak, Ekialdeko hormak, izan ere, Hiriko atea defendatzeko egonik, hori baitzen babesik handiena behar zuena, eta Hegoaldekoaren kontrara, berezko defentsarik ez zuena. Aipatu diren zurezko egitura horiek eskaintzen zioten Erreterria zitzakeen etsaietan hobeto defendatzeko egokiera.

Hegoalderako hormak, berriz, ez zuen, berez ere tontor batean oinarritua egoiteaz aparte garaiera handikoa eta erasora zetorrenari atzera eragiteko modukoa zenez, teilatupean zurezko txapitula-ilada bat besterik. Iparraldekoak, aldiz, teilatupean bat eta ategainean bestea zituen, harresiaren barrualdera begira egon arren etxeak sarrera alde horretara zuelako.

Eta, ez dugu almena konturik aipatu, zeren, dorretxea baino lehenagoko eraikuntza hipotetiko hark, izan ere, ez zuela izango uste baitugu, lau isuriko teilatu garaia izanik (zurezkoa inondik ere), ohi zuten bezala, horietako bakoitzaren azpian saieterak eta parapetoak izatea nahikoa zuen eta. Dena den, arituko gara horretaz aurrerago.





Fatxada nagusiaren  
ikuspegi xehea.

## 2.2. Dorretxea

Zelako lehengo eraikuntza zahar, zurezko atal handiak zituen haren lekua, hark baino ate eta leiho gehiago zituen jauregi batek hartu zuen gero; bereziki defentsarako egokitua ez zenez, konfort handiagokoa eta noblezia eta aberastasun itxura gehiago zeriona zen hau.

Ez dago, noski, lehengoari zulo berriak edo, zenbait ate eta leiho, (aurrerago aztertuko ditugu batzu-batzuk) egin zizkiotela esan beharrik; eta merkataritza kutsuko bizimodu burges bat gogorarazten dutenak gainera. Almenak ere, nahiz eta aldi baketsuagoa izan, garai horretan erantsi zizkioten gure iritzian; geroago esango dugu zergatik uste dugun hori. Badaiteke –alde nagusian– Iparraldean duen hareharri landu guztia ere garai horretakoa eta betekizun berrien arabera egina izatea.

Gotiko berandukoan egina dagoen jauregi horrek ez du funtsean, irekiune edo leiho batzuek egitea beste berrikuntzarik izan; eraikuntzaren barruko bana-ketak hala eskatzen zuelako eta familia bat baino gehiago bizi behar zuelako eginak dira.

### 2.3. Noizkoa den

Espero genuen bezala, noiz egin zen eta izan dituen berrikuntzak noizkoak dituen zehazteak ekarri dizkigu arazoak.

Eraiketa kontua, Torrekuaren kasuan behintzat, harresia bukatu zen dataren arabera (1494) edo hori berritu zen dataren arabera jarri izan da. Guk ez dugu, horren jabeari, garai horretan suzko arma kontuan izan zen aurreramenduarekin –Erdi Aroko gerra sistema guztiak urte gutxian zaharkiturik geratu baitziren– aipatu ditugun zurezko defentsa sistema guztiari eusten eta berritzen aritzea interesatuko zitzaionik uste.

Goian aipatu den data hori baino lehenagokoa den susmoa dugu, beraz, hirietako dorregintza purian egon zen garaikoa edo Ahaide Nagusiak menderatzetik dorreak moztu ziren garaikoa, seguru asko. Hala bada, zergatik ez zuten, beste dorre asko bezala, Morrontxokoa moztu? Morrontxon Ahaide Nagusirik bizi ez zelako beharbada, edo, Errenteria defendatzeko beharrezkoa zelako, hobeto esan. Dena den, gai honi buruz lehen esandakoa diogu berriro, hirietako atea zaintzen zituzten hainbat eta hainbat dorre partikularrek zer atarramentu izan zuen ezer gutxi dakigula, alegia. Eta hori esatean, Bilboko kasuaz ari gara batik bat.

### 3. OINA

Oinari buruz ezer esan baino lehen gauza bat argitu nahi dugu, hemen, geure ustez antzinako eraikuntzari dagokiona bakarrik hartuko dugula kontuan, eta ez garena mendeetan zehar izan dituen eranskinak aztertzeraz sartuko.

I. Morrontxo, eta ondoan duen Torrekua, oin laukizuzeneko eraikuntzak dira biak, eta horrek hirietako eraikuntzen itxura ematen die. *“aún conservando sus características básicas de construcción fortificada, van a verse influenciadas por la propia parcela urbana en que se ubican, configurándose así inclusive como casas alargadas entre medianerías”*<sup>28</sup>.

<sup>28</sup> “Funtsean eraikuntza gotorren eitea duten arren –dio Linazasorok– izan dute hirian duten kokaguneak ere eraginik horiengan, eta elkarren kontrako etxe luzaran bihurtarazterainokoa gainera”.  
LINAZASORO, J. I.: *Permanencias y arquitectura urbana*, Barcelona, 1979, 119 or.





Fatxada nagusiaren ikuspegi xehea.

II. Dituen hormen lodierari begiratu bat emanez gero, berriz, gauza bat ikusten da, espero izatekoa zena bera, Hiriaren kanpoko aldera begira dituen hormak, Ekialdekoa eta Hegoaldekoa, alegia, gainerakoak baino lodiagoak dituela. Defentsa lana gehienbat horiek bete beharko zutela pentsatuta horrela eginak, noski.

III.- Eta badu orobat, beheko solairutik gora, dorrea bi aldetan banatzen duen horma sendo bat, baina, alde batean bakarrik du eskailera, sarrerako atetik ezkerretara, hain zuzen. Euskal Herriko dorre gehienak puska batekoak ohi ziren eta banaketarik zutenean hori zurez edo antzeko beste armazoi hauskorrez egina izaten zuten, baina ez da ere Morrontxoko modu hori Euskal Herrian bakarra (ikus, adibidez, baldatarren dorrea, Azkoitian).

Gure ustez, defentsarako mekanismo bat zen hori, XII. eta XIII. mendeko "donjon" deritzaten dorreetan erabilitakoen antzeko mekanismo bat; hain zuzen ere, bai baitzuten horiek albo-gelatarako eskailera egitura bat, bere defentsa propioak zituena. Eskailera hori izatera ez zuten, gainera, kaletik lehenbiziko solairura kanpoko beste eskailera beharrik. Nolanahi ere, Morrontxon ez da eskailera horren aztarnarik geratu. Euskal Herrian eskailera hori zen dorrerako sarrera defendatzeko modurik ohizkoena; Morrontxokoan, ordea, gorago esan den konplexuago horrek bete izan zuen kanpokoaren eginkizuna.



Fatxada nagusiaren  
ikuspegi xehea.

#### 4. HORMAK ETA HORIEK EGITEKO ERABILI ZEN MATERIALA

Atal honetan ere, gure ustez lehenbiziko eraikuntzarenak dituen elementuak aztertzeraz mugatuko gara, eta ez gara gozotzikako zulo edo hutsarteak aztertzen ihardungo.

Izatez, gainerako dorreak bezala, buztin-igeltsozko osakerako kararri arrosa kolorekoz egina dago, Hiria asentaturik dagoen “flysch” eraketako harkaitzeko harriz egina, alegia; kantoiak, hutsarteak, horien markoak eta aurreko alde edo alde nagusia, berriz, hareharriz eginak ditu, Jaizkibeldik ekarritakoz, seguru asko.

Kararriak, azpian bertan zutenez, zulatu eta ateratzerakoan bezala, lantzerakoan eta horman jartzerakoan ere, urrundik ekarri behar izanda baino neke gutxia-



go eman izango zien, eta merkeago atera zitzaien. Eta zegokion eginkizuna ondo bete izan du. Hereharriz egindako parteek tinkoago iraun dute noski, baina kostare, gehiago kostatzen zen horiek ekartzea eta lantzea, horrela eginak alde nagusi bati dagokion “noblezia” kutsua ematen badio ere aurreko aldeari.

Hutsarte edo irekiuneei buruz gauza gutxi esango dugu hemen: Hegoaldeko eta Ekialdeko hormetan izan ere ia ez duela, esateko, Iparraldekoan edo alde nagusian, gehiago dituela eta Mendebaldekoan, kontra beste eraikuntza batzuk dituzenez, ezin dela hutsarterik duenez ere ikusi.

Aldiz, lau horma aldeetan ditu almenen azpian leiho koskor batzuk; handiegia dira saietarak izateko, baina eraikuntza defendatzeko eginak, inondik ere.

Eta badu ere Hegoaldeko horman, solairu nagusiaren parean eta ezkerreko aldean, harrizko egitura koskor bat, gure ustez, Erdi Aroan komuna izandakoaren aztarna edo litzatekeena. Baina hori komunari dagokion partean aztertuko dugu. Alde horretan baditu, halaber, sorrerakoak diruditen beste elementu batzuk ere, baina zer funtzio zuten eta noizkoak diren gaurkoz ziurta ezinekoak: matakan baten aztarnak, lehenengo solairuaren parean (Erdi Aroko dorre batean zer defenditurik izango ez zuena), eta bi leiho arkudun, beheko solairuan.

Badu, halaber, Ekialdean ere leiho bat eta handia, dorrea estaltzen zuen zureriarekin zerikusirik zuena, seguru asko, eta dorretik zurezko txapitulara pasatzeko erabiltzen zena; argi finkatu gabeko ezaugarriak dituena, dena den.

Eta azkenik, baditu alde nagusian ere modu bateko eta besteko zenbait leiho. Horietako handienaz edo solairu nagusian dagoenaz, gero hitz egingo dugu. Solairu berean diren gainerakoez, berriz, ez dago, eraikuntza mota horietan egin ohi ziren leihoen modukoak direla beste esatekorik, kono itxurakoak, erdian zutabe bat zutenak (gaur gabe daude) eta arkitrabe biribildudun puntu erdikoak.

Ateari buruz gauza bat esango dugu: dobela handiko arku puntadun bat duela. Eraikuntza horretako biztanleen jatorria eta “estatusa” argi liezagukeen armarririk edo anagramarik ez izatea da harritzen gaituena.

## 5. ELEMENTUAK

### 5.1. Almenak

Dorrearen osagai edo elementuen artean eraikuntza koroatzen zuen almena egitura aztertuko dugu lehenbizi, Mendebaleko horma aldean dena, batik bat, antzinako grabatueta hain argi agertzen den eta garai haietan dorrea koroatzen zuen almenatik geratu den partea, alegia.

Almena horrek ez zuen, orduan ere, inolako funtziorik, gure ustez, apaingarri edo sinbolo hutsa zen; hona zergatik diogun hori:

I. Duten neurria ikusita, ez zezaketeen defentsarako batere balio.

II. Bestalde, hala Gipuzkoan eta berdin Bizkaian, jauregiak eta dorreak nola bukatu eta apaindu bila zebiltzan garai horretan; horren adierazgarri ziren Zestoako Lili jauregiaren edo Sestaoko bestearen gailurreria, edota Azkoitian den Idiáquez dorrearen almena, apain egiteko funtzioa zuena.

Dorreak hortz itxurako errematez burutzeko era hori azken gotikoaren ezau-garria da, berez, baina ez da ere ahaztu behar, hori esatean, almenak apaingarri gisa erabili izan zirela Europako eta Ameriketako leku askotan, eta hori XVIII. mendera arte gainera.

III. Goreneko aldeak almenak izatea, ez da Euskal Herrian eta Europako Iparraldeko lurralde askotan ohizkoa. Almenen gainean edo saieteren parean lau isuraldeko teilatu izan ohi zuten dorreek. Horri dagokionez zera dio Micaela Portillak: “...*recordemos al efecto, que la mayor parte de las torres alavesas, al igual que las de casi todas las comarcas del Norte, no terminan en almenas abiertas, sino en tejados a cuatro vertientes voladas sobre una corona de saeteras y con dispositivos –garfios y machinales– para la rápida erección de cadahalsos en momentos de peligro; hasta las torres almenadas del país, como puede verse en el torreón del canciller Ayala en Quejana, se cubrían por tejados de cuatro aguas*”<sup>29</sup>.

Ez zen hori Morrontxoren kasua: Iparraldeko eta Hegoaldeko fatxadetara begira dituen lau gargolek adierazten dutenez, teilatua gaurko eran eta garaiera berean zuen honek, eta almenak lau teilatu aldeak eta horietako zorrotzenak baino gorago zituen, bestalde. Horrek esa nahi du ez zutela almenen gainean teilatua egiteko asmorik izan; beraz, kasu bakana litzateke Euskal Herrian.

IV. Hori horrela izateak eta dorre horretan bizi zirenen gradua adieraz lieza-gukeen armarririk ez izateak, dorre horretan bizi ziren jaunen noblezia eta indarra almena horien bidez agertu nahi izan zutela esan nahi du, agian.

Eta horrek almenak funtzio jakin baterako eginak izatetik apaingarri edo gauza sinboliko izatera nola iritsi ziren adierazten dugu. Eta hemen Decio Pignarik almenei buruz esaten duena errepika dezakegu agian: “*no es funcional, por lo que a utilidad y economía se refiere, pero lo es como escritura ideocultural e histórica*”<sup>30</sup>.

<sup>29</sup> “...*horri buruz esan beharra dago, ez dutela Arabako eta Iparraldeko dorre gehienek estalirik gabeko almenarik, lau isuraldeko teilatu bat baizik, eta horren azpian saeterak eta bestelako zenbait tramankulu –gakoak eta gapirioak– izan ohi dituztela, arriskua denean oholtzak edo txapitulak jasotzeko; Euskal Herrian diren dorre almenadunak ere lau isuraldeko teilatuz estali ohi ziren, eta Quejadako Ayala kantzilerraren dorrea dugu horren lekuko”.*

PORTILLA, Micaela: *Las torres de Mendoza y Martiondoea*. Vitoria 1985, 6 or.

<sup>30</sup> “*almenak ez ziren funtzionalak, ezer gutxitarako balio zutelako, batetik, eta garesti gertatzen zirelako, bestetik; zuten funtzionaltasuna adierazpen ideokultural eta historiko izatean zetzan*”.

PIGNATARI, Decio: *Semiótica del arte y la arquitectura*, México 1983.






Iparmendebalerako fatxadaren ikuspegi xehea.

Armarrien bidez agertu nahi izan zenari buruz, berriz, gauza bakarra esango dugu, izan zirela horiek etxe aurretan jartzen hasi baino lehen ere inor aristokrazia mailako zela adierazteko bestelako saiorki eta modurik.

## 5.2. Irekiuneak eta flandiar estiloko leihoa

Lehen ere aipatu ditugu dorre horrek jatorrizko dituen leiho batzuk. Esan dugu, halaber, fatxada nagusian duen leiho handia hobeto aztertuko dugula ere. Leiho horri buruz hau esan genezake:

I. Egitez, gotiko estiloaren bukaera aldeko leiho mota da, *“lautan atalkatua”* edo deritzanetakoa. Goiko bi muturrak puntu erdiko arkutan bukatzen direnak ditu, eta ez ohizkoa zen bezala, berdinean ebakiak; horrek Flandriako estiloa dakarkigu gogora.



Goiko solairuetara igotzeko eskailera.



Hegoekialderako fatxadako saietera.

Garai horretako tipikoa den leiho eredu baten aldaera “apaindu” bat dugu honako hau. Aldaera hori, Frantziako zenbait eraikuntzatan iradokirik dagoen arren (Josselin, La Roche-Pot edo Kerjean-eko gazteluetan, adibidez), Ganten edo Brujasen baizik ez da ageri Morrontxon bezain osoki buruturik eta garaturik.

Horregatik bada, Erretereriako gure dorre honen elementu honen jatorritzat Flandria jartzeko tentazioa ezin itzurizkoa da. Ikus dezagun, hala ere, zer arrazoi den, lehen aipatu den formazko berdintasun soil horrez gainera, hipotesi horren bermagarri.

I. Gipuzkoako kostaldean bada beste kasu bat, “kanpoko” jatorria, edo gutxienez Gaztelak eragina ez dena, ageri duena. Beste leiho bat da hori, Zumaiako Hubillos jauregian aurkitzen dena, hain zuzen. Haren jatorria Morrontxokoa bezain argia ez bada ere, argi uzten du kanpoko eragina izan daitekeela han eta hemen.

II. Hemengo hau horretarako lekurik egokiena ez bada ere, Euskal Herriko kostaldearen eta Flandriaren artean izan den merkataritzako lotura estua aipatu beharra dago hemen. Artilea eta burdina esportatzen zen batez ere, eta garia eta oihal-ehunak inportatzen, beste salgai batzurekin batera, arte obrak, hain zuzen, besteren artean.

Gogoratu besterik ez dago, adibidez, Isabel “Erregina Katolikoaren” bildumako flandriar pinturako koadro gehienak Espainiako Iparraldeko portuetatik



igaro zirela, eta Euskal Herri osoan zehar koadro eta erretaulatxo ugari dela han eta hemen barreiatuak, Flandriatik ekarria. Lezon bertan, edo Zumaian ikus daitezke, urrunagora gabe, edo Erreterian bertan, gaur egun parrokiaren den “Arimetako” deitu ohi den Amabirjinaren Koroatzearen koadroaren flandriar jatorria ziurtatzen bada.

III. Edozeinetara ere, obra higarriak garraiatu eta zabaltzeko dagoen erretasunaren kontrara, egia da aipatu diren kanpotiko arkitektura elementuez gainera hor dela M.A. Arrazolak ganga “alemaniar” deitzen dituenak, Erreterian Jasokundeko Amabirjinaren parrokiaren ez ezik, Donostiako San Bizentekoan eta Debako elizaren klaustroan ere ikus daitezkeenak. Ez dakigu jatorriz zehazki Alemaniakoak diren ala ez, baina gauza ziurra da Iberiako Penintsulan ia beste inon ez dela ageri forma hori.

IV. Bukatzeko esan daiteke ezen Gipuzkoako kostaldean ageri diren arkitektura formak, gorde diren obra gotikoei dagokienez, batez ere Gaztelako egitura eta formen zordun badira ere, Europako Iparraldetiko zuzeneko eraginak ere sumatzen direla ohiko dorre edo eliza ereduetan txertaturik.

Nolanahi ere, gertaera horrek berebiziko konplexutasuna du, eta ikerketa monografiko bat behar da argituko bada, Gaztelan ageri den flandriar eragin handiarengatik alde batetik, eta Gaztelan diren iparraldetiko eragineko eraikuntza horetan euskal harginek izan zuten paperarengatik bestetik.

Edozeinetara ere, aipatu berri ditugun Gipuzkoako kostako adibideak, eta Morrontxokoa zehazki, bakarrak dira zentzu horretan, eta ez dira aurkitzen Gaztelan.

### 5.3. Komunari buruzko hipotesia

Lehen esan dugun bezala, Erdi Aroko komuna izan daitekeen hori Hegoaldeko fatxadaren aurkitzen da, solairu nagusian.


Komuna izan ala ez izan, kanpoko itxuratik baizik ezin zaio susmoa hartu, barrenean ez baita ezer halakorik izan zitekeenik pentsa arazten duenik. Badira zenbait arrazoi elementu hori komuna izan daitekeela pentsatzera eramaten gaituztenak. Hona:

a) Yrizarrek dioenez, Zarauzko Torre Luzeak badu “*un curioso aseo medioeval (sic) encajado en el espesor del muro*”<sup>31</sup>; horrek esan nahiko luke zibilizazioaren aurreramen hori ezaguna zela XV. mendeko Gipuzkoan. Horrelako berririk iritsi zaigun bakarra hori den arren, ez litzateke harrizko gauza izango gisa horretako komunaren erabilera aski zabaldurik egotea.

<sup>31</sup> “Erdi Aroko komun bitxi bat hormaren lodieran sartua”.  
YRIZAR, J.: *Torre Luzea*, Vitoria 1962.



Barreneko arku konupialaren ikuspegi xehea.



Eskailera tartearen ikuspegi xehea.

b) Beste alde batetik, ageri-agerikoa da Morrontxon eman zaion soluzioa eta Viollet-le-Duc-ek Landsberg-eko gazteluan (Rhin Beherea) deskribatzen duenaren arteko antzekotasuna: kanpoko hormatik zertxobait irteten duena gorputz txiki bat bizilekuarekin lotua. Isurkin guztia zuzen-zuzen kanpora jaurtitzen da.

c) Bukatzeko, gogora daiteke Abadiñoko Astola jauregian badela komun bat Morrontxoko komun uste dugun honen oso antzekoa. Hala eta guztiz ere, honen kronologia ezagutzen ez dugunez, ezin daiteke zentzurik estuenean gertaera paralelo bezala hartu.

Hori guztia kontuan harturik, bada, hasieran defentsarako elementu gisa har zitekeela zirudiena (dagoen lekuan inolako funtzionaltasunik ez duena ordea), eraikuntzaren erosotasunerako onura gisa agertzen da azkenean.

## 6. ONDORIOA

Behin baino gehiagotan ohartarazi dugun bezala, eraikuntza honetan jatorrizkotzat duguna baizik ez dugu aztertu nahi izan, hots, gehienez ere XVI. mendera bitartean jarritako elementuak direnez. Mende horrez geroztik erantsi, desegin edo aldatu zaizkion guztiek, dorretxea etxebizitzetarako bihurtu izanaren ondorioz egindako aldaketek batez ere, jatorrizko hori itxuragabetu duten arren, Morrontxo etxearen edukia aberastu egin dute zalantzarik gabe, eraikuntza historiko izanez





## BIBLIOGRAFIA

- ALDABALDETRECU, Roque. *Casas solares de Guipúzcoa*. Donostia, 1979.
- ARIZAGA BOLOMBURU, Beatriz. *Urbanística medieval (Guipúzcoa)*. Donostia, 1990.
- AYERBE, Endrike (Director). *Ibaiak eta Aranak*. 2, 4, 6, 8, 10. liburukiak Donostia, 1990.
- Encyclopédie Universalis: Habitat*. 1989.
- HEERS, Jacques. *El clan familiar en la Edad Media*. Barzelona, 1978
- Grand Atlas Universalis de l'Architecture*. 1988.
- KORTADI, E.; MORENO, M.; ARAMBURU, M.A. *Euskal Artearen Historia/Gotikoa, Gipuzkoa eta Iparraldean*. Donostia
- LINAZASORO, J.I. *Permanencias y arquitectura urbana*. Barzelona, 1979.
- MARTÍNEZ GORRIARÁN. *Casa, Provincia, Rey*. Irun, 1993.
- OBESO, Xabier. *Las murallas del Este de la Villa de Rentería*. Oarso aldizkaria, 1985.
- PONTE ORDOQUI. *Torres medievales de Rentería: T orrekua y Morrontxo*. Bilduma aldizkarian 1980.
- PIGNATARI, Décio. *Semiótica del Arte y la arquitectura*. Mexiko, 1983.
- PORTILLA, Micaela. *Las torres de Mendoza y Martioda*. Gasteiz, 1985
- SAN JOSÉ SEIGLAND. *Castillos y torres fuertes del País Vasco*. Leon, 1994.
- TORRECILLA, M.J., IZARZUAGA, Iñaki. *Bilbao, arte e historia*. Bilbo, 1990.
- VALDEÓN BARUQUE, Julio. *Reflexiones sobre las murallas de la Castilla medieval*. De Seta, Cesare. *La ciudad y las Murallas*. Madril, 1991.
- VIOLET-LE-DUC. *Encyclopédie médiévale*, I. liburukia. Evreux-en argitalpena, 1979.
- YBARRA, J. de; GARMENDIA, P. de. *Torres de Vizcaya*. Madril, 1946.
- YRIZAR, J. *Torre Luzea*. Gasteiz, 1962.

## S. ONDURRUA

Behin baino gehiagotan oinarrituzi dugun bezala, erakuntza honetan jaiarri-  
 ketai duguna haink ez dugun artega nahi ban. Hots, gahenez ere XVI. mendetza  
 haincan partitako elementuak direla. Mende horrez geroztik erantsi, desegiti edo  
 aldatu eginen guretik, dimitosea estatuiztaraku behar izanarri ondorez  
 egindako aldaketek haink ere jaiarritako hosi izanarri behin berriz. Morrontxo,  
 ciudadre edukia aldatuzi, egia dela zalarritatik gabe, erakuntza hainorri izanaz.



### III

## ARKITEKTURA AZTEZKETA

### 1. INGURUAREN DESKRIBAPENA ETA KOKAERA

Errenteriako parte zaharrearan dagoen eraikuntza bat da, Erdi Aroko barruti harresituaren barruan, Hegoekialdeko sarrera ukitzen. Torrekuaren aurrez aurre, dorretxe bi horien artean hiriaren ateetako bat eratzen zuten, Nafarroako Atea edo Sanjuangoako Atea deitua.

Orube horren mugak hauek dira gaur egun:

- Fatxada nagusia, Iparrekialderantz begira, Migel Aldunzin kalera ematen duela.
- Hegomendebaleko aldetik, udal merkatuaren kontra dagoen lubeta bat.
- Hegoekialdeko aldetik, hurrengo eraikuntzatik banatzen duen baratzetxo bat.
- Azkenik, Iparmendebaleko aldetik, tarte horma batek bereizten du Migel Aldunzin kalean ondoan duen eraikuntzatik; eraikuntza hau Morrontxo dorrearen ia erdiraino iristen da alturan.

### 2. LURSAILAREN FORMA ETA EZAUGARRIAK

Eraikuntza hau dagoen orubeak forma trapezoidala du, eta eraikuntzak berak hartzen du orubearen gehiena.

Zenbait zati bereiz daitezke: alde batetik dorretxearen eraikuntza nagusia, Morrontxo alegia; honek badu erantsirik solairu bakarreko eraikuntzatxo bat. Beste alde batetik, eraikirik ez dagoen orube zatia, erdi terraza erdi baratze den patio ireki batek hartzen du; gaur egun era bateko eta besteko tresneria multzo bat dago bertan.

Eraikita dagoen zatiak, ikerketa honetan aztergai dugun eraikuntza nagusiak alegia, bi patio ditu barruan:

- Bigarren etxebizitza solairutik gora dagoen argitarako eta aireztatzeko patio bat, 2,60 x 2,40 metrotako neurria duena, 6,30 metro koadro inguru alegia.

- Beste patio bat, bigarren solairutik gora etxebizitzetara iristeko eskailerari dagokiona da; argi naturala sartzen da bertara.

Orubearen topografiari dagokionez, eraikuntza kokaturik dagoen sailak badi-tu zenbait ezaugarri berezi. Alde batetik fatxada nagusiak, Migel Aldunzin kalera ematen duenak, aldapa handia du: fatxada nagusiaren ertz batetik bestera metro beteko aldea dago alturan; ezkerreko ertza da bietan altuena. Beste alde batetik, fatxada nagusi horren eta bere paraleloaren (udal merkatuaren atzeko aldearen aurrez-aurre dagoena) artean ere desnibela dago. Azken fatxada hau mendiaren hustulaneko pendiz handi batean oinarritzen da, fatxada nagusia baino bi metro beherago dagoen kota batean; horregatik alde horretatik eraikuntzarako sarbiderik ezin da izan.

Alboetako fatxadetatik bat tarte horma da bere alturaren erdiraino; elkarreki-kota berean daude luzera guztian.

Eraikuntzarako sarbidea fatxada nagusiko arkutik da; arku horretatik atarira sartzen da, eta handik eraikuntzaren gainerako alde guztietara. Sarbide horrez gainera beste bi ate baizik ez ditu eraikuntzak; horietatik, biltegi bezala erabiltzen diren bi barrunbetatik, kanpoko "baratzera" sartzen da.

### 3. ERAIKUNTZAREN KANPOKO ITXURA

Morrontxoko eraikuntza Euskal Herrian Erdi Aroko garaietan oso zabaldua zegoen tipologia bati dagokio: dorretxeari. Denbora joan ahala itxura aldatu bazaio ere, badu oraindik, kanpoko itxurari dagokionez, defentsarako eraikuntza publiko baten koherentzia; horren ezaugarriak, kanpotik egin zaizkion eraldaketak gorabehera, agerian ditu oraindik.

Eraikuntza honen kanpoko hormak hareharrizkoak dira, harlanduzkoak fatxada nagusian, eta kareharrizkoak gainerakoetan, bakoitzak duen garrantzia oso nabarmen bereizten dela.

Eraikuntzak izan dituen aldakuntzak, historian izan diren aldakuntzekin batera eraikuntza honen erabilerak ere izan dituen aldakuntzen ondorio izan dira.



Eraikuntzaren jatorria, hain zuzen, herriaren defentsa eginkizunak eta herriko "ate" gisa egoteak baldintzatzen dute. Egonkortasun handiagoko garaiak iritsirik, eginkizun militar horrek geroz eta garrantzi txikiagoa du. Horrek guztiak ondoren zehazten diren aldakuntza hauek eragiten ditu:

- "Urkabe" deitzen ziren kanpotiko defentsa egiturak galtzea, eta berriro ez jartzea; hain zuzen, "urkabe" horiek, lehenagoko garaietako premia larri berbera ez izatean, gehiago zaindu ez, eta fatxadetatik desagertu egiten dira.

- Erabilera militarra utzi eta erabilera zibila hartzean, etxebizitzetarako egoitzen da eraikuntza, familia bakar batentzat lehendabizi, eta geroago, XIX. mendean herriko biztanleria haztean, jabe bat baino gehiagorentzat. Horrek guztiak eraikuntzaren egitura aldatzera behartzen du; aldakuntza horiek fatxaden altxaeran, edo hobeto esan, haietako hutsarteetan nabari dira: zabalune berriak egiten dira, eta lehendik zeudenetatik batzuk eraberritu eta beste batzuk itxi egiten dira.

- Aldakuntza horiek guztiak gorabehera, ordea, oraindik ere atzeman daiteke eraikuntza honen noblezasuna, gaur egun dagoen egoeran aski urritua bada ere.

### 3.1. Estalkia

Estalkia bakarra da, lau isuraldetara, alboetako bi isuraldeak gailur horizontal bakarrean biltzen direla, era horretara fatxada nagusira eta haren paralelora isuralde laburragoak jaisten direla. Arabiar teilaz egina da guztia. Estalkiaren erdian, gailurrarekin lerrokaturik, isuralde bakarreko luzernario bat dago, uralitaz egina, etxebizitzetara sarbidea ematen duen barneko eskaileari dagokiona.

Estalkiaren perimetroa ez dado eraturik, ohi den bezala, hegal irtenez, eraikuntzaren hormez baizik, estalkitik gora irteten baitute, leku batzuetan almena gisakoak eratuz. Hori dela eta, estalkiaren egoera eta materiala ezin ikusi daiteke inguruetatik horretarako beharko litzatekeen perspektibarik ez baitago.

Teilatura igotzeko modu bakarra, eskailera nagusiaren barrunbean bertan dagoen zutiko eskailera bat da; eskailera hori barruko eskaileraren azkeneko eskaileraburuan hasi eta teilatuaren isuraldean bertan dagoen tranpal batera iristen da.

Estalkiaren kontserbazio egoerari dagokionez, eskailera goreneko luzernarioaren inguru guztian hezetasun handia du; badirudi hezetasun hori luzernario horren iraztezintasunak eragina izan daitekeela. Etxebizitzen barrualdeari dagokionez, ezin izan zen haietara sartu, eta horrenbestez, susmoa baizik ezin hartu dugu, eraikuntza horrek oro har duen egoera kontuan harturik, haiek ere antzeko egoera izango dutela, zeren badira eraikuntza orok behar duen mantenimentu ardurari dagokionez utzikeria seinale batzuk.



Eraikuntzaren beheko solairua.

### 3.2. Fatxadaren deskribapena

Ezaugarri orokor gisa esan daiteke eraikuntza honetan eraikuntzaren egitura-oinarri-oinarrizko zatia direla fatxadak, harrizko karga hormak baitira, eraikuntzaren berme hormak, metro bete eta hogeita hamar zentimetrotarainoko lodieretara iristen direnak.

#### 3.2.1. Fatxada nagusia (Iparrekialdekoa)

Hauxe da eraikuntza honen fatxada noblea, bertara sarbidea ematen duena (alde honetatik bakarra); horrexegatik hain zuzen, baditu zenbait desberdintasun beste fatxadetik: materiala, osakera orokorra, e.a. Migel Aldunzin kaleari (24. zenbakia), behinola herriko ate izanari, fronte emanez duen kokaera bikaina da alde horretatik. Kale horrek pendiz handi xamarra du, eta horrek eraginik, fatxadaren alde bateko eta besteko koten artean metro beteko aldea dago. Erlaizaren altura, kalearen mailatik kontatuta, hamabost metro eta laurogei zentimetrotakoa da fatxadaren eskuineko ertzean.



Fatxada egiteko hareharrizko harlandua erabili da, zerrendatua, altura desberdinetako iladatan jarria, ilada altura erabilena hogeita bost zentimetro inguruko delarik.

Fatxada osoak harrizko horma baten itxura du, bertan zenbait elementu nabarmentzen direla, batzuek besteak baino garrantzia handiagokoak, agerikotasunari dagokionez.

Hormaren errematea erlaitz bat da, harrizkoa hura ere, bi partetan banatua: itokin bereizle gisa balio duen zerrenda mehe bat, eta haren gainetik hareharrizko harlanduzko ilada bat, altura uniformerik gabea, eraikuntzaren perimetro osoan etenik gabe jarraitzen duena.

Erlaitzaren ertz banatan badira harrizko hodi batzuk, berrogeita hamar zentimetro inguruko luzerakoak, estalkira zetorren ura bildu eta fatxadatik ahalik eta urrutienara botatzeko jarriak. Hirigintzako saneamendu azpiegiturak ezarri direlarik, eginkizun hori galdu eta apaindura soil bilakatu dira elementu horiek, goitik behera zulatu baitira, eta handik jarri dira euri ura jaisteko hodiak. Ohargarria da, hala ere, bi hori horiek elkarren berdinak ez izatea:

- Ezkerrekoa harri bloke laukizun soil bat da, aurreko aldean zulo biribil bat duela.

- Eskuinekoak aldiz, halako erliebe edo irudi gisako bat du muturrean.


Eraikuntza honen elementu ohargarri berezietako bat erlaitz-euskarriak dira; harrizkoak dira, fatxada osoan zehar horman txertatuak, iladatan ordenatuak. Erlaitz-euskarri edo modiloi horiek altxaera honetan eta ageriko beste bietan ere badira (hegoekialdean eta Hegomendebalean). Fatxada honi dagokionez, bi idalantan daude, goiko aldean, azkeneko leiho-sarrearen gainetik. Gorenko ilada sei piezek osatzen dute, beren artean tarte erregularrik ez dutela. Behereneko ilada, goikotik metro bete ingurura dago, eta haren banaketa berbera du.

Harri hauen eginkizuna soldaduak jartzen ziren talai gisako zurezko egitura batzuen euskarri izatea zen. Uste izatekoa da bertan izan ziren gduetakoren batean suak hartu zuela, zurezko egitura guztia suntsitu zela eta haren euskarriak geratu zirela soilik, han izandako egituraren lekuko. Edota bestela, bake gehiagoko garaietan egitura horiek zaindu ez izanak behartu zuen haiek alde batera uztera.

Fatxada honetako hutsune eta sarguneen banaketak badu bere garrantzia, horietatik antzematen baita Morrontxoren bilakaera zein izan den. Hamabi hutsune dira guztira; era honetara bana daitezke:

- Sarrerako atea, ojiba arku zorrotz antzeko eta dobela handiko baten barruan kokaturik. Zur trinkozko ate atalak ditu.

- Gainerako hamaika hutsarteak leihoak dira; leiho horietatik hiru balkoi-leihoak. Gainerako zortzi leihoak era askotakoak dira, neurritz, kokaeraz, formaz eta garaiz elkarren desberdinak baitira guztiak



Hutsarte multzo honek ez du inolako ordenarik ez osakera baturik, jatorriz ziren hutsuneen gainetik eraberritzeetan egindako berriak erantsi baitira, eraikuntzaren erabilera aldatzeak ekarri zuen barne banaketa berriaren premiek eskatu bezala.

Hutsarte horiek bakoitzari dagokion garaiaren arabera sailkatzen badira, eraikuntzak jatorriz zituenak altxaera honen beheko erdialdean aurkitzen dira, eta mende honetako eraberritzeek eraginak fatxada osoan han eta hemen banatuta. Antzinako leihoak, goitik behera eta ezkerretik eskuinera, hauek dira:

- Arku gotikozko leiho soil bat bigarren iladan.
- Haren eskuinean, bi ataleko leiho bat, leihoburuan ez ahurrak eta leihobarena harrizkoa duena.
- Ondoren, leiho atalkatu bat, moldurek bi ataletan banatzen dutena, goiko aldean bi zirkulu erdi eratzen dituela.

- Beheko iladako ezkerreko muturrean, lehenengo solairuan alegia, bi ataleko leiho bat ageri da. Hutsune honek fatxadako materiala ez bezalako horma harrizko betegarri bat du beheko partean. Morrontxoren eta bere aurreko Torrekuaeren artean hiriko ate bat izan zela kontuan harturik, eta orobat Torrekua horren fatxadan beste sarrera simetrikoko bat zela kontuan harturik, pentsa daiteke ez ote zen izango bi horien artean Nafarroako ate horren gainetik zihoan lotura bideren bat.





Eraikuntzaren beheko solairua.

- Eskuinean, beheraxeago, eraikuntzak jatorriz zuen harrizko eskailerara argi ematen duen leihatila bat ikus daiteke.

- Ilada horren eskuineko muturrean lehendik zegoen leiho atalkatu bat leiho bikoitz bihurtu zen.

Gainerakoari dagokionez, bi eredu daude: bi ataleko leihoa, edo berdina baino balkoiduna; horietako hiru daude, solairu bakoitzean bana, kokaera arauturik gabe. Mende honetako hogeitik aurrera egindako eraberritzearen ondorio dira denak.

Etxeko arotzeria guztiak zurez eginak dira; horietatik batzuk ordea, urdin-gris arteko kolore batez margotu ziren, eta beste batzuk zuraren berezko kolorea utziz bernizatu. Barnealdea, berriz, zuriz margotua dute guztiek. Leiho batuek eta balkoi batzuek leihatilak dituzte kanpotik.

Oso gauza bitxia gertatzen da gainera hiri azpiegiturako zenbait elementu, hala nola, telefono hariak, trafiko seinaleak, elektrizitate indarraren hariak, e.a. beheko solairuan nola dauden jarrita.

Orain arte aipatu gabe utzi dugu lehen solairurainoko altura duen eraskin bat, jatorrizko egiturarekin inolako zer ikusirik ez duena, eta haren kontzeptua lardas-katzen duena. Morrontxoren beheko parteari erantsita dagoen harresi zati baten gainean horma harriz eraikita dagoen eraikuntzatxo bat ari gara esaten. Txosten honen helburua Morrontxoko eraikuntzaren garrantzia aztertzea denez, honekin batera doan dokumentazio grafikoan (planimetriari), hobeto uler dadin, ez da sartuko elementu hori.

Fatxadaren kontserbazio egoera ona da oro har. Harlandua egoera onean dago, eta orobat arotzeria eta balkoiak ere, kale estu ia espaloirik gabeko horretatik etengabe igarotzen den trafikoak eragiten duen kutsadura salbu agian. Esan beharra dago orobat, fatxadaren ezkerreko aldean tarte handiagoak nabari direla harrien artean eskuinekoan baino; alde honetako zorua beste aldekoa baino geroago finkatu izanaren ondorio izan daiteke hori.

### 3.2.2. Albo fatxada (Hegoekialdekoa)

Lehen esan den bezala, hurrengo eraikuntzatik bereizten duen baratze tarte batera ematen du.

Fatxadaren materiala, fatxada honek duen garrantzi apalagoari dagokion bezala, ez da harlanduzkoa, karaitzezko horma harria baizik, kolorez arrosa xamarra eta leundu gabea. Fatxada ertzak harlanduz eginak dira, beste altxaera batzuekiko giltzatzea ziurtatu ahal izateko. Erlaitza eraikuntza guztiaren inguruan jarraia da.

Jatorriz fatxada hau harresiko horma zen; horrexegatik hain zuzen fatxada honetan hutsarte gutxiago dago bestean baino, eta txikiagoak gainera, ia denak. Ondoko hauek bereiz daitezke:

- erlaitzaren azpi-azpian puntu erdiko arku itxurako hiru hutsarte, gaur egun itxirik daudenak.

- altxaeraren erdialdean, gutxi gorabehera, lehiatila polit bat, arotzeria lanik gabe, harrizko eskaileraren bigarren zatira argi egiten duela.



- horren eskuinean gilotina leiho bat, leihoburua ertzeran biribildua duela, bere garaian erlaitz euskarrietatik zintzilik zegokeen zurezko egiturarako irteera atea zatekeena.

- beheraxeago, aipatu den lehiatilaren ezkerrean, aipatu berriaren gisa bereko leiho bat, lehenengo solairuko balkoi-ate bihurtu dena.

Horiez gainera badira beste sei hutsarte “moderno”:

- hirugarren solairuan bi balkoi,





- bigarren solairuan bi leiho bikoitz,

- beheko solairuan bi ate, kale horretan berorretan dagoen altzari denda baten eta harekin diharduen lantegitxo baten biltegi gisa erabiltzen diren bi barrunbeta-rako sarrera direnak.

Esan da lau balkoi direla guztira: bi hirugarren solairuan, elkarrekin lerrokatu-rik, beste bat bigarren solairuan, eta laugarrena horren azpian; bi hauek, ordea, ez daude elkarren bertikalean.

Antzinako hutsarteek elkarren berdin duten ezaugarrietako bat, denek harehar-ritzko harlanduz egindako ate edo leiho burua, leiho barrena eta atalagak izatea da; era horretara hain zuzen, hormarekin ondo giltzatuko zirela ziurtatzen baitzen; hutsarte modernoak aldiz, harlangaitzezko horman zulatu eta ebakita daude.

Arotzeria lanari eta leihoen barrenaldeari dagokionez, fatxada nagusiko joera berari jarraitzen zaio fatxada honetan ere.

Espazio honetan eraikuntzari eratzekita jaso den eraikuntzak isuralde baka-rreko estalkia du, ura orube barrura isurtzen dela. Eraskin honen ezker aldeko goialdean bada atal biko leihotxo bat.

Erlaitz euskarriei buruz hitz egitean esanik utzi dugu eraikuntza guztian dire-la halakoak. Alderdi honetan oso banaketa harrigarria dute hala ere, lehengo traza-erarekin ez baitute loturarik. Lau ilada bereiz daitezke: goiko biak hirugarren solairuari dagokion alturan daude eta metro beteko tarte dute beren artean; horien azpian, bi metro eta erdi inguru beherago beste ilada bat dago, eta beste horren-bestera behearenkoa. Ilada horietako bat ere ez dago osorik, zeren itxuraz behin-tzat ilada guztiek harri kopuru berbera bide zuten, elkarretatik tarte berera, eta orain berriz zenbait tarte hutsik daude.

Bigarren solairuko ezkerreko bi leihoen artetik igarotzen den lerro bertikale-an euria jaisteko hodi bat igarotzen da; hodi hori, eskuinetarantz angelu bat eratu-rik, oso modu irregularrean bukatzen da lehenengo solairuko balkoiaren atalburuaren gainean.

Esan daiteke fatxada honen kontserbazio egoera ona dela, oro har, euria jais-teko hodi horren egoera salbu; hobeto pentsatu beharko litzateke hodi hori non jarri, eta kokaera egokiagoren batera eraman, eraikuntzaren osasunari kalterik egingo ez dion moduan.

### 3.2.3. Atzeko fatxada (Hegomendebaldekoa)

Udal merkatuaren atzeko aldean eskola batzuen patioarantz jaisten den hustu-laneko malda batera ematen du fatxada honek. Horregatik, hain zuzen, kanpotik ez du sarbiderik. Oina beste fatxadena baino aski beherago du: lau metro eta berrogei zentimetro fatxada nagusiaren oinaren punturik altuenaz behetik.





Eraikuntzaren beheko solairua.

Fatxada honetan aurrean aipatu denaren ezaugarri berberak errepikatzen dira: horma harrizko lana, erlaitz jarraitua...

Hamahiru hutsarte ditu guztira, horietako hiru itsutuak. Itsutu diren hutsarte horiek antzinakoak dira; bereziki ohargarria da fatxadaren ezkerreko aldean dagoena, laukizunena, mensuletan bermatua, Erdi Aroan hiriz kanpo zen aldera ematen zuen antzinako komunen bat edo izan daitekeena.

Fatxada honetan erlaitz euskarrizko bi ilada baizik ez dira geratzen, bata goiko aldean eta bestea fatxadaren erditsuan.

Fatxada nagusian bezala, euritako ura jaisteko hodiak ertzetatik jaisten dira, antzinako ur hodien kokaeraz baliatuz.

#### 3.2.4. Tarte hormako fatxada (Iparrekialdekoa).

Lehenago ere esan den bezala, bere garaian bestetatik bereizia izan eta gaur egun eraikuntzaren alturaren erdiraino Migel Aldunzin kaleko ondoko etxearekiko tarte horma den fatxada bat da.

Fatxadaren bi ertzetako koten artean hiru metro eta berrogeita lau zentimetrotako aldea dago; goreneko kota, fatxadaren ezkerreko ertzari dagokiona (fatxada nagusia ukitzen) hamasei metro eta laurogeita hamabi zentimetrotakoa da.

Fatxada honen eraikuntza materiala garrantzi apaleneko beste bi fatxadetako bezalakoexa da, karaitzezko horma harria, ertzetan harlanduz errematatua, erlaitz jarraitua, e.a. Erlaitz horrek berezitasun bat du: eskuineko muturrean erlaitzaren harrietako bost kanpora irtenak izatea, "almena" gisara. Itxura denez dorrearen perimetro guztia almenaz hornitua zen bere garaian, baina almena horietatik aipatu diren harri irten horiek baizik ez dira gorde gaur arte.

Ohartarazi beharra dago, orobat, gaur egun itsuturik dauden hutsarte horiek, hiru ojiba leiho direla, fatxadaren goiko aldean, Hegoekialdeko fatxadan ageri ziren leihoen simetrian. Haiek eginik dauden material berberez eginak dira hauek ere, eta forma ere berdina dute.

Horma honen kontserbazio egoera ona da, itxuraz bederen.

### 3.3 Barneko itxura

Eraikuntza honek kanpotik duen koherentzia, bere harrizko horma sendoek bermatzen dutena, erabat hausten da barruan; hori dela eta behetik gora atal hauek bereiziz artetu ahal izango dugu:



- Eraikuntzak jatorrian zuen karga hormazko eta zureriazko egitura gordetzen duen zatia; beheko solairua eta lehenengo solairua hartzen ditu. Zati hori bitan banatzen du fatxada nagusiaren paralelo dagoen karga horma batek, horma horretatik igarotzeko arku batzuk eta zenbait ate dituela.

- Etxebizitzetarako erabiltzen diren bi solairuak, mila bederatzirehun eta hogeita bostean egindako eraikuntzaren eraberritze batean sortuak; hormigoizko egitura dute, karga hormaren gainean bermatua.

Bikoiztasun hori oso garbi ageri da eskaileran ere. Lehenengo eta bigarren solairuetara jatorrizko eraikuntzatik geratu den bi ataleko harrizko eskaileratik dago irispidea; bigarren eta hirugarren solairuetako etxebizitzetara iristeko berriz, hiru ataletako hormigoizko beste eskailera bat egin zen, 1920 ondoko aipatu eraberritze horretan. Gainera, bigarren eta hirugarren solairuen artean dagoen altura handia igaro ahal izateko, eta bestela lekurik ez zelako, bigarren etxebizitzetako batek lehendabiziko eskailera mailadiaren gorenko pausalekutik du sarrera, eta etxebizitza barruan beste horrenbeste maila igo behar dira solairu horren maila iritsi ahal izateko. Eraikuntzaren erabilera aldatu izanaren eta espekulazioarengatik erabilgarri zeuden metro koadroak ahalik eta gehien aprobaxatu beharraren ondorioa da hori guztia.

Harrizko eskaileraren interesa azpimarratzekoa da, alde batetik Erdi Aroan lehenengo solairuak behekoak baino garrantzi handiagoa zukeela iradokitzen delako, lehenengo solairu horretara bitarteko eskailera mailen zabaltasunak erakusten duen bezala, eta bestetik eskailerako lehen mailadiaren gorenko pausalekutik fatxadarako irtenbide bat ote zen iradokitzen delako han den leihoaren bitartez







Eraikuntzaren beheko solairua.

(leiho horren beheko zatia fatxadaren gainerakoa ez bezalako horma harriz egina izateak ate bat izan zela ematen baitu aditzera).

Erabilerei dagokionez, beheko solairua alde batetik eta etxebizitzarako erabiltzen den gainerakoa bestetik bereiz daitezke.

Beheko solairu horretan dira:

- ataria, behebarru txiki batekin, eta harrizko eskailearen lehenengo mailadia
- Hiru biltegi barrunbe; horietako bitara kaleko atearen aurrez aurre dauden bi atetatik da sarbidea. Barrunbe horietako bat estua da oso (metro bete eta laurogei zentimetro), bestea zabalagoa, baratzera irteera duela, eta handik beste barrunbera joan daiteke, hartara baratzetik baizik ezin baitaiteke sartu. Hau da neurritz handiena; barrunbe honek lehenengo solairuari eusten dion zureriazko egitura agerian du.

Barrunbe horiek aski eskasa dute osasun eta segurtasun egoera. Egiturari dagokionez, itxuraz behintzat, arazorik ageri ez duten arren, izan daitezkeen suteei dagokionez, kezkatzekoa da horien egoera. Elektrizitate indarraren instalazioa agerian dago, inolako babesik gabe, eta oso egoera eskasean, bai kokaerari dagokionez bai loturei dagokionez, e.a. Aireztatzeari dagokionez ere baldintza eskasak





Eraikuntzaren beheko solairua.

dituzte, eta biltegietako batean zehar katu janari usteldua barreiatu egoteak areago narrastean zuen egoera.

Etxebizitzetara dagokienez, bakoitzaren banaketa, berorren eraikuntzan erabili diren gaiak, e.a. jabe bakoitzaren nahierara erabaki dira, eta ez dago arau jakirik horien artean. Horren guztiaren deskribapen osoa, ezinezkoa izango litzateke alde batetik, eta inolako interesik ez du, bestetik. Gauza bakarra geratzen da: sei etxebizitza direla komendatzea, era honetara banaturik:

- Lehendabiziko solairuan bi etxebizitza: bata 45 m<sup>2</sup>-takoa, fatxada nagusira ematen duena, kanpora bi leiho dituena. eta bestea 93 m<sup>2</sup>-takoa, kanpora begira bost hutsarte eta aireztapen patioa beste bi dituena.

- Bigarren solairua hiru etxebizitzetan banatuta dago: Fatxada nagusira ematen duenak 46 m<sup>2</sup> ditu, eta bost hutsarte ditu kanporantz; beste biak bata 42 m<sup>2</sup>-takoa eta beste 30 m<sup>2</sup>-takoa dira, eta hiru eta bi hutsarte dituzte fatxadarantz.

- Hirugarren solairuan etxebizitza bakarra da, 90 m<sup>2</sup> ingurukoa, eta zazpi hutsarte ditu kanpoko aldera.

Kontserbazio egoera ona da batez beste, hezetasun arazoren bat edo beste salbu, lehen esandako eskailera patiokoak eta etxebizitzaren batean diren batzuk alegia. Esan beharra dago gainera, etxebizitzaren banaketaren irregulartasunaren ondorioz, arazoak direla zenbait geletara aireztapen naturala iritsi ahal izateko, eta horrenbestez lurrun kondentsazio handiagoak izaten direla; horrez gainera bero-gailu sistemak ere aski ahalgabeak izaten dira harrizko horma lodiak eta eguzki gutxi duten espazio handiak berotu behar dituztenean.

#### 4. ONDORIOAK

Esan den guztiaren ondorioz, Morrontxok historiaren ikuspegitik duen garrantzia ateratzen da lehendabiziko ondorio gisa. Erreteriarren iragana erakusten duen garrantzi handiko aztarrena da, eta horrenbestez eraikuntza horren egoera ahalik eta onena izan dadin nahi izatekoa litzateke.

Esan daiteke, Torrekuan gertatzen zen bezala, defentsarako eraikuntza izate-tik etxebizitzetarako erabilera bihurtzea izan dela eraikuntza honen etsairik gaizto-ena. Aldakuntza hori fatxaden estetikaren banaketaren iragarri da kanpotik; barrenetik, berriz, bere espazioaren banaketaren guztizko aldakuntzan, eta bere egituraren zati bat aldatu izanean. Horri buruz xehe eta luze hitz egin da lehenago; baina gauza harrigarria badirudi ere, horretxek salbatu du agian eraikuntza hau bere hondamenetik edota are erabat desagertzetik, defentsa erabilera hori bera zuten eta erabat desagertu diren beste hainbat eraikuntzari gertatu zaion bezala.

Gauza desiragarria izango litzateke zinez Erreteriarren iraganaz esatekorik asko duen honelako monumentua berreskuratuko balitz. Hori, noski, ezin adostuz-koa da gaur egun duen erabilerarekin. Hori alde batera utzita, Udalak kontu hartu beharko luke gaur egun geratzen den zatia kontserba dadin, desagertu ez dadin, behintzat.




**BIBLIOGRAFIA**

- ALDABALTRECU, Roque: *Casas solares de Guipúzcoa*, San Sebastián, 1979.
- ARIZAGA, Beatriz.: *Urbanística medieval (Guipúzcoa)*. San Sebastián, 1990.
- AYERBE, E.: *Ibaiak eta Aranak*, San Sebastián, 1990.
- HEERS, Jacques: *El clan familiar en la Edad Media*, Barcelona, 1978.
- Grand Atlas Universalis de l'Architecture*, Paris, 1989.
- GABARAIN, María Teresa: "El origen del liberalismo en Rentería" *Bilduma*, 6. zbk., Errenteria, 1992, 9-82. or.
- GARCÍA CARAFFA, A. y A.: *El solar vasco-navarro*, San Sebastián, 1966-67.
- KORTADI, E. - MORENO, M. - ARAMBURU, M.A.: *Euskal Artearen Historia/ Gotikoa, Guipuzkoa eta Iparraldean*, San Sebastián.
- LINAZASORO, J.I.: *Permanencias y arquitectura urbana*, Barcelona, 1979.
- MARTÍNEZ GORRIARÁN, Carlos: *Casa, provincia, rey*. Irún, 1993.
- OBESO, Xabier: "Las murallas del este de la Villa de Rentería". *Oarso*, 1989, 117-118. or.
- PONTE ORDOQUI, E.: "Torres Medievales de Rentería: Torrekoa y Morrontxo", *Bilduma*, 1. zbk., Errenteria, 1987, 53. or. eta hurr.
- PORTILLA, Micaela: *Las torres de Mendoza y Martionda*, Vitoria-Gasteiz, 1985.
- SAN JOSÉ: *Castillos y torres fuertes del País Vasco*, León, 1994.
- TORRECILLA, M.J. - IZARZUAGA, Y.: *Bilbao, arte e historia*. Bilbao, 1990.
- VALDEÓN BARUQUE, Julio: "Reflexiones sobre las murallas de la Castilla medieval" *La ciudad y las murallas*, Madril, 1991.
- VIOLLET-LE-DUC: *Encyclopédie médiévale*, I. liburukia, Evreux, 1979.
- YBARRA, J.: *Torre Luzea*, Vitoria-Gasteiz, 1962.





AURKIBIDEA



4

# ZUBIAURRE JAUREGIA



BARRUTI HARRISTUA ETA ARABALA - XVIIII MENDIAK 491

ERANTZUA 491

4.1.1. Katalunian 491

4.1.2. Madrilan 491

4.1.3. Tolosan 491

4.1.4. Arriaran 491

4.1.5. Bilbon 491

D - ZUBIAURRE JAUREGIA 491





## AURKIBIDEA

I. AZTERKETA HISTORIKOA .....	173
1.- Oinetxearen jatorria .....	173
1.1.- Izen arazoak .....	173
1.2.- Pedro de Zubiaurre jenerala .....	174
2. Pedro de Zubiaurreren herentzia .....	176
3.- Zubiaurre jauregia XVIII. mendean .....	177
4.- Zubiaurre jauregia XIX. mendean .....	179
5.- Fatxadako armarria .....	181
6.- Ondorioak .....	182
Bibliografia .....	183
II. ARTE AZTERKETA .....	185
1.- Oina .....	185
1.1.- Orubea .....	185
1.2.- Jauregi multzokatu .....	186
2.- Altxaerak .....	189
2.1.- Iparraldeko altxaera .....	189
2.2.- Mendebaleko altxaera .....	190
2.3.- Ekialdeko altxaera .....	190
2.4.- Hegoaldeko altxaera .....	191
3.- Elementuak .....	194
3.1.- Erlaitzak .....	195
3.2. Modiloiak .....	196
3.3. Taulamenduak .....	196
3.4. Armarria .....	198
3.5. Ekialdeko fatxada .....	198
Bibliografia .....	199

III. ARKITEKTURA AZTERKETA .....	201
1.- Inguruaren eta kokaeraren deskribapena .....	201
2.- Orubearen forma eta lursailaren ezaugarriak .....	202
3.- Eraikinaren kanpoko itxura .....	202
3.1.- Estalkia .....	202
3.2.- Fatxaden deskribapena .....	203
3.2.1.- Hegoaldeko fatxada .....	203
3.2.2.- Iparraldeko fatxada .....	205
3.2.3.- Mendebaleko albo-fatxada .....	207
3.2.4.- Ekialdeko albo-fatxada .....	209
4.- Etxearen barneko aldea .....	210
4.1.- Beheko solairua .....	210
4.2.- Lehenengo eta bigarrenko solairuak .....	210
5.- Ondorioak .....	213
BIBLIOGRAFIA OROKORRA .....	214



# I

## AZTERKETA HISTORIKOA

### 1. OINETXEAREN JATORRIA

Gaur egun Zubiaurre Jauregia izenez ezagutzen dugun etxea izango da, seguru aski, bere bilakaera historikoa zehazteko zailtasunik handienak ematen dituen. Eraikin horren historiari buruzko oso datu argigarriak eman ditzaketen zenbait artxibo pribatutara jo ezin dugunez, ondoren azaltzen dena, hipotesi arrazoitu baten azalpena baino ezin izan daiteke –gerora dokumentazioak berretsiko duen itxaropenez–, nolana ere, Zubiarre Jauregiak Erretereriako herriaren osaketan izan duen garrantzia hobeto ulertzeko datu argigarriren bat emango dugulakoan gaude.

#### 1.1. Izen arazoak

Zubiaurre Jauregia aztertzean uanean sortzen den lehenengo arazoa izena bera da, ez baita Erretereriako toponimian ez eta bertako, herriko agirietan jasotzen *Zubiaurre* izenik. Gaurko egunetik atzera eginez, **Antontxu Sainz** erretereriar ikertzaileak *Antia Enea* izena jasotzen du aztertzen ari garen etxearen izen gisa, Gerrate Zibila piztu arte bertan bizi izan zen iturkin edo olagizonak deitura hori baitzuen. Gaurko jabeak *Amasa Enea* edo *Elizalde Enea* izenez ezagutzen du, nolana ere, gerora aztertuko ditugun izenak dira.

Amasa Enea izena jasotzen da Udal Artxiboko dokumentazioan. XIX. mendean bigarren erdialdeko agiritan behintzat, Amasa<sup>1</sup> izena ageri da Santa Klara kalea, 1<sup>2</sup> gisa identifikatzen den orube bat izendatzeko. Izen hau, bestalde, 1857, 1863, 1885-1886, 1887-1888, 1892 eta 1909. urteetako jabetza estadoetan ageri da, nahiz eta nagusitzen doan izena Santa Klara<sup>3</sup> kalea izan.

Datuak urriak badira ere, oraingoan aztertzen ari garen jauregiaren izenik zabaldueña *Amasa* izango dela pentsatzen dugu; hala ere, Zubiaurre izenaren jatorria ere zehaz genezake. Jarraian oinetxeak XVI. mendetik gaurdaino izan duen bilakaeraren egiantzeko planteamendu bat egingo dugu.

## 1.2. Pedro de Zubiaurre jenerala

Etxearen egungo izena, inolako zalantzarik gabe, Pedro de Zubiaurre, *general del mar océano* emana da, edo gaurko terminologia erabiliz, almiranteak emana. Militar honi buruzko datu biografiko gutxi dira, baina badakigu Felipe II eta Felipe III erregeen itsas armadan jardun zuela 1605. urtean hil zen arte. Pedro de Zubiaurre, beti ere eskuartean ditugun datu urrien arabera, Gaztelako Koroaren eta Holandako Probintzia Batuen arteko gerretan nabarmendu zen<sup>4</sup>.

Nolanahi ere, aztertzen ari garen gaiari lotuz, urriak dira Pedro de Zubiaurreren eta Erreteriar herriaren arteko erlazioa ezartzeko baliagarriak izan ditzakegun datuak. Hiru erreferentzia baino ez ditugu eskuartean. Horietako bi XX. mende aurrekoak dira eta hirugarrena, **Polentinoseko Kondeak**, 1916. urtean argitaratutako artikulua bat; gerora ikusiko dugunez, berau izango da argigarriena.

Lehenengo aipamena **Francisco de Gainzaren**<sup>5</sup> *Historia de Irún-Uranzu* obra da eta, bigarrena, erreteriar historiagile **Gamonen**<sup>6</sup> obra entzutetsua. Bi aipamen horietan sortzen den arazorik larriena Zubiaurreren jatorria da. Gamonek bere obran jeneralaren balentria handien erreferentzia zabal bat egiten du, eta jenerala izatez erreteriarizat jotzen du. Aldiz, Gainzak erreteriar historiagileak azaldutakoaren aurka, 1738. urtean argitaratutako bere obran, Irunen kokatzen du haren jatorria.

Pedro de Zubiaurreren hirugarren aipamen bibliografikoa —eta dokumentatua gundaino— Polentinoseko Kondeak *Euskalerrriaren Alde* aldizkarian 1916.

<sup>1</sup> EUA, B Saila, 4. Bulegoa, I. Zerbitzua, I. Liburua, 1. Espedientea.

<sup>2</sup> Datu hau Udal Artxibategian jasotzen den jabetza estatu batean ageri da; datarik gabekoa bada ere 1845. urte inguruan koka daiteke. Santa Klara kalearen gaurreguneko zenbakiak ez datoz bat garai hartakoekin.

<sup>3</sup> EUA, B Saila, 4. Bulegoa, I. Zerbitzua, I. Liburua, 1. Espedientea.

<sup>4</sup> Pedro de Zubiaurre izan zen ekintza militarren zerrenda bat Guadalajarako Frai Markosen obran ageri dira: *Historia Pontifical*, 4. zatia, Zaragora 1612, jenerala hil eta urte gutxiren buruan argitaratua.

<sup>5</sup> Francisco de GAINZA: *Historia de Irún-Uranzu*. 1737ko jatorrizkoaren faksimilezko argitalpena. Donostia, 1987.

<sup>6</sup> GAMÓN, J.I.: *Noticias históricas de Rentería*, Donostia, 1930, 290-294. or.



1916. urtean argitaratua da<sup>7</sup>. Artikulu horretan autoreak garbi erakusten du jeneralaren jatorri bizkaitarra eta, zehazki, Bolibarko elizatean, Zenarruzan, 1541 eta 1542. urte bitarteko egun zehaztu gabe batean kokatzen du haren jaiotza<sup>8</sup>. Beraz, ontzat ematen dugu Polentinosen tesia, Zubiaurreren jatorria Bizkaian finkatzen duena, baina, orain, benetan interesatzen zaiguna Errenteriako Herriarekin duen erlazioa da.

Pedro de Zubiaurre, García Caraffa-ren arabera<sup>9</sup>, Oiartzungo oinetxe bateko Leon de Zurko iskribauaren alaba **Maria Ruíz de Zurkorekin** esposatu zen, zehaztu ez den egun batean; berau, aldi berean, *Yerobiko Antxoren oinetxeen* oinordeko zen. Hala bada, Hiriko famili nagusienetako baten ondasunen oinordeko da. Bere ahaideen artean bat 1425. urtean hiriko alkate arrunta izan zen Hiriko eta Murgiako jaureriko mugak finkatzen dituen agirian ageri delarik bere izena<sup>10</sup>. Yerobi deitura, berriz, XVI. mendean Juan de Yerobi jaunari lotuta dator, 1541. urtean Madalena ermita, Bizarain mendian eraiki zuenari lotuta alegia.

Beraz, ezkontza hori tarteko, Pedro de Zubiaurre ondasun batzuren jabeakide bihurtzen da eta, xehetasun gehiagorik ezean, oinetxeren bat izan zitekeen horietako bat; eta, seguraski, Errenterian, XV. mendetik aurrera aurkitzen ditugun Yerobitarren familiakoa izango zen.

Pedro de Zubiaurre 1605. urtean Ingalaterrako Dobra itsasportuan hil zen, baina ordurako –Polentinoaseko Kondeak dioenez– *bere armarrria zeraman etxe bat eraiki zuen hirian*<sup>11</sup>. Pentsatzekoa da, Udaletxean egin nahi zenaren antzera<sup>12</sup>, bere armak erakusten zituen zurezko armarrria izango zuela. Dena den, aurrerago ikusiko dugunez, armarrriak ere beste arazo batzuk sortzen ditu.

Hurrena argitu behar den gaia Irunekin zuen lotura da. Harreman horrek bere alabetako bat, **Ana de Zubiaurre** eta Irungo seme Juan de Astigarraren arteko ezkontza du oinarri. Polentinoaseko Kondearen iritiz Pedro de Zubiaurre bera Irunen ehortziko zuten. Eta hori egiaztatzeko Hiriko parroikiko hilarria aipatzen du. Harlosa hori, ordea, XIX. mendean egin ziren erreforma obra batzutan desagertuko zen, seguraski. Baina, zenbateraino da zehatza informazio hori?

Egia da ehorzketaren arrazoi hori kontuan izan behar dela. Baina, gaia gehien argitzen duen agiria Katalina Ruiz de Zurkoren testamentua da –Maria Ruiz de Zurkoren ahizpa eta, beraz, Pedro de Zubiarrearen koinata– 1650eko otsailaren 12an Azkoitiako eskribau Gabriel de Ahearberen aurrean emandakoa.

<sup>7</sup> POLENTINOSEKO KONTEA: “El Almirante Zubiaur era vizcaíno” in *Euskalerrriaren Alde*, 1916, 141. zbk. 625-634 or.

<sup>8</sup> POLENTINOSEKO KONTEA: Op. cit., 632.

<sup>9</sup> GARCÍA CARAFFA, A. ETA A.: *El solar vasco-navarro*, Donostia, 1966-67.

<sup>10</sup> CRESPO RICO, M.A. - CRUZ MUNDET, J.R - GÓMEZ LAGO, J.M.: *Colección Documental del Archivo Municipal de Rentería*. 1 Alea, Donostia, 1991, 147-158 or. (Fuentes Medievales del País Vasco, 32. zbk.

<sup>11</sup> POLENTINOSEKO KONTEA: Op. cit., 633.

<sup>12</sup> Ikus Udaletxeari buruzko azterketa historikoa.

Testamentu horretan baieztatzen da Katalina izan zela, artean Madrilen zen bere ahizparen nahia betez, Pedro de Zubiaurreren gorpua Erreterriako parrokian lurperatzeaz arduratu zena. Nahikoa datu zehatza da, Jasokundeko Andre Mariaren elizan lurperatu zutela jenerala 1605eko irailaren 17an<sup>13</sup>. Irungo hila-riak, honenbestez, jeneralaren herentziarekin loturik dagoela dirudien arren, ez du zerikusirik bere lurperatzearekin, ondoren ikusiko dugunez.

## 2. PEDRO DE ZUBIAURREREN HERENTZIA

Pedro de Zubiaurreren nortasuna eta bere heriotzaren ondoren izandako arazoak argitu ondoren, oinetxearen nondik norakoa XVII. mendearen hasieratik gaurdaino zehazten ahalegindu behar dugu.

Ikusi dugunez, XVII. mendearen hasieran hil zen Pedro de Zubiaurre Ingalaterran eta bere alarguna Madrilen bizi zen 1650. urte hartan. Ezkontza horretatik hiru alaba sortu ziren: **María, Ana eta María Ana**. Lehenengoa León de Zurkorekin ezkondu zen, militarra eta haren lehengusua berau, eta ez zuten seme-alabarik izan. María Ana, ezkongabea, 1650. urtean hil zen. Ana de Zubiaurre, berriz, Irungo seme Juan de Astigarrakin esposatu zen, oinordekorik izan zutelarik familiaren ondorena ziurtatuz.

Alaba honek, bere aitaren oinordeko zenak, Felipe III erregeak hari 1610eko uztailaren 10ean eman zion errenta jasotzen zuen, urteko 100 ezkutu<sup>14</sup>; eta diru horrekin, beti ere, Gainzaren obraren arabera, *fundó un mayorazgo en Yrún con cláusula de incompatibilidad en caso de unirlo con otro mayorazgo, poniendo por fondo su casa Zubiar sita en Yrún, y en su cimiterio formó una sepultura con distinción, aunque sin preferencia alguna, donde ella se enterró, y después también su sucesora doña María de Zubiaur y Zurko*<sup>15</sup>, *que murió en la Villa de Rentería dos leguas de Irún, y se mandó enterrar en dicha sepultura. Y por su muerte recayó, y se le unió dicho mayorazgo con el de Astigar, también fundado en Irún*<sup>16</sup>

<sup>13</sup> Pedro de Zubiaurre jenerala Ingalaterran hil zen 1605eko abuztuaren 3an (GAMÓN: op. cit., 292. or.) baina 1650era arte ez zuten Erreterrian hilobiratu. Haren hilobia 1612an egin zen hilobi euskarri batean dago (cfr. GAMÓN: op. cit., 293. or. eta VÁZQUEZ, Elena - MURO, Koro: *Nuestra Señora de la Asunción de Rentería. Estudio histórico-artístico*, Rentería, 1993, Dokumentu eraskina, 12. zbk., 114-124. or.).

<sup>14</sup> POLENTINOSEKO KONTEA: Op. cit., 629. or.

<sup>15</sup> León de Zurkorekin ezkondua eta ondorengorik gabe Erreterrian zendua.

<sup>16</sup> "Irungo maiorazkoa sortu zuen beste maiorazko batekin elkartzeko bateraezintasun klausula ezarri eta ondare gisa Irungo herrian zegoen Zubiaur etxea jarri zuelarik. Aldi berean, bertako kanposantuan ohore baina baina lehentasunik gabeko hilobi bat egin zuen, eta bertan hartu zuen lurra berak eta baita gerora bere ondorengo Maria de Zubiaur eta Zurko andereak ere, Erreterrian, Irundik bi legoatara, zendu zena eta lurra hilobi berean eman ziezaioten eskatu baitzuen. Eta bere heriotzaren ondoren bere maiorazkoa Astigarrarenari lotu zitzaion, berau ere Irunen kokaturik zegoena".  
GAINZA: Op. cit, 28. par., 150. or.



Beraz, hau guztia medio, konpondurik geratzen da Irungo hilobiak sortzen duen arazoa. Ez da, bada, jeneralaren hilobia bere alabetatik birena baizik. Bestalde, Zubiaurreren maiorazkoa denbora-epe laburrean desagertzen da. María de Zubiaurre hil ondoren, eta bateraezintasun hura izan arren, Ana de Zubiarrekin ezkondu zenez, Astigarraren oinordekotzari elkartzen zaio.

Pasarte honetan azpimarratu behar den beste gai bat da, Gainzak egiten duen baieztapena, alegia, Zubiaur etxea Irunen zela; gerora, ordea, ezeztatu egingo da. XVII. mendearen amaiera eta XVIII.aren hasiera aldera **Juan Olazabali** noblezia espedientea irekitzen zaio –*cavallero con exercicio del Señor Rey Carlos Segundo*<sup>17</sup>– Alkantara Ordenean sartzeko. Berau Juan Antonio de Olazábal eta María de Astigar, Ana de Zubiaurre eta Juan de Astigarren alabaren, semea da.

Noblezia espediente horren izapidaketarako kontsultatu diren testiguen berresten dute Pedro de Zubiaurre *no tuvo habitación en Irún*<sup>18</sup> eta horrela argitzen da Zubiarre Oinetxearen errenteriar kokapena. Argitzeke geratzen den zalantza, ondorioz, eraikina berria den edo jeneralak goresitako Yerobitarren oinetxea den jakitea da.

### 3. ZUBIAURRE JAUREGIA XVIII. MENDEAN

Mende honek garrantzia itzala du aztertzen ari garen eraikinaren historian, baina, zoritxarrez, garai hau da, era berean, dokumentazio gutxiena duena.

XVII. mendearen amaiera aldera Zubiarreko maiorazkoa Astigarrenari lotzen zaio, bertako ondasunen iraungipena ere gerta zitekeelarik. 1738. urte aurretik, Juan de Olazabalek, lehen aipatu dugun noblezia espedientea zela tarteko,

*introduxo demanda en la Real Chancillería de Valladolid, contra el poseedor del Mayorazgo de Astigar; y aviendo litigado un bien reñido pleito, por sentencias de vista y revista, se declaró la referida incompatibilidad*<sup>19</sup>, *y se adjudicó al dicho don Juan el Mayorazgo de Zubiaur con sus frutos y rentas desde el tiempo de la contestación; y con efecto oy lo goza su hijo don Juan Antonio de Olazábal, vecino y residente en Irún*<sup>20</sup>.

<sup>17</sup> “Carlos Bigarrena Jaun Erregearen bidez zaldun”.  
GAINZA: Op. cit., 170. or.

<sup>18</sup> “ez zela Irunen bizi izan”.  
POLENTINOSEKO KONTEA: Op. cit., p.629. Autoreak noblezia espediente bat erabiltzen du Alkantarako Zalduneria Ordenan sartzeko, baina ez du aipatzen haren jatorririk. Uste izatekoa da dokumentu hori Madrileko Archivo Histórico Nacional-eko Ordena Militarren Sailean egongo dela.

<sup>19</sup> Ana de Zubiaurrek beste maiorazko batekin batu ahal izatea eragozteko sartutako klausula aipatzen du.

<sup>20</sup> “demanda aurkeztu zuen Astiagarra Mayorazkoa zuenaren aurka Valladolideko Real Chancillerian, eta auzi eta istilu handitan ibili ondoren, kausaren bista eta epai askoren ondoren, aipaturiko bateraezintasun hori erabaki eta Zubiarrearen oinordekotza jaun Juani egokitzen zaio; eta ondare eta errentak gaurko egunetik aurrera bere seme Juan Antonio Olazabal jaunak, Irungo bizilagunak, gozatzen ditu”.  
GAINZA: Op. cit., 170-171. or.

Garai honetatik aurrera XIX. mendearen erdialdera bitarte ez da dokumentaziorik ageri eta, hortik aurrera, egungo jabearen familiari lotuta azaltzen da.

Oraingoz ezin genezake argitu nola igaro zen Olazabaldarren jabetza izatetik Amasatarrena izatera, izen horrekin azaltzen baita XIX. mendeko dokumentazioan eta, hori da, bestalde, bere izenik zabalduena.

Hipotesirik fidagarriena da maiorazkoa, hiriko beste famili printzipal zen Amasa familiari egokitzea. Famili honetako izenik garrantzitsuen **Martín de Amasa** da, Hiriko alkate eta prokuradore izan zena Batzar Nagusietan. 1621eko otsailaren 9an herriak parrokiaren benefizio oso baterako hautagai aurkeztu eta kargua lortzen du. Martín de Amasa 1683ko maiatzaren 21ean hil zen, bere azken borondatea José de Orkolagaren aurrean 1682ko abuztuaren 4ean azaldu ondoren. Eta Gamónen arabera bera da familiko azkena; beraz, are gehiago nahasten da bere oinordekotzaren gaia.

**Amasatarrenganako iragatea** –XVIII. mendean– ez dago behar bezain argi agiritan. Hipotesirik fidagarriena da berau Azeptitan lekututako familiara igaroko zela, lehenengo deitura **Elizalde** zuen familiara. Eskuratze hori herentzia bidez edota ondasunak erosiz gerta zitekeen, XVIII. mendea krisi garaia izan baitzen Gipuzkoan. Gamónen obraren arabera, erosketaren tesia indartzen bada, izan ere, errenteriar autoreak dioenez Martín de Amasaren herendentzi legatuak aipatuz, honakoa baitio:

*la casa solar de Amasa, pegante a la casa palacio de Uranzu, fue la principal, y de su habitación, tan larga como esta y poco menos ancha, en donde aprendí yo las primeras letras con el maestro de escuela Joseph de Sarbide; y comprándola don Juan Bautista de Elizalde, natural y vecino de esta Villa, la derribó y edificó hacia el año 1753 una bella casa de piedra sillería por el frente y las espaldas fijando en ella sus propias armas, y fundando un mayrazgo, la puso por cabeza y la habita hoy su hija doña María Rita de Elizalde<sup>21</sup>.*

Etxearen identifikazioa oso garbia da, honez gero aspaldian desagertu zen Uranzu jauregiaren ondoan kokatu eta XVIII. mendean eraikitako *aurre zein atzeko aldean harlandua duen etxea* gaurko Zubiaurre Jauregiak duen itxurari egokitzen baitzaio bete-betean.

Garai honetan aurrera datoz gaur egun Zubiaurre Jauregi gisa ezagutzen dugun historiaren zatirik ilunena. Izan ere, XIX. mendera arte itxaron beharko

<sup>21</sup> “Amasako oinetxea, Urantzuko jauregi-etxearen ondokoa, izan zen nagusiena eta hango gelan, hau bezain luzea baino estuxeagoa zena, ikasiko nituen lehenengo letrak Joseph de Sarbide eskolako maisuarekin. Eta herrian sortu eta bizi den Juan Bautista de Elizalde jaunak erosi ondoren bota eta 1753. urtean, aurre zein atzeko aldetan harlandua zuen etxe eder bat eraiki zuen, non bere armarrria erakutsiko zuen; eta gerora oinordekotza sortuz berau izan zen garrantzitsuen eta, gaur egun, bere alaba Maria Rita de Elizalde anderea bizi da”.

GAMÓN: Op. cit., p.308.



dugu etxe honen aztarnak berriro aurkitzeko. Alegia Elizaldetarrena izatetik **Iturriatarren** jabetza izatera igaro arte. Gaurko jabeak dioenez, iragapen hori familiak herentzia bidez egin zuen XVIII. mendeko bigarren erdialdeko zehaztu ezin izan den urte batean eta garai horretatik aurrera egungo jabeen esku izango da.

#### 4. ZUBIAURRE JAUREGIA XIX. MENDEAN

XIX. mende honetako lehenengo aipamena 1840. urtean ageri da. Agiri batean **Jauregi Zarra** aipatzen da, errege-bidearen parean, eta Jose Joakin Ganboene delako bat bizi dena, baina ez da bertan ezer azterketa honetako gai den etxea denik ziurtatzen duenik.

Lehenengo erreferentzia ez da data jakin batekoa, XIX. mendearen erdialdera koka badaiteke ere. Agiri horretan **Manuel Iturria** ageri da Santa Klara, 1, kaleko orube baten jabe eta, parentesi artean “Amasas” hitza. Horrek erakusten du, nolabait, hori dela denbora joan ahala hartu duen izena, jatorrizko Zubiaurre ahaztuz joan zen neurrian<sup>22</sup>.

Une horretatik aurrera Jauregiaren historia Erreterriako antzeko beste eraikinen berdina da (ikus Morrontxo). Hiriko industriaren garapenak langileentzako etxebizitzak egokitzeko beharra sortuko du, baina etxe honen edertasun handiagoa tarteko, bizitza bakarreko etxe izaten jarraitzeko aukera emango dio, oraindik urte gutxi batzuetan.

1857. urtean José María de Juan Martiñena, injineru zibila bizi da Zubiarre Jauregian bere emaztearekin, arrebarekin eta bi morroirekin<sup>23</sup>.

1863. urtean etxeko jabeak, Manuel Iturriak, 2.400 erreale jasotzen ditu errentaren ordainetan “finca Amasa”ren trukez. Baditu, ordea, beste hainbat ondasun, hirian bertan beste hiru etxeren jabe baita –bi Elizako kalean eta bestea Goiko kalean. Ondasun horiez gainera Olalde Bekoa, Tolare, Bizkarrondo, Anabitarte, Belabaran eta Iturizagaerdikoa baserrien jabe ere bada<sup>24</sup>.


Egoera honi XIX. mendearen amaiera bitarte eusten zaio. 1892. urtean Jose María de Juan de Martiñenak jarraitzen du oraindik maizter izaten eta urteko errenta gisa 600 erreale ordaintzen ditu, baina, jabetzaren titularitatea, oraingoan, Melitón Iturriarena da<sup>25</sup>.

<sup>22</sup> EUA. B. Saila. 4. Bulegoa. 1. Zerrenda. 1. Kaja. 1. Espedientea.

<sup>23</sup> EUA. B. Saila. 4. Bulegoa. 1. Zerrenda. 1. Kaja. 1. Espedientea.

<sup>24</sup> EUA. B. Saila. 4. Bulegoa. 1. Zerrenda. 1. Kaja. 1. Espedientea.

<sup>25</sup> EUA. B. Saila. 4. Bulegoa. 1. Liburua. 2. Espedientea.



Fatxada nagusia.

1909. urtean jabe berriak zenbait “kolonoren” berri ematen du eta 1911. urtean sei familia bizi dira bertan<sup>26</sup>.

Data horretatik aurrera Udal Artxiboan jasotzen den dokumentazioan ez da Zubiaurre Jauregia deiturikoari buruzko inolako informazio gehiagorik jasotzen eta, honenbestez, ikerketa une horretan, XX. mendeko lehenengo hamarraldian utzi beharrean gaude. Nolanahi ere, etxearen inguruan dauden zalantza eta puntu ilun ugari horiek argitu eta dokumentatzeko beharrezkoa izango da, ezinbestez, ikertzaileen esku uztea Elizondoko hirian gordetzen den familiaren artxibategi pribatua.

<sup>26</sup> EUA. B. Saila. 4. Bulegoa. 3. Liburua. 1. Espedientea.



## 5. FATXADAKO ARMARRIA

Zubiaurre Jauregia izenez ezagutzen dugun eraikinaren elementu bereizgarrietako bat fatxada nagusian dagoen armarrria da. Baina, elementu honek ere arazo larriak sortzen ditu interpretatzeko garaian. Azterketa honetan zehar ikusi dugu nola Zubiaurre Jauregia Oiartzuneko haraneko famili nagusienetako zenbait loturik agertzen den, hala nola, Amasa, Yerobi eta Zurko leinuei.

Gaur ageri den armarriak aipaturiko zenbait familiarenak gogorarazten ditu, eta Oiartzungo haranetik datoz denak. Famili horien artean nagusia **Ugartetarrena** da, bere armarriak haritz enborrean basurdea gurutzatuta erakusten du. Bestalde, beren oinetxe blasonatua **Altzibarren**<sup>27</sup> duten Oñazarren arteko ahaide nagusi diren Ugartetarren ondorengo bat Germán de Ugarte, Utrech-ko kardinalaren (gerora Adriano VI.a Aita Santua izango dena) eta Carlos I.a enperadorearen konfesatzailea da<sup>28</sup>. Eta, hain zuzen ere, Gamónek berari egotzen dio, Juan Martínezekin batera, 1530. urte aldera *Jauregi izen generikoa ematen zitzaion etxe baten sorkuntza*; seguraski, gaur egun **Kapitain Etxea** izenez ezagutzen dena eta Amasatarren etxearen antzekoa izango zena<sup>29</sup>.

Yerobitarren armarriko elementuak fatxadako blasoia gogorarazten dute, baina ez, ordea, Zurkotarrenak. Zubiaur eta Zubiaurre familien tradizio heraldikoa aztertuz gero bere armarriak eta egungo fatxadan ageri dena osatzen dituzten elementuen arteko antza handia igar daiteke. Beraz, hori horrela delarik, egun fatxadan ageri den armarrria Elizalde eta Amasatarren elementuen elkarketa bat izan daitekeen hipotesia azaltzera eraman gaitzake –beti ere, identifikazio positiboen baten zain– eta, honenbestez, bat etorriko litzateke eraikinaren izenarekin.

Gaur egun fatxadan ageri den armarrrian bi parte aski bereizituak ageri dira. Goiko aldean bi dorreren artean gurutze greko bat ageri da, Iturriotzeko auzoan jatorria duten Elizaldetarren armarriko elementua, hain zuzen ere. Beheko erdialdean oso nabari ageri dira Amasatarren armak, haritz enborraren erdian basurdea, alegia. Eta datu honek berresten du eraikina berriren zuena Amasa leinuko norbait izango zela eta, Gamónek baieztatzen duenari jarraiki, Oiartzungo haranetik, gaur egun oraindik oso garbi ez dagoen elkarketa baten bidez sortutakoa izan daiteke.

Adierazitakoak adierazi arren, Gipuzkoako etxe armarridunei buruzko monografiatan, Domingo de Lizaso kasu<sup>30</sup>, ez da Zubiaurre jauregia aipatzen. Heraldika-trataduetan ere, batez ere García Caraffa-tarrek eginikoetan ere<sup>31</sup>, ez da fatxadako armarririk jasotzen.

<sup>27</sup> LECUONA, Manuel: *Del Oyarzun Antiguo (Monografía Histórica)*, San Sebastián, 1959, 122. or.

<sup>28</sup> ERENCHUN, Juan de: *Apellidos blasonados*, San Sebastián, 1967, p.41.

<sup>29</sup> Ikus bion deskribapenak Erenchunen obretan Ugartetarrentzat (41. or.) eta García Caraffarenean Amasatarrentzat (1. liburukia, 291-292. or.).

<sup>30</sup> LIZASO, Domingo de: *Nobiliario de los palacios, casas solares y linajes nobles de la provincia de Guipúzcoa*, San Sebastián, 1901.

<sup>31</sup> GARCÍA CARAFFA, A. eta A.: Op. cit.

## 6. ONDORIOAK

Aurrez adierazitako guztiaren ondorio gisa, eta laburbilduz, esan genezake, Errenteriako oinetxe zaharrenetako bat dela eta hasieran **Yerobitarren** leinukoa izango zela. Gerora, herentzia bidez, Oiartzungo haranean jatorria zuten **Zurkotar**rengana pasa zen etxea dela.

Hauengandik, berriz, **María Ruiz de Zurkoren** bidez, **Zubiaurre** familia iragaroko zen, jeneralarekin esposatu zenean. **Ana de Zubiaurrek** maiorazkoa sortu zuen etxeko ondasunekin eta familia emakumezkoen bidez zabaldu zenez, jatorrizko izena galdu eta **Astigarreko maiorazkoari** bilduko zitzaion.

XVII. mendearen amaiera aldera, Ana de Zubiaurreren biloba, **Juan de Olazábalek**, maiorazkoa berreskuratuko zuen Astigarreko maiorazkoko oinordekoekin auzi luze bat izan ondoren. Eta azkenerako, **Zubiarre** izena galdu egin da.

XVIII. mendea hil ala bizikoa izango da oinetxearentzat. Mendeko lehenengo herenean, eta **Juan Bautista de Elizalde**k eskuratu ondoren, seguraski gaur duen kanpo itxura hartuko zuen. Eta, era berean, mende honetan igarotzen da jabetza, gaurko jabeen familia.

Oraingoz ezin daiteke garbi zehaztu noiz eta nola igaro zen eraikinaren jabetza Amasatarrengana. Pentsatzekoa da Elizaldetarren bidez etorriko zela, jatorri berdinekoa baina Azpeitian lekutatuko familiaren bidez izango egingo zela Zubiaurre Jauregiaren jabe.

XIX. mendearen hasiera alderako **Iturria familia** ageri da etxearen jabe, Elizaldetarren oinordeko zuzenak direnak, bestalde.

Fatxadako armariak ez du identifikazio garbirik. Egun esan daiteke, bakar bakarrik, Elizalde eta Amasatarren familiko armarien elkarketa izan daitekeela eta Amasatarrak eraikinaren jabe izateak hipotesi hori indartzen duela, baina ez dokumentatu.

Laburbilduz esan genezake, Antzinako Eregimenean zehar Errenterian izandako familia nagusei loturiko hiri jauregi bat dela. Famili horiek desagertzea eta Hiriak XIX. mendean zehar izan zuen bilakaera dela, eraikina etxebizitzetarako bihurtzea, alegia, Zubiaurre Jauregiak gaur egun duen narriadura eta egoera txarrraren errudun.



## BIBLIOGRAFIA

- CRESPO RICO, M.A.- CRUZ MUNDET, J.R.- GÓMEZ LAGO, J.M.: *Colección Documental del Archivo Municipal de Rentería. Tomo I*, San Sebastián, 1991 (Fuentes Medievales del País Vasco, 32).
- ERENCHUN, Juan de: *Apellidos blasonados*, San Sebastián, 1967.
- GAMÓN, Juan Ignacio de: *Noticias históricas de Rentería*, San Sebastián, 1930.
- GARCÍA CARAFFA, A. y A.: *El solar vasco navarro*, San Sebastián, 1966-67.
- GUADALAJARA, Fray Marcos de: *Historia Pontifical*, Zaragoza 1612.
- LECUONA, Manuel: *Del Oyarzun antiguo (Monografía histórica)*, San Sebastián, 1959.
- LIZASO, Domingo de: *Nobiliario de los palacios, casas solares y linajes nobles de la provincia de Guipúzcoa*, San Sebastián, 1901.
- POLENTINOS, Conde de: "El Almirante Zubiaur era vizcaíno" *Euskalerrriaren Alde*, 1916, 141. or., 625-634. or.
- VÁZQUEZ, Elena - MURO, Koro: *Nuestra Señora de la Asunción de Rentería. Estudio histórico artístico*, Rentería, 1993.

## I. OINA

Zubiaurre jauregiaren azterketa artistiko hau erakimari lotutako proiektu baten emaitza da, eta horren ondorioz, erakimaren zuzendariek erabakiak hartu zituzten, oso zarrantzuzkiak baitira.

## 1.1. Oribia

Jauregiaren oinplenoa aztertzean, oso adierazgarria da orubearen zabalera txikia fatxarean luzeraren aldean; hau da, oso orube huzelakoa erakimari lotuta.

Errebilitazio lan egiteko forma hain bitxia hautatzeko arrazoiaren bila hasi gaitzake, baina seguraski, ez zen inoizko erakimari egiteko aukerarik izango izatearen jabeek ezarritako erabileraren beharrezko ondorio izango baitzen. Kasu honetan, beharrezko erabileraren Erdi Aroko orube barietate zabaleko erakimari lotuta erabiltzeko izango zela. Pentsatzea da, eta horren ondorioz, erakimari lotuta, gaurerako, jatorrizko bi orube erabiltzeko zirela eta, zabalera dugokionean ere, beste hainbeste; hau da, jatorrizko erakimari Erdi Aroko lau orube barietate zabaleko erakimari lotuta.





## II

# ARTE AZTERKETA

## 1. OINA

Zubiaurre jauregiaren azterketa artistiko hau eraikinari lotutako planimetria gaiak aztertuz hasiko dugu; gure kasu honetan, eraikinaren ezaugarriak erabat baldintzatuko dituenez, oso garrantzitsuak baitira.

### 1.1. Orubea

Jauregiaren oinplanoa aztertzeko unean oso adierazgarria da orubearen zabalera txikia fatxadaren luzeraren aldean, hau da, oso orube luze batean eraikita baitago.

Etxebizitza bat egiteko forma hain bitxia hautatzeko arrazoien bila has gitezke, baina, seguraski, ez zen inolako aukerarik egiteko aukerarik izango, lurzoruaren jabeek ezarritako erabilgarritasun beharraren ondorio izango baitzen. Kasu honetan, badirudi oinetxea Erdi Aroko orube banaketa zaharreko elkarren ondoko sailen elkarketa izango zela. Pentsatzekoa da, era berean, eraikinaren luzeran, gutxienez, jatorrizko bi orube elkartuko zirela eta, zabalerari dagokionean ere, beste hainbeste, hau da, jauregiaren azalera Erdi Aroko lau sailek hartuko zutena izango zela.

Nolanahi ere, seguraski zabalagoa izango zen, herriko etxalde luzeak zeharrenean banatzen zituen kalekka ere hartuko baitzuen, gure kasuan Beheko Kalea luzatzeko. Kalekka hauek erabilera publikokoak ziren (isurbide, aireztapena) eta, honenbestez, ezingo zen beraietan eraikinik jaso. Gaur egun ere, badira Erreterian erabilera horren ereduak, ordenantza hori eta bere ondorioak egundaino indarrean izan direla erakusten dutenak. Alabaina, gure jauregia eraiki zutenek jabetza publikoan eraikitze baimena lortu ahal izan zuten eta, horrela, elkarren ondoko bi sail elkartu ahal izan zituzten, nahiz eta kalekka horrek bereizten zituen.

Arrazoizkoa dirudi, nolanahi izanik ere, sailen elkarketa hori ez zela hasieran berean egin, bitarteko pauso bat izango zela, eta kalekaren gainean, estaltzen zuen zubixka bat egingo zela jauregiko lehenengo solairuaren parean eta orubea altura horretan lotuko zuela. Egoera honen azterna izan daiteke Mendebaleko fatxadan Beheko Kalearekin lerrokaturik dagoen arkuak.

Nolanahi ere, jauregiak betetzen duen orubea eta izan duen bilakaerak erakusten du jabea botere handikoa zela, jabetza publikoan eraikitze baimena lortu baitzuen. Eta horren arrazoa haren ahalmen ekonomiko eta politikoa izan daiteke, udal erabakietan eragina izateko adinakoa izango zuelarik.

## 1.2. Jauregi multzokatu

Behin agerian utzi ondoren orubearen proportziorik eza, eraikinaren oinplanoa aztertzen hasiko gara, eta horretarako Euskal Herrian zabaldurik dagoen “jauregi multzokatu” tradizionalaren kontzeptua azaldu beharko da.

Multzokatuaren tipologia hau, batez ere beste eskualdeetan ohikoa denaren kontrara ezartzen da, haietan, eraikinak patio ireki baten inguruan antolatzen baitira. Klima hotzago eta eraikinak patioen ingurutan antolatzeko ohiturarik ez den inguruetan, eraikinak bloke trinkoetan egiteko joera nagusitzen da eta, honenbestez, ez dute patiorako erdiko sarbiderik izaten. Kasu hauetan eskailarako hutsartea izango da, komunikazio bertikalaz gain, eraikinaren barneko argiztapen eta aireztapen funtzioa beteko duena. Bestalde, eskailera-hutartea izango da eraikinaren ardatz eta banaketarako bidea; maiz askotan, penintsulako iparraldeko jauregien itxuraren alderdi ezinbestekoa izango dena, bestalde. Tipologia honetako bukaeraren eredu nagusietakoa, ia idealena esan genezake, Ermuan dagoen Valdespinako jauregia da. Hau ere XVIII. mendekoa da, ia orube karratua eta ez du beste eraikinen mugarik. Honetan eskaileraren hutsartea eraikinaren erdian dago eta kanpora teilatuk gora igotzen den kupula baten bidez ateratzen da (argia sar dadin, teilatuetatik gora atera behar baitu).

Begibistakoa da, gure jauregiak, gutxienez itxuraz, ez duela zerikusi handirik Valdespinakoaren edota beste hainbat jauregiko (Urretxuko Ipeñarrieta, esaterako, askoz zaharragoa dena) handitasun eta erregurlatasunarekin. Arrazoa, ordea, sai-





Fatxada nagusiaren  
ikuspegia.

laren mugak dira eta, noski, jabearen ahalmen ekonomikoa. Esan dugun bezala, Ermuakoak ez du mugarik orubeari dagokionean, eta lorategi bat, "logia" batez apaindurik, ere badu hari begira. Erreterian, ordea, ez da horrelako luxurik; orubea estua izango da eta muga aldameneko eraikinek ezartzen dute. Horregatik, erdiko eskailera eta banaketa ardatza, gure kasuan, albo batean, mendebaleko fatxadari loturik jarri beharko da. Valdespinako kupula-argizulo handiak bere funtzioa galtzen du: kanpoko paretan baten ondoan egonez eta kalera begira egon daitezkeen nahi adina leihoak zabal baitaitezke inolako arazorik gabe. Agian, irudi dezake ez dela hasierako eskemako gauza handirik geratzen, alabaina, Erdi Aroko eraikuntzei dagokionean, desberdintasuna izugarria da eta eskaileren garrantzia, bere angelu zuzen ugari tiroekin, handia da oraindik ere.

Hemen eskema bat errealitate jakin batetara egokitzen da, alegia: eskaileraren hutsartea erdian kokatuz gero, eta osotasunak irabaziko balu ere, jauregiaren barneko banaketa askozaz konplexuagoa izango zatekeen. Gainera, eskaileratiko sarrera, atarian egiteko aukera bazegoen ere, ezkerreko alboan kokatzen da.

Honen arrazoia, bestalde, beheko solairuaren (eta erdisotoaren) erabilerak dira, sarrera-irteera ona behar baitute. Hala, agian, beheko bi solairu hauek etxeko zerbitzu orokorretarako izateaz gainera, izan zezaketen, nolabait esateko, beste erabilera industrialago bat. Hori litekeena da, batez ere, gaur Zumardira ematen duen erdisotoan, eta seguraski, ez zuen izango etxebizitzarekiko komunikaziorik.

Dena den, familia honen aberastasunari buruzko dokumentazioa urria denez eta etxearen prospekziarik ez dagoenez, ezinezkoa izango da, gure ustez burutzen ziren jarduera horiek zehaztea.

Gure eraikina jauregi multzokatuekin erlazionatzen duen beste alderdi bat da eraikinaren ardatz nagusiarekiko inbrikazio maila. Eta alderdi honi dagokionean, Zubiaurre jauregia erabat egokitzen zaio eskema nagusiarri. Hegoaldeko fatxadaren eta bi solairuetan (lehenengoa bigarrena baino aldatuago dago) fatxadaren zabale-ra osoa hartzen duten gelak daude, ongi argiztatuak eta, geroago aipatuko ditugun balkoiatar ateraaten direnak. Gainera, lehenengo solairuan, fabrika-apaingarrien itxurarekin, hormatik ateratzen diren maskaroi antropomorfo sail bat ageri da, teitatuaren egitura eusteko. Bere kokaera, dekorazio eta kalearekiko erlazioa dela eta, eraikinaren pieza oso adierazgarriak direla esan genezake.

Orain arte egoera onean dauden eraikin zatiez hitz egin dugu, zailtasunik handirik gabe berreskuratu daitezkeen elementuez. Gainontzeko zatiak, zurezko zutabe eta adreiluzko paretan egiturak aldaketa ugari izan ditu. Horregatik zaila gertatzen da jatorrizko egituraren eta egitura modernoaren arteko bereizketa ezartzea. Ondorioz, gure iritzian, ez dago nahiko elementurik azterketa sakon bat egiteko. Alegia, bigarren solairua ganbarearekin lotzen duen bigarren eskailera-hutsartearen jatorria eta funtzioa zehaztea oso zaila da, eraikineko gelak lotzen dituen erdiko korridore luzea berria edo jatorrizkoa den definitzea, edo oraintsu arte behe solairutik teilatura igotzen zen argi-patioaren funtzioa zein den zehatzea, jatorrizkotzat jotzen den banaketa ezartzea, etab. erabakitzea ezinezkoa da.

Orain arte azaldutako guztia *Ibaiak eta Haranak* bildumako 4. alean ageri eta Zubiaurre jauregiari zehazki egokitzen zaion zita batez labur daiteke, egoera desberdinei aurre egiteko jauregi aglomeratuek duten moldagarritasuna azaltzen baita; bertan esaten da:

*El tipo de palacio aglomerado había logrado una distribución interna muy óptima, al disponer las estancias longitudinalmente a los lados del pasillo central, cortado en el centro por el hueco de escalera lateralizada, las habitaciones principales en la delantera disponiendo del salón principal y de un dormitorio de res-*



*peto. Junto al salón se coloca el comedor principal, que se comunica con la cocina dispuesta en el fondo*<sup>32</sup>.

Jatorrizko eta oso adierazgarri den beste elementu bat (berau da jauregiaren elementurik ezaugarritzkoenetakoa) hegoaldeko fatxadan, lehenengo solairuko balkoien luzagarri gisa ateratzen den blokea da. Bloke horren erabilera aski eztabaidagarria da eta galdera ugari planteatzen du, gu zenbaiti erantzuten ahaleginduko gara, ordea. Lehendabizi, esan behar da, ez dela benetako luzagarri bat, bere alde horretan kalearen lerrokadurari eusten dion elementua dela, baizik. Honen arrazoia, berez nahiko luzea zen etxea gehiago luzatu nahi ez izatea izan daiteke (eta bide batez, lurraren jabetza norena den erakustea). Nolanahi ere, “trukaketa” baten ondorio ere izan daiteke, jabeak Beheko Kaleko kalekaren trukean egina. Baina alderdi hori ez dago dokumentatua eta, edonola ere, aski harrigarria izango litzateke.

Bestalde, herriko plano zaharretan, “Frantziako atearen” ondoan plaza txiki edo kalearen zabalpen bat ageri da. Kasu honetan ere elementu hori luzagarri bat izango litzateke, balkoiaren funtzioa bete, eraikinaren fatxadaren azalera handitu eta, ondorioz, bere itxura ederra eta arrandia gehi zezakeen elementua alegia.

Dena den, ez dugu uste elementu hau herriaren babes sistemarekin lotu behar denik, ez eta aurreko guda-egituraren baten aztarnaren batekin ere. Izan ere, atea eta elementu babesgarriak urrunago baitzeuden, Santa Klara kalean, alegia.

## 2. ALTXAERAK

Atal honetan eraikinaren ezaugarri nabarmenei buruzko lerro nagusiak aipatuko ditugu, interesgarriak izan daitezkeen zenbait alderdi azalduz eta aztertuz.

### 2.1. Iparraldeko altxaera

Gaur egun Zumardira begira dagoen fatxada honi buruzko hainbat ohar egin behar da derrigorrez. Pentsa daiteke etxea eraiki zen garaian, atzealdeko fatxada-  
ren bat izango zela, ibai ertzera begira zegoelako baina, hala ere, ardura nabari da bere osakeran eta elementuetan.

Aro modernoaren garaira bitarte Zumardiko sailak urez estalita egon ziren eta ibai ertzetan itsas portuko jarduerak burutzen ziren. Hiria alde horretan harresi batez edo bestelako hesi mota batez ixten zen, Herriko Plaza parean atea zuelarik.

<sup>32</sup> “Jauregi aglomeratuarekin barne banaketa ezinhobea lortu zen; izan ere, gelak erdiko korridorearen inguruan egituratzen ziren eta erdian etena sortzen zen albo batera eramandako eskailera hutsartearekin, gela nagusiak aurreko fatxadara begira jarri eta gela nagusi eta errespetu logela bat izan ohi zuten. Gelaren ondoan jangela nagusia kokatzen da, bazterrera eramandako sukaldearekin komunikatzen dena”.

Badirudi ibai hondoa beteko zelako eta babes neurrien gutxiagotzea (Erdi Aroko harresia ez baitzen arma berrien aurrean gai babesik emateko) hiriko fatxadak itxura urbanoagoa hartu zuen kanpoko alderako egitura itxia galduz.

Hala, garai batean herriaren kanpoko aldea izan zenak kale itxura hartu zuen eta etxeetan hutsarteak irekitzen hasi ziren, gaur dena izatera iritsi arte, hiri-plaza bat.

Badirudi Zubiaurreren eraikin hori bilakaera horretako puntu bat izan daitekeela; izan ere, fatxada bat irekitzen du herriaren kanpoko aldera begira (mende bete lehenago ez litzateke pentsatzekoa ere izato horrelakorik) fatxada nagusia herriko harresien barne kokatzen du eta ez da ageri nola komunika zitekeen etxebizitza Zumardiarekin. Hala, badirudi, zoruaren parean Zumardira ateratzen diren atak lokal industrialetakoak izango liratekeela, seguraski, ibaian ziren itsas jarduera urriekin lotuta eta, adierazi bezala, inolako loturarik gabe jauregiaren etxebizitza izaerarekin.

Fatxadaren osakerak eta elementuek igaropen hori indartzen dute: bikain osatutako fatxada bada ere, ahal dena aurrezten da elementu apaingarrietan; azken batean, teilatu-hegalak eusten dituzten zuburuak baizik ez dira apaingarri horiek. Gainerako guztian Hegoaldeko fatxadan ageri diren elementuen bertsio apalagoak ageri dira, erritmoak indartzeko (inposta edo balkoien bidez) eta hutsarteen zabalera zainduz ere funtzio eta osakera nagusiaren arabera.

## 2.2. Mendebaleko altxaera

Fatxada honek, oso agerikoa gaur alboan zuen eta zoritxarrez bota zen eraikinatik, erdi aldeko eraikin bat zela erakusten du. Gure eraikina Hirriaren sarreran kokaturik egonik, ez litzateke harritzekoa izango herriaren zaintokiaren ondoan egotea: lehenik, seguraski, dorretxe batekin mugakide izanik eta gerora Hiriko sarrera Erdiko kaletik babesten zuen eraikuntza gotortuan eusten zela. Tarte horma izanagatik ere, gaur egun oraindik ikus daitezke, bai kanpotik, bai barrenean ganbaratik, zenbait leiho itxutu; horrek ondoko orubeak urteetan zehar izan dituen egoerak ekar ditzake gogora: eraikirik, hutsik, defentsarako, funtzio jakinik gabe, e.a.

## 2.3. Ekialdeko altxaera

Fatxada honez gauza bakarra esan daiteke: berau dela eraikineko bitxien eta okerren eraturiko fatxada (tarte hormaz aparte, noski). Bertan ageri diren elementu guztiek “zerbitzu” fatxada bat dela erakusten du, erabat funtzionala eta kezka estetiko soberakorik gabe egina. Bertan biltzen diren elementuak ez dute antolamendu handiegirik, ez bada, behintzat ura kanporatzekoa eginkizuna, gelen argiztapena, eskailerarena edota lehenago aipatu dugun kalekaren estaldurakoak. Bertan ageri diren elementu apaingarriak hegoaldeko fatxadako elementuekin



haustura handiegirik ez izateko ahaleginaren ondorio dira eta, horretarako, haien bertsio apalagoak erabiliko dira.

Hala, lehenik, fatxada honetako teilatu-hegalen lerrokadura aipatu behar da. Berau horizontala da ia fatxada guztian zehar ezkerreko aldean kantoi berezi bat ageri delarik, frontoi txiki baten antzera. Irregularitasun honen arrazoia, ordea, zabalera handiko oinetxea izan eta gainera albo bietan berari erantsita eraikuntzak dituen bat estali baina gero drenatu beharrari erantzuteko eraikitako forma nahiko bitxiko teilatu bat urez hustu beharra da. Horregatik da den bezala fatxadaren itxura eta hegalkinaren bi lerroen ebakigunean dauden gargolak ere.

Fatxada honetako beste elementu bat leihoen altuera desberdina da. Altuera desberdin honen arrazoia, solairuarteetan zeuden eskailburuak argiztatzeko beharra da.


Fatxada honetako hirugarren apainketa elementua, lehenago Beheko Kalera luzatzen zen kalekxa estaltzeko izango zen arkuua da. Hala eta guztiz ere, aureko hipotesiari eutsiz, izan dezake arku honek beste interpretazio bat ere, irudi erlijiosoren bat jasotzen zuen kutxa ere izan baitziteken. Gaur egun ohikoa ez bada ere, hiri barrokoetan nonahi ageri zen elementu bat da. Bestalde, Euskal Herrian ez dakigu gauza gehiegirik elementu horietaz, baina oso garrantzitsua izan ohi zen beste herrialde batzuetako bizitzan eta sinesmenean.

## 2.4. Hegoaldeko altxaera

Fatxada nagusi honetan kokatzen dira eraikinaren bitxirik ederrenak eta hauxe da, beraz, elementu apaingarri ugariak dituen. Honek ez du esanahi, ordea, fatxadaren osaketa zainduagoa eta landuagoa denik, eraikineko elementurik tradizioaletakoa baita, berrikuntza gutxi ditu. Jauregiari itxura konbentzionala eta,aldi berean, aberatsa eman nahi izatea nabari du, inolako esperimentazio edo modernotasunetan sartu nahi gabe. Atzeko fatxadak, iparraldekoak, ez zenez adierazgarria, “formalitate” exigentzia hutsa zen eta horregatik osaketa libreago bat egin zitekeen han.

Azken finean, osaketaren arkaismoa azaldu nahi dugu, solairu bakoitza erlaitz batek nabarmentzen duela (era horretara solairu bakoitzean balkoiak jarri beharra konpontzen da gainera), horrek Berpizkunde garaiko soluzioetara ekartzen gaitu dagoeneko. Eta, jakina, orijinaltasun urri hori hautsi dezakeen elementu bakarra fatxadaren ezkerreko alboan atxikirik dagoen ostikoa da; baina kasu honetan ziur gaude ostikoa izateko arrazoiak ez duela zerikusi handirik, lehenago esan dugun bezala, konposizio mota jakin batekin.

Fatxada honetan ageri diren elementu formal eta apaingarri gehienak gerora azalduko ditugu. Orain, berriz, aztertzen ari garen etxe honen elementu funtzional eta kopsizioko garrantzitsu batez mintzatu behar dugu, solairu bakoitzean ageri diren balkoi korrituez alegia.



Teilatu hegalaaren ikuspegi xehea. Santa Klara kalea.

Ohartarazi beharra dago balkoiak berebiziko garrantzia duela Zubiaurre etxe honetan, baina bere garrantzi hori areago doa eta zinez esan daiteke XVIII. mendeko gipuzkoar arkitektura guztian ageri dela. Baliapide hau ez da, ordea, nahierara erabiltzen. Aitzitik, barrokoaren garaiko gizarte bizitzan agertzen ari direbehar berri batzuei erantzuten die. Nolanahi ere, Gipuzkoako gizarte bizitza eta bizitza publikoari buruzko azterketak ez dira batere argigarriak. Eta horregatik, barrokoari buruz oro har esaten dena estrapolatuko ditugu.

Gauza jakintzat eman ohi da XVIII. mendean jendaurreko jokabideei dago-kienez atzerrietako ereduak sartzen direla Gaztelan (baina joera honen aldi berean, erreazioz, bertakoaren aldeko joerak indartzen ditu); azken-azkenean, aukera txikiena izandakoan norberaren edo familiarren “estatusa” eta botere ekonomiko eta politikoa azaltzen da eta, bide batez, nagusi diren ideologia politiko eta erreligiosoak goستن. Topikoa da baina garai honetan jaia da horretarako guztirako unerik aproposena, bai jai erligiosoak, Elizaren boterea eta “egia” bedeinkatzeko eta agertzeko, nola politikoak, gerra garaipenak, errege familietako kideen jaiotza edo heriotza ospatzeko, e.a. Bi arlo hauek, egun gertatzen denaren alderantziz, oso lotuak ageri dira eta nagusitzen den ordena sozial eta politikoak jarraitzekko espresio bide izango dira.

Horregatik, etxe bakoitzak bere leku edo eremua izango du festak ospatzeko eta eraikuntza bakoitzak (festa ospatzen denak) ospakizun, kabalgata edo proze-



siorako, eta zehar bidez, ezarrita dagoen ordenurako, dakartzan edukiak jendaurrean adierazteko. Eraikuntza zibilen kasuan leku hori, zalantzarik gabe, balkoia izango da, bertan eskegitzen baitira banderak, ehunak zintzilikatzen egun jakinetan edota horixe baita pertsonalitateak jendaurrera ateratzeko lekua.

Egoitza pribatu baten kasuan horrelako zerbait espero genezake: kanpoko alderako proiektzio handia emango zaio etxekoek bizitza publikoan etxetik bertatik parte hartu ahal izan dezaten. Honek guztiak etxe horretan bizi den familiaren "estatusa" eta aberastaunaren agerlekua balkoia izatea bultzatuko du, bai bere egikeragatik, bai egun jakinetan izan ohi zituen apaingarri iraungikorrengatik.

Goraxeago soma zitekeenez kanpoko ohituren inportazioak, borbondarren dinastiarekin etorri zirenak, eta guri dagokigun gaiari loturik, balkoieta izan zuen garrantziari erreakzioz erantzun zitzaien, bertako joeren indartzea ekarri zuelarik. Halako eragina izan zuen, ezen eraikin zibiletako balkoien garrantziaren bilakaera progresibo bat inguruan bertan ikus baitaiteke. Joera hau nabarmena da Bidasoa Beheko hainbat ingurutan, XVI. mendearen amaiera eta XVIII. mendearen hasiera bitartean eraikitako etxeetan, batez ere. Eraikin hauek elementu amankomun ugariak dituzte eta, azken finean, elkarren oso antzekoa dute egikera.

Lehenengo ereduak Arbelaiz jauregia da, Irunen. Eraikin honen fatxada, Berpizkundeko arkitekturaren erakusgarri bikaina da eta ez du balkoiarenganako interesik agertzen (ezta sarreraren gainean ere), ez behintzat, etxekoen eta herritarren arteko lotura elementu gisa. Eraikin zentripeto bat da bere baitan itxia; fatxada da, eta ez da gutxi, kalera begira dagoen elementu bakarra. Gauza bera gertatzen da Irungo Urdanibia etxearen kasuan; ez, ordea, denboran geroagokoa den Hodarribiako Casadevante jauregian (gaur Pampinot hotela). Azkeneko honetan Arbelaiz jauregiko konposizio eta apainketa elementu ugari azaltzen dira eta, betebeharrak funtzional berriei erantzuteko, balkoiak eransten zaizkio bere bi solairuetan.

Azkeneko eraikin honen elementuetatik Zubiaurre jauregiaren elementu adierazgarrienetakorako bidea, oraino, luzea da, Casadevante jauregiaren balkoia ez baita harlanduzkoa, eraikinaren erlaintetik ateratzen den burdinezkoa baizik. Beste erabatekoak dira eta zehatzagoak, Errenteriako beste eraikin zenbaiten kasuak, Udaletxea eta Kapitain Etxea, esaterako; horietan XVII. mendeko Gipuzkoan ohikoa zenari jarraituz, balkoiak ez zuen erlaintzaren beharrik izaten, horman itsatsi eta hartara jositako burdinezko obrak baitziren. Bidasoa aldeko eraikinaren testuinguru horretan, Lesakako Udaletxea da bilakaera horretan aurrera pauso bat markatzen duena, mentsula gaineko harrizko balkoiak eransten baitzizkio eraikinari.

Testuinguru honetan garbi dago, Zubiaurre jauregiaren kasua bilakaera horren ondorio dela, hasieran bigarren mailako elementua zena konposizio orokorreko elementu bilakatzeko prozesuaren ondorio, alegia. Ez dago azpimarratu beharrik XVIII. mendean areagotu egiten dela elementu horren erabilera eta pauso kualitatibo handi bat ematen.



Gargola. Santa Klara kalea.

Adierazi beharrekoa da, ordea, balkoia ez dela kalearen eta etxebizitzaren arteko lotura beharri aurre egiteko soluziobide bakarra; izan ere, hor daude Ordiziako Zabala-Enea edo Lekeitioko Uriarte Jauregia, fatxada nagusiaren aurrean galeria edo “loggia” bat dutenak (ez aurreko galeria egutera haietakoa).

Bestalde, deskribatu dugun eskema lineal hori horrela izanik ere, aipatu beharrekoa da bilakaera ez zela berdina eta garai berean gertatu Euskal Herri osoan, soluziobide moderno eta zaharkituak, bietakoak, ageri baitira batera.

### 3. ELEMENTUAK

Azterketa hau amaitzeko gure etxe hau hemezortzigarren mendeko eraikin tipikotzat definitzen duten elementu partikular ugariak aztertuko ditugu banan-banan. Ahal den neurrian, bakoitzaren ezaugarriak definitzen eta, aldi berean, elementu horien aitzindari izan daitezkeenak eta paralelismoak bilatzen ahaleginduko gara, ahal den ulergarrien izan dadin.



### 3.1. Erlaitzak

Izen hau eraikinaren goiko aldearen errematea, teilatuko zuburu azpia, definitzeko erabiliko dugu.

Hiru konponbide daude paretaren eta teilatuen arteko lotura egiteko. Batetik, Hegoaldeko fatxadaren, erlaitza, gerora azalduko ditugun beste elementu batzuekin batera eraikina XVIII. mendeko egiten duena. Erlaitz hau, berpizkundeko tratadua zaharretako doriko-toskanoarekin pareka daitekeena, are garrantzizkoago bilakatzeko da XVIII. mendean eta Gipuzkoako eraikinetan, konposizioko beste elementu batzuekin batera, gehien errepikatzen den elementua izango da. Nolanahi ere, bi elementu garrantzitsu hauek, eta beren desberdintasunak gorabehera, badute berdintasun bat: oso erlaitz plastikoa, bolumentria indartsua duena, eta argi-ilun efektu nabarmen bat lortzeko ahalegina, alegia.

Aurreko mendean erabilitzen ziren erlaitzak –batez ere jonikoak eta antzekoak– osotasunaren efektua argitasunezko eta itzalezko marra paralelotara mugatzen duten moldura anitz jarraituzko efektu bat lortu nahi dute batez ere. Horren guztiaren eredu bikaina Erreterian dugu Kapitain Etxea: erlaitza bikaina, oso landua eta ondo hautatua, elementu apal bat baino ez da etxearen fatxada handiaren ondolan, erlieberik gabea delako eta efektu plastiko urrikoa delako. Zubiaurre Jauregian, parroko sakristian bezalaxe, taila zakarrekoa da ageri den erlaitza, moldura gutxiagokoa, baina fatxadaren konponbidean elementu oso inportantea dena, bere bereziek dituen ezaugarriengatik eta tamainagatik.

Aztertzen ari garen erlaitz honek eta XVIII. mendean erabilitako beste batzuek elementu horizontalak gutxitzen dituzte (baina elementu apaingarri bertikalak izan ohi dituzte, bolutak eta mentsulak, esaterako). Izan ere, ordura arte, aurreko mendeetan ugariak baitziren elementu horizontalak eta mende honetan, berriz, hiruzpalau gorputzeko irtenuneak hasten dira nagusitzen, eta horien artean, teilatutako hgalaren garrantzia nabarmentzen da.

Elementu honez hitz egiteko garaian ezin genezake esan gabe utzi, XVIII. mendeko Gipuzkoan barrokoaren estiloa nagusitzen doala, hala gizarte gaietan nola artistikoetan. Agerikoa da, ez dela barroko hiperdekoratua nagusitzen dena, lehenago ere izan baitzen; garai honetan estilo horren oinarriari heltzen zaio, hau da, bolumen, forma eta argiaren kontrastea eta konposizioei mugimendua eta tentsioa emateko elementuei, baina apaindura gehiegizkoetan erori gabe (nahiz eta ez diren baztertzen, inola ere).

Aipatuko dugun beste erlaitza mendebaleko fatxadaren dagoena da; aurreko larroetan azaldutako albokoaren jarraipen gisara ageri dena. Berau aurrekoaren tamaina beretsuko S formako moldura handi bat da. Funtsean, fatxada nagusian egindakoaren bertsio “laburtua” da, etxearen alde honen bigarren mailako izaerarekin bat datorrela.

Azkenik, iparraldeko fatxadan ageri den erlaitzaren itxura aipatu behar da; berau, fatxadaren zabalera osoa, hutsarteen azpitik, zeharkatzen duen irtenune txiki bat izatera mugatzen da. Atarian ageri den apaingarri bera du eta bi lekuak lotzen ditu; hau da, lehenago ere aipatu dugun Iparraldeko fatxadako behe solairuaren eta erdi-sotoaren erabilera industrialari buruz esandakoak balio du.

### 3.2. Modiloiak

Izen honekin eraikin osoko balkoiei eusten dieten elementuak definitzen ditugu eta, erlaitzekin batera, XVIII. mendeko eraikuntzaren elementu bereizgarrienetako bat da.

Eraikinean bi motatakoak ageri dira: lehena Hegoaldeko fatxadan, goleta sekzioa (goleta biratua, zehazki) ageri da, baina erdi parean ebakidura bat du; bigarrena, berriz, Iparraldekoan ageri dena da, goleta sekzioak inolako etenik ez duena. Bi mota hauek, eta bereziki lehenengoak, arrakasta handia izan zuten garai hartan eta are XIX. mendean ere.

Ez dakigu gauza asko-akorik bere barroko jatorriari buruz; alabaina, badakigu Gipuzkoan 1730eko hamarraldia aldera hasiko dela ugaritzen elementu honen erabilera. Honen eredu goiztiar bat eskualde honetan Jose de Lizardik 1735. urtean egindako Pasai Donibaneko Udaletxearen proiektua du. Datu honek, hiriko agiri eta datu ekonomiko eta sozialekin batera, etxearen eraikuntza data zehaztasun handiagoz finkatzeko aukera ematen digu: beraz, pentsatzekoa da gure jauregiaren proiektua 1730 eta 1750. urte aldera egingo zela, gutxi gorabehera. Hurrengo atalean modilo honen beste elementuekin duen lotura aztertuko dugu.

### 3.3. Taulamenduak

Izen honekin eraikinaren goiko aldeko harrizko molduren multzoa izendatzen dugu, bertan itxura klasizista hau hartzen duten erlaitza, lehenxego azaldu duguna, eta balkoi korrituak sartzen dira.

Lehenengoari dagokionean ez da askorik esateko, tratamenduaren zuzentasuna eta arkitrabe eta frisoaren trinkotzea azpimarratzea baino ez; erlaitzaz aurrerago ere hitz egin dugu.

Bigarrenekoak lehen azaldu ditugun modiloiak bere baitan hartzen ditu, eta interes handiagoa du, elementu guztietan joera klasiko batetara egokitzeko nahia ageri baita. Taulamendu bat da (zalantzarik balu norbaitek) arkitrabe leun, friso bat, modiloiak txertaturik dituen, eta erlaitza bat baitu, berriro ere, goleta batez osatuz. Antolaketa hau, ordena konposatuak beharturikoa, asko-asko erabiliko da berpizkunde bukaera alderako eraikin kanonikoetan; esaterako parrokiaren atarian ikusten da halako bat. Dena den, aldaera ugari ere izan ditzake, baina, oro har,





Argakia: Jesus Hospitaler

Mendebaldeko fatxada.  
Behoko kalea.

barrokoaren beraren bertsio askoz landuagoak izango ditu. Alabaina, harrigarria gertatzen zaigu, gure kasuan, taulamendu hau balkoi bati eusteko izatea; nolana ere, antzeko erabilera bat aurkitu nahi izanez gero, Europako barroko etxe soilen arkitekturara jo beharko dugu. Ezagutzen ditugu ereduak Piamonten, baina gure modiloiek itxura landuagoa dute haien baino, kiribil forma dutelarik. Baliapide hau gutxi erabiltzen da Euskal Herrian. Aipatzea merezi duen kasua Ugartemendia arkitektoak egindako bat da, mende erdi geroago, Donostiako Konstituzio plazakoa.

Balkoi bakoitzaren gainean ageri den erlaitza, adierazi den bezala, goleta soil bat baino ez da: ez dugu uste merezi duenik soluzio honen aitzindariarik bilatzea jauregi honetan bertan hegoaldeko fatxadako erlaitza bakandu eta mendebalekoan zehar luzatzeko aukeraren alde egin baitzen.

### 3.4. Armarria

Elementu hau aztertzeko unean, aipatzea merezi duen gauza bakarra da, zenbaitetan bere elementu apaingarri eta egikera ez datozela bat eraikinaren zuzentasun ahaleginarekin eta, besteetan, konposizio zainduarekin. Agian, geroago itsatsi zitzaion elementua izango da edota, bestela, jatorrizko proiektuan jasotzen ez zen elementu bat dela.

### 3.5. Ekialdeko fatxada

Lehenago aipatu dugu fatxada honen zerbitzu erabilera ia bakarra, eta ez du, erlaitza salbu, beste inolako elementu apaingarririk. Lehendabizi, kainoi formako gargola aipatu behar da, taila txiki bat duena. Horretaz aparte leiho gainetan irte-nuneak ageri dira, baina beren funtzioa euriaz babestea da.



## BIBLIOGRAFIA

- ALDABALDETRECU, Roque: *Casas solares de Guipúzcoa*. San Sebastián, 1979.
- ASTIAZARÁN, María Isabel.: *Arquitectos Guipuzcoanos del siglo XVIII*. San Sebastián. 1991.
- CHUECA GOITIA: *Historia de la arquitectura occidental. El barroco en España*. Madrid, 1985.
- EGUILLOR, J.R.; HAGER, H.; de HORREDO, R.M.: *Loyola, Arte y arquitectura*. San Sebastián, 1990.
- FRAY LORENZO DE SAN NICOLÁS. *Arte y uso de la arquitectura*. Madrid 1796.
- GARCÍA SANZ, A.; VALVERDE, L.: "Ilustrazioa", en *Euskaldunak historian barrena. Jokabideak, pentsamoldeak eta eguneroko bizitza*. San Sebastián, 1989.
- KUBLER, George: *La arquitectura en los siglos XVII y XVIII*. Ars Hispaniae. Madrid, 1957.
- LINAZASORO, J.I.: *Permanencias y arquitectura urbana*. Barcelona, 1978.
- MINGUT, Philippe. *La estética del rococó*. Madrid, 1992.
- NORBERG-SCHULZ, Ch.: *Arquitectura barroca*. Madrid, 1973
- NORBERG-SCHULZ, Ch. *Arquitectura barroca y rococó*. Madrid, 1973.
- RODRÍGUEZ DE CEBALLOS, Alfonso: *El siglo XVIII, entre tradición y academia*. Madrid, 1992.
- TOVAR, V. eta MARTÍN GONZÁLEZ J.J.: *El arte del barroco*. Madrid, 1990.
- Zenbait autore: *Monumentos Nacionales de Guipúzcoa*. Bilbao, 1985.
- Zenbait autore: *Monumentos Nacionales de Vizcaya*. Bilbao, 1985.





### III

## ARKITEKTURA AZTERKETA

### 1. INGURUAREN ETA KOKAERAREN DESKTRIBAPENA

Errenteriako hirigune historikoan dagoen XVII. mendeko etxe bat da. Hiriaren Erdi Aroko eremuko hegoaldeko mugan dago eta kokapen horrek berak ezaugarri bereziak ematen dizkio. Zehazki adieraziz, harresiarekin batera, Frantziako atea osatzen zuen. Bien artean maniobra militarretarako izan zitekeen gune bat zegoen, eta arrazoi hori izan zitekeen mugatzeko beharra agerian jarriko zuena, nahiz eta aurrean izateagatik bakarrik izan, eta hori izan daiteke eraikin honen beste berezitasun bat.

Beste datu garrantzitsua da Errenteriako ibai-muga zaharraren ertzean kokatuta egotea. Ibaia Gamon Zumardia dagoen lekutik igarotzen zen eta, honenbestez, etxearen fatxada batek ibaira ematen zuen.

Etxea inguratzen zuten kaleak honakoak ziren:

- Iparraldera, Gamon Zumardia (garai hartan ibai-ertza)
- Hegoaldera, Santa Klara kalea, Frantziako Bidera ematen zuena.
- Mendebalera, Beheko kalea itxiz, etxarte bat.
- Ekialdera, beste eraikin bateko tarte horma bat, garai batean bota zena.

## 2. ORUBEAREN FORMA ETA LURSAILAREN EZAUGARRIAK

Hogeita hamabi metrotako luzera eta bederatzita t'erdia zabaleko sail luze bat da. Azalera, guztira, berrehun eta laurogeita zazpi metrotakoa da eta erabat edifikatua dago.

Orubearen forma luzeegi horren arrazoia, seguraski, famili desberdinen ondareen batura da, hau da jauregi hau eraiki zeneko orubea.

Orubearen topografiak gora beherak ditu, nahiz eta ipar eta hegoaldeko fatxadak horizontalak izan. Bi alde horien artean 2,5 metrotako kota alde dago. Garai batean, iparraldeko fatxadak Hirigunetik kanpoko padurara edo kaira ematen zuen eta hiriguneak barne aldean kota altuagoa zuen. Honek bi fatxaden arteko solairu kopuruan desberdintasun bat eragiten du, hegoaldeko fatxadan hiru solairu eta iparraldekoan lau dituelarik.

Etixerako sarbidea, hegoaldeko fatxadako beheko solairuan dago, iparraldeko lehenengo solairuaren parean eta, zehazki, biltegi gisa erabiltzen den lokal batetara sartzen da.

## 3. ERAIKINAREN KANPOKO ITXURA

Beste eraikin batzuetan gertatzen ez den bezala (Morrontxo, Torrekua ..), fatxaden konposizioa eta are barneko egitura bera ere erabat aldaturik baitute, kasu honetan, Zubiaurre jauregiak jatorriko konposizio ordenari eusten dio.

Bere fatxadetan erabiltzen den material ia bakarra hareharria da, harri landukoa. Nolanahi ere, salbuespen bat egin behar da mendebaleko fatxadan, bertan, geroago aipatuko ditugun hainbat faktore tarteko, kareharri gorritzat landua ageri baita. Ekialdeko fatxadan ere, jatorrian erdiko zenean, kareharri hori bera erabiltzen da.

Eraikina utzita dago, batez ere estalkian eta haroz lanetan nabari delarik, baina baita beste zenbait elementutan ere, harriaren narriadura handia lekuko.

### 3.1. Estalkia

Estalkiaren diseinua nahiko konplexua da eta arrazoiak honako hauek:

- Eredu tradizionalari lotu beharra, arabiar teilaz eginiko estalki inklinatua izan beharra.
- Estali beharreko elementuaren luzeera gehiegizkoa.
- Alboko eraikinen morrontza, haietara urik ez isurtzeko.



Beraz, arrazoi horiek medio lau isurialdeko forma konplexu bat ageri da.

- Lehena, hiruki formakoa; gailurra ekialdeko partean du eta ura Santa Klara kalera isurtzen du ura; fatxada horretan teilatutako hegala horizontala ageri da.

- Honen ondokoa trapezio formakoa da eta bere gailurrak medianerako erremate horizontalaren aldera ematen du, eta teilatutako hegala berriz mendebaleko fatxadara ematen du.

- Honen parekoa, hiruki formakoa da eta Beheko kalera ematen duen errematearen aldera isurtzen du ura.

- Azkenik, iparraldeko fatxadara ematen duen isurialdea, lauki zuzena da eta ura Gamonen zumardira isurtzen du.

Esan bezala, teilatutako erabilitako materiala arabiar teila da.

Barneko egitura zurezko zutabe batek eta materiale bereko habez osatua da. Ez da inolako isolamendu motarik ageri eta eraiki zen garaiaren ezaugarri da. Denboran zehar izan zitezkeen aldaketa edo konponketak, itxura orokorra ikusirik, aspaldian eginak izango ziren.

Estalkiaren itxura orokorra jauregiaren beraren utzikeriakoa da. Teila egoera txarrean ez dagoela dirudien arren, eraikinaren barne aldean, taulamenduaren zati bat usteldurik dago eta itokin ugari eta hezetasun handia dago.

Ez dakigu hezetasunak eragin handirik izan duen estalkiaren egiturari. Itxuraz, bederen, ez dirudi bere egitura-funtzioa kaltetu duenik.

## 3.2. Fatxaden deskribapena

### 3.2.1- Hegoaldeko fatxada

Santa Klara kaleko 1.era ematen du. Garai batean inguru horretan zegoen hiriko ate bat, Frantziako ate izena zuena. Hori da, bestalde, jauregiaren fatxada nagusia izateko arrazoia; bere aurrean plaza txiki bat zegoen harresiko gune gotortutako eta jauregiak berak mugatzen zutena. Agian jauregiaren espazio propioa mugatzeko fatxadaren ezkerreko aldean, behean, harrizko paralelepipedo bitxi eta itxuraz funtziorik gabeko bat ageri da; bere barne alderako aterik ez duena eta lehenengo solairuko balkoia eusten duena.

Bitxikeria honetaz aparte, fatxadaren osaketa guztiz erregularra da; hiruakako hutsarteak ditu, eta familiaren armarrria da nagusi fatxadan.


Hiru solairu ditu eta era honetan banatzen dira:

- Beheko solairuan, erdi aldera, etxebizitzetarako eta gaur egun alderdi politiko baten egoitza gisa erabiltzen den lokalerako sarrera ate gisa, atari bat dauka, ipa-

## ZUBIAURRE JAUREGIA

Ohiko solairua


19. plano

F. López-Roldán · J. Ubarrechena  
0m 10m

## ZUBIAURRE JAUREGIA

Fatxada nagusia - hegoaldea

20. plano



F. López-Roldán · J. Ubarrechena

0m 10m

Santa Klara kalea



rraldeko fatxadako lehenengo solairuaren parean dagoena. Atariaren alboetara leiho bana eta denda txiki baterako sarrera daude.

- Lehenengo solairuan hiru ate-balkoi daude eta horietatik burdinezko eskudela duen balkoi korritura sar daiteke; solairu honetan den eskudela goiko solairuko baino landuagoa da.

- Bigarren solairuaren elementu nagusia armarrria da; badira, ordea, azaldu diren balkoien antzeko ezaugarriak dituzten beste hiru balkoi.

Bi solairu hauetako balkoien zoruak harrizkoak dira, mentsula gainetan, molduraz apaindurik daude. Solairuen arteko banaketa erlaitz korrituez egiten da, irizpide neoklasikoei jarraituz modulatzen direlarik. Moldurak ez dira etenik gabeak etxe osoan, fatxada bakoitzean (iparraldekoan eta hegoaldekoan) era desberdinetan baitaude osaturik, bakoitzaren garrantzia filigrana kopuruaren, hutsartean zabaltasunean eta beste hainbat elementutan adierazten delarik.

Teilatu hegala da konposizioaren erremate nagusia. Laurogei zentimetro inguru ateratzen da eta itzal handia egiten dio fatxadari. Zurezkoa da bere barneko aldean eta habeburu tailatu ederrak ditu hozkadura lerro batez erremataturik.

Arotzeria lanak, denak garai berekoak, zurezkoak dira marroi ilun koloreaz pintatuak xafrazko kontraleihoak bezalaxe. Beheko solairuko hutsarteak, berriz, denda batekoa, aluminiozkoa da.

Fatxadaren eskuineko hormatalaren aldean egoera kaxkarrean dagoen zorroten bat dago, teilatu hegalarekin lotzeko ukondoa eta arketa falta baititu.

Azaldutako hori guztia kontuan izanik, jauregiaren kontserbazio egoera larria dela ikus daiteke eta, egoera horrek berak, asko kaltetzen du eraikinaren balio estetikoa.

### 3.2.2. Iparraldeko fatxada

Fatxada hau hiria eraman garai bateko atzeko aldera begira zegoen, nahiz eta, ordudunik hirian izan den bilakaerak leku garrantzitsuago batetara eraman duen. Izan ere, etxea jaso zen garaian ez zen gaurko Gamon Zumardirik, bideratu gabeko ibai bazterra baizik. Errepide nazionala ireki eta inguru hau herriko bide nagusi bilakatu zenean, jauregiaren fatxadaren garrantzia erabat aldatzen da eta are gehiago nabarmenduko litzateke, aurrean duen eraikina desagertu ondoren, indarrean dagoen Errenteriako arautegian jasotakoa betetzen denean.

Lau solairu ditu eta lehenengo beste aldeko fatxadako sarrera-atearen parean dator.

Hirutan banatua da, fatxada nagusia bezalaxe. Kasu honetan, ordea, balkoi bakarra dago erdiko hutsartean; eta beheko solairuan ate bat dago biltegi batetara-



Argazkia: Jesús Hospitaler

Mendebaleko fatxada.  
Xehetasuna.

ko sarbide gisa. Balkoi hori (bigarren eta hirugarren solairua) harrizko bost mensulen gainean dago.

Beheko solairua gainerakotik moldura batez bereizten bada ere, ematen zaion tratamendua askoz apalagoa da, jatorrian fatxada honek zuen kategoria gutxiagoren ondorioz. Zerrenda mehe batek errematzen du hormatala teilatu hegalarekiko elkar-puntua jasoz. Teilatu hegal horrek Santa Klara kalera ematen duen fatxadakoaren tratamendu berdina dauka tailatuko habeburuei dagokionean.

Arotzeria lana kolore desberdinetakoa da, maizter bakoitza nahi izan duenaren arabera. Itxuraz bada ere, egoera orokorra nahiko ona da.



Eskuineko alboari atxikirik metalezko zorrotena dago. Dena den, fatxada desitxuratzen duten beste hainbat elementu ageri da, propaganda-kartelak, eletrizitate indarraren hodiak, aireztapen sistemak, argiteria publikoa, etab.

Fatxadaren egoera orokorra nahiko onda da, ez zaio inolako gaitzik nabari, kutsadura eta trafikoaren eraginez harriak duen zikintasun normal hori ezik.

### 3.2.3. Mendebaleko albo-fatxada

Fatxada hau, gaur egun, Beheko kalearen amaiera da. Kale horretatik Santa Klara kalera, kale honetako eraikin baten azpiko pasabide batetik igarotzen da. Ez zen hau, ordea, jatorrizko pasabidea izango. Jauregiko fatxadaren material eta antolaketa desberdina ikusirik hipotesi hau egin genezake: harlanduz eginiko fatxada zatia begibistan zegoen parte bakarra zen eta hormarriz eginikoa alboko eraikinek izkutatzen zuten. Beraz, honako ondorioetara irits gintezke:

- Santa Klara kalea jauregiraino iristen zen.
- Beheko kaleak ez zuen irteerarik eta Zubiaurre jauregian amaitzen zen.
- Ezkerreko eraikuntza marra aurreratuxeago batean zegoen, ibai baztarrerako pasabidea jauregiaren parean zuelarik eta harrizko arkuia dagoen lekuan etxerako beste sarbide bat zegoen.


Hutsarteen banaketa irregularra da eta beste fatxadetako altuera desberdinen parean kokatzen dira. Eskuineko aldean lau hutsarte ageri dira lerroan eta ezkerrekoan bi kota desberdinetan. Erliebeko leihoburua dute eta fatxadako harri mota berean daude landurik. Hutsarte hauen azpian, behe solairuko biltegira sartzeko ate bat da. Ezkerreko aldean arku bat dago, egun itxua, garai batean solairu nagusirako sarbidea izango zena.

Fatxadako ezker eta eskuineko aldeen arteko diferentzia, teilatu hegala ren inklinazio handiagoak areago nabarmentzen du. Bi aldeak elkartzen diren puntuan harrizko isurki zirkular eta zuzen bat ageri dela. Gaur egun, bere eginkizuna galdu eta altxaeraren erdi parean zorroten bat jarri da. Goiko aldeko ura jasotzeko kazoletako egoera txarrean dago, fatxadan behera, uraren bidea markatuz, datorren lirdingak erakusten duenez.

Fatxada honen egoeraren gauzarik adierazgarriena bere inguruan izan diren hirigintza aldaketek eragin duten nahasmendua da. Nolanahi ere, harlanduan ageri den hezetasunari buruz adierazitakoa ere kontuan hartu behar da, kasu honetan, larriagotu egiten baita eraikinaren alde honen orientabideagatik.

## ZUBIAURRE JAUREGIA

albo fatxada - mendebala



21. plano


F. López-Roldán · J. Ubarrechena

0 m. 10 m.

## ZUBIAURRE JAUREGIA

Atzeko fatxada - iparraldea

22. plano



F. López-Roldán · J. Ubarrechena

0 m. 10 m.

Gamon Zumardia.





Iparralderako fatxada.  
Gamon Zumardia.

### 3.2.4. Ekialdeko albo-fatxada

Egun ez dagoen eraikin bateko tarte horma zaharra zen. Kareharri gorritzako hormariz egina dago. Ez dago hutsarterik, ezta agerian gera zitekeen patio elkarbanaturik ere. Bistan geratu den gauza bakarra aldameneko etxeko egitura hondarrek dira.

Egoera onean dagoela dirudi eta, bere luzeera kontuan izanik, ez da asentamendu desberdinen ondoriozko pitzadura edo zartadurarik nabari.

## 4. ETXEAREN BARNEKO ALDEA

Esan dugun bezala, etxeak behe solairua eta estalki azpiko beste bi solairu ditu aurreko aldean eta beste solairu bat gehiago iparraldeko fatxadan. Hala, Zumardiko fatxadan sarrera duen beheko solairuan biltegi bat da. Beheko solairuak izan ezik, gainontzekoak bizitzarakoak ziren.

Barneko egitura alda zitekeen denboran zehar, bizilagun batetik gehiago izatera igarotzean, baina egitura elementuak, zutabeak eta zurezko habeak, ez dira aldatu. Ez dirudi bere egoera larria denik, baina, inolako zalantzarik gabe, beharrezka izango da solairu bakoitzeko azterketa zehatz bat egitea onddoek edo insektuek (pipiak edo termitak) jo duten ikusteko, etxeko hezetasuna oso egokia baita, mantenimendu egokirik izan ezean, gisa horretako izurriteak izateko.

### 4.1. Beheko solairua

Bi sarrera dira: Santa Klara kalea 1.eko ataria, etxebizitza eta alderdi politikoaren egoitzarako sarbidea dena eta bere eskuin aldean dagoen dendako atea. Ataritik, goiko solairuetako etxebizitzetara igotzen den haritz egurreko eskailera ederra abiatzen den gune batetara igaroko gara. Eskailera maila batzuk igo eta aipatu egoitzara iritsiko gara, edaritegi eta jangela eta joku areto zabal bat dena iparraldeko fatxada aldera (Gamon Zumardia) ematen duten leihoek argizatzen dutena; baditu baita ere biltegi gisa erabiltzen diren beste gune batzuk.

Espazio hori gaurko maizterrek berritu dute eta, honenbestez, kontserbazio egoera ona du. Egituraren zati bat "izkutatu" egin da, zurezko zutabeak panelez forratuz edo eskaioelazko zarpiatu bat eman zaiolako. Hala eta guztiz ere, bere sendotasuna nabari da eta egoera ona da.

### 4.2. Lehenengo eta bigarrenengo solairuak

Etxebizitza gisa antolatuak daude. bi etxebizitza dira solairu bakoitzeko, eskaileraren albo banatara. Eskuineko etxebizitza ezkerrekoa baino askoz txikiagoa da. Eskailera Santa Klara kaleko fatxadatik hurbilago dagoelako gertatzen da hain zuzen hori. Beraz, solairuaren banaketa honakoa hau litzateke:

- Eskuineko etxebizitzak zazpi gela ditu eta argia hiru balkoi nagusietatik eta alboko leiho batetik jasotzen du.

- Beste etxebizitzak korridore luze bat du eta alboetara gela ugari eta tamaina handiagokoak daude. Argia, berriz, Zumardira begira dauden leihoetatik eta barneko patioetik jasotzen du.

Barnean erabilitako materiale eta erremate motak era askotakoak dira, baina ez dute ezer berririk eskaintzen. Nolanahi ere, arazorik handiena denboran zehar






Ekialdeko fatxada.



Lehen solairuko barren aldea.



Goiko solairuetarako eskailera.

izan den utzikeria eta zabarkeria izan dira, hainbestearino non gaur egun egoera tamalgarrian baitago barren aldea. Lehenengo eta bigarren go solairuan ez da hain nabaria baina ganbaran zoladuraren egoera nahiko arriskutsua izan daiteke. Oholtza hautsita dago zenbait puntutan eta zikina ageri da leku guztietan. Euri ura jasotzeko ontzi ugari dago solairu honetan itokin ugariren seinale.

Era berean, ez dirudi erabilera eta zaintza egoera egokian daudenik elektrizitate instalazioa eta uraren hornidura sarea, etxebizitzak hutsik daudela itxura ematen baitute, hutsik denbora gehienez behintzat.



## 5. ONDORIOAK

Jauregiaren egoera orokorra, hala bere egituran nola bere fatxadetan nahiko ona da, hainbat xehetasun kontuan hartzeko bada ere. Segurtasun eta egonkortaun egoerari dagokionean (azkeneko solairuan izan ezik), ez dago kezkatzeko arrazoi gehiegizkorik. Bertako osasungarritasun eta apaindura elementuei dagokionean, berriz, gehiago zaindu beharko lirateke. Beste hainbat konponketa lanen artean, bereiziki, barneko aldearen erreforma lanak egin beharko lirateke bere itxura duintzeko, baita fatxadak, arotzeria lanak eta estalkiaren ur isurketa sistemak berritu ere. Hori guztia, noski, indarrean dagoen legediaren arabera egingo litzateke (Indarrean dagoen Legeak, beren jabetzak osasungarritasun, segurtasun eta apainketa publikoko egoera onean edukitzeko obligazioa ezartzen baitie jabeei). Eta, aldi berean, Hiriaren iragan ospetsuaren espirituari eutsi beharko litzaioke, arkitektura ondare interesgarria ekarri baitie egungo errenteriarrei.

## BIBLIOGRAFIA OROKORRA


- CONDE DE POLENTINOS: "El almirante Zubiaur era vizcaíno" *Euskalerrriaren Alde*, 141. zbk (1916), 625-634. or.
- CRESPO RICO, M.A.- CRUZ MUNDET, J.R.- GÓMEZ LAGO, J.M.: *Colección Documental del Archivo Municipal de Rentería*, Tomo I, San Sebastián, 1991 (Fuentes Medievales del País Vasco, 32. or.).
- ERENCHUN, Juan de: *Apellidos blasonados*, San Sebastián, 1967.
- GAINZA, Francisco de: *Historia de Irun-Uranzu*. 1737an argitaratutako jatorrizkoaren faksimilezko argitalpena, San Sebastián, 1987.
- GAMÓN, J.I.: *Noticias históricas de Rentería*, San Sebastián, 1930.
- GARCÍA CARAFFA, A.: *El solar vasco-navarro*, San Sebastián, 1966-67.
- GUADALAJARA, Fray Marcos de: *Historia Pontifical*, Zaragoza 1612.
- LECUONA, Manuel: *Del Oyarzun antiguo (Monografía Histórica)*, San Sebastián, 1959.
- LIZASO, Domingo de: *Nobiliario de los palacios, casas solares y linajes nobles de la provincia de Guipúzcoa*, San Sebastián, 1901.







BARRUTI HARRESITUA ETA ARRABALA - XVIII. MENDEA  
ERRETERIA



B - KAPITAIN ETXEA

196



## AURKIBIDEA

I. AZTERKETA HISTORIKOA .....	219
1.- Kapitain etxearen jatorria .....	219
1.1.- Matxin de la Renteríaren nortasuna .....	220
2.- Kapitain Etxea: XVII. mendetik gaur arte .....	221
II. ARTE AZTERKETA .....	225
1.- Herrera ondoko jauregiak .....	225
2.- Kapitain etxea .....	229
2.1. Kronologia .....	229
2.2. Etxaurrea. Osakera .....	230
2.3. Eraikuntzaren tipologia eta erabilerak .....	232
3. Ondorioak .....	235
4.-Bibliografia .....	236
III. ARKITEKTURA AZTERKETA .....	237
1. Ingurunearen deskribapena eta kokaera .....	237
2. Orubearen forma eta ezaugarriak .....	237
3. Eraikuntzaren kanpo aldeko itxura .....	238
3.1. Fatxada .....	238
3.2. Atzeko aldea .....	240
3.3. Estalkia .....	240
4. Barreneko itxura .....	242
Kaletik hurbilenekoa .....	242
Barreneko aldea .....	244
5. Ondorioak .....	245
IV. BIBLIOGRAFIA OROKORRA .....	247





## I

## AZTERKETA HISTORIKOA

## 1. KAPITAIN ETXEAREN JATORRIA

Gaur egun Kapitain Etxea izenez ezagutzen den eraikuntzak Errenteriako historiako lehenengo urteetan du jatorria; garai horretan uranzutarren familiari loturik ageri da; horiei buruz, berriz, ezin dokumenta daiteke batere zehaztasunez noiztik diren Errenteriako herritar.

Uste izatekoa da lehendabiziko Uranzutarrak Juan I.ak Madrigalen 1381eko urriaren 14an Oiartzun Bailarako biztanleei Errenteria biztanlez hornitzera joateko aginduz, eta hiribildu hartan etxeak eraikitzeko baimenez emandako agindua betez iritsiak ziratekeela Errenteriara<sup>1</sup>. Handik luzera gabe –XV. mendearen erdi alderako– Uranzutarrak ezagunak ziren zegoeneko itsasorako ontzigile gisa<sup>2</sup>, eta familia horretan jaioko da goroxeago etxeari izena emango dion semea: Matxin Errenteriako kapitaina.

<sup>1</sup> CRESPO RICO, M.A. - CRUZ MUNDET, J.R. - GÓMEZ LAGO, J.M.: *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería, Tomo I*, San Sebastián, 1991 (Fuentes Medievales del País Vasco, 32), 55-65. or.

<sup>2</sup> GUILLÉN, Julio: *Machin de Rentería*, Madrid, 1927, 5. or. Liburutxo hau Errenteriako Udal Artxibategian aurkitu daiteke gaur. B. Saila, I. Bulegoa. 3. Liburua. 4. Espedientea.

### 1.1. Matxin de la Renteríaren nortasuna

Uranzutarrei buruz ezagutzen den lehenengo dokumentu aipamena Matxin Erretereriakoarengandik datorkigu; Matxin hau, Martín Pérez de Uranzu zen bere izen jatorrez. Ontzizabe familia honek ongunde bat sintatu zuen Carlos I. arekin errege hark abiarazi zituen asmo militarretan bere ontziez hari laguntzeko. Era horretara, Julio Guillének dioen bezala<sup>3</sup>

el dueño de un bajel era capitán; el armador de varios, capitán principal o General de la Armada por ellos formada por asiento con el Rey<sup>4</sup>.

Horregatik, hain zuzen, ustea dugu Martín Pérez de Uranzu Carlos I. aren zerbitzutan sartu zela eta jeneral kargua eskuratu zuela, erregeren zerbitzuan jarririk zituen ontzi bat baino gehiagoren jabe zenez.

1515az geroztik bada Martín Pérez-en gerra ekintzen aipamen idatzirik. Tunisiako Bugiako portua setiatuak zeukan Bizargorri berberiar pirataren kontra parte hartzen du, eta orobat parte du Frantzisko I. aren gudarosteen kontra Hondarribia inguruetan 1521ean gertatzen diren hainbat gudutan. Martín Pérezen ekintzarik sonatuenak ordea –eta ospea eta entzutea ekarri ziotenak– 1526an Ibizako uretan Bizargorriren hemezortzi ontziren kontra izandako gudua, eta Florin<sup>5</sup> kortsario frantsesa atzeman izana dira.

Balentria handi horien sariz, Carlos I. ak armarría izateko baimena eman zion, 1529ko ekainaren 6an sinatutako Errege Agiri batez. Agiri horren kopia bat, 1602ko ekainaren 4an sinatua, Erretereriako Udal Artxiboan<sup>6</sup> gordetzen da. Horren arabera, honakoak da Uranzutarrei emandako armarría:

un escudo partido por medio de alto a baxo y en la una parte figurada el mar con el dicho galeon y cinco galeras y siete galeotas y cinco fustas y un vergantín delos dichos turcos y la otra parte del dicho escudo echa dos quartos y en el quarto de arriba tres flores de lisses de oro sobre campo azul que sson las armas que traya el dicho Juan Florin y en cuarto de abaxo una vandra con una cruz blanca y vandeado de azul y amarillo sobre campo tinto en sangre que es la vandra del dicho varon de Sant Blancarte y un orla colorada que ciñe todo el dicho escudo con ciertas aspaderas y una almete de guerra encima del dicho escudo con su cimera como va puesto<sup>7</sup>.

<sup>3</sup> GUILLÉN, Julio: Op. cit., 6. or.

<sup>4</sup> “ontzi baten jabea kapitain zen; bat baino gehiagoren jabea erregearekiko ongundez sortua zuten Armadako kapitain nagusi edo Jeneral”.

<sup>5</sup> GUILLÉN, Julio: Op. cit., 6. or.

<sup>6</sup> EUA B. Saila, I. Bulegoa. 3. Liburua. 4. Espedientea.

<sup>7</sup> “ezkutu bat goitik behera ebakia, eta irudia duen aldean itsasoa, aipatu galeoiarekin, bost galerekin eta zazpi galeotarekin, bost fusta eta bergantin bat aipatu turkuenak, eta ezkutu horren beste aldean, bi laurdenetan banaturik, goiko laurdenean hiru lilihori urrezko alor urdinean, horiek baitira aipatu Juan Florinek zituen armak, eta beheko laurdenean bandera bat gurutze zuri batez eta zerrenda urdin-horiak alor odoldu baten gainean, horixe baita baitatu Sant Blancarte baroiaren bandera, eta zerrenda gorri bat ezkutu osoaren inguruan, zenbait zehar zerrendarekin eta gudurako buru babeserako kasku bat horren guztiaren bainean, gailurrarekin, jarrita dagoen bezala”.



Horixe da gaur egun Kapitain Etxearen aurrealdean ikus daitekeen armarría.

Matxin de la Rentería berri gutxi dago une horretatik aurrera. Badakigu bere bizitzako azken aldian herriko alkate kargua izan zuela. Horrela egiaztatzen dute Kontzejuko agiriek, 1534ko uztailaren 19an, haren kargua, gaisorik zelako, Martín de Irizar<sup>8</sup> Kapitainari uzten zaiola adierazten duten agiriek.

Martín de Uranzuren hurrengo dokumentu aipamena bere testamentua da, 1535ean idatzia. Bere semeak izendatzen ditu oinordeko, eta familiaren jauretzea<sup>9</sup> bere seme Juan Pérezi uzten dio, jauretze horren jabegoa, haren “ezean” Jerónimo de la Rentería, Martín de Uranzuren beste seme baten esku geratu zen.

## 2. KAPITAIN ETXEA: XVII. MENDETIK GAUR ARTE

Dokumentu falta XVII. mendearen bukaeraraino luzatzen da, eta gudu ekinztekin loturik agertzen da berriro ere, agertzen denean. XVII. mendearen erdi aldera, Iturriza izeneko mutrikuar bat Gipuzkoako portu hau mehatxupean zuen itsasontzi frantses baten kontrako erasoaren buru izanagatik nabarmendu zen; hori dela eta hainbat mesede hartu zituen erregeren eskutik.

Juan de Iturriza almirante izendatu eta noble egingo du Carlos II.ak; hilabete-ko 80 soldata gozatzeko eskubidea ematen dio, lehendik ere Pasaiako portuaren eta Cadizkoaren artean merkataritzan ari zelarik.

Gamon-en kontaerari jarraitzen bazaiooinetxe 1969 inguruan Iturriza Almiranteak oinetxe bat sortu zuen; maiorazko horren ondasun nagusia Kapitanenea Jauregia<sup>10</sup> bide zen. Urantzutarren oinetxea haren eskuetara nola aldatu den argitzea da arazo larriena. Besterik erakusten duen dokumenturik ezean, pentsa daiteke salmentaz edo famili bidezko oinordetzaz egin zela eskualdatze hori, kasu honetan ordea, frogagaitza dirudi oinordetza bide horrek.


Iturrizari zor zaio gaur egun Kapitain Etxeak eta ondokoak, XVIII. mendearen bukaera aldera etxe bat bera baitziren biak, beren aurrealdeetan dituzten armarríak han egotea. Aipatzekoa da armarrí horien egileak hartu zuen lizentzia. Gaur egun Kapitain Etxean dagoen armarríaren gaineko burubabesaren begi-sarea ezkerretara begira dago, Heraldikan bastartasunaren ezaugarritzat hartua dena hain zuzen, baina kasu honetan arte lizentziatzat hartu behar dena, bi armarríak elkarren frontezen jartzeko asmoz eta eraikuntzaren batasuna nabarmentzeko egin hain alegia.

XIX. mendearen lehen herenera arte gutxienez Kapitanenea jauregia Iturrizutarren familiaren esku egon zen. 1813an Concepción Iturriza ageri da erai-

<sup>8</sup> EUA B. Salla, I. Bulegoa. 3. Liburua. 4. Espedientea.

<sup>9</sup> EUA B. Salla, I. Bulegoa. 3. Liburua. 4. Espedientea.  
EUA B. Salla, I. Bulegoa. 3. Liburua. 4. Espedientea.

<sup>10</sup> GAMÓN, Juan Ignacio de: *Noticias históricas de Rentería: Reseña histórica de Rentería*, San Sebastián, 1930, 234. or.



Fatxadaren ikuspegia.

kuntza horren jabe, eta 1828an 150 errealeko errenta hartzen zuen eraikuntza horrengatik<sup>11</sup>.

XIX. mendean zehar Errenteriak guduen ondorioz nozitu behar izan zituen gorabeherak direla eta nekez zehaztu daiteke eraikuntza horrek izan zuen bilakabidea. Ziur esan daiteke 1925erako bitan banaturik zegoela behinola bakarra izandako Kapitain Etxea; eta hortik aurrera historia desberdinak izango dituzte batak eta besteak. Orain begiratzen ari garena Kapitanenea kaleko 6. orubea bihurtuko da, jabea Ventura Cortés duela.

Gaurko bi eraikuntzen banaketa 1850-1920 bitarteko uneren batean egina dateke. Horretarako arrazoiak Morrontxoko kasuan eta Zubiaurre Jauregiarenean

<sup>11</sup> EUA B. Saila, 4 Bulegoa. 1. Liburua. 1. Espedientea.









## II

## ARTE AZTERKETA

Eraikuntza honen azterketa hasteko, bere izatez dagokion testuinguruan kokatuko dugu lehenik, Euskal Herriari dagokionez Herrera ondoko jauregi deitu izan diren eraikuntzen testuinguruan hain zuzen. Eraikuntza honen aurrealdea behintzat, arkitektura joera horren eredu bikaintzat har daiteke; joera kontserbazale horrek, Herreraren estiloaren ezaugarri asko baditu ere, XVIII. mendearen lehen erdira arte iraungo du, barroko aldian ondo sartu eta geroagora arte.

## 1. HERRERA ONDOKO JAUREGIAK

Lehen esandakoagatik, Euskal Herrian XVII. eta XVIII. mendeetan hain ugari izango den jauregi mota honi buruz argitasun eta azalpen zehatzak emango dituen aipamen luze bat egitea behar-beharrezkoa dela derizkiogu.

Beste ezeren aurretik, gogoratu beharra dago oinetxe berri ugari sortzen diren aldi bat dela garai hau, besteren artean merkataritza eta industria jardueraren atzera-kada gertatzen delarik, aberastasun iturburu nagusizat ondasun higiezin eta onibarrak hartzen direlako. Instituzio horren xedea hain zuzen ere horrelaxe finkatu baitzen: *“para asegurar su preservación (la de los bienes) sobre los avatares del tiempo y de la desidia humana, las élites adoptaron una institución fundamental, el mayorazgo cuya misión era preservar la herencia troncal, los “bienes raíces” patrimoniales que siempre debían permanecer intocados para garantizar así la inmovili-*

*dad de todo el sistema social*"<sup>14</sup>. Instituzio honi dagokionez azken azalpen bat egiteko, gogoratu beharra dago hala ere *"en las tierras pirenaicas existía desde antiguo un sistema consuetudinario de herencia troncal –parecido pero no idéntico–, el mayorazgo solariego no se convirtió en artificio testamentario general vascongado hasta el siglo XVI, esto es, hasta la redacción definitiva de los fueros provinciales"*<sup>15</sup>.

Aldi berean, geroz eta aristokratikoago bihurtzen ari den gizarte honek geroz eta mendekotasun handiagoa du erregeren burokrazian dituen karguen proportzio handiak dakartzkion kanpotiko baliabideetakiko, kargu horiek hain zuzen idazkari-rik apalenetatik hasi eta erregeren idazkari pribatu izaterainokoak izan baitaitezke, nola izan baitzen adibidez Cristóbal de Ipeñarrieta, geroago aipatuko dugun jauregi ederraren jabea. Horrexegatik hain zuzen, halako gutxieneko errenta batzuk izango dira, krisi bete-beteko mendean, Gipuzkoan eta Bizkaian batez ere, jauregi multzo handi bat jasotzeko modua emango dutenak. Jauregi horiek izango dira, Hiribilduetan (geroz eta nekarazitzara emanago hauek ere) ala landa-landan egon, maiorazko sortu berri hauen ardatzak.

Nolanahi dela ere, dela Iberiako penintsulan aipaindurari dagokionez XVII. mendearen hasiera aldera halako neurrizkotasun baterako joera zabaltzen delako edo dela neurrizkotasun horrek dirutan dakarren aurreratzeagatik, horrenbestez duintasun galdu gabe hala ere; dela bestelako eraikuntzarik jasotzeko gai diren hargin edo obra maisurik ez delako, kontua da Herrera ondoko formula horrek berebiziko arrakasta izango duela.

Aditzera emana dugu zein den estilo horren ezaugarri berezien eta nabarmena, eraikuntzek apaindurarik ez izatea alegia. Hala eta guztiz ere ordea, neurrizkotasunak ekar lezakeen gastu aurreramenduari buruz esan dena gorabehera, *"...manifestando nuevos elementos de lujo en la calidad de la estereotomía, los perfiles de los abundantes y caros trabajos de forja y la calidad artesana de las tallas en madera, ya sea en puertas, ventanas, techos, escaleras y aleros"*<sup>16</sup>. Hauek dira, oinarri-oinarrian estilo honek dituen ezaugarriak; horiez gainera, ordea, aipatzekoa da xafla leunaren erabilera oparoa, etxearen leiho eta sarreraren nabarmengarri gisa.


Aise ikus daitekeenez, beraz, aski urruti gaude Euskal Herrian gordetzen diren Berpizkunde beteko eraikuntza zibiletatik, haietan, batez ere estilo plateres-

<sup>14</sup> "hain (ondasunen) iraupena denborak eta gizakiaren zabarkeriak eragiten dituzten gorabeheretatik, gizarteko maila nagusiek oinarri-oinarrizko instituzio bat eratu zuten, maiorazkoa, oinetxearen herentzia gorde zezan, gurasoengandiko onibarrak alda eta xahu ez zitezten, era horretara gizarte sistema osoak aldatu gabe iraun zezan".  
EUA 726/1.

<sup>15</sup> "Pirinio aldeko lurraldeetan antzinako garaietatik ere halako oinetxearen herentzia sistema bat bazela –antzekoa baina ez guztiz berdina–, oinetxeko maiorazkoaren instituzioa XVI. mendera arte ez zen iritsi euskaldunen testamentugintzako ohitura orokor, probintzietako foruak behin betiko idatzi ziren arte alegia".  
Op. cit.

<sup>16</sup> "...apaindura eta aberastasun elementu berriak erakusten dituzte estereotomiaren kalitatean, forja lan ugari garestien ingurumenetan eta ate, leiho, sabai, eskailera eta hegaletako zur landuen eskulanaren kalitatean".  
AZPIAZU, Roberto: "Arquitectura civil doméstica en Gipuzkoa", *Ibaiak eta Haranak*, 2. lib., San Sebastián, 1990, 29. or.






Fatxada nagusia.

koko eraikuntzetan, arkitektura elementu guztiak halako dotorezia eta aberastasun batez apaintzekoa izango baita joera nagusia. Berpizkunde-Plateresko estilo horretako eraikuntza gutxi geratu izanak (Zumarraga, Elorrio), baina batez ere, Herrera ondoko estiloko jauregien ugaritasun ohargarri horrek berorrek eraginik hartu izan da azken estilo hau Euskal Herriko arkitektura zibilaren ezaugarri berezi eta definitzaile gisa.

Begibistako gauza da Euskal Herriaz kanpkoa dela estilo horren elementu eta gaien eta “izpirituaren” beraren jatorria, Gaztelan eta erregeren gorte inguruan XVI. mendearen bukaera aldean eta XVII. mendearen hasieran egindako obretan bilatu behar dela hain zuzen batez ere jatorri hori. Horren antzeko egoera gertatzen da, orobat, jatorria Herri honetatik urruti duen eliza mota edo estilo bati “euskal gotikoa” deitzen zaionean. Kasu batean zein bestean, kanpotik ekarritako formula horiek, batak ala besteak, gure ingurune honetan izan zuten berebiziko arrakasta da gauza zinez ohargarria. Ez dago arazo handirik estilo horiek arrakasta izan dezaten bide bat bederen aurkitzeko. Iberiako Penintsula osoan zehar eta are Ameriketara ere lanean diharduten euskal harginak dira bide hori. Hargin horiek, ez baitira arkitekto, obra maisuen esanetara egiten dute lan ondoz ondoko estilo askotan. Aipamen berezia merezi du, hargin horien artean, Escorialeko obretan enplegatzen zen euskal hargin multzo handiak (horrekin talde horren eta aipatu estiloaren zabal-kundearen artean ezinbesteko loturarik ezarri gabe bada ere); bide nabar, aipatzekoa da talde horrek hemen zehaztu beharrik ez dagoen zenbait arrazoiengatik halako greba bat egin izana, nolabait talde barreneko solidaritatea erakusten duena.



Atzeko fatxada..

Nolanahi dela ere, kualifikazio handiko eskulangileak, eta ongi ordainduak, izan arren, haiengandik ez da hori baino gehiagorik espero izan behar; horretaz ari dela, eta zehazki XVI. mendez ari dela (hurrengo mendeetan egoera hori ez baita asko-askorik aldatuko) honela dio Marías-ek: “...de un total de 1250 canteros conocidos en el siglo XVI, sólo tenemos noticias de 76 (6 por 100) tracistas, aunque solo fuera una sola vez en su vida (...) y aquéllos intervinieron en muchos casos en trazas de escasísima importancia y, desde luego, absolutamente tradicionales”<sup>17</sup>. Ez gaitu zertan harritu behar, bada, argin horietatik trebeen eta abilenei ematen bazaie eraikuntza proiektatzeko kargua, eta beste leku batzuetan eginaren bertsio ausartagoak edo ez hainbestekoak egiten badituzte.

<sup>17</sup> “...XVI. mendean ezagutzen diren 1.250 harginetatik, 76 trazalari baizik ez dira ezagutzen (ehuneko 6), beren bizitzan behin bederenik eraikuntzaren baten traza eginak, eta aritu horiek beroriek ere oso garrantzia gutxiko trazak egin zituzten, eta guztiz tradizionalak egin ere, egin zituztenak”.

MARÍAS, Fernando: *El largo siglo XVI*, Madrid, 1989, 506. or.



Aipatzen ari garen estiloa Euskal Herrian errotu zedin eragina izan zuen beste bide bat Euskal Herrian sortu eta erregeren burokraziaren maila batean edo bestean ziharduten burokrate multzo handiak, edo harginena baino txikiagoa bederen ez zenak, emango zuen. Uste izatekoa da horietako bakoitza bere burokrazia lane-tik –eta horrenbestez ingurune artistikotik– berriro bere herrira itzultzen bada, bera bizitzeko etxea eraikitzean, ezagututako zentruen arabera eraikiko duela. Eraikuntza zibiletan –berriro gogoratu beharrik ez dago– Herreraren estiloa eta haren ondorengoak dira nagusi. Artearen komunikazio eginkizun horren adibide bikaina dugu, XVI. mendearen hondarretan eta XVII.aren hasieran, Don Cristóbal de Ipeñarrieta, Felipe II.a erregearen idazkari propio izatera iritsia. Jaun honek, bere lanbidean metaturiko dirutza itzalekin, jauregi eder bat eraiki arazi zuen Urretxun, Herreraren estilorik doienean. Kasu hau ordea, salbuespena ere bada, zeren gauza ziurtzat ematen baita gorte ingurukoa zela eraikuntza diseinatu zion arkitektoa; halakoxea baita, izan ere, eraikuntzaren tipologiaren eta apaindura elementuen diseinuaren kalitatea eta modernotasuna.

Bistako gauza gertatzen da, nola, maila altuko burokrate batek arkitektura ereduak inportatzen dituela ikusten dugularik ere, aipatzen ari garen kasu honetan Ipeñarrietako jauregia hain zuzen, aldi berean eraikuntza hori berorren estiloaren zabalkunde foku bat bihurtzen den. Hain zuzen ere, jauregi hori une horretara arte Gipuzkoan eraikitako handien eta ospetsuena izango da, eta horrenbestez jarraitu beharreko eredu gisa (hainbesteko aberastasunik ez zutenen aldetik) jokatu zuen papera ez da ahazteko ez gutxiestekoa.

Azpmarratzekoa da azkenik, aipatzen ari garen Herrera ondoko estilo hau Euskal Herrian hainbeste zabaldu eta errotzeko beste arrazoi bai, aipatu dugun lehenengoarekin oso lotura estua duena hain zuzen, beste era batera ia ezin eraiki izana dela. Badirudi, hain zuzen ere, XVII. mendean zehar, ekonomian atzerakada handia gertatzen ari den prozesua indar-indarrean dela, ia Erdi Arokoztat eman daitkeen eraikitzeke modu batera itzultzen dela berriro, eskulangileek ezagunak dituzten ereduak errepikatu eta errepikatu baizik egiten ez dakitela. Horrek esan nahi baitu, alegia, XVI. mendearen erditik aurrera Euskal Herrian, neurri batean behintzat, eraikuntza proiektua disenatzten duen arkitektoa alde batetik eta eraikuntza hori burutzen duen eskulangilea bestetik, ongi bereizten dituen joera modernoan nagusitzen bada ere (garai horretako ereduak dira, adibidez, Erreterian, udaletxearen proiektua edo parroki elizaren atariarena), XVII. mendearen hasieratik aurrera, arras galduko da arkitektoaren irudia, eta hargin taldeen esku geratuko da berriro obraren eginkizun guztia, hasi proiektua egitetik eta eraikuntza burutzeraino. Hargin horiek, arkitektoek baino prestaketa urriagoa baitute, eta haien aldean kultura asmo laburragoak, ez dute egiten lehendiko ereduak errepikatu baizik.

## 2. KAPITAIN ETXEA

### 2.1. Kronologia; estiloaren arrazoiak

Eraikuntza honi buruz idazten edo mintzatzen denean, Matxin Erretereriakoa aipatu, eta horrekin, besterik gabe, gaur den etxea hark eraikia dela gauza finkatu-

tzat ematea izan ohi da ohizkoena. Ohartarazi beharra dago, ordea, etxe horren erakiera eta estiloa, gaur diren bezala, ezin pentsatuzkoak direla XVI. mendearen lehen erdian. Lehen ere esanik utzi dugu Herrera ondoko estiloko eraikuntza bezala, askoz ere geroagoko garai bati dagokiola berez. Ez diogu hori eskema orokor bat eraikuntza jakin batekin egokitu edo ongi ezkondu nahi dugulako, garai horretan Erreterian aurkitzekoa litzatekeen estiloa gotiko berantiarra izango litzatekeelako baizik, eta ez jatorri klasikoko estilo hau. Horixe erakusten du, adibidez, garai horretan berorretan parrokia eta Erdi Aro beranduko estilo eder bateko beste zenbait eraikin jaso izanak. Hiri honetan ez ezik, Gipuzkoa osoan gertatzen da beste horrenbeste. Iberiako Penintsula osoari begiratuta ere, esan daiteke zinez, lehenengo mende erdi hori klasizismoaren sarrera hasieratxo bat baizik ez dela (mende osoan zehar gotiko estiloko eraikuntza handiak jasotzen jarraitzen dela ahaztu gabe).

Egia da Matxin Erretereriakoa orube baten jabe izan zela Hiri honetan, eta etxe bat eraiki zuela han, baina ez da gauza segurua orube hori gaurko etxearen orube berbera zenik; eta gauza segurua da, beste aldetik, gaurko etxea ez dela hark eraikia.

Historiari dagokion azterketan emanik geratu dira Uranzu familiaren zenbait datu oraingo azterketa honetan baliagarri izango zaizkigunak; batek batez ere, 1696an oinetxea Kapitanenea etxean duen maiorazko bat sortu izanari dagokionak aldegia, argi asko dakar, behin gaurko etxe hori XVI. mendeko eraikuntza denik baztertu dugularik. Data eta gertaera horiek, hori baino lehentxeago etxe hau eraiki izanarekin lotura badutela uste baitugu, argitzen digute osorik, zergatik izan daitekeen Kapitain etxea hainbestetan aipatzen ari garen Herrera ondoko estilokoa.

## 2.2. Etxaurrea. Osakera

Ohartarazi beharra dago, aurrera baino lehen, eraikuntzaren etxaurrean ez dela gaur egun udaletxeko eraikuntzari dagokion aurrealdea bakarrik, bestela baizik, nahikoa luzatzen dela Herriko Plazara alderantz. Esaten ari garen luzamendu horrek, leiho eta ate berriak zabaldu direlarik batez ere aski aldatuta baldin badago ere, oinarri-oinarrizko elementuak ez ditu galdu, hala mola erlaitza, armarrria, imposta edota are harlandu komunak. Etxaurreak, osotasun horretan harturik, itxura koherenteagoa du, eta handitasun gehiago.

Era horretara, eta leihoak kendurik, bistan denez geroagokoak baitira, bi solairuko eraikuntza bikaina aurkitzen da, hiru leiho sail dituela. Bigarren solairuan, ardatzaren alde banatara, bi armari ditu, berorien jatorria eta jabetza ikerketa historikoan argitu direnak. Armari horiek dira, erlaitzarekin eta hegaleko habeburuekin batera, eraikuntzaren apaingarri bakarrak. Eraikuntza honetan, gainera, ez dira erabiltzen garai horretan hain ohikoak ziren xafla lauaren itxurako moldurak; era horretara nabarmendu gabe geratzen dira leiho-ateak eta are itxura zuhur neurtuagoa du denak. Etxearen aurrealdearen zabaltasun itzalezkoa zertxobait arintzeko ahalegintxo bat egiten da gehienez ere, solairu bakoitzean zehar impostak jarriz lerro horizontalak nabarmenduz. Era horretara, oso elementu gutxi erabiliz, etxearen aurrealde zabal bat antolatzen da, berorren zabaltasunak berak egoitza nagusi gisa duen garrantzia agerian jartzen duela.





Horma  
banatzailearen itxura.

Estereotomia (harria lantzea) on baterako zaletasuna, lehen ere aipatua, oso garbi ikusten da aipatzen ari garen eraikuntza honetan; aipamen berezia merezi du, alde honetatik, teilatu hegalararen pean ageri den joera jonikoko erlaitz finak. Elementu hori oso ongi landuta eta tailatuta dagoen arren, ez da bereziki nabarmentzen etxearen aurrealdearen goren horretan. Garai horretan hain zuzen, zurezko hegala du etxearen aurrealdearen akaberaren pisu guztia, eta erlaitza eginkizun horretan hasiera eta lagun baizik ez da.

Teilatu hegala, bere aldetik, jatorri klasikoko zurgintza tailazko zenbait elementuz, boluta gisako mentsulaz, osatua da. Bertako klimak halaxe eskatzen baitu hain zuzen, euritako ura hormetatik ahalik eta gehien urruntzea baita kontua. Ez dakigu nondik datorren zehazki Euskal Herriko eraikuntzetan harrizko erlaitz baten gainean zurezko egitura bat jartzeko egitura hori; baina halaxe gertatzen da euri asko duten beste leku batzuetan ere, Toskanako eskualde ondo klasikoan adibidez.



Kapitain Etxearen behebarra.

Eraikuntza honek gaur egun dituen burdin lanei dagokienez, ez da frogarik XVII. mendeko jatorrizko burdin lan berberak direla esan ahal izateko; horrexegatik ez ditugu askorik aipatuko.

### 2.3. Eraikuntzaren tipologia eta erabilerak

Hasteko eta behin, esan beharra dago eraikuntza horren barreneko aldea desaturaturik dagoela, gutxien-gutxienez, erabat birrindu ez denean. Beste alde batetik, etxebizitzetarako erabili den eraikuntza partean erabat aldatu da plana, erabilera berri horretara egokitu ahal izateko. Are gehiago, solairuek hasieran zuten altura jaitsi egin da, erlaitzaren mailatik gora joan gabe beste solairu bat jarri ahal izateko. Beste alde batetik, udaletxeari dagokion zatia ere arras aldatuta zegoen eraikuntzaren birgaitzea hasi zenean, bi arku besterik ez baitziren geratzen beheko solairuan hasierako planaren araberakoak zirela ziurta zitekeenak. Honekin guztiarekin gauza bat utzi nahi da argi eta garbi: ia-ia ezinezko gauza dela etxe honek hasieran zuen antolamendua ziurtasun apur batez berriro lehen bezala finkatzea. Horregatik hain zuzen, garai hartako arkitektura ohituretan bermatzen diren zenbait hipotesi proposatzera mugatuko gara.

Hasteko, beste ezer baino lehen, XVII. mendeko jauregietan izan ohi zen antolamendu arruntari eta hartan izaten ziren jardueri buruzko oinarritzko berri orokor batzuk eman daitezke, azterketa honetan ziur baliatzekoak eta kontuan har-



tzekoak baitira. Erabilera eta jarduera horiek hitz hauetan laburbilduko ditugu: *“En la planta baja se dedicaba un importante espacio a recibidor y zaguán, comunicados con la escalera, espacio de distribución, dejando paso al ámbito residencial y apartando de la vista la zona de servicios, con leñera, bodegas, espacio para las sillas de mano y coches etc. (...) La planta principal está destinada a la vida social de los moradores. Aquí se sitúan las estancias más representativas y dedicadas a recibir visitas, efectuar negocios o realizar actos administrativos, así como el oratorio familiar”*<sup>18</sup>.


Gure jauregi honetan aipatu diren gelak, egoitzak eta erabilerak nola diren azaldu ahal izateko, jauregi honen sorrera eta agian izan duen bilakaera nola izan dituen hobeki ulertzen ahalegindu beharko dugu. Hasteko, esan daiteke Kapitaneña etxe honek Erdi Aroko orube banaketako orube bat baino gehiago hartzen duela beharbada. Abiapuntu horretan oinarrituta pentsa daiteke (ezin daiteke ziurtatu hala ere, hormetan indusketa sakon bat egin gabe), jatorrizko orube haiek eragina izango zutela jauregiaren oinplantan, eta are gehiago, lehendiko eraikuntzen tarte hormak ere baliatuko zirela agian. Hori guztia ez da batera harritze-koa, Linazasorok Euskal Herriko hainbat eskualdetarako ematen dituen adibideak eta aukeak kontuan hartzen badira. Hori guztia kontuan harturik, susma daiteke hiru orube oso hartu zirela, beren tarte hormekin, eraikuntza berria antolatze-ko.

Ez da ezagutzen antinako orube horien sakontasuna zein zen, eta nekez ezagutu daiteke hortaz ezer, Kapitain Etxe hau eraikirik dagoen etxaldearen jatorrizko plano ez baita ezagutzen. Gainera zalantza handiak ditugu gaur egungo eraikuntzaren atzeko fatxadak zer ikusi handirik ba ote duen jauregiak hasieran zuenarekin. Hori guztia dela eta, behinolako tarte horiei dagozkien bi hormak banatzen duten orube handi bat dela baizik ez dakigu, jakin. Egoera horrek eraikuntzaren fatxada hiru hutsartetan banatzera bultzatu zituen, nonbait, eraikuntza honen egileak, hutsarte horietako bakoitza lehenagoko etxe baten fatxadari zego-kiola. Horma horiek, lehenagoko eraikuntzen hondarrak, eraikuntza berriaren karga hormak izango lirateke, eraikuntza berriaren zureriaren irozgarri, lehenengo solairuetan bederen. Barnekaldearen zatiketa horrek behartuko zuen, gainera, behebarruaren, eskailera gunearen eta beste zenbait elementuren kokaera ere.

Horrela bada, kontuan harturik eraikuntzarako sarrera nagusia Erdiko hutsar-teen zegoela kokatuta, hau da, gaur bizitoki eraikuntza den tertean zegoela koka- tuta, gaur egun bizitoki anitzetako etxebizitza den eraikuntzan aurkituko zen eskailera gunea. Eskailera gunea hori, Euskal Herriko jauregietan antolamenduaren eta edukiaren oinarri-oinarritzko elementua dena, orube zabala duten eraikuntzetan

<sup>18</sup> *“Beheko solairuan leku handi bat eskaratzetararko eta ataritarako utzi ohi zen, bi horiek eskailerarekin lotuak; eskailera hori banaketa espazioa izan ohi zen, bizitokirako irispidea, zerbitzu aldea bistatik ezkatuzten zuela; hartan izaten zen egurtokia, sotoa, eskuko aulkiak gordetzeko lekua, kotxeak edukitze-koa, e.a. (...). Solairu nagusia bertako biztanleen bizitza sozialerako izan ohi zen. Han izaten ziren gela nagusiak, bisitak hartzekoak, negozioak egitekoak edo administrazio eginkizumak betetzekoak, eta har- tan izaten zen orobat familiaren kapera edo otoitzegia ere”*.

AZPIAZU, Roberto: *“Arquitectura civil en Bizkaia”*, Ibaiak eta haranak, 4. lib., San Sebastián, 1990.



Beheko solairuko  
sapaiaren egitura.

baizik ez da jartzen hain erdian, gure kasuan bezala. Hortik abiatuta aise irudika daiteke behebarru edo atari bat eskaileraren eta sarreraren artean.

Nolanahi dela ere, behebarru edo atari hori etxebizitzarako sarbide gisa erabiliko zen batez ere, sarrera nagusiaren alde banatara beste bi ate baitira, zerbitzuko guneetarako sarbide gisa erabiltzen bide zirenak. Eskema horretan desegokitasun gisa ohartarazi beharra da, “zerbitzuko” albo gorputz horietako batean, gaur egun udaletxearena den partean, lehen aipatu dugun arku bikoitza, soluzio apainegia baita (euskarri zilindrikoa erabiltzea batez ere) jatorrizko etxebizitzaren parte dela ez uste izateko.

Eraikuntzaren itxurazko desegokikeria horiek etxearen jatorrizko planoaz dugun ezagutza faltaren ondorioa dira batez ere, eta eraikuntzaren hormei eta beste zenbait elementuri buruzko informazio urriaren ondorioa orobat. Ezagutza falta hori erremediatzeko, lehen esan den bezala, indusketa eta zulatze sail bat



egin beharko litzateke zoruan eta hormetan. Lehen aipatu diren arkuen behar bezalako azalpen bat ematea aski gauza zaila bada, are zailagoa atzeko fatxadan den zutabe ildokatuaz iritzi finko arrazoizkotu bat ematea. Antzinako "loggia"-ren baten hondarra ote da? Ezin daiteke erantzun ziurrik eman, ezer egiaztatuko ala gezurtatuko duten daturik ezean.

### 3. ONDORIOAK

Azterketa honetan agerian jarri denez, Kapitanenea jatorrizko Etxetik fatxada bat eta barreneko zenbait gai solte baizik ez da gordetzen lehen zen bezala. Horregatik, eta dokumentuzko berriak urri direla kontuan harturik, eraikuntza hau bere testuinguru historiko eta estilistikoan kokatzen ahalegindu gara azterketa honetan, aldi berean eraikuntzaren kronologiaz ere argitasun batzuk ematen saiatuz. Horrez gainera zenbait hipotesi planteatu dira berorren historiaz eta jatorrian zituen elementuez.

Horrez gainera bada bestelako oztopo bat ere. Hasieran zen etxe handi bakarra bi jabetza eta erabilera oso bereizitan banaturik dago gaur egun, eta horretxek berorrek zailtasun eta oztopo handiak sortzen ditu azterketa sakon bat egin ahal izateko.

### 1. ORUBEAREN FORMA ETA TZAUDARRIAK

Etxeak Kapitanenea kaletik da sartzen, kale hori Iparrmendetik Hegokialde hedatzen da, zentzu horretan bertan gorantz doan mulla aparteko buia. Kapitain Etxetiko sartidetako Hegokialdetatik da. Udalekizpean sira fatxaduna hurbil dago, haren aurrean baitago udalerria, harenikoa zentzuzko alda berrak.

Kapitain etxea jasorik dagoen orubean dagoenez, zutirik handiena txikiuztatik behera hartzen da, atzeko patio txikiago baten horretan dagoen kenduta. Eraikuntza bera jakitzuzena da, lantuzuzen bertan alderik alderiak (17,25 m) izar horretan dagoenak dira, eta atzetik (7,9 m) fatxadari eta atzetik dagoenak. Oinplanorik dagoenez, orube trapezoidalak dagoen bera bera lize xamorra, aurrealdeko mulla dala, eta atzetik dagoen bera bera, Etxe Aurreko sarrerako hirugunean ohi bezala.

#### 4. BIBLIOGRAFIA

- ALDABALDETRECU, Roque: *Casas solares de Guipúzcoa*. San Sebastián, 1979.
- AZPIAZU, Roberto: "Arquitectura civil doméstica en Gipuzkoa". *Ibaiak eta Haranak*, 2. liburukia. San Sebastián, 1990.
- AZPIAZU, Roberto: "Arquitectura civil en Bizkaia". *Ibaiak eta Haranak*, 4. liburukia. San Sebastián, 1990.
- CHUECA GOITIA: *Historia de la arquitectura occidental. El renacimiento en España*. Madrid, 1984
- CHUECA GOITIA: "Arquitectura del siglo XVI". *Ars Hispaniae*. Madrid, 1953.
- ESPARZA, Belén: *El palacio del marqués de Huarte*. Pamplona, 1987.
- KUBLER, George: *La obra del Escorial*. Madrid, 1993.
- KUBLER, George: "La arquitectura de los siglos XVII y XVIII". *Ars Hispaniae*. Madrid, 1957.
- LINAZASORO, J.I: *Permanencias y arquitectura urbana*. Barcelona, 1979
- MARÍAS, Fernando: *El largo siglo XVI*. Madrid, 1989.
- MARTÍNEZ GORRIARÁN, Carlos: *Casa, Provincia, Rey*. Irún, 1993.
- PEÑA, I. – LARRAÑAGA, J.A. – GANICACELAYA, J.: *Discurso sobre la comodidad de las casa, que procede de su distribución exterior e interior/ el palacio de Insausti*. San Sebastián, 1990.
- Zenbait egile. *El Palacio Corral-Ipeñarrieta*. San Sebastián, 1993.



### III

## ARKITEKTURA AZTERKETA

### 1. INGURUNEAREN DESKRIBAPENA ETA KOKAERA

Ikerketa honetan aipatzen diren gainerako eraikuntzak bezala, Erreenteriako Hiriazen parte zaharrean udaletxetik hurbil aurkitzen den eraikuntza bat da hau ere.

Etxe noble bat da, herri edo hiri girokoa guztiz, tarte-hormen artean kokatua. Fatxada nagusi bat du, sarrera Kapitanenea kaletik duela. Haren kontrako aldeak apika Erdi Aroko zanga baten hondakin datekeen etxalde patio batera ematen du. Beste biak, fatxadari eta patioari buruz zutak direnak, bi tarte horma dira.

### 2. ORUBEAREN FORMA ETA EZAUGARRIAK

Etxeak Kapitanenea kaletik du sarbidea; kale hori Iparmendebal-Hegoekialde hedatzen da, zentzu horretan berean gorantz doan malda apurtxo batez. Kapitain Etxerako sarbidea Hegomendebaletik da. Udaletxearen albo fatxadatik hurbil dago, haren aurrean baitago udaletxea, harekiko zertxobait alde baterantzua.

Kapitain etxea jasorik dagoen orubeari dagokionez, zatirik handiena eraikuntzak berak hartzen du, atzeko patio txikitxo batek hartzen duena kenduta. Eraikuntza bera laukizuzena da; laukizuzen horren alderik zabalena (17,25 m) tarte hornei dagozkienak ditu, eta estuenak (7,9 m) fatxadari eta atzealdiari dagozkienak. Oinplanoari dagokionez, orube tipo gotikoari dagokio bete-betean: luze xamarra, aurrealde estua duela, eta sakontasuna berriz handia, Erdi Aroan sortutako hiruguneean ohi bezala.

Oinplanoan 136 m<sup>2</sup> hartzen ditu. Azalera hori bitan banatzen du tarte hornei buruz zut dagoen karga horma batek. Bi zati horietako bakoitza ia koadrokoa da; sarreratik hurbilen dagoenak 7 m.tako sakontasuna du, eta barrenekoak 8,45 m.takoa. Horen ondorioz, 48,3 eta 58,3 m<sup>2</sup>-tako azalera erabilgarriak (hormen lodiera kenduta) geratzen dira zati batarentzat eta bestearentzat.

### 3. ERAIKUNTZAREN KANPO ALDEKO ITXURA

#### 3.1. Fatxada

Eraikuntza honek hareharrizko harlanduzko fatxada du; hiru maila ditu fatxadan, solairu edo maila bakoitza solairuari dagokion alturan zentimetro batzuk irte den hareharri berezko zerrenda batez bereizten dela. Gorenko errematea beheko bi moldurak baino askoz ere finago landu den erlaitz batez markatzen da.

Solairuetako leiho edo ate bat bakarra du; behekoari dagokiona sarrera atea da; lehenengo solairuari eta bigarrenari dagozkienak berriz, balkoi bana, burdin forjatuzko barrotez eta zurezko eskubandaz hornituak. Hiru sarrerek dituzte atalburuak, goitik behera elkarrekin lerrokatuak daude, fatxadaren simetria ardatza izango litzatekeenetik zertxobait alde bateratuak. Beheko solairuan badira oraindik ere agerian behinola ate izan eta gaur itxirik dauden biren aztarrenak.

Bigarren solairuan nabarmentzekoa da balkoiaren eskuinetara dagoen armari bikaina, harrian landua, etxe honetako lehenengo biztanleen noble kategoriaren adierazgarri.

Armari horrek begiratzen duen zentzuak, eskuinetara begira baitago, eta ondoko etxean altura berean ezkerretara begira begira dagoen beste armari baten oso antzekoa baita, bi eraikuntza horietan erlaitza eta solairuak banatzen dituzten moldurak elkarren jarraian egoteak, eta orobat harlandua ere elkarren jarraikoa izateak, horrek guztiak erakusten du eta frogatzen, gaur egun Kapitanenea deitzen dena, eta bere ondokoa, Kapitanenea kaleko 4. zenbakiari dagokiona, eraikuntza bat bera izan zirela hasieran, eta gaurko bi eraikuntzak hartzen zituen fatxada bakarra zuela. Gaur egun bi eraikuntza horiek oso aldaturik daude. Bataren eta bestearen estalkiek eta hegalek neurri desberdinak izateak, eraikuntza bateko ala besteko hutsarteak neurriz eta kokaeraz desberdinak izateak, eta bien atzealdeek neurri desberdinak izateak, guztiak adierazten dute eraikuntza horren bitan banatzea aspaldiko gauza dela.


Fatxadaren egoera nahikoa ona da, oraindik aspaldi ez dela egin zitzaion eraldaketa (1984ko proiektua) agerian badu ere. Eraldaketa horrek are nabarmenago egiten du lehen aipatu den beste fatxadarekiko desberdintasuna, Kapitain Etxearen fatxada garbi baitago, eta Kapitanenea kaleko 4.ekoa ez. Zurezko elementuek dute itxura txarrena: balkoietako eskubandek, teilatu hegaletako zakurburuek, eta gutxiago bada ere gainerako zuriari.



KAPITAIN ETXEA

Fatxada nagusia - mendebala

24. plano



F. López-Roldán · J. Ubarrechena


kapitanenea kalea




KAPITAIN ETXEA


Luzetarako epaia.

25. plano



F. López-Roldán · J. Ubarrechena





Goiko solairuko biltegia.

### 3.2. Atzeko aldea


Etxearen atzeko fatxadak, lehen ere esan den bezala, etxalde patio batera jotzen du. Zementuzko morteroz zarpiaturik eta zuriz margotuta dago. Bederatzi sargune ditu, ate bat beheko solairuan, patiorako irteera dena, bi leiho lehenengo solairuan, bi komun egurasteko, bi balkoi leiho bigarren solairuan eta beste hiru hirugarrenean. Azkeneko sargunea solairu marraren gainetik lehenengo solairutik bigarrenera hutsartea leiho bat da.

Kapitain Etxeak gaur egun duen sakontasuna, fatxada nagusia berdina duen bere ondoko etxearena baino hiru metro inguru handiagoa da. Bien parioak bana horma batek bereizten ditu, bi jabegoak horma horrek mugatzen dituela.

### 3.3. Estalkia

Bi estalki ditu eraikuntzak, maldak patiorantz eta kalerantz dituztela, biak arabiar teilaz osatuak, estalki bakoitza eraikuntzaren egitura banaturik dagoen bi zatietako banari dagokiola.





Teilatu hegalararen ikuspegi xehea.

Fatxadara jotzen duenak bi isuralde ditu; gailurra alde baterantzurik du, barreneko karga hormatik hurbil; horma honen altura fatxadaren erlaitza baino bi metro garaiagoa da; horregatik hain zuzen, barrenerako isurkia askoz laburragoa da ura kalerantz isurtzen duena baino. Azkeneko isurki honek badu luzernariotxo bat ere.

Atzeko aldera jotzen duen teilatu isuraldea askoz ere apalagoa da aurrean aipatua baino; isurki bakarra du, malda patiorantz etzana duela, eta luzernario laukizuzen bat, barreneko eskailerara argi egiten duena.

Bi estalki horien artean metro erdi inguruko altura desberdintasuna dago; horretan badira leihotxo batzuk goreneko estalkiaren azpiko barrunea egurasteko balio dutenak.

Eraikuntzaren teilatu hegalek teilatu hodiak dituzte, eta euritako ura behera ekartzeko bi hodi, bata fatxadaren ertz batean eta atzekoaren bestea, hark kale-rako teilatuko ura eta azkenak patiorakoa biltzen dutela.

Ez dirudi 1984ko birgaitze obrak egitean estalkia ezertarako ukitu denik, luzernarioa jartzeko ez bada. Horregatik hain zuzen, teilatu horren egoera ez da beharko litzatekeen bezain ona; bi isuraldetako estalkian badira itokinak eta heze-tasunak haren egoera txarrak ekarriak.

#### 4. BARRENEKO ITXURA

Eraikuntzaren berme egitura karga hormaz osatua da, soilairu mailetan hormazurak dituela.

Egitura horretatik, egitura bertikalari dagokion parteak du egoera onena, fatxadako, patioko, etxebitarteko eta barreneko banaketako harrizko hormek osatuak alegia. Horma horiek 50-70 cm inguru dira lodi; barreneko banaketa horma da guztietan lodiena. Barreneko horma horri beheko solairuan puntu Erdiko bi arkuk eusten diote, bien artean harroin sendo lodi bat dutela.

Lehen ere esan den bezala, Kapitain Etxeak aldaketa handiak izan ditu barrenean. Barrenean karga horma bat egoteak eratzten duen bereizkuntzak eraikuntza guztia egituraz eta eginkizunez elkarren desberdinak diren bi zonanatan banatzeko aukera eman du.

#### Kaletik hurbilenekoa

Jatorrizko egitura gorde den arren, egitura hori indartu eta sendotu egin da, goiko solairuei eman zaien erabilerak ekarri duen karga gehitzeari eutsi ahal izateko. Sendotzeko egitura hori era honetara da:

#### *Hormigoi armatuzko habeak solairu oinetarako*

Zurez bilduak daude egiturako gainerako gaien artean nabarmendu ez daitezkeen. Habe horiek barreneko karga hormatik eta fatxadako hormatik hurbil daude. Jatorrizko egitura sendotzeko habe berri horien gainean dago, hala habe horiek zurezko haben buruei karga kentzen baitiete eta haien berme puntuen artea laburtzen. Habe berri horien gainean bermatzen den jatorrizko habeteriatik habe batzuk aldatu egin dira, baina ez da horrenbestez jatorriz zuen eitea aldatu.

#### *IPE motako altzairuzko profilak estalkiaren egituraren indargarri gisa*

Profil hauek gailurrari buruz zutak dira, eta barreneko horman eta fatxadakoan hartzen dute bermea; horregatik hain zuzen ez dira horizontalak, hormak altura desberdinetakoak direnez. Profil horien gainean gai berbereko besangak bermatzen dira gailurraren zurezko habeari zuzenean eusten diotenak, haren pisua, metalezko habe inklinatu bidez karga hormetara eramaten dutela.

Zati honek hiru altura eta estalkipea ditu; estalkipe hau ere erabiltzen da; barreneko hormak eta Iparreko tarte hormak eratzten duten angeluan dagoen zuru-bi batetik igotzen da hartara. Solairuen erabilerak era honetara banatzen dira:


- **Beheko solairua:** Sarrera eta erakusketa gela.
- **Lehenengo solairua:** Kulturako bulegoa eta administrazioa.




KAPITAIN ETXEA

Beheko solairua

26. plano




F. López-Roldán · J. Ubarrechena




KAPITAIN ETXEA

Lehenengo solairua.

27. plano



F. López-Roldán · J. Ubarrechena



- **Bigarren solairua:** Artxiboa, biltegia.
- **Teilatupea:** Artxiboa, biltegia.

### Barreneko aldea

Alderdi honen guztiaren egitura berria da, hormigoi armatuzkoa. Hiru alde ditu, elkarrengandik ongi bereziak.

### Eskailera

Hauxe da elementu nagusia. Egin diren azkeneko aldakuntzen ondorioa da, eta batere zer ikusirik ez du jatorrizko tipologiarekin. Gaur egun eskailera horixe da eraikuntzaren erdigunea, eta horren inguruan dago antolatuta barreneko bana-keak guztia. Hormigoi zurizkoa da, bi sail zuzenez eta bihur batez osatua da, azken horren erdian pausagune bat duela. Pausagune hori aprobetxatuz bitan zatitzen da goitik behera isten duen hormigoizko horma, era horretara bertatik igoz doan solairuetara joateko aukera ematen duela, eta aldi berean alderdi honetako bigarren solairura igotzeko bidea ematen duela. Eskailera horren gainean luzernarioa dago, behetik gorako komunikazio alde honetara argi ematen duela, zeren gune honen oinplanorako proiektioak 4,75 x 5 m.tako eremua hartzen baitu, eskailera eremu horren erdian inskribatzen delarik.

### Soilairu oinak

Eskaileraren atzean eraikuntza guztia lau alturatan dago antolatua, beheko solairua eta beste hiru; horrela bada, ez da gorde jatorriz behe solairua eta beste bi solairurekin zuen egitura; oso argi erakusten du hori patiorako erdiko sarguneamantzina balkoi izana, lehenengo solairuaren eta bigarrenaren artean geratu izanak. Soilairu bakoitzaren sakontasuna 2,75 m.takoa baizik ez da. Zabalatasuna tarte homen artean geratzen den espazioa denez, beste aldean bezala, 19 m<sup>2</sup>-ko azalera erabilgarria geratzen da guztira soilairu bakoitzeko eraikuntzaren alde honetan. Alde honen erabilerak hauek dira:

- *Beheko solairua:* Zinegotzien bulegoa.
- *Lehenengo solairua:* Bi komun.
- *Bigarren solairua:* Kulturako bulegoa.
- *Teilatupea:* Zinegotzien bulegoa.

### Pasabideak

Eraikuntzaren alde batetik besterako lotura albo banatan, tarte hormaren eta eskailera dagoen gunearen artean dauden 1 m. zabal eta 4,75 m. luzeko bi zehar pasabideren bitartez dago egina. Eraikuntzaren alde bateko eta besteko alturen arteko desberdintasunaren ondorioz, bateko eta besteko soilairu oinak beheko





solairuan eta hirugarrenean (beste aldeko bigarrena) baizik ez daude elkarren parean. Hori dela eta, alde bateko eta besteko lehenengo solairuen arteko lotura bi maldaren bidez egiten da, fatxadarantz ahala goraka datozenak; %19ko malda dute. Eraikuntzaren alde honetako bigarren solairurako komunikazioa eskailerako geldigunetik baizik ezin daiteke egin, bi eskailera maila jaitsiz.

## 5. ONDORIOAK

Lehen ere esan den bezala, aipatzen ari garen eraikuntza hau oso aldatuta dago, bai barrutik bai kanpotik. Azkeneko egin zaion birgaitzeak, forma aldetik oso interesgarria den arren, barrena erabat hustutzea ekarri dio, eta tipologiaz aldatzea, jatorriz etxebizitzetarako zen eraikuntza erabilera publikorako moldatu

baitu. Eraikuntza publiko izateko muga handiak ditu, beheko solairuan salbu ez baitu irispiderik elbarrientzat, eta beste alde batetik, sarrerako atean haize-babesik ez duenez, sarrerako ate hori itxita eduki behar da beti, eta horrenbestez ez du askorik deitzen bertan egiten diren erakusketetara inoir sar dadin. Goiko solairuak dokumentuen artxibategi gisa erabiltzeko izendatzea ere aski gauza arazotsua da, horrelako kargarik edukitzeko pentsaturik ez dagoen egitura bati gisa horretako gainkarga eransten zaiolako; horrexegatik hain zuzen indartu beharra izan da, egiturari berez ez dituen elementuak erantsiz.

Eraikuntzaren kontserbazio egoera txarra ez den arren, goiko solairuetan badira itokinak eta hezetasunak, estalkitik eta tarte hormetatik datozenak; oker horiek berehala zuzendu beharko lirateke, egoera okerragora joan ez dadin.

Fatxadari dagokionez, egin zaizkion azkeneko eraberritzeetan ondo zaindu den arren, ohartarazi beharra dago lastima dela fatxada hori jatorriz izan zen fatxadaren zati batera mugaturik geratu izana. Jatorrizko fatxada hura berriro eskuratu beharko litzateke, ahal dela, Kapitain Etxearena eta Kapitanenea kaleko 4. zenbakiko etxearena bat eginez, etxe horiek batera birgaituz. Hori ezin izango balitz, bi fatxadak bat bakarria balira bezala tratatu beharko lirateke aurrerantzean.



#### IV. BIBLIOGRAFIA OROKORRA

- ALDABALDATRECU, Roque: *Casas solares de Guipúzcoa*, San Sebastián, 1979.
- AZPIAZU, Roberto: “Arquitectura civil doméstica en Guipúzcoa”, *Ibaiak eta haranak*, 2. liburukia, San Sebastián, 1990.
- AZPIAZU, Roberto: “Arquitectura civil doméstica en Guipúzcoa”, *Ibaiak eta haranak*, 4. liburukia, San Sebastián, 1990.
- CRESPO RICO, M.A.-CRUZ MUNDET, J.R.- GÓMEZ LAGO, J.M.: *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería, Tomo I*, San Sebastián, 1991. (Fuentes Documentales del País Vasco, 32).
- CHUECA GOITIA: *Historia de la arquitectura occidental. El Renacimiento en España*, Madrid, 1984.
- CHUECA GOITIA: “Arquitectura del siglo XVI”. *Ars Hispaniae*, Madrid, 1953.
- ESPARZA, Belén: *El palacio del Marqués de Huarte*, Pamplona, 1987.
- GAMÓN, Juan Ignacio de: *Noticias históricas de Rentería*, San Sebastián, 1930.
- GUILLÉN, Julio: *Matxin de la Rentería*, Madrid, 1927.
- KUBLER, George: *La obra de El Escorial*, Madrid, 1993.
- KUBLER, George: “La arquitectura de los siglos XVII y XVIII”. *Ars Hispaniae*, Madrid, 1957.
- LINAZASORO, J.I.: *Permanencias y arquitectura urbana*, Barcelona, 1979.
- MARÍAS, Fernando: *El largo siglo XVI*, Madrid, 1989.
- MARTÍNEZ GORRIARÁN, Carlos: *Casa, provincia, rey*, Irún, 1993.
- PEÑA, I.-LARRAÑAGA, J.A.- GANICACELAYA, J.: *Discurso sobre la comodidad de las casas, que procede de sus distribución exterior e interior. El palacio de Insausti*. San Sebastián, 1990.
- Zenbait autore.: *El palacio Corral-Ipeñarrieta*, San Sebastián, 1993.





# AURKIBIDE OROKORRA

## UDALETXEA

I. AZTERKETA HISTORIKOA .....	13
1. Udaletxea eraikitzearen alde z aurretiko garaia .....	14
2. Udaletxea XVII. eta XVIII. mendeetan .....	18
3. XIX. eta XX. mendeko eraldaketak .....	23
3.1. 1866aren eta 1907aren arteko eraldaketak .....	23
3.2. Zabaltze lanak (1925-1949) .....	26
3.3. Azken eraldaketak (1965-1988) .....	28
4. Eranskin dokumentala .....	30
5. Testuan aipaturiko dokumentuen zerrenda .....	32
II. ARTE AZTERKETA .....	41
1. Udaletxeak. Sarrera eta tipologia .....	41
2. Aramburu arkitektoaz .....	42
2.1. Biografia erreferentziak .....	42
2.2. Aramburu eta arkitektoaren zeregin errenazentista .....	44
3. Udaletxea. Elementuak eta arkitektura .....	47
3.1. Oinplantak eta altxaerak .....	47
3.2. Elementuak .....	48
4. Bibliografia .....	51
III. ARKITEKTURA AZTERKETA .....	53
1. Ingurunearen deskribapena eta kokaera .....	53
2. Lursailaren itxura eta ezaugarriak .....	53
3. Eraikinaren kanpo aldeko itxura .....	54
3.1. Fatxada nagusia .....	54
3.2. Alboko fatxada .....	57
3.3. Tarte horma eta etxartea .....	58
3.4. Estalkia .....	58
4. Barneko aldeko itxura .....	58
5. Ondorioak .....	60

IV. BIBLIOGRAFIA OROKORRA .....	63
<b>MADALENA ERMITA</b>	
I. AZTERKETA HISTORIKOA .....	69
1.- Sarrera .....	69
2.- Eraikuntzaren bilakaera historikoa .....	70
2.1.- Jatorriaren arazoa (XIV-XVI bitarteko mendeak) .....	70
2.2.- Madalena XVI. mendearen erditik aurrera: Zabalkuntzak eta hobekuntzak .....	73
2.3.- XVII-XIX mendeak .....	73
2.4.- XX. mendea. Azkeneko berrikuntzak .....	76
3.- Madalena eta San Lazaro Ospitaleko barne funtzionamendua .....	78
3.1.- Udalarekiko harremanak .....	78
3.2.- Serorak .....	80
3.3.- Elizainak .....	83
II. ARTE AZTERKETA .....	85
1.- Madalena ospitale .....	85
1.1.- Eraikuntza bakarra .....	87
1.2.- Ospitale herrigunea .....	88
2.- Madalena ermita .....	91
3.- Gai mugigarriak .....	93
3.1.- Sarrera ondoko erliebea .....	93
3.2.- Korua .....	93
3.3.- Koruko koadroa .....	94
3.4.- Irudiak .....	95
III. ARKITEKTURA AZTERKETA .....	97
1.- Inguruaren deskribapena eta kokaera .....	97
2.- Lursailaren forma eta ezaugarriak .....	97



3.- Eraikuntzaren kanpoko itxura .....	98
3.1.- Mendebaleko fatxada .....	98
3.2.- Iparraldeko fatxada .....	100
3.3.- Hegoaldeko fatxada .....	101
3.4.- Ekialdeko fatxada .....	103
3.5.- Estalkia .....	103
4.- Barneko itxura .....	103
5.- Ondorioak .....	105
IV. BIBLIOGRAFIA OROKORRA .....	107

## MORRONTXO DORREA

I. AZTERKETA HISTORIKOA .....	113
1.- Morrontxo Dorretxea: XVI. Mendetik Espainiako Independentzia Gerrara arte .....	113
1.1.- Lehenbiziko aipamenetatik (XVI. mendekoak) Olazabaldarren maiorazkoa sortu arte (XVII. mendearen azkenaldean) .....	113
1.2.- Maiorazkoaren sorrera (XVII. mendearen bukaera aldera) .....	114
1.3.- XVIII. mendeko arazoa: olazabaldarren eskutik aldunzindarren eskuetara nola .....	115
2.- Dorretxearen jabeak Espainiako Independentzia Gerratik gaur arte .....	117
3.- Dorretxeak zein jabe izan dituen: eskema .....	120
4.- Agiri gehigarriak .....	122
II. ARTE AZTERKETA .....	131
1.- Ingurunea .....	131
1.1.- Defentsarako dorreak .....	131
1.2.- Herriko ingurunea .....	135
2.- Eraikuntzaren historia: hipotesia .....	138

2.1.- Defentsako dorrea .....	138
2.2.- Dorretxea .....	139
2.3.- Noizkoa den .....	140
3.- Oina .....	140
4.- Hormak eta horiek egiteko erabili zen materiala .....	142
5.- ELEMENTUAK .....	143
5.1.- Almenak .....	143
5.2.- Irekiuneak eta flandiar estiloko leihoa .....	145
5.3. Komunari buruzko hipotesia .....	147
6. Ondorioa .....	148
III. ARKITEKTURA AZTERKETA .....	151
1.-Inguruaren deskribapena eta kokaera .....	151
2.-Lursailaren forma eta ezaugarriak .....	151
3.-Eraikuntzaren kanpoko itxura .....	152
3.1.- Estalkia .....	153
3.2.- Fatxaden deskribapena .....	154
3.2.1.-Fatxada nagusia (Iparrekialdekoa) .....	154
3.2.2.-Albo fatxada (Hegoekialdekoa) .....	158
3.2.3.- Atzeko fatxada (Hegomendebaldekoa) .....	160
3.2.4.- Tarte hormako fatxada (Iparrekialdekoa) .....	161
3.3.- Barneko itxura.....	162
4.-Ondorioak .....	166
IV. BIBLIOGRAFIA OROKORRA .....	167
<b>ZUBIAURRE JAUREGIA</b>	
I. AZTERKETA HISTORIKOA .....	173



1.- Oinetxearen jatorria .....	173
1.1.- Izen arazoak .....	173
1.2.- Pedro de Zubiaurre jenerala .....	174
2. Pedro de Zubiaurreren herentzia .....	176
3.- Zubiaurre jauregia XVIII. mendean .....	177
4.- Zubiaurre jauregia XIX. mendean .....	179
5.- Fatxadako armarría .....	181
6.- Ondorioak .....	182
Bibliografia .....	183
<b>II. ARTE AZTERKETA</b> .....	<b>185</b>
1.- Oina .....	185
1.1.- Orubea .....	185
1.2. Jauregi multzokatu .....	186
2.- Altxaerak .....	189
2.1.- Iparraldeko altxaera .....	189
2.2.- Mendebaleko altxaera .....	190
2.3.- Ekialdeko altxaera .....	190
2.4.- Hegoaldeko altxaera .....	191
3.- Elementuak .....	194
3.1.- Erlaitzak .....	195
3.2. Modiloiak .....	196
3.3. Taulamenduak .....	196
3.4. Armarría .....	198
3.5. Ekialdeko fatxada .....	198
Bibliografia .....	199
<b>III. ARKITEKTURA AZTERKETA</b> .....	<b>201</b>
1.- Inguruaren eta kokaeraren deskribapena .....	201
2.- Orubearen forma eta lursailaren ezaugarriak .....	202

3.- Eraikinaren kanpoko itxura .....	202
3.1.- Estalkia .....	202
3.2.- Fatxadaren deskribapena .....	203
3.2.1.- Hegoaldeko fatxada .....	203
3.2.2.- Iparraldeko fatxada .....	205
3.2.3.- Mendebaleko albo-fatxada .....	207
3.2.4.- Ekialdeko albo-fatxada .....	209
4.- Etxearen barneko aldea .....	210
4.1.- Beheko solairua .....	210
4.2.- Lehenengo eta bigarrenko solairuak .....	210
5.- Ondorioak .....	213
BIBLIOGRAFIA OROKORRA .....	214
<b>KAPITAIN ETXEA</b>	
I. AZTERKETA HISTORIKOA .....	219
1.- Kapitain etxearen jatorria .....	219
1.1.- Matxin de la Renteríaren nortasuna .....	220
2.- Kapitain Etxea: XVII. mendetik gaur arte .....	221
II. ARTE AZTERKETA .....	225
1.- Herrera ondoko jauregiak .....	225
2.- Kapitain etxea .....	229
2.1. Kronologia .....	229
2.2. Etxaurrea. Osakera. ....	230
2.3. Eraikuntzaren tipologia eta erabilerak. ....	232
3. Ondorioak. ....	235
4.-Bibliografia. ....	236
III. ARKITEKTURA AZTERKETA .....	237



---

1. Ingurunearen deskribapena eta kokaera .....	237
2. Orubearen forma eta ezaugarriak .....	237
3. Eraikuntzaren kanpo aldeko itxura .....	238
3.1. Fatxada .....	238
3.2. Atzeko aldea .....	240
3.3. Estalkia .....	240
4. Barreneko itxura .....	242
Kaletik hurbilenekoa .....	242
Barreneko aldea. ....	244
5. Ondorioak .....	245
IV. BIBLIOGRAFIA OROKORRA .....	247

Ayuntamiento de Rentería  
Departamento de Obras y  
Planeamiento Urbanístico



Errenteriako Udala  
Obra eta Hirigintz  
Planeamenduko Batzordea